

Bizimodu  
Jasangarrién  
aldeko

HERRI  
AUZITEGIA

## Koordinatzaileak:



**MUGARIK GABE**  
Organización No Gubernamental de Cooperación  
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible  
Web : [www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)



**TIPI-TAPA  
BAGOAZ!**

Tribunal Popular  
por el derecho  
a las vidas SOSTenibles

## Auzitegiaren prestaketan bidelagun izan diren erakundeak:

Bizilur, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Setem Hego Haizea, Grupo Feminismos Desazkundera, ESK sindikatua, Mugarik Gabeko Ekonomilariak, Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundera, Saretuz (Donostiako Kontsumo Arduratsu, Kontziente eta Eraldatzailea sarea), Zentzuz Kontsumitu (Vitoria-Gasteizko kontsumo kontziente eta arduratsuko sarea), Alianza Política Sector de Mujeres (Guatemala), Xochilt Acalt emakume zentroa (Nikaragua), Ekologistak Martxan, Bidez Bide, Axayacalt (Nicaragua) eta Brujas y Diversas.

## Babesleak:



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



**Donostiako Udala**  
**Ayuntamiento de San Sebastián**

**Ilustrazioak:** Higinia Garay

**Diseinu eta maketazioa:** Alejo Moreno Sainz

**Itzulpena:** Aiaraldea

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

Eskerrak eman nahi dizkiegu herri-azitegi honen eraikuntza kolektiboan parte hartu duten pertsona eta elkarte guztiei.

2018ko iraila



**Aitortu - Ez Komertziala - Lan Eratorririk Gabe 4.0 Nazioartekoa**  
**(CC BY-NC-ND 4.0)**

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osoa:** <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

# AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	5
<b>Eskerrak</b> .....	10
<b>Zaintzarako eskubidea. Zaintza-sistema justu, parekide eta erantzunkideak</b> .....	11
• Fiskalaren txostena: María Victoria Fernández Molina .....	12
• Laburpen fitxa: Pili Gil Pascual-en kasua <i>Brujas y Diversas</i> elkarateak dokumentatua .....	25
• Laburpen fitxa: Floriberta Roblero-ren kasua <i>Centro de Derechos Humanos Fray Matías de Córdova</i> elkarateak dokumentatua .....	27
• Adituaren Txostena: Amaia Pérez Orozco .....	29
<b>Energiarako sarbide justu eta jasangarrirako, eta energia-burujabetzarako eskubidea</b> .....	81
• Fiskalaren txostena: Ana María Palacios .....	82
• Laburpen fitxa: Hafed Bachir-en kasua <i>West Sahara Resources Watch</i> elkarateak dokumentatua .....	101
• Laburpen fitxa: Rosa Felgar eta Santiago Rubio-ren kasua Hipotekak kaltetutakoen plataformak (PAH) dokumentatua .....	103
• Adituaren Txostena: Mònica Guiteras .....	105
<b>Lurralderako eta elikadura-burujabetzarako eskubidea</b> .....	149
• Fiskalaren txostena: María Victoria Fernández Molina .....	150
• Laburpen fitxa: Valentín Jáuregui eta Aitor Solozábalen kasua Bizilurrek dokumentatua .....	164
• Laburpen fitxa: Iacu Cachi komunitateko Fabián Ernesto Orellana-ren kasua <i>Movimiento Nacional Campesino Indígena</i> elkarateak dokumentatua .....	166
• Adituaren Txostena: Esti Redondo .....	169
<b>Bizi-maila duin baterako eskubidea</b> .....	211
• Fiskalaren txostena: Ana María Palacios .....	212
• Laburpen fitxa: “Nerea” kasua Argilanek dokumentatua .....	230
• Laburpen fitxa: Rosa María Marroquín kasua <i>Mujeres Transformando</i> elkarateak dokumentatua .....	232
• Adituaren Txostena: Tica Moreno .....	234
<b>Herri-Auzitegiko Epaimahaiaren Ebazpena</b> .....	263
<b>Auzitegia osatzen duten parte-hartzaileak</b> .....	276
<b>Argazki bilduma</b> .....	284



## SARRERA

Bi urte baino gehiago eman genituen desazkunde eta bizitze onaren sarea osatzen dugun kolektibook helburu batekin lan egiten: nabarmentzea adibide paradigmaticoen bitartez eskubideen urraketa eta lurraldeen, gorputzen, natura baliabideen eta bizi baldintzen defentsan aritzen diren giza protesten kriminalizazioa.

Horretarako, oinarritzat hartu genituen desazkundearen paradigmak ikuspuntu feministatik. **Talde anitzetatik etorritako erakundeak gara;** mugimendu sozialak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, sareak edo sindikatuak, eta premia moduan ulertzen dugu egungo garapen ereduari alternatibak bilatzea. Erabaki genuen jarrapena ematea aspaldi sortzen genuen hausnarketari, urteroko desazkunde eta bizitze onaren topaketekin (2011n, 2012an, 2013an, 2014an eta 2016an eginda-koak<sup>1</sup>), baita **gure iritziarekin** (2016): *Euskal Herritik kolektibotasunean eraikiz: Bizi estilo jasangarrietan oinarritutako gizarte justu eta bidezko baten eraikuntzarako analisi eta aldarrikapenak*. Hausnarketa eta eraikuntza kolektiboko prozesua da, zeinean erakundeei bideratutako proposamenak eta aldarrikapenak jaso ditugun. Norbanako zein taldeko alternatibak dira lau ardatz nagusiren inguruan:

- Ekonomia pertsonen mesedera
- Desazkunde energetikoa
- Elikadura burujabetza
- Pertsonen zaintza bizitzaren jasangarritasunerako

Uste dugu bizitza erdigunean jartzen duen eredura jausi egiteko, ezinbesteko zenbait aldagai aintzat hartu behar ditugula: bat da planetaren muga fisikoak gainditu ditugula. **Desazkundera** behartzen gaitu horrek ekonomiaren esparru materiallean. Beste faktore garrantzitsua da **elkarren menpekotasuna**, horrek suposatzen du onartzea erabat menpekoak garela zaintzekiko eta beste batzuek ematen diguten denborarekiko; jaiotzen garenetik hil arte.

Hori bistakoa badirudi ere, kapitalismoa garatu da bizkarra emanda oinarritzko dependentzia horri eta hurrengo errealitateari: bizirik dagoen espezie garen heinean, naturatik eskuratzen dugu behar duguna irauteko, hau da, **ekodependenteak** gara.

Hurrengo zutabea trantsizioa lortzeko **aberastasunaren banaketa** da, bitarteko mugatuak dituen planeta batean. Azkenik, premiazko faktorea da neurriak urgentziaz hartzeko beharra. Ikusten ari gara natura baliabideen agortzea, ekosistemen degradazioa eta munduko ingurumen sistemaren aldaketa. Horren adierazle kez-

<sup>1</sup> Deskargatu daiteke hemen: <https://www.decrecimientoybienvivir.info>

kagarriena da klima aldaketa, eta horrek **larrialdi ekologikoko** egoeran kokatzen gaitu, zeinak berehalako neurriak behar dituen.

Horregatik, 2016an abiatu genuen **“TIPI-TAPA bagoaz! Hacia vidas SOSTenibles”**, aipatutako proposamen eta aldarrikapenak gizarteratzeko eta eztabaida sortzeko. Kanpaina horretan hainbat ekintza gauzatu ditugu eragiteko landutako aldarrikapenetan; manifestua adostu da, 62 kolektibo batu dira eta bilerak egin dira euskal erakundeekin. Gainera, edukiak gizarteratzeko egin dira kale ekintzak, elkarrizketarako espazioak udalerrri askotan, zabalpena sare sozialetan, agerpena hedabidetan, pedagogia materialen lanketa (komikia, dokumentala, clown bideoak, eta abar.).

Iruditu zitzaigun beharrezkoa zela oihartzun gehiago izatea eta egokitzen joa genuen herri boterea sustatzea, ahotsa emanda landutako ardatzetan eskubideren bat urratuta izan dutenei, bere egoera plazaratzeko eta, bide batez, baita eskubideak urratuak izan dituzten beste hainbat pertsoneri ere. Kasu askok ibilbide luzea eta nekagarria izan zuten. Guk lagundu nahi genuen pertsona horien aitorten eta erreparazioan, gertatutakoa entzun eta baloratu zuen epaimahai herrikoien bitartez.

Ulertu genuen ekintza hau herritarrak ahalduntzeko tresna bezala, aitortu dadin subjektu politiko aktibo bezala gizarte eraldaketan. Pentsatzen dugu partaide-tza, antolakuntza, eta laguntza espazio horietarako oso garrantzitsua dela, gure eguneroko bizitza iraultzailea dela ulertzea bezain beste. Bidezko mundu jasangarriagorako trantsizioa soilik da posible elkarlanean egiten badugu; diskurtsoak, borrokak eta mugimenduak egituratuta.

Bultzada horretatik, prozesu horretan sortu zen **Bizitza Jasangarrien Eskubidearen Aldeko Herri-Auzitegia**, eta Bilbon ospatu zen 2018ko otsailaren 23an eta 24an. Enpresa eta estatuak eginiko eskubideen urraketa kasuak salatu ziren, tokian toki zein munduan jazotakoak, sarean landutako lau ardatzak jarraiki.

Eraikuntza kolektiboko prozesuan 8 kasu identifikatu eta beste askoren erduztat joa genituen mundu osoan: horietako batzuk, gainera, Estatu espainiarreko transnazionalen protagonismo zuzenarekin gertatu dira. Kasu adierazgarriak dira transnazionalen eta tokiko oligarkia guztien jokoerari dagozkienak Latinoamerikako osoan, Estatu espainiarrean eta Mendebaldeko Saharan. Tamalez, ez dira kasu isolatuak, nagusi den sistema neoliberalaren etengabeko jardueraren baizik.

Hurrengo eskubideen urraketak salatu ziren:

- **Zaintzarako eskubidea. Zaintza-sistema justu, parekide eta erantzunkideak**
- **Lurraldeko eta elikadura-burujabetzarako eskubidea**
- **Energiarako sarbide justu eta jasangarrirako, eta energia-burujabetzarako eskubidea**
- **Bizi-maila duin baterako eskubidea**

Egun horietan agerikoa izan zen nola estatu askok sistema kapitalista neoliberal eta heteropatriarkalaren barruan etengabe baztertzen dituzten euren betebeharrak, herritarren bizi baldintzen babesari eta hobekuntzari dagokienez. Bereziki, herri indigenen eskubideak kriminalizatzen eta jazartzen dira, lurren, lurralde eta elikadura burujabetzaren alde borrokatzen duten nekazariak, emakume eta izaera anitzak -euren eskubideak murrizten dira bizitzako esparru guztietan- eta naturaren eta eurek habitatzen dituzten lurraldeen gaineko eskubideen defentsan aritzen direnak.

Herri Epaitegiak irauin zuen bi egunetan entzun genuen zuzenean nola bizitza sortzen, kontserbatzen eta bermatzen dutenek ikusten dituzten euren eskubideak urratuta. Gure ustez, hau estrategia da transnazionalen eta tokiko oligarkien, klase eta elite horien interes politiko eta ekonomikoak babesteko. Hori dela eta, aldarrikatzen dugu beharrezkoa dela nazioarteko zuzenbidearen barruan estatuek errespetatzea, babestea eta bermatzea eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak, eta ingurumenekoak eta bizi baldintza duinak.

Bukaerako ebazpenak jasotzen duen moduan<sup>2</sup>:

*Epaitegi honek egiaztatu ditu urraketak elikadura burujabetzaren eta lurraldearen eskubidean, babes sozialaren eskubidean, etxebizitza egokian, lan duinean, tratu parekidean eta bazterketarik gabeko eskubidean, osasunean, energia eta burujabetasun energetikoan, zaintzarako eskubidean eta zaintzaileen eskubideetan, gehienbat emakumezkoetan, eta, oro har, bizitza duinaren aldeko eskubidean.*

Espero dugu Herri-Auzitegiak eta material honek balio izatea:

- Etengabeko **eskubideen urraketen salaketarako** tresna gisa.
- Beharrezkoa den **elkartasun adierazpen** moduan beste herriek, emakumeek, gizonezkoek eta bestelako izaerek, nekazariak, mugimendu feministek, auzo erakundeek, sindikatuek eta hainbat sektore sozialek egiten dituzten erresistentzia eta protesta prozesuei dagokienez, Euskal Herrian, Abya yala eta munduko zenbait tokitan lurraldearen eta bizitzaren defentsan.

---

2 Hurrengo blogean deskarga daiteke ebazpen osoa: [www.tipitapabagoaz.info](http://www.tipitapabagoaz.info)

- **Oroimen** bezala, Ricardo Fallak “Masacres de la selva”<sup>3</sup> liburuan esaten digun moduan, zentzu positiboan, ospatzeko biziraun zutenak horrelako gertakari bortitzei. Eta Florik, lekuko batek, esaten zuen bezala: “errepikatu ez dadin, pertsona gehiago egon ez ditzaten horrelako egoerak bizitzen”.
- **Erreparazio eta artatze sinboliko** bezala giza eskubideen urraketa horiek eta beste asko bizi izan dutenentzat. Guk bai sinisten zaituztegu.

**Mugarik Gabe  
Desazkunde eta Bizitze Onaren sarea**

---

3 Falla, Ricardo.- “Masacres de la selva”. Ixcán, Guatemala (1975-1982). Ed. Universitaria. Guatemala, 1992.



# ESKERRIK ASKO



## ESKERRAK

Bi urte baino gehiago eman ditugu lanean salatzeko eta plazaratzeko mundu osoan dagoen zigorgabetasuna Bizitza Jasangarrien eskubideen urraketeki dagokienez.

Lanean jartzerakoan kontziente izan gara nola urratzen diren sistematikoki bizitza -osotasunean, gaur eta bihar- sortzen, kontserbatzen eta bermatzen dituzten lagunen eskubideak. Tamalez, kasu horiek ez dira isolatuak, etengabeak dira nagusitu den sistema patriarkal eta neoliberalaren barruan. Hala ere, aurpegi, esku eta energia jator ugari topatu ditugu, eta zaindu, erraztu eta lagundu gaituzte bidean, eta eskerrak emateko zerrenda luzea ekarri digute.

Biziki eskertu nahi diegu Auzitegia osatu duten pertsona eta kolektibo orori, zuen partaidetza gabe, ezinezkoa izango litzake eta.

Talde motorrean hasieratik egon zaretenei

Zuen ustez entzun beharrekoak ziren kasuak aurkeztearen aldeko apustua egin duzueni

Prozesuan lagundu gaituzuen aliatuei

Lan mardul honetara batu zineten aditu eta fiskalei

Epaimahai herrikoari, zalantzarik ez baitzenuten izan ekimena babesteko

Ohorezko lekukoei euren eskubideen defentsan eginiko eguneroko borrokagatik

Borondatez antolakuntzan lagundu zenutenei

Bereziki eskertu nahi diegu lekukoa eman zuten zortzi lagunei, kemena eta adorea izategatik hainbaten bozeramaile izateko eta aurpegia eta ahotsa jartzeagatik bizitakoari...

Zuei guztiei, mila esker!

Baina hau ez da hemen bukatzen. Jarraituko dugu bidea egiten, alternatibak proposatzen esku-bideak, lurraldea, zaintza eta bizitza duina pertsona ororentzat defendatuko dituen sistema bat lortzeko.

Espero dugu aurrera egitea zuekin guztiekin.

Elkar topatuko gara borroketan, manifestazioetan, kaleetan eta baratzetan.

Eskerrik asko!!

**Mugarik Gabe**



Zaintzarako  
eskubidea

ZAINZA-SISTEMA JUSTU,  
PAREKIDE ETA  
ERANTZUNKIDEAK

## FISKALAREN AKUSAZIO TXOSTENA

Zaintzarako eskubidea. Zaintza-sistema justu, parekide eta erantzunkideak

FISKALTZA: María Victoria Fernández Molina



María Victoria Fernández Fiskalaren akusazio-txostena aurkezten Zaintzarako Eskubidearen ardatzan.

### 1. SARRERA

Estatuek bete egin behar dituzte haien ordezkariak berek izenpeturiko tratatuetatik datozen nazioarteko betebeharrak, halakoak herrialde bakoitzaren barne-arauetara egokiturik egon zein ez, hori guztia baimen librearen, onustearen nahiz *pacta sunt servanda* printzipioetan oinarriturik. Tratu horiek giza eskubideen babesari buruzkoak direnean, are gehiago indartzen da betetzeko beharra, eta aginduzkoa ere bada nazioarteko komunitateak berebiziko garrantzia ematen dien eskubide batzuetarako. Beharrezkoa da, halaber, Tratatu Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioko (1969) 27. artikulua aipatzea, non berariaz debekatzen baita Estatu batek bere barne-zuzenbideko xedapenak baliatzea, Estatu horrek berak berretsitako tratatu baten ondoriozko arauak ez betetzea justifikatzeko.

Planteamendu hori abiapuntu, akusazio-idazki honetan zehar puntuaz puntu xehakatzen dira tartean diren Estatuak eginiko urraketak giza eskubideak babes-teko nazioarteko arauen arloan, estatu horiek nazioarteko erantzukizun juridikoa egoztea justifikatzeko oinarritzat.

Akusazio-idazkia lau ataletan egituratuta dago. Lehen atalean, bi kasuetako egitate nagusiak laburbiltzen dira, eta halakoak gertatzen diren testuingurua orokorrean azaltzen da. Bigarren atalean, kasu bakoitzari aplikatzeko zaion zuzenbide-esparrua deskribatzen da. Hirugarren atalean, kasuen azterketa juridiko bat egiten da, feminismoaren eta giza eskubideen ikuspegitik. Azkenik, laugarren atalean *Herri Auzitegiari* eskatzen zaio lehen identifikatutako egileen erantzukizuna ezar dezala, eta dagozkion banakako zein taldekako ordainak zehatz ditzala.

## 2. EPAITUTAKO EGITATEAK

### 1. kasua - Iparraldeko zaintzak (Euskal Herria)

Pilar Gil andreak bai Eusko Jaurlaritza bai Espainiako Estatuak salatzen ditu, erakunde horiek printzipio demokratikoen gainean eraikiak izan arren, familiaren sostengu materialaren pisua, zuzenean edo zeharka, emakumearen figuraren gainean erortzen uzten jarraitzen dutelako, emakume izate hutsagatik. Generoaren arabera definituriko rolen banaketak justifikatu egiten du zenbait lan egotea, hala nola etxeko langileena, giza lan-eskubideek ezarritako gutxieneko bermeak ez dituztenak. Halaber, akusazioa hainbat gizarte-sektoreen aurkakoa ere bada, xantaia emozionalaren eta errudun-ustearen bidez, emakumeak etxeko lanei eta zaintzari loturiko eginkizunak beren gain hartzera behartzen dituztelako eta afektu-sistemaz ere baliatzen direlako, ahalegin handiagoa eskatzeko, soldata duinik gabe.

Pilar Gil Pascual andrea Roa de Duero herrikoa da jatorriz, eta 16 urte zituela Bilbora aldatu zen, etxeko langile lan egitera, gerraostean Espainian zeuden pobretzea eta gabeziak zirela eta. Aurreratu denez, Gil andrearen salaketak bi alderdi ditu: lehena, alderdi profesionala, non azaltzen baitira haren giza lan-eskubideen –eta, beraz, haren duintasunaren– aurkako urraketa guztiak; bigarrena, alderdi pertsonal-afektibo-familiartekoa, non zaintzaren estereotipoak jasan behar izan baitzituen, eta halakoei aurre egin.

1. Kasu pertsonal-afektibo-familiartekoan, aita-amaginarrebak zaintzeko betebeharrak “moralak”, nahiz eta berak hori ez egiteko nahia agertu zuen, berak aukeratzen baitu nor zaindu. Bereizkeriazko bi arrazoiengatik (emakumea izatea eta etxe-zerbitzuan lan egitea –ez da benetako lantzat jotzen–) esleitzen zitzaion lan horri uko egitean, zigorra izan zen arbuio afektibo eta soziala, errudun-ustearen bidezko kontrolaz gain.
2. Lan-arloan, Pilar Gil Pascual andreak ia bere bizitza osoan etxeko langile jardun du, eta han aztertu beharreko egitateak hauek dira:

- Hartutako tratu umiliagarriak, hala nola irainak, oihuak...
- Gaizki ordaindutako lana, atsedenaldirik gabe (batez ere etxeko barne langile lan egitean).
- Elikagaiak berariaz murriztea. Nahikoa janaria egonik ere, etxe-zerbitzuko langileek elikagaiak eskuratzea debekatzen zen, eta, ondorioz, haien nutrizio-maila eskasa zen.
- Miaketak eta legearen aurkako atxiloketak etxeetatik irteteen, eta errugabetasun-presuntzioa urratzea.
- Pertsonari bere izenaz ez deitzea, izen generiko gutxiesgarri bat erabiliz baizik: “neska”.
- Bazterkeria, etxeko langile lan egiteagatik eta, gabezia eta pobrezia egoera orokorraren ondorioz, mendetasun ekonomikoa izateagatik.
- Esku-sartze larriak pertsonaren intimitatearen arlo pribatuetan, hala nola janzkeran.
- Barneko etxeko langileen kasuan, lan egiten duzun etxeko logela ordaintzera behartzea, nahiz eta gela horretan intimitaterik ezin izan: ezin duzu atea giltzaz itxi; zure objektu pertsonalak manipulatu dituzte.
- Beste urraketa batzuk: esplotazioa eta sexu-erasoak.

## 2. kasua - Hegoaldeko zaintzak (Tapachula, Mexiko)

Flori andrearen kasua guatemalar emakumeak umetatik Mexikora sasoiko lanetara bidaltzen diren kasu askoren artekoa da; hala, lan-esplotazioko sistema binazional bateko (Mexiko-Guatemala) biktima bilakatzen dira, eta emakumeek, sistema horren barruan, zaintza-sistema patriarkalaren pisua eta baldintzapenak jasaten dituzte, bi herrialdeetan hura izanik nagusitutako sistema.

Flori andrea San José Ojetenam (Guatemala) herrian jaio zen, eta adingabea zela hasi zen jornalero lan egiten Tapachula-ko (Mexiko) kafe-lursailetan. Haren ama ere mugitu zen nerabezaroan, etxeko lanak egiteko, eta han denetariko gehiegi-keriak pairatu zituen (baita sexu-abusuak ere), herrira itzuli zen arte, Armando jaunarekin ezkontzeko (mugaz gaindiko langilea bera ere) eta bizitza berri bati ekiteko familiaren etxaldean. Flori andrearen ahizpek ere hainbat lan egin zituzten Tapachula-n: etxe-zerbitzuan eta arropa-salmentan, besteak beste. Dena dela, Flori andrea da Tapachula-n denbora luzeenean lan egin duen familiako kidea, 14 urte zituenetik diru-sarrerak ekarrita familiaren ekonomiara.

24 urte zituela, Flori andrea haurdun geratu, eta umearen aitak abandonatu egin zuen. Hain badaezpadako egoeran egonik, haurdun zegoela ezkutatu behar izan zuen, nabarmen bihurtu zen arte, eta horregatik, hain zuzen, kaleratu zuen bere enplegatzaileak. Hori dela eta, herrira itzuli, eta han umea izan eta zaindu zuen

berak bakarrik bi urtez. Denbora hori igarotakoan, semea amonarekin uztera beharturik gertatu zen, Tapachula-ra lanera joateko eta familiaren ekonomian laguntzen jarraitzeko. Ekarpen horiei esker, hobekuntzak egin ziren familiaren etxean (argindarra, tutueria bidezko ura...), eta neba eta bi ahizpa txikiago batzuek ikasi ahal izan zuten.

Egoera hori zela eta, Flori andreak seme Emanuelen haziera galdu zuen, herrira joan zitekeenetan bakarrik ikusten zuelako; baina hori bakarrik hiru hilean behin gertatzen zen, edo are sei hilean behin. Hala, semearen maitasunaz gabetua geratu zen, eta aukera galdu zuen hura zaindu eta hezteko nahiz haren aurrerapenen lekuko izateko.

Lanean zituen esplotazio-baldintzek bultzaturik (ez zuen ez oporrik ez jaiegunik, eta goizeko seietatik gaueko hamabietara bitarteko lanaldia zuen) bera bezalako etxeko langile migratzaileak ziren emakumeen aldeko zenbait antolakundetan parte hartu zuen. Ezagutza horiek esker, bere egoera erregularizatu ahal izan zuen, eta irteteko zein sartzeko bidaietan izaten ziren arriskuak murriztu, bai eta atxilotzeko arriskua ere.

2016. urtean bularreko kisteak zituela diagnostikatu zioten. Tapachula-n ez zeukanez –tratamendua hartzean zein hartu ondoren– egoteko eta atsedean hartzeko toki duin bat, herrira itzultzea erabaki zuen, eta bere susperraldia hastea, ahizpek ikasketak bukatu eta gero (horrek aditzera ematen du ez zuela doako osasun-zerbitzurik).

Flori andrearen lekukotasunean zehar, giza eskubide hauek urratu zaizkiola ondoriozta daiteke:

- Lan-eskubideak: kontratu bat izateko eta gizarte-segurantzian inskribaturik egoteko eskubidea; zortzi orduko lanaldia; gabonsaria; amatasun-baimen ordaindua (erdi aurreko bi hilabete eta ondorengo hiru hilabete).
- Tratu duina jasotzeko eta gehiegikeria-kasuetan justizia erabiltzeko eskubidea.
- Osasun-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea.
- Hezkuntza publikoa, doakoa eta kalitateduna izateko eskubidea.
- Etxebizitza duina izateko eskubidea.
- Segurtasuna eta askatasuna izateko eskubidea. Estatu batek, Mexikok kasu honetan, mugaz haraindiko langileak behar baditu eta horren onura jasotzen badu, langileok segurtasuna izan behar dute, eta lurraldera sartu zein lurraldetik irteteko askatasuna. Horrekin, pertsonen trafikorako merkatu beltza desagerrarazi behar da.
- Familia bat askatasunez eratzeko eskubidea.

- Justizia erabiltzeko eskubidea. Emanuelen aita behartu behar izan zuten semearen jaiotzaren eta mantenuaren ondoriozko karga ekonomikoetan, gutxienez, laguntzera.

### 3. URRATUTAKO ARAUAK<sup>4</sup>

#### BABES-SISTEMA UNIBERTSALA

##### A. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. 1948ko abenduaren 10a

Zehazki, artikuluko hauek:

3. art. Bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea; 4. art. Inor besteren esklabo edo mirabe jartzeko eta esklaboak ezein modutan salerosteko debekua; 5. art. Torturaren eta zigor edo tratu txar, anker edo lotsarazleen debekua; 7. art. Legearen aurreko berdintasuna eta legezko babes izateko eskubidea; 8. art. Konstituzioak edo legeek pertsonen aitortutako oinarriko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegietan errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubidea; 12. art. Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatua, familia, etxean edo postan esku sartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du esku-sartze edo eraso horien aurka legezko babes izateko eskubidea; 16. art. Familia bat noiz eratu aukeratzeko eskubidea; 22. Gizarte-segurantza izateko eskubidea; 23. Lana izateko, lana aukeratzeko, lan-baldintza bidezkoak eta egokiak izateko, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzeko eskubidea; 24. art. Pertsona orori dagozkio atsedenerako, aisiarako, lanaldiaren iraupen mugatua izateko eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izateko eskubideak; 25. art. Pertsona orok du bizi-maila egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongizatea bermatuko dizkiena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak, eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguru izateko eskubidea ere; 26. art. Hezkuntza-eskubidea.

##### B. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna. 1966ko abenduaren 16a.

Zehazki, artikuluko hauek:

<sup>4</sup> Jaso diren artikuluek ez dute eratzten zerranda zehatz-oso bat, helburua baita Estatuek bete behar dituzten eta kasu paradigmakoetan urratu dituzten eskubideen kopuru handia agerian jartzea bakarrik. Hala ere, nabarmendu behar da hor ez daudela agertu beharko luketen eskubide guztiak, urratu diren eskubideen aniztasun handia eta babes-sistemen luze-zabala direla eta.



7. artikulua. Inork ez du torturarik pairatuko, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgaririk ere; 8. art. Inork ez du ez esklabotzarik ez mirabetzarik pairatuko.

### **C. Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna. 1966ko abenduaren 16a**

Zehazki, artikulua hauek:

6. artikulua. Lan egiteko eskubidea; 7. art. Lan-baldintza ekitatiboak eta egokiak izateko eskubidea; 9. art. Pertsona orenen eskubidea gizarte-segurantza izateko, aseguru soziala barne; 10. art. Familiari, gizarteko elementu natural eta oinarrizkoa berau, ahalik eta babes zein laguntzarik handiena eman behar zaio, bereziki bere eraketarako, eta seme-alaben zaintza eta heziketaren ardura daukan bitartean; 11. art. Pertsona orenen eskubidea beretzat eta bere familiarentzat egoki den bizi-maila izateko, baita elikadura, jantzi eta bizileku egokiak izateko eta bizi baldintzak etengabe hobetzeko ere; 12. art. Pertsona orenen eskubidea osasun fisiko eta mentalaren ahal den mailarik onena izateko; 13. art. Pertsona orenen hezkuntza-eskubidea.

### **D. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak onartutako ohar orokorrak**

12. Elikadura egokia izateko eskubidea (11. artikulua).

13. Hezkuntza-eskubidea (13. artikulua).

14. Ahal den osasun-mailarik onena izateko eskubidea (12. artikulua).

18. Lana izateko eskubidea (6. artikulua).

19. Gizarte-segurantza izateko eskubidea (9. artikulua).

20. Bereizkeriarik eza eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak (Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko 2. artikuluko 2. paragrafoa)

### **E. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 189. Konbentzioa, etxeko langileei buruzkoa, 2011; eta 201. gomendioa, etxeko langileentzako lan duinari buruzkoa**

Estatu orok neurriak hartu beharko ditu etxeko langileak benetan babestuta egon daitezen edonolako gehiegikeria, jazarpen eta indarkeriaren kontra. Era berean, neurriak hartu beharko ditu etxeko langileek –gainerako langileek bezala, oro

har- enplegu-baldintza ekitatiboak eta lan-baldintza duinak izan ditzaten, bai eta, lan egiten duten lekuan bizi badira, haien pribatutasuna errespetatzen duten bizi-baldintza batzuk ere.

#### **F. Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW)**

3. artikulua. Estatu alderdiek esparru guztietan eta, bereziki, politika-, gizarte-, ekonomia- eta kultura-esparruetan, neurri egoki guztiak hartuko dituzte, baita legegintzazkoak ere, emakumearen erabateko garapena eta aurrerapena ziurtatzeko; horren xedea izango da emakumeak giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak egikaritzea eta izatea, gizonak egin ohi duen baldintza berberetan; 11. art. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzeko, xede izanik enpleguaren esparruan eskubide berberak ziurtatzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-baldintzetan; 13. art. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzeko, ekonomia- eta gizarte-bizitzako beste esparru batzuetan, xede izanik eskubide berberak ziurtatzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-baldintzetan; 14. art. Estatu alderdiek kontuan hartuko dute, nekazaritza-arloko emakumeek zein arazo bereziri egin behar dieten aurre, eta emakume horiek zein garrantzi duten haien familiaren ekonomia-biziraupenerako, ekonomiaren diru-sektoreetatik kanpo gauzatutako lana ere aintzat hartuta; halaber, estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, nekazaritza-eremuetako emakumei konbentzio honetako xedapenen aplikazioa ziurtatzeko.

#### **G. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989ko azaroa**

Zehazki, artikulua hauek:

27. artikulua. Haur guztien eskubidea fisikoki, mentalki, espiritualki, moralki eta gizartearen garatzeko modua emango dien bizi-maila egokia izateko; 32. art. Neska-mutilek eta nerabeek ekonomikoki esplota ez ditzaten eskubidea dute. Lanean ari badira, haien hezkuntzarako arriskugarriak edo trabagarriak edo haien osasunerako edo garapen fisiko, mental, espiritual, moral edo sozialerako kaltegarriak ez diren baldintzetan egin behar dute lan hori.

## **ESKUALDEKO BABES-SISTEMA**

### **1.1. Europakoa**

#### **A. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena**

Giza eskubideen interdependentziaren eta unibertsaltasunaren printzipioei begira, aipatu behar da zer gutxi garatzen diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean (eskualdeko hitzarmen homologoek hala egiten dute, ordea). Horrek babesik gabe uzten ditu haren babespean dauden pertsonak. Aitortzen den eskubide-zerrenda urriaren barruan.

#### **B. Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 2000ko abenduaren 7a**

1. artikulua. Giza duintasuna; 35. art. Osasunaren babesa. 37. art. Ingurumenaren babesa.

### **1.2 .Latinoamerikakoa**

#### **A. Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa, 1969ko azaroa**

4. eta 5. artikulua. Bizitzeko eta osotasun pertsonalerako eskubidea; 8. art. Berme judizialak izateko eskubidea; 21. art. Jabetza pribaturako eskubidea; 24. art. Legearen aurreko berdintasuna; 25. art. Babes judiziala.

#### **B. B. Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko Protokolo Gehigarria, “San Salvadorreko Protokoloa”**

1. artikulua. Neurriak hartzeko betebeharra; 10. art. Osasunerako eskubidea; 11. Ingurumen osasuntsua izateko eskubidea; 12. art. Elikadurarako eskubidea.

## **4. AKUSAZIOAREN ARRAZOI OROKORRAK**

Egungo sistema kapitalista patriarkalaren ondorioetako bat da ikusezin bihurtzea –aitormenik jasotzeko eta, ekonomiaren aldetik, kontuan hartzeko xederik gabe– emakumeek aurrera eraman behar izaten duten lana. Nahiz eta ekoizpen-sistemari eusteko ezinbestekoa izan etxeko lana (hau da, etxean gauzatzen diren zereginen multzoa, seme-alabak zaintzeko eta beste zaintza pertsonal batzuk emateko, hala nola etxea garbitzea eta janariaren hornikuntzaz eta prestaketaz arduratzea), lan hori ez da aintzat hartzen eta gutxietsi egiten da, lan horretan diharduten ema-

kumeak aintzat hartzen ez diren eta gutxiesten diren era berean; hala, rol nagusia gizonaren figurari ematen zaio, tradizioz “hornitzaile ekonomikoaren” rola jokatzen du eta. Bereizketa horrek kalte larriak eragin dizkie emakumeei, emakumeok bere gain hartu behar baitzuten (edo baitute) etxeko zereginen zerrenda gero eta luzeagoaren ardura, seme-alabak eta familiartekoak zaintzeko lanaz gain, inongo ordain ekonomikorik jaso gabe, oso ekonomia-egoera ahul batean eta ezkontidearen eta/edo familiaren borondatearen mende utzita.

Emakumeen eskubideen aldeko borrokekin, generoaren araberako lan-esleipen hori aldatu egin zen, bide ugari urraturik lan-merkatuan sar zitezten, hori bai, printzipio patriarkal kapitalista berberen azpian: soldata txikiagoak jasotzea; ama izateagatik bazterkeria jasatea; zuzendaritza-postuetara iristeko mugapenak izatea; eta etxean egoera / jarrera matxistek jarraitzea; hau da, kanpoko lanaz gain, etxe barnean etxeko eta zaintzako zereginak “isilean” betetzen jarraitzen dute, lan-orduak bikoizturik, batere aitormenik gabe.

Bereiz aipatzea merezi dute etxeko langileek; izan ere, langile horiek ordainsaria jasotzen dute garbiketa, laguntza eta etxeko berezko gainerako lanak egiteagatik, baina pertsona edo familia arrotz baten etxean, diruzko lansari baten truke. Etxeko langileen kolektiboa osatzen dutenak emakumeak izaten dira, oro har, ahultasun-egoeran daudenak, pobrezian geratzeko arriskuan edo migratzaileen taldearen barruan –batzuk, agiririk gabe– aurkitzen direlako.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) bildutako datuen arabera<sup>5</sup>, etxe-zerbitzuan lan egiten duten pertsonen %30ek ez du gizarte-segurantzako afiliatorik. Gainera, oro har, astean benetan egiten diren baino 25,9 ordu gutxiago adierazten dira, batez beste. Espainian aplikagarrian den erregimenari dagokionez, Gobernuak 2011n Etxeko Langileen Erregimen Berezia (ELEB) kendu zuen, eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorren barruan sistema berezi bat sortu zen, han etxeko langileak sartzeko, erregimen orokorrak ematen dituen ia presazio guztiak emanik, langabeziaren ondoriozkoak izan ezik. Erregulazio horren arabera, hilean 60 orduan baino gutxiagoan zerbitzu egiten duten langileek beren inskripzio- eta soldata-aldaketak kudeatzeaz eta egunean edukitzeaz arduratu behar dute, enplegatzailearekin aurretiaz hala adosturik. Politika horrek ardura administratibo guztia enplegatzailearen gainean jartzen du, kontuan hartuta “*enplegatzaileak, oro har, hezkuntza-maila handiagoa izaten duela, eta baliabide gehiago, gizarte-segurantzaren administrazioaren aurrean izapideak egiteko*”<sup>6</sup>.

5 LANE. Etxeko lanaren babes soziala. Joerak eta estatistikak. 16. dokumentua. BABES SOZIALEKO POLITIKARI BURUZKO DOKUMENTUAK. Babes Sozialeko Saila, Lan-merkatu Inklusiboan, Lan-harremanen eta Lan-baldintzen Zerbitzuarekin lankidetzan. Geneva, 2016.

6 Ibidem, 35.-36. or.

Koiuntura soziala dela medio, Espainiako Estatuan migratzaileak gehiago dira, bertakoak baino, etxeko langileen artean. Kolektibo horiek egoera ahulagoan daude, eta lanaldi luzeagoak eta soldata txikiagoak pairatzeko arrisku handiagoa dute, tokiko langileen aldean, eta proportzio handiagoa izaten dute abusuen, sexu-jazarpenaren eta genero-indarkeriaren biktimen kasuetan.

Flori andrearen kasuari dagokionez, salaketa egin behar da Mexiko eta Guatemala arteko mugan, Mexikoko Tapachula hirian, zehazki, emakume migratzaileek jasaten dituzten genero-desprekotasunen inguruan. Egia da mugaz gaindiko lurraldeek lan-aukera gehiago ematen dizkietela emakumeei, baina zehaztu behar da, Amaia Pérez Orozok auzitegi honentzat eginiko aditu-txostenean nabarmen-tzen denez, halakoek genero-desberdintasuneko patroiak betikotzen dituztela.

Tapachula-ra migratzen duten emakumeak jatorriz guatemalarrak dira, gehienbat (dena dela, hondurastar eta salvadortar asko ere badaude), eta haien ezaugarri nagusiak dira gazteak izatea, ekoizteko eta ugaltzeko adinean egotea, eta analfabetismo-maila handia izatea. Hartara, lan-eskaintza kontzentratzen da sistema matxista eta heteropatriarkal baten beharren inguruko lanpostuetan: nekazaritzako lanean, sexuaren eta entretenimenduaren industrian, eta etxeko eta zaintzako zerbitzuan, hain zuzen. Gainera, agiririk gabeko migratzaileak izateak indarkeriaren eta estigmatizazioaren biktima egiten ditu, paperik gabeko atzerritarrak eta indigenak izateagatik; horren ondorioz, inpunitatez esplotatzen dituzte.

Arrisku-faktore bat herrialdera sartzeko bideak dira; izan ere, emakume-kolektibo horren eskolatze urria dela eta, bide posible bakarra da pertsonen trafikatzailen eskuetan jartzea (koioteak). Haiek muga igarotzen laguntzen diete, diru-kopuru handi baten truke. Sartzeko bidaia horretan, arrisku larrian egoten dira, eta arrisku hori migrazioko agintaritzaren beraren aldetik zein bazter haietan nahierara dabiltzan mafien aldetik dator.

Asko dira emakumeei migrarazi dieten arrazoiak, hala nola familiei dirua bidaltzeko beharra, hiria ezagutzea, ikasketak egiten jarraitzea, nolabaiteko independentzia-maila bat lortzea, eta are familia barneko indarkeria-egoeretatik ihes egitea. Hala ere, lanera sartzen diren etxeetan berdin jasanarazten diete indarkeria, eta lanaren aldetik esplotatzen dituzte. Enplegatzaileak, oro har, emakumeak dira, lan egiteko etxetik irten behar duten mexikar emakumezkoak, hain zuzen, eta horrekin etxeko jarduera hirugarren batzuen esku uztea eragiten dute.

Baina egoerak ez du hobera egiten komunitatera itzultzean, arbuiatu egiten dituztelako, “beren familia-betebeharrak” bertan behera utzi izana leporaturik, edo beren ohiturak ahaztu izana, hitz egiteko eta janzteko beste era batzuk, besteak

beste, bereganatuta. Arbuio horrek, komunitatearen berezko genero-rol hertsiei berriz men egiteko zailtasunarekin edo ukoarekin batera (ezkondu eta senarraren mende jartzea edo familia zaindu eta etxeko lanak egitea), gatazka sozial larri batzuk sortzen ditu, komunitateetan txertatzeko estrategiak eskatzen dituztenak.

## 5. AKUSAZIOAREN ARRAZOI PARTIKULARRAK

Pilar andrearen lehen kasu paradigmaticoan, esan behar da giza lan-eskubideen urraketak hedatu behar direla prekaritate-baldintza berberetan lan egiten jarraitzen duten emakume guzti-guztiengana. Nahiz eta egia den eskubideen bermeak nabarmen hobetu direla gerraostetik hona, Konstituzioa onartzean eta giza eskubideei buruzko nazioarteko tratatuak berrestean, oraindik gobernua uzkurra da etxeko emakume langileen kolektiboari osoko bermea emateko. Horren erakusgarri da, besteak beste, gaur egun oraindik ez dela berretsi LANEren 189. Konbentzioa eta, hortaz, ez dela onartu ez legerik ez estrategia juridiko-politikorik etxe-zerbitzuaren sektoreko langileak babesteko helburuz. Omisio horrek agerian uzten du zer garrantzi gutxi ematen die Estatuak langile-kolektibo horiei.

Lehen deskribatu den legediaren arabera eska daitezkeen nazioarteko estandarrrak honako hauek dira: emakumeon zein haien familien beharrianak betetzeko adinako soldata duin bat bermatzea, egiten duten lanaren arabera; idatzizko lan-kontratu bat egitea, enplegatzaileak zein enplegatuak gutxieneko lan-baldintzak ezarrita; bidezko lanaldi bat ezartzea, gehienez egunean zortzi ordukoa; gizarte-segurantza, langabezia-prestazioak barne; erretiroa izateko eskubidea; opor ordainduak izateko eskubidea; nahitaezko atsedeen-egunak; bidegabeko kaleratzeetan edo lan-eskubideen urraketetan kalte-ordaina jasotzea; errespetuzko tratua hartzeko eskubidea, izen gutxiesgarri edo umiliagarririk gabe.

Flori andrearen kasuari dagokionez, nazioarteko estandarrrak berberak dira, baina gehiago nabarmendu behar dira emakumeok beren askatasunean jasaten dituzten mugapen larriak, umetatik etxeko lanak egitera eta familiarako gizonak, nebak... zaintzera behartzen baitituzte. Halakoak egitera hertsaturik, neskek ez dute aukerarik izaten eskolara joateko, eta, ondorioz, betikotu egiten da ahultasuneko, po-breziako eta gizonetikiko mendetasun ekonomikoko egoera. Hori dela eta, gurpil zoro horretatik irteteko, kolektibo horiei geratzen zaien era bakarra da migratzea eta etxe-zerbitzuan lan egitea.

## 6. AUZITEGIARI ESKATUTAKO ERABAKIA

Aurreko guztiagatik, auzitegiari honako hauen inguruan erabakia eman dezala eskatzen zaio:

1. Espainiako Estatuaren eta Mexikoko Errepublikaren erantzukizuna, etxe-ko langileen bizitzen jasangarritasunerako (fisikoa, emozionala eta soziala) eskubidearen urraketa ugariak atzeman, agerian jarri, salatu, zigortu eta gaitzesteko.
2. Bizimodu jasangarriak izateko eskubideaz sentsibilizatzeko eta hura aldarrikatzeko premia, autozaintza eta bidezko baldintzekiko zaintza barne hartuta, pertsona guztientzat.
3. Zaintzaren egiazko berrantolaketa sozial bat prestatzeko eta abian jartzeko eska dadila.
4. Guztiek eta, funtsean, gizonezkoek beren gain har ditzatela dituzten interdependentziako ardurak.
5. Afektibitate-arloaren eta lanbide-arloaren arteko lotura ezaba dadila, eta ikusaraz dadila nola funtzionatzen duten emakumeengan errudun-usteak, mirabekeriak eta etxekotasunaren ideologiak.
6. Espainiako Gobernuari gogoraraz diezaiola LANERen 178. Konbentzioa berresteko premia, bai eta etxe-ko langileen giza lan-eskubideak bermatzeko sistema juridiko eta politiko bat ezartzeko premia ere.
7. Ikertu, epaitu eta zigor daitezela, hala badagokio, etxe-ko langileei tratu txar, anker edo umiliagarriak ematen dizkieten pertsona guztiak, langileon administrazio-egoera edozein izanik ere.
8. Kanpainak susta daitezela etxe-zerbitzuan lan egiten duten pertsonen aurka erabilitako indarkeria soziokulturalaz sentsibilizatzeko eta enplegatzaileei enplegatuen eskubideei buruzko gaikuntza emateko.
9. Tapachula-ko kasuan, bai Mexikok bai Guatemalak beren gain har dezatela emakume migratzaileak babesteko estandarrak bete eta betearazteko konpromisoa, giza eskubideei buruzko nazioarteko tratatuen arabera, Belem do Pará-koa tartean dela.

10. Guatemalak bere gain har dezala neska eta emakumeen eskubideak babesteko politika publiko batzuk prestatu eta abian jartzeko konpromisoa, bizitza libre eta duina aurrera eraman ahal izan dezaten, beren generoaren baldintzapenak gabe.
11. Ikertu, epaitu eta zigor daitezela langileon giza lan-eskubideen urraketan errudunak, eta berriz ez gertatzeko bermeak ezar daitezela.
12. Ordaina emateko neurri egokiak eska daitezela, nazioarteko estandarren arabera, eskubide-urraketa horien biktimek jasandako kaltea arintze aldera.
13. Sistema patriarkalaren ondorio den pribilegio egoera baliatzen duten gizonei honakoa exijitu: zaintzen eta etxeko lanen ardura ere hartu dezatela..
14. Lan-bitartekotza (enplegatzaile - etxeko langile) burutzen duten enplegu-agentziak zigortu daitezela, eurak aberasteko etxeko langileen (bertakoak zein atzerrikoak) zaugarritasun egoeraz aprobetxatzen direnean. Baita etxeko langileen babesgabetasun legalaz era bidagabe batean etekina ateratzen duen pertsona oro ere..



## **KASUAREN LABURPEN FITXA<sup>7</sup>**

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:** Feminismos Desazkundera + Brujas y Diversas

**TOKIA:** Bilbo

**TESTIGANTZA EMATEN DUEN PERTSONA:** Pilar Gil Pascual



Pilar Gilen kasuaren testigantza Herri-Auzitegian Conchi Gómezek egin zuen (argazkian).

## **Pertsona zaintzaileen duintasuna**

Kasu honetako protagonista Pilar Gil Pascual da. 1958an, gerraosteak bere lurraldean eragindako txirotasunak eraginda, Bilbora etorri zen enplegu baten beharrek bultzatuta. Hasieratik, etxeko langile gisa aritu zen, lehenengo etxe-barneko langile gisa, eta gerora eguneko langile gisa. Horrez gain hainbat ekimenetako militante izan da<sup>8</sup>, eta orain erretiroa hartu duen arren, aktibo jarraitzen du.

<sup>7</sup> Fitxa osorik osorik eta kasuaren dokumentazio guztia hemen: <https://www.decrecimientoybienvivir.info/eu/bizimodu-jasangarrien-aldeko-herri-azitegia/>

<sup>8</sup> Santutxuko Auzo Elkarte (Etxeko langile, Haurtzaindegi eta Hirigintza batzordeetan, Errepresioaren aurkako batzordean eta alderdi politiko batean (Autónomos). 1977ko Jardunaldi Feministetan hasi nintzen Bizkaiko Emakume Asanbladaren lehenengo bileretan parte hartzen. Handik gutxira hasi ginen etxeko langile gisa antolatzen, eta 1976an sortu genuen ATH-ELE. Betidanik egon naiz sindikatuta, lehenbizi ESKn eta orain LABen.

Pilarrek beste hainbat emakumeren kasua gorpuzten du; hauek, emakume, zaintzaile, txiro eta migratzaile gisa duten posiziotik, batetik, patriarkatuak zein kapitalismoak bizitzaren jasangarritasunaren eskubidea gauzatzeko jartzen dituzten oztopoei, eta bestetik, zaintza lanak justizia eta duintasun baldintzetan gauzatzeko mugei aurre egin behar izaten diote.

Salatzekoa da ere emakumeek genero-estereotipoen ondorioz, zaintza-lanak doan eta aitortzarik gabe egin ditzaten pairatzen duten presioa. Hala gertatzen da senideak edo gertukoak zaintzeko derrigortasunarekin, zenbaitetan ingurukoek xantxia emozionala egin edota erru-sentimendua egozten direlarik. Zaintza pertsona guztiok gure gain hartu behar dugun erantzukizun soziala gisa ulertzen dugu. Emakumeak, migratzaileak eta zaintzaileak.

### **Emakumeak, migratzaileak eta zaintzaileak**

Pilarrek, beraz, etxeko langile gisa bizitako umilazioa, gehiegikeriak, tratu txarrak eta aitortza eza salatzen ditu. Halaber, bereziki salatu nahi dugu barneko langileek pairatzen duten esplotazioa, esklabotasuna eta gorpuzten gaineko kontrola; zaintzaileek bizitza propioa, aisialdia, osasuna, sexualitatea eta harreman afektibo propioak izateko, eta finean, euren bizitzari buruz erabakitze eskubidea aldarrikatzen dugu.

Modu bereziki gogorrean salatu eta ikusarazi nahi ditugu zaintzaile izateaz gain migrazio-prozesuak, arrazakeria, xenofobia eta bestelako aurreiritzi zabalduak bizi izan dituzten emakumeen zapalkuntza espezifikoak.

Kasu honek erakusten du emakumeek egiten dituzten zaintza-lanen aitortza ezak, desoreka eta bidegabekeria egoerak eragiten dituela maila sozial, legal zein ekonomikoan. Hori dela eta, bizitzaren iraunkortasunerako zaintza lanen erdigunea eta garrantzia aldarrikatu eta aitortu nahi dugu.

## **KASUAREN LABURPEN FITXA<sup>9</sup>**

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:** CDH Fray Matías de Cordova AC

**TOKIA:** Mexiko eta Guatemala arteko muga. Tapachula.

**TESTIGANTZA EMATEN DUEN PERTSONA:** Floriberta Roblero

## **Emakume migratzaile eta zaintzaileen estigmatizazioa eta esplotazioa**

Floriberta Robleroren kasua mugan dagoen Tapachula hiriaren migrazio-testuinguruan kokatzen da, Chiapaseko estatuan, Mexiko eta Guatemalaren artean. Hiri horren ezaugarriak migrazio- eta historia-aniztasuna dira, non jatorriak, igarobideak, helmugak eta itzulerak elkar gurutzatzen duten.

Chiapaseko biztanle atzerritarren %55 emakumezkoak dira; horietatik %66 Guatemalakoak dira, gazteak, adin produktibo eta erreproduktiboa dauzen, Guatemalako emakume gazteak dira, gehienetan alfabetatze maila baxua eta eskolatze-aldi laburra jaso dutelarik. Haiei zuzendutako lan-eskaintza, nagusiki, arlo hauetara mugatzen da: nekazaritza lana, sexu-industria, entretenimendua eta etxeke zein zaintza lana. (NBE Emakumeak, 2015).



**Floriberta Roblero Herri-Auzitegian bere testigantza ematen**

Emakume hauek, gainera, estigmatizatu egiten dituzte “paperik gabeko” atzerritarrak, txiroak, eskolagabeak, indigenak, “zerbitzariak” eta “kaleko emakumeak” izateagatik. Horrela, egungo jendartearen berezko arrazakeriari, klasismoari eta matxismoari ere aurre egin behar izaten diote.

## **Floriren kasua**

San José Ojetenam-en (Guatemala) jaio zen Flori, sei neba-ahizpako familia batean. Hauen artetik bera da 14 urte zituenetik, familiako ekonomiari ekarpena

<sup>9</sup> Fitxa osorik osorik eta kasuaren dokumentazio guztia hemen: <https://www.decrecimientoybienvivir.info/eu/bizimodu-jasangarrien-aldeko-herri-azuzitegia/>

egiteko, Tapachulako etxeetan lan gehien egin duena. 24 urte zituela haurdun geratu eta kaleratua izateko beldurrez egoera hau ezkutatu behar izan zuen; hain zuzen, haurdunaldia agerikoa izan bezain laster, kaleratu egin zuten. Gauzak horrela, badirudi ez dagoela amatasun eskubiderik etxeko langileentzat.

Flori familiarekin itzuli zen eta semeak bi urte zituela Tapachulara bueltatu zen lanera, semea haren amonari utzita eta zazpi urtez urtean bizpahiru baino ezin izan zuela bisitatu. Denbora-tarte horretan lan-baldintza oso gogorak bizi izan zituen: atsedeen-egun bakarra zuen astean, opor edo jai-egunik ez, eta lanaldia goizeko 6etatik gauerdiko 12ak arte luzatzen zen.

Tapachulan Emakumeen Espazioa ezagutu zuen Florik, eta emakumeek pairatzen dituzten gehiegikeriak eta bazterkeria irmo salatu zituen. “La voz del Parque” izeneko radiobocina delako tresna komunitarioa sustatu zuen, emakume migratzaileak haien eskubideen inguruan informatzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko.

2015ean Florik aldi baterako egoitza txartela lortu zuen, eta horrela herrialdetik sartu eta irteteko arriskuak murriztu zituen, baita atxilotzeko arriskua ere.

2016an ebakuntza behar zuten osasun-arazoak izan zituen, baina ezin zituen familiak behar zituen diru-sarrerak eten eta ez zion lan egiteari utzi, eta hortaz, ebakuntza atzeratu behar izan zuen.

Floriren kasuak Tapachulako emakume migratzaileek bizi duten indarkeria eta esplotazio egoerak agerian uzten ditu. Gobernuak, bitartean, ez du lan-baldintza duinak eta bidezkoak bermatzeko borondate politikorik.

## ZAINTZARAKO ESKUBIDEAREN ARDATZA Amaia Pérez Orozco adituaren txostena (2017ko urria)



Amaia Pérez Orozco adituaren txostena aurkezten Herri-Auzitegian

### 1. FLORI ETA PILAR/PILI: MUNDUAZ HAUSNARTZEKO BIZITZAK

Auzitegi honetan aztertutako bi kasuak oso antzekoak dira. Bi emakumeek gartetan migratu zuten landa-eremutik hirira, etxeko lanetan aritzeko; urte luzez jardun zuten zaintza lanetan, izan elkarbizitza giroan zaintza ez-ordaindua gauzatzen, izan bestelako etxe eta eremu publikoetan diru-truke zaintzen. Prekaritateak markatu ditu bi emakumeen bizi-esperientziak, eta biek etengabe erantzun dute bizitza —norberarena zein kolektiboa, bizitzea merezi duena— erdigunean jartzeko borrokaren bidez.

Florik eta Pilar/Pilik<sup>10</sup> nerabe zirela migratu zuten (14 eta 16 urterekin, hurrenez hurren) landa-eremutik. Lurrak ematen zuena ez zen nahikoa familia elikatze-

<sup>10</sup> Bi izenak erabili ditugu, bere bizitzaren askotariko alderdiak adierazteko. Bere ahotan: "Beti bereizi izan ditut nire bizitza profesionala eta afektiboa. Bitxia da, adibidez, izan ditudan lan guztietan Pilar deitzeko eskatu dudala, baina familiak eta lagunek Pili deitzen didatela."

ko, eta hiri-eremuetan lan-aukera gehiago zeuden. Florik San José Ojetenametik (San Marcos, Guatemala) Tapachulara (Soconusco, Mexiko) migratu zuen. Pilar/Pilik Roa de Duerotik (Gaztela eta Leon, Espainiako Estatu) Bilbora (EAE, Espainiako Estatu) migratu zuen. Bi kasuetan errepikatzen dira honako elementuak: batetik, elkar babeserako migrazio-sareak; bestetik, migrazioa, neurri batean familia-proiektu gisa (bizirauteko), eta beste neurri batean proiektu pertsonal gisa (aukera zabalagoak bilatzeko). Heldu berritan, bi emakumeek soldatapeko etxeko langile jardun zuten, barneko langile gisa<sup>11</sup>. Urte luzez biek ala biek jarraitu dute zaintza-sektorean lanean. Gaur egun Florik etxeko langile dihardu. Pilar/Pili urte luzez aritu zen lanean sektorean (lehenbizi barneko langile, eta ondoren eguneko langile), eta geroago zaintza arloko beste lan batean aritu zen, lagun batzuekin martxan jarri zuen haurtzaindegi eta haurrentzako jantoki batean. Gaur egun Pilar/Pili pentsioduna da eta hainbat biloba ditu. Familia-, lagun- eta auzokide-sare sendoa sortu du urte luzez. Ez da inoiz bere jaioterrira itzuli. Flori ama bakarra da. Bere semea, egun, nerabea da eta Guatemalan hazi izan da amonarekin; Florik bisitak egiten dizkio posible duen maiztasun handienarekin. Flori San José Ojetenam eta Tapachularen artean ibili izan da urteetan, hainbat konturen arabera (erditzeko, familiaren lursailean laguntzeko, etab.), baina Mexikon mantendu du lan-erreferentzia nagusia. Osasun arrazoiak direla eta, jaioterrira itzuli da; eba-kuntza egin diote eta bertan bizi da, apaiz baten etxeko langile. Bi emakumeak zutabe nagusi izan dira, eta oraindik ere badira, beren familia zabalak materialki eta emozionalki sostengatzeko. Florik zein Pilar/Pilik oso aktiboki parte hartzen dute etxeko langileen mugimenduan eta bestelako gizarte-mugimenduetan (Florik emakume migratzaileen eskubideen defentsan; Pilar/Pilik mugimendu feministan, sindikalean eta auzokoan). Emakume borrokalariai dira, eta oso konprometituta daude bizi diren munduaren eraldaketa prozesuarekin.

Beharrezkoa da, hala ere, bi emakumeen ibilbideen arteko ezberdintasunez hitz egitea. Agerikoenak ezberdintasun kronologikoak eta geografikoak dira. Pilar/Piliren istorioa iragan mendearan erdialdean hasten da; Floriren istorioa, aldiz, XXI. mendean garatzen da bereziki. Ozeano batek banatzen ditu bien bizitzak, eta bien lurraldeek posizio antagonikoak dituzte hegemonia globalari eta historia kolonialari dagokienez: Pilar/Pili Espainiako Estatuan bizi da, Mesoamerikaren kolonizatzaile izandako estatuan, eta bertan bizi da Flori<sup>12</sup>. Bi elementuak batzen

11 Euskal Herrian “barneko etxeko lan” kontzeptua baliatzen da (“empleo de hogar interno”, gaztelaniaz), adierazteko kontratatzen duen familiaren etxean bertan bizi dela langilea. Guatemalan eta Mexikon “con dormida” (loaldia barne) terminoa erabiltzen da. Txostenaren gaztelaniazko jatorrizko bertsoan bi lurraldeetako terminoak erabili dituzte era berean (Itzultzailearen Oharra).

12 Aipatzekoa da ez historia orokorrak ezta historia zehatzak ere ez direla inoiz linealak edo sinpleak: Pilar/Pili Euskal Herrian bizi da; Gaztelak konkistatu zuen Euskal herria duela mende asko, eta baita Abya Yala ere, eta horrela europar kolonizazioari bide eman zion, baina kolonizazio horretan Euskal Herriak ere parte hartu zuen. Pilar/Pilik Gaztela landatar

baditugu, ulertuko dugu Pilar/Pilik gazte migratzaile gisa bizi izan zuen testuingurua atsegin samarragoa izan zela Florik bizi izan zuenaren aldean: batek boom desarrollista bizi izan zuen, eta besteak, aldiz alderdi askoko krisi globala, lurraldean eguneroko indarkeria-giroan gorpuzten dena. Florik zein Pilar/Pilik aurre egin behar izan diete lan-baldintza txarrei eta bestelako eskubide-urraketei. Baina baldintza eta urraketa horien intentsitatea, larritasuna eta hedadura oso ezberdina da bi egoeretan. Horrez gain, Pilar/Piliren migrazioa barnekoa da eta Florirena nazioartekoa (mugan zeharkoa), eta horrek migrazio-estatusari lotutako arazoak dakartza. Azkenik, Floriren jatorrizko lurraldean maya mam herritar asko dago, zeintzuek arrazakeria pairatzen duten Tapachulako mestizoen aldetik. Horrengatik guztiarengatik, Florik jasan beharreko bizi-prekaritatea askoz handiagoa da Pilar/Pilik bizitakoarekin alderatuta.

## 2. TESTUINGURUAREN ANALISIA

Txosten honen hasieran, Auzitegian aztertutako kasuetan jokoan dauden alderdiak kokatuko ditugu. Horretarako, alderdi horien jatorri diren zapalkuntza-sistemen elkarguneak ulertuko ditugu. Azkenik, Auzitegian aztertutako gainerako ardatzekin dagoen loturari helduko diogu. Inplikaturako lurraldeak honakoak direla ulertzen dugu: Guatemala, Mexiko, Espainiako Estatua eta Euskal Herria.

### 2.1. Jokoan dauden alderdiak

Aztertutako kasuen arabera, zaintzaren antolaketa soziala bidegabea da. Izan ere, neurri handi batean, lan-baldintza oso prekarioetan kontratatzen den etxeko lanen kontratazioei esker sostengatzen da. Horrela, zaintzaren fluxua betidanik desparekotasunetan oinarritu diren kateetan zehar doa; gaur egun neurri globala hartzen ari diren kateetan, alegia.

#### 2.1.1. Zaintza

Zaintzaren bidez pertsonen ongizate fisiko eta emozionala eraberritzen dugu. Zaintzeak gorpuzten eta beren afektu zein ez-afektuen arduraren hartzea esan nahi du. Zaintzea izan daiteke pertsonen arteko harreman zuzena (haurtxo bat garbitzea, adibidez), etxeko lan deitu ohi dugun jarduera materiala, eta prozesu horiek guztiek mentalki kudeatzea (beharra identifikatzea eta asetzeko modua erabakitzea, planifikatzea, antolatzea...).

---

eta txirotutik egin zuen alde, garapen industrial arrakastatsua bizitzen ari zen Euskal Herrira. Florik gerratik irten berri zen Guatemala txirotutik egin zuen alde, halaber txirotua baina, konparazioan, pribilegiaduna zen Mexikoko hegoaldera.

Zaintzen oinarrizko ezaugarria da egunero gauzatzen direla, eta pertsonarteko lotura estua dagoen testuinguruan gertatzen direla. Pertsona guztiok behar ditugu zaintzak, egunero, bizitza zaurgarria delako: bizitza aukera bat da, eta zaintzen ez badugu desagertu egiten da. Halaber, ia pertsona guztiok, bizitzako momentu ia guztietan, gai gara gure burua zaintzeko eta elkar zaintzako harremanetan murgiltzeko. Hala ere, zaintzeko gaitasuna eta guk behar ditugun zaintza motak eta intentsitatea aldatu egiten da bizitza zikloaren eta beste hainbat faktoreren arabera. Horregatik guztiarengatik, esan dezakegu pertsonak ez garela bi aurkako taldetan banatzen: batetik buruaskiak (ez dute beharrik, eta soilik ematen dute) eta bestetik mendekoak (jaso besterik ez dute egiten, eta ez dute ematen). Elkarrean mendekoak gara, lerro jarrai batean kokatuta gaude; zenbaitetan autonomia handiagoa daukagu, eta bestetan mendekotasun handiagoa. Zentzu zabalagoan, zaintzek ekosistema birsortzea ere badaukate: naturarekiko mendekotasuna dugu, soilik bizirik dagoen ingurune batean bizi ahal garelako. Zaintzeak, horrela, esan nahi du planetaren sorkuntzaz arduratzea.

Ordaindua zein ez-ordaindua izan daiteke zaintza, eta lan-merkatu formalean zein informalean gauzatzen da, baita merkatutik kanpo ere. Zaila gertatzen da zaintza sailkatzea: ospitaleek funtzionatzeko gaixoen senideen doako lana behar dute; nagusiaren jate txean zerbitzari lanean ari diren etxeko langileak; diru pixka baten truke haurrak zaintzen dituen lehengusina... Zaintza ulertzeko kategoria berriak sortu behar ditugu, eta estatistika ofizialetan ageri ez diren datuak bilatu. Duela gutxira arte, zaintza oso gutxitan izan da diagnostiko eta ikerketen aztergai<sup>13</sup>. Izenik eta daturik egon ezean, ez da egongo erregulatuko duen araurik edo eskubiderik.

Horregatik guztiarengatik, aztertutako kasuei esker gure gizarteen alderdi ikusezinetako bat, existitzeko beharrezkoa duguna, hobeto ezagutu ahal izango dugu. Aztertutako kasuengana hurbiltzeko sormen ariketa bat egin behar dugu: hitz berriak sortu behar ditugu eta gauzatu beharko lirakekeen eskubideak identifikatu, gaur egun izenik ere ez duten eskubideak izendatzeko.

### 2.1.2. Zaintzaren antolaketa sozial bidegabea

Gizarte orok ezartzen du nolabaiteko oreka (edo desoreka) zaintza-beharren eta zaintzak asetzeko mekanismoen artean. Zaintza-beharrak baldintzatzen ditu

<sup>13</sup> Jarduera ekonomikoko datuek ez dute kontuan hartzen zaintza lan ez-ordaindua, eta ez dituzte lan-motak bereizten "etxeko lan" deitzen duten kategoria zabalaren barruan, adibidez. Datu horien bidez posible da jakitea, ehungintza sektoreaz ari bagara, ea sokak, kordelak, listariak edo sareak egiten diren, edo ehun-zuntza iruten den; aldiz, datu horiek ez digute esango etxeko langile batek alzheimerra duen adineko bat zaintzen duen, edo exekutibo bikote baten arropa garbitzen duen.



osaera demografikoak eta bestelako faktoreek (osasun-egoera, elbarritasun-maila, etab.). Behar horiei erantzuteko eragile asko daude: erakunde publikoak, enpresak, hirugarren sektorea/komunitatea eta familiak.

Herrialde eta gizarteen arteko ezberdintasun handiak gorabehera, esan dezakegu zaintza-lanen antolaketa soziala bidegabera dela mundu osoan. Bidegabekeria horrek hiru ezaugarri nagusi ditu: (1) Ez dago erantzukizun kolektiborik zaintza-beharrak asetzeko; horrela, etxe bakoitzak bere kasa konpondu beharreko kontua bihurtzen da. Horrek lotura du elkarren arteko mendekotasuna ez onartzearekin: elkarren artean mendekotasunik ez badugu, nolatan izango gara erantzunkideak? Norbera gai izan behar da arazo horiek konpontzeko eskura dituen baliabide pribatuekin (dela diruaren bidez langile bat kontratatuta, dela ezkontzaren bidez “maitasunagatik” doan zaintzen duen pertsona baten bidez). (2) Zaintza-lana emakumeen erantzukizuna dela egintzat jotzen da, emakumeek naturalki “maitasunagatik” egiten duten jarduera dela pentsatzen da, eta ez, aldiz, ikasi egiten den lana, konpentsazioa eta aitortza merezi duena. Eta (3) aurreko guztiaren ondorioz, lotura sistemikoa ezartzen da zaintza, desperekotasuna eta prekaritatea/bazterkeria/txirotasunaren artean.

Zaintza-sistema bidegabeetan, zaintza hornitzeko bi oinarri nagusi egon ohi dira: batetik, nagusiki emakumeek etxeetan egiten duten zaintza-lan ez-ordaindua, eta bestetik, etxeko lanak lan-sektore prekario eta feminizatu gisa. Lehenbiziko oinarriari dagokionez, ia mundu osoan errepikatzen diren hiru joera topatuko ditugu (ikus 1. taula): (1) Lan-denbora gehiago dago merkatutik kanpo, merkatuan baino (hau da, merkatutik kanpoko zaintza-lanaren bolumena handiagoa da lan ordaindu guztiaren bolumenaren aldean). Duranek (2012) dioen moduan, “2000 milioi lantegi daude [etxeak] merkatutik kanpo etengabe zerbitzuak eskaintzen”. (2) Enplegua eta zaintza-lan ez-ordaindua batuta, emakumeek gizonen baino lan gehiago daukate; lan-karga global handiago daukate, alegia. Eta (3) oraindik ere nabarmena da lanaren sexu-banaketa: emakumeen lan-denbora gehiena zaintza-lan ez-ordaindura bideratzen da, eta gizonen, aldiz, enpleguari eskaintzen diote denbora hori.

**1. taula: Lan-denbora, sexu eta lan-motaren arabera, minutuak eguneko<sup>14</sup>**

		EAE	ESPAINIAKO ESTATUA	MEXIKO	GUATEMALA
LAN EZ-ORDAINDUA	emakumeak	230	263	442	312
	hombres	124	126	155	78
LAN ORDAINDUA	emakumeak	110	128	172	438
	hombres	164	205	381	510
LAN KARGA GLOBALA	emakumeak	340	391	614	750
	hombres	288	331	536	588
OROTARA	ez-ordaindua	354	389	597	390
	ordaindua	274	333	553	948

**Iturriak:**

1) Sagastizabal Emilio-Yus eta Luxan Serrano (2015)

2, 3 eta 4) Nazio Batuetako Garapen Programa (UNDP) (2015)

Bigarren oinarria (etxeko lan prekarioa eta feminizatua) hurrengo puntuan garrantuko dugu. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (aurrerantzean, LANE) arabera, munduan 67 milioi pertsona heldu etxeko-lan ordainduan jarduten dira, zeinetatik %83 emakumeak diren. Gainera, 5 eta 17 urte arteko 17 milioi adingabe dago etxeko langile gisa; %67 neskatok dira (LANE, 2013).


Aurrerago ikusiko dugunez, auzitegi honetan aztertutako kasuek oso argi adierazten dute zaintza-lanen antolaketa sozial bidegabea, zeinaren ardatza diren desparekotasuna eta eskubide-urraketa edo ez-aitortza sistematikoa.

**2.1.3. Etxeko lana**

Zaintza-lanak ordaintzen direnean, ez-ordainduak gutxietsi ohi dira. Horregatik, zaintza-lanaren sektore zabalean soldatan eta lan-baldintzetan islatzen diren zigorrak egon ohi dira (Razavi eta Staab, 2010). Etxeko lana da, zaintza-lan ordainduen artean, motarik ohikoena. Mendeetan iraun duen lan mota da. LANE-ren hitzetan, “esklabotasunaren munduko historia, kolonialismoa eta bestelako morrontza motak elkarlotzen dira etxeko lanean” (2010). Etxeko lanak arkaikoak

<sup>14</sup> Datuak eskuratzeko denbora-erabilerrari buruzko inkestak gauzatu dira; hori da zaintza ez-ordaindua neurtzeko tresna estatistiko nagusia. Halaber, aipatzekoa da ez direla bateratu ez metodologiak ezta denboraren erabilerrari buruzko datuak eskuratzeko kontzeptuak ere, eta horregatik ezin da herrialdeen arteko konparazio zorrotzik egin. Zehatzago, aipatzekoa da Guatemalari dagokion inkestan nekazaritza lana lan ordaindu gisa definitzen dela, eta horregatik duela hain balio altua.

eta “aurremodernoak” zirelako pixkanaka desagertuko zirela iragartzen zutenen aurka, XX. mendeko bigarren erditik aurrera, gero eta etxe gehiago (erdiko klaseak eta erdi-behe klaseak) hasi ziren merkatuan zaintza-zerbitzuak erosten. 1995etik aurrera etxeko lanen bolumena bikoiztu egin da munduan. Beheko grafikoan ikus daitekeenez, leku guztietako errealitatea da.



Iturria: LANEren webgunea


Zaintza-sektorearen lan-indarra oso feminizatuta dago mundu mailan. LANEren arabera, mundu osoan enplegua duten 13 emakumetatik batek zaintza-sektorean egiten du lan. Desparekotasun ardatz gehiagok baldintzatzen dute sektorea, hala nola gizarte-klaseak, jatorri etnikoak eta migrazio-estatusak. Etxeko lana betidanik egon da migrazioari lotuta; lehenbizi, landa-hiri migrazioari; geroago, hiri txikietatik handiagoetara gauzatzen zen migrazioari; eta gaur egun, nazioarteko migrazioari. Munduan etxeko langile diharduten 8,4 milioi nazioarteko migratzaile daude (barneko migratzaileak kontuan hartu gabe). Horietatik 680.000 Latinoamerikan daude, eta 1,8 milioi Europan (LANE, 2015). Haurren lana<sup>15</sup> ere ohikoa da.

Lan-mota hori merkatuaren eta etxeetako zaintza-lan ez-ordainduaren artean kokatzen da. Berezitasunak ditu (etxean gauzatzen da, eta oso harreman indibidualizatua ezartzen da langilearen eta enplegatzailearen artean), eta ondorioz erraza-

<sup>15</sup> Adingabeek egiten duten lan guztia ez da haurren lan gisa definitzen. Haurren lana da, baldin eta: 5 eta 11 urte arteko haurrek gauzatzen badute; 12 eta 14 urte arteko adingabeek astero 14 ordu baino gehiago etxeko lanei eskaintzen badizkiete; 15 eta 17 urte artekoek etxeko lan “arriskutsuak” gauzatzen badituzten (barne hartuta asteko 43 ordutik gorako lanaldiak). Etxeko lanetan diharduten 17,2 milioi adingabetik 11,5 milioi hartu daitezke haurren lan gisa (%65 neskaok dira). LANEren datuak (2013).

goa da lan-eskubideak urratzea eta hainbat esplotazio mota gertatzea. Ohikoak dira gatibu lanak eta sexu-eraso larriak. Orokorrean, zaintza-lan ez-ordainduak gutxietsi egiten dira (ez dira lan gisa ikusten). Horri gehitu behar diogu zerbitzu-edo morrontza-harreman gisa ulertzeak dakartzan arazoak (gizarte-klaseen arteko desparekotasunak eta jatorri etnikoak markatuta). Labur, esan beharra dago “emakume txiroek” —hau da, aukera-gaitasun txikiena duten horiek— gauzatzen duten errealitate transhistorikoa dela.

Kalkuluaren arabera, Espainiako Estatuan<sup>16</sup> 614.000 langile daude zaintza-sektorean (%89,7 emakumeak dira). Krisia 2007an hasi zenetik enplegua zertxobait galdu da, baina ez gehiegi (beste sektoreetan baino gutxiago). Batez ere lan-baldintzak okertu dira, eta ek ordezkatu dituzte etxeko langile atzerritarrak. Langile espainiarrak %6,9 igo dira, eta atzerritarrak %33,1 jaitsi dira. Gaur egun, langile atzerritarrak baino gehiago dira espainiarrak.



Iturria: Díaz Gorfinkiel eta Fernández López (2016)

EAEn, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2011n argitaratu zuen txosten baten arabera, ia 90.000 emakume langile zeuden zain-

<sup>16</sup> Kontrakoa esan ezean, Espainiako Estatuari buruzko datu guztiak Díaz Gorfinkiel eta Fernández Lópezenak (2016) dira.

tza-sektorean, guztira 105.000 etxerentzako lanean. Hau da, EAEko etxe guztien %14,2k etxeko lana kontratatzen zuen. Kontratazioa gizarte-klaseak markatzen du, baina nolabaiteko joera antzematen da klaseen artean berdintzeko<sup>17</sup>. Emakume atzerritarren kopurua oso altua zen, baina ezin dugu pentsatu Espainiako herritartasuna duten emakumeek ez dutela lan hori egiten (%66,1ek Espainiako herritartasuna zuten, eta %33,1ek atzerrikoa<sup>18</sup>). Hori guztia gorabehera, sektore hau migratzaileentzako lan-irteera nagusia da oraindik ere, gaur egun krisi hasieran baino gehiago: lana daukaten emakume atzerritarren erdiak dihardu zaintza-sektorean lanean (2010ean, 5 emakume atzerritarretik batek).

Kalkuluen arabera, Latinoamerikan 18 milioi etxeko langile daude, eta %93 emakumeak dira. Emakumeen enpleguaren guztizkoan zaintza-sektoreak daukan pisua bikoitza da Espainiako Estatuaren aldean: Latinoamerikako emakume langileen %13,8 etxeko langileak ziren 2015ean, eta Espainiako Estatuan %6,8. Hala ere, eskualde mailako datu horren atzean herrialdeen arteko ezberdintasun handiak daude: Mexikon, emakume langileen %10,9 dira etxeko langile; Guatemalan, %8,3<sup>19</sup>. Zenbait Egileren (2016) arabera, Mexikon etxeko lanaren bolumena bikoitza egin zen 1990. eta 2008. urteen artean; gaur egun 2,3 milioi etxeko langile daude herrialdean. Centro de Derecho Humanos Fray Matías de Córdova (CDHFMC) zentroaren txostenaren arabera (2012), Tapachulako etxeko langile ia guztiak emakume migratzaileak dira, gehienak Guatemalakoak, eta horien erdiak 13 eta 17 urte artean dituzte.

Etxeko lanak gakoa izan daitezke arazo pribatuei konponbide kolektiboa emateko; zentzu horretan, zaintza-sektorearen bolumenak eta baldintzek oso ondo adierazten dizkigute gabezia sozioekonomiko sakonak.

#### 2.1.4. Zaintza-kateak (globalak)

Zaintza-lana ez da sozialki ez ekonomikoki balioesten, eta pertsonarteko mende-kotasuna ez da onartzen gu geu erantzunkide sentitzeraino. Hartara, ahal duenak beste norbaiten gain uzten du zaintza-lana: ez du bere burua zaintzen, eta ez ditu besteak zaintzen. Botere-ardatzak oinarri dituzten kate antolatuetan dabil-tza zaintza-lanak. Gaur egun, kate horiek dimentsio globala hartzen ari dira, na-

<sup>17</sup> Kontratatzaileak: erdi-behe klaseko etxeen %8,5, erdiko klaseko %16,4 eta goi klaseko %30.

<sup>18</sup> Erne ibili; izan ere, Espainiako herritartasuna dutenen artean herritartasuna hartu duten baina jatorri migratzailea duten pertsona asko daude. Emakume horiek ez dute maila administratiboan zailtasunik izango, baina bestelako oztopoak izan ditzakete (adibidez, beren tituluak kontuan ez hartzea); horrez gain, eguneroko arrazakeria pairatuko dute, eta bestelako familia-harreman edo sare transnazionalak izan ditzakete, beren lan-gizarteratzea baldintzatuko dutenak.

<sup>19</sup> Datu horien arazoa da soilik hiriguneei dagozkiela. Ez dago landa-eremuari buruzko daturik. Besterik aipatzen ez bada, Latinoamerikari buruzko datuak Lexartza et al. autoreenak dira. (2016).

zioarteko emakume migratzaileek protagonismo handiagoa dutelako zaintza-lan ordainduen sektorean, eta zehatzago, etxeko lanetan.

Zaintza-lanen kate globalak, beharbada, egungo globalizazio neoliberalaren alderdi ezkutuen dira, eta lotura estua dute globalizazioarekin eta migrazioen feminizazioarekin<sup>20</sup>. Bi krisik bat egiten dutenean sortzen dira kate globalak: zaintza-krisia eta erreprodukzio sozialaren krisia, hain zuzen. Zenbait herrialdetan, lanaren sexu-banaketa klasikoan oinarritzen da zaintzaren banaketaren eredu. Eredu horren porrotari gehitu behar zaio erantzukizunik ez hartzea ez estatuak, ez enpresek ezta gizonezkoek ere. Ondorioz, gero eta etxe gehiagok (emakume gehiagok) zaintza erosten dute (merke), eta horrela emakume migratzaileei lan-aukerak zabaltzen dizkiete. Zaintzen krisia deitzen diogu horri. Krisi horrek bat egiten du erreprodukzio sozialaren krisiarekin, zeinak munduko leku askotan familiak (eta emakumeak, familiaren ongizatearen azken erantzule gisa) behartzen dituen biziraupen-estrategiak biderkatuz; horrela, migratzea funtsezko konponbideetako bat izan ohi da.

Garrantzitsua da baita ere kontuan hartzea zaintza-kateak ez direla “emakumeen kontuak”: jakina, emakumeak dira protagonista, zaintzeko erantzukizuna hartzen dutelako. Baina kasu guztietan, “egin ezagatik” falta diren eragileak daude, nahiz eta oso presente dauden onurak jasotzerakoan: gizonezkoak, erakunde publikoak eta enpresak, hain zuzen.

Auzitegi honetan aztertutako kasuak zaintza-kateen kasuak dira: Pilar/Piliren kasuan hiri-landa migrazioaren arabera ezarritako zaintza-kateak; Floriren kasuan mugan zeharko migrazioaren arabera ezarritakoak. Bi kateak kokatzen dira behe- edo herri-klaseko emakumeak protagonista dituzten migrazio-fluxuetan. Zaintza-kateak (globalak) leku estrategikoa dira, handik sistema sozioekonomikoa aztertu eta zalantzan jarri daitekeelako; izan ere, zaintza-kate globaletan hiru kontu elkartzen dira, eraldatu nahi ditugun dinamikak kondentsatzen dituzten lokalizazio paradigmaticoak diren hiru kontu, hain zuzen.

Lehenbizi, etxeko lanean izandako esperientziak markatutako kasuak dira. Etxeko lanek oso ondo adierazten dute desoreka sozialaren maila, zaintzaren ingu-

20 Migrazioak globalizatzeaz ari garenean esan nahi dugu “nazioarteko migratzaile kopuruak gora egin duela [...] eta al-daketa garrantzitsuak egon direla desplazamendu horien izaera eta ezaugarriei dagokienez. Egoera horren hondo-irudia izan da herrialde aberats eta txiroen arteko desoreka ekonomikoa etengabe haztea, globalizazio neoliberalaren prozesuaren ezaugarri gisa” (Paiewonsky et al., 2008: 36). Migrazioa feminizatzeaz ari garenean ez dugu esan nahi orain emakume gehiago daudela migrazio-fluxuetan; izan ere, emakumeek betidanik migratu izan dute (egia da zenbait fluxutan emakume gehiago daudela, hala nola Latinoamerikatik Europara; halaber, emakumeen presentziak gora egin du bereziki arrakatsuen migrazio-korridoreetan, Erdialdeko Amerikan eta Mexikon adibidez). Termino horren aldaketa-gakoa kualitatiboa da: “lan bila independenteki migratzen duen emakume-kopurua etengabe handitzea, ‘familiaren mende’ joan beharrean” (Paiewonsky et al., 2008: 36).

ruko erantzukizun kolektibo eza (merkatu kapitalistak gizartearen ardatz diren heinean duten pisuarekin lotura zuzena duena), eta heteropatriarkatuaren sus-traien sakonera. Bigarrenik, migrazioari lotutako kasuak dira. Migrazioa ohiko fenomeno da (nahiz eta sarritan hala uste ez dugun), gizateriaren historiaren be-rezko fenomeno. Ez da arazo bat bere horretan; soilik mugikortasun-eskubidea urratzen denean sortzen da arazoa. Halaber, ez du gaitz handirik ekartzen, nahiz eta hori pentsatzeko joera dugun (amek migratzen dutelako bakarrik geratzen dira haurrak, edo herritarrak joateagatik espoliatzen dituzte herrialdeak). Migra-zioak ez ditu arazoak sortzen, hobeto esanda, migrazioak azaleratu egiten ditu gure gizarteetan lehendik zeuden gabeziak (amei ezartzen zaien gehiegizko eran-tzukizuna, herritarrak kaltetzen dituzten garapen-eredu okerrak). Hirugarrenik, aipatutako kateak, literalki batetik bestera mugitzen diren emakumeen istorioak dira, eta baita metaforikoki mugitzen diren emakumeen istorioak ere, ezarrita-ko genero aginduaren aurka altxatzen direlako<sup>21</sup>. Nolabaiteko errebeldia-mugi-mendu horiek emakumeen arteko desoreka handien testuinguruan kokatzen dira, eta sistema ekonomiko jakin batean, non heteropatriarkatuak zaintzeko agindua inposatzen dien, horrela, kapital-bizitza gatazka deituko duguna erreprimitzeko. Bestela esanda, emakumeak mugitzen direnean, erreprimittuta zeuden egiturazko tentsioak azaleratzen dira. Horregatik, zaintza-kateak (globalak), non etxeko lan-ak, migrazioa eta mugitzen diren emakumeak elkartzen diren, leku estrategikoa dira gure sistema sozioekonomikoa zalantzan jartzeko. Pilar/Piliren eta Floriren kasuak oso interesgarriak dira galdera horiek irekitzeko.

## 2.2. Zapalkuntza-sistemen intersekzioa

Aztertutako bi emakumeen kasuak oso adibide adierazgarriak dira zaintza-ka-teei (globalei) dagokienez. Kasuok hitz egiten digute bat egiten duten hiru za-palkuntza-sistemaren arteko intersekzioaz edo elkarguneaz: sistema kapitalista, heteropatriarkala eta kolonialista. Zapalkuntza-sistema hori egiturazko gatazka konponezin baten gainean instalatzen da; hain zuzen ere kapital-metaketa eta bi-zitzaren iraunkortasun prozesuen arteko gatazkaren gainean. Negozioa pertsonen bizitzak esplotatzearen kontura egiten da, planetako bizitza espoliatuz eta bizirik dagoen guztia suntsiketaren etengabeko mehatxupean jarriz. Sistema biozida hau mantendu ahal izateko, bizitza zaintzeko/sostengatzeko erantzukizuna maila eko-nomiko ikusezinei bideratzen zaie. Bizitza “existitzen ez diren” lanen bidez kon-pontzen da, lan horiek eremu “ez-ekonomikoetan” gauzatzen dira, eta “subjektu politiko ez diren” pertsonak garatzen dituzte. Sistema horrek iceberg baten antza dauka: erdigunean merkatu kapitalistak daude, maskulinitate zuriari lotutako me-

<sup>21</sup> Migratzeak, emakume gehientsuentzako, badauka halako zentzu askatzailea; batzuetan etxeko lanen kontratazioa gertatzen da emakume batek lan-merkatuan sartu nahi duelako, eta ondorioz pertsona bat behar duelako bere postua betetzeko, edo ez duelako onartzen mendekotasun handiko senide baten zaintzaile sakrifikatua izatea.

taketa-logikak zuzendutako merkatuak hain zuzen. Merkatu horietan sistemaren subjektu pribilegiatuak nagusitzen dira: gizon zuri, burges, hiritar, heterosexual eta iparralde globalekoak. Ezkutuko icerberg zatian bizitza zaintzeko prozesuak daude. Iceberg hori biraka dago ardatz heteropatriarkal eta kolonialistaren inguruan, eta ardatz horrek erabakitzen ditu ikuseremua eta ikusezintasun mekanismoak. Jarraian ideia horietako batzuk garatuko ditugu, eta hurrengo puntuan ideia horien ondorioak aztertuko ditugu.

### 2.2.1. Kapitalismoa

Aztertutako kasuak nabarmen baldintzatu dituzte gizarte-klaseen arteko desorekek. Esan bezala, etxeko lana betidanik izan da “emakume txiroen” lana. Zentzu zabalagoan, kapitala-bizitza gatazkaren lehen lerrora ekartzen gaituzten kasuak dira. Gatazka hori oinarri hartuta eraikitzen da kapitalismoa: kapitala lehenetsiz, eta ondorioz bizitzari eraso eginez (giza-bizitza zein bestelako bizitza). Herritarrei erreproduzio-bitartekoak kentzen dizkiete, eta diru-etekin pribatuko ekoizpenerako bitarteko bihurtzen dituzte. Horrela, Flori eta Pilar/Piliren migrazioaren kausa nekazarien txirotzea da, baita soldatapeko lana izateko beharra ere, ez direlako gai izan bizibideak modu autonomoan sortzeko. Metaketa prozesuetako beharrek baldintzatzen dituzte egitura sozioekonomikoak. Hori argi ikus dezakegu, adibidez, denbora sozialak eraikitzen ditugunean enpresen beharren arabera. Enplegu bat eduki ahal izateko, lan-merkatura “zaintza-zamarik” gabe joan behar da, eta norberaren beharrak asetuta, ezerezetik sortu den nolabaiteko “langile txanpiñoi” bat bezala. Hori posible izango da soilik beste norbaitek egiten badu ezkutuko zaintza-lana.

Merkatu kapitalistak egitura sozioekonomikoaren erdigunean jartzeak honakoa esan nahi du: kapitalismoan erantzukizun kolektiboa bideratuta dago negozio pribatuek ondo funtzionatzera. Horregatik ez dago (eta ezin da egon) erantzukizun kolektiborik bizitza sostengatzeari eta zaintzeari dagokionez. Erantzukizun hori pribatizatu egiten da. Bizitza modu pribatuan sostengatzen da, etxeetan, norberak dituen baliabide pribatuen bidez (denbora edo dirua); orduan, zuzenean sartzen da jokoan heteropatriarkatua.

### 2.2.2. Heteropatriarkatua

Genero desparekotasunak eta lanaren sexu-banaketak nabarmen baldintzatu dituzte aztertutako kasuak. Zaintza-lana ez da lan gisa ulertzen, eta hori zuzen lotuta dago “arrastorik uzten ez duten” lanek balio ez dutela dioen balorazio sistema heteropatriarkalarekin (etorkizunera begirako gauza handiak eraiki ordez, bizitza egunero-egunero berreraikitzen dutelako). Heteropatriarkatuak eremu



sozioekonomikoak eta lan ikusezinak existitzea bermatzen du, non erasotutako bizitza zaintzeko erantzukizuna hartzen den. Bizitza sostengatzeko ardurua pribatua etxeetan ezkututzen da, non lan- eta baliabide-banaketa ez den bidezkoa. Heteropatriarkatuak zaintza eraikitzen du emakume zintzoen bizitzari lotutako betebeharrak balitz bezala.

Genero-agindu hori onartu egiten da, gizarte-klase eta botere-harremanen molde konplexuan norberak duen posizioaren arabera: batzuentzat etxeko langile bat kontratatzea dakar horrek, lanak sortzen dituen hutsuneak betetzea eta ustez delegatu ezin diren zenbait zeregin gauzatzea. Beste batzuek, agindu hori onartzearen ondorioz, beren etxeak zaintzeaz gain beste etxeek delegatu duten zaintza-lana gauzatu behar dute. Genero-agindua ez da mugatzen zaintza bizitzako alderdi isolatu bat bezala ulertzerako: Flori eta Pilar/Pilirentzat zaintza-lana ez da mugatzen etxeko lanetara, edo ama, alaba zein emazte gisa duten rolerak. Zaintzeko betebeharrak zeregin zehatzez harago doa, eta ondorioz emakumeen inguruan ardatzen da elkarbizitza nukleoaren sostengua, lan ez-ordaindua egiteaz gain diru-iturri ere badirelako. Sostengatzeko betebeharrak da. Gizonen erantzukizun falta da sostengu/zaintza-betebeharraren beste aurpegia. Ohiko egoera da gizonek ingurukoengatik konpromiso zehatzak ez hartzea, eta horrek pribilegio nabarmenak dakartza: gizonezkoentzat askoz errazagoa da lan-merkatura joatea kapitalismoak nahi dituen langile txanpiñoi horiek bezala.

### 2.2.3. Kolonialismoa

Desparekotasun etnikoak eta posizio globalak ere nabarmen baldintzatu dituzte aztertutako kasuak. Mexiko hegoaldeko mugan zaintza-kateak oso baldintzatuta daude herritar mestizo eta indigenen arteko desoreken ondorioz. Etxeko langileak kontratatzerakoan estereotipo arrazistek funtzionatzen dute, eta Guatemalako emakumeak kontratatzen dituzte: gaitasun gehiago dute lan hori egiteko, lan gogorragoak onartzen dituzte, etab. Cumesen (2014) arabera konparazio zuzena egiten da, zeinaren bidez emakume indigena guztiak “zerbitzaritzat” hartzen diren. Etxeko lana morrontza-harremanek baldintzatzen dute, eta normaldu egiten da klase batzuk beste batzuen zerbitzura egotea, beren bizitzaren kontura bada ere. Nagusi- eta zerbitzari-klaseen arteko harremana arraza- eta etnia-bazterkeriak baldintzatzen du. Etxeko lana arrazializatuta dago.

Pilar/Piliren kasuak eredu industrializatu bat erakusten digu, zeina oinarrিতa dagoen desparekotasun globaletan eta Espainiako Estatuaren pribilegiozko kokapenean. Gaur egun, zaintza-kate globalak dira desparekotasun globalaren adierazgarri argiena, lanaren (nazioarteko) sexu- eta arraza-banaketa artikulazioari dagokionez. Euskal Herriko zaintza-lanen sektorean emakume migratzaileak ego-

teak arrazakeria instituzionalizatua eragiten du Europa gotorleku honetan, gaur egungo atzerritarren legerari darion arrazakeria kasu, aurrerago aztertuko duguna. Halaber, arrazakeria formak etxeko lanen errealitatean eguneroko interakzioan azaleratzen dira, eta orokorrean, emakume migratzaileen bizi-espereentzietan.

## 2.3. Ondorioak

Zentzu zabalean, aztertutako kasuek ikusarazi egiten digute zaintza-sistema bigeabeen berrartikulazio globala, hain zuzen, garapen-eredu jasanezinaren eta heteropatriarkatu kapitalista zuriaren atzean dagoen berrartikulazioa. Berrartikulazio horrek hiru alderdi ditu gutxienez. Batetik, zaintza-lanak berriz pribatizatzea: oraindik ere norberak etxean dituen baliabide pribatuekin konpondu beharreko zerbait da (doan zaintzeko denboraren bidez, edo beste norbaiten zaintza-lana erosteko diruaren bidez). Aldi berean, merkatuan gero eta zaintza gehiago daude (bizitza intimoa merkantilizatzen ari da). Zentzu zabalagoan, bizitzaren jasangarritasunerako prozesuak berriz ere pribatizatzen ari dira. Migrazioa sortzen da bizitzeko gero eta diru gehiago behar denean, eta aldi berean, enplegu-aukerak eta gutxieneko egonkortasuna izateko aukerak gero eta gutxiago direnean; ondorioz, norberak ahal duena egiten du aurrera ateratzeko. Bestalde, kateek emakumeen zaintza-betebeharra eguneratzen dute, eta horretarako emakumeen eta zaintza-lanaren arteko harremanaren naturalizazioa berreraikitzen dute. Azkenik, zaintza eta desparekotasunaren arteko lotura berrartikulu egiten da, eta gero eta gehiago markatzen dute hegemonia globalak eta migrazio-estatusak. Lanaren sexu-banaketa nazioartekotzen ari da. Horrela, norberak ordena global desorekatu honetan daukan kokapenak gero eta garrantzi handiagoa dauka, definitzerakoan nork eta nola eskuratzen dituen “zaintza duinak” deituko ditugunak... eta nor(tzu)en kontura eskuratzen dituen. Ikus ditzagun Auzitegiak aztergai dituen alorreko dagozkien ondorioak.

### 2.3.1. Ondorio ekonomikoak

Heteropatriarkatu kapitalista zurian, “txirotasunaren feminizazioa” etengabekoa da. Termino horren bidez ez da adierazi nahi emakumeak biktima hutsak direla; izan ere, Flori eta Pilar/Piliren kasuek argi erakutsi digute emakumeak subjektu aktibo direla beren bizitzak eta bizitza kolektiboa eraldatzeko borrokan. Hala ere, termino horrek gogora ekartzen digu zaintza-lanen ardura hartzeak desabantaila materialak dituela sistema honetan, non bizitza zaintzea lehentasuna ez izateaz gain, bizitzaren inguruko guztia ustiatzen den negozio pribatua egiteko.

Aztertutako kasuek sistema ekonomiko gaiztotua erakusten digute: bizitza sostengatzea ez da helburua, baizik eta metaketa lortzeko bitartekoa, eta metaketa

horrek bizitzari berari eraso egiten dio aldi berean. Esan bezala, icebergaren metafora erabili dezakegu ekonomia mota hau grafikoki adierazteko: ikusgai den zatia kapital-metaketaaren prozesuari dagokio, eta hor dago soldatapeko lana, langile txanpiñoiek egiten dutena. Zati ikusezina da bizitza sostengatzearen arduraduna, eta hor kokatzen dira zaintza feminizatuak. Zaintzaren balio ekonomikoa ez airtortzea ezinbestekoa da sistema mantentzeko: zaintza-lana, nahiz eta merkatuan gauzatu, ez dago ordainduta edo gaizki ordainduta dago, eta eskubide sozialik izatekotan, oso eskasak dira.

### 2.3.2. Ondorio politikoak

Zaintza-lana, hartara, ekonomia toxikoaren oinarri ikusezina da. Ikusezintasun hori ez da kasualitatea, ezta kontu sinplea ere: ezkutatzea ariketa politikoa da, ezinbestekoa, sistemak iraun dezan. Bizitza zaintzeak berekin dakar, gako gisa, merkatu kapitalisten erasoetatik sendatzea. Horregatik, ezkutuan mantendu behar da zaintza: ikusgai egongo balitz kapitala-bizitza gatazka azaleratuko litzateke. Ikusgai egongo balitz, erantzukizun kolektiboa dela exijitu ahalko litzateke (eta hortaz, diru-etekin pribatua ez litzateke gehiago babestuko). Ikusgai egongo balitz, lehentasun sozioekonomikoak aldatuko lirateke.

Zaintza “ikusten” ez dugula diogunean, esan nahi dugu zaintza ez dugula eztabaida eta aldarrikapenerako gai bihurtzen. Ez dugu herritartasun ekonomiko eta soziala eraikitzen zaintzarekin dugun harremanaren arabera: zaintzeak ez dizu pentsio eskubidea ematen, zaintza intentsiboa behar izatea ez da eskubide aitortua. Areago, zaintza-lanak ikusezinak dira ez dutelako subjektu politikorik eraikitzen, aldarrikapen, eskaera eta antolaketa-egiturekin. Ikusezintasuna datuak edo kontzeptuak ez izatetik baino askoz harago doa. Horregatik, gorago esan bezala, zaintza “existitzen ez den” lana da, eremu “ez-ekonomikoetan” gauzatzen dena, eta “subjektu politiko ez diren” pertsonak egiten dute. Zaintza existituko balitz, izendatuko balitz eta gauzatzen dituztenek nortasun politikoa balute, gatazka azaleratu egingo litzateke bere gordintasun guztiarekin. Sistema lehertuko litzateke.

### 2.3.3. Ondorio antropologikoak

Zaintza-kateen (globalen) funtzionamenduak hiru iruditeria oker finkatzen ditu. Batetik, zaintzaren etika atzerakoia. Gorago zaintzeko betebeharrak edo genero-aginduak deitu dugun hori ez dugu nahastu behar “zaintzaren etika” izan ahalko litzatekeen horrekin, eta horregatik onartu etekin pribatuen logikaren aurrean. Zaintzeko betebeharrak atzerakoia da hiru zentzutan: Emakumeek besteen bizitzak zaintzen dituzte, haien bizitzaren kontura; sakrifiziozko logika da. Ez da edonor zaintzen; “familia” zaintzen da, familia bera ulertzeko modu heteropatriarkala-

ri jarraiki. Eta zaintza horiek kapitala-bizitza gatazkak eztanda ez egiteko balio dute. Zaintzak mundua sostengatzen du... Mundu toxikoa sostengatzen du, ordea.

Bestalde, etxeko lana kokatzeko balio duten diskurtsoak (neo)morrontzan oinarritzen dira. Batzuetan familiaren aldeko morroi-diskurtsoa da, etxeko langileak “familiakoak balira bezala” hartzen dituenak baldin eta nahikoa “zintzoak” (sakrifikatuak) badira. Diskurtso horrek harremana afektuen hartu-eman ustez aldebiko baten moduan pentsatzen du, baina langilearekiko paternalismoa edota infantilizazioa erakusten du. Pentsatzen da aukera gutxi dituzten emakumeak direla, eta aukera bat ematen zaiela etxeko atak irekitzen zaizkienean. Neoliberalismoa finkatzearekin batera, diskurtso honek nolabaiteko kutsu profesionalista neo-morroi hartzen du: ulertzen du ezarritako hartu-eman bat dagoela kontratuzko harreman askearen testuinguruan, non alde batek ongizatea erosten duen eta beste aldeak bizitzeko bitartekoak lortzen dituen. Aukera-berdintasuneko diskurtso erretoriko baten parekoa da, bidezko merkataritza-transakzioez hitz egiten du, eta sexu, etnia, gizarte-klase eta migrazio-estatusaren arabera banatutako lanmerkatu bat egoteari legitimoa deritza. Bi diskurtso horiek desparekotasuna justifikatzen dute, zilegizat jotzen dutenean bi gizarte-klase egotea: batetik, zaintza jasotzeko eskubidea exijitu dezakeen klasea, eta bestetik, zaintzeko betebeharra duen klasea.

Irnotasunez finkatutako azken iruditeria aipatutako buruaskitasunaren ingurukoa da: elkarrekin bizitzeak ezinbestean dakar elkarrekiko mendekotasuna, baina ukatu egiten dugu oraindik ere. Egoera horretan, posizio hobea daukate buruaski direla “antzezteko” gai diren pertsona horiek. Ikusi dugunez, buruaskitasun faltsu horrek sakrifikatua eta ikusezina den beste aurpegi baten beharra du: (neo)morrontzako harreman horretan sortzen diren zaintza feminizatuak.

#### **2.3.4. Ondorio biopsikozialak**

Ondorio biopsikozialen aniztasuna dela eta, genero nortasunaren eraikuntza binarioarekin lotutako ondorioak nabarmenduko ditugu. Maskulinitate hegemonikoa eraikitzea, zaintzarekiko kontraesan gisa. Maskulinitate-eredu nagusiaren moralitateak funtzionatzeko behar dituen parametroak ez dira bateragarriak zaintzarekin: “gizona izateak” diru-sarreraren hornitzaile izatea esan nahi du (eta zaintzeko denborarik ez izatea), buruaski plantak egitea (beharrizanik eta zaintzari lotutako erantzukizunik gabeko izaki baten jarrera hartzea), mugimendu-askatasuna izatea eta norberaren denbora eta bizitzaren gaineko erabakiak hartzeko gai izatea (besteen zaintza-beharren aurrean amore ez ematea) eta afektua ez adieraztea (emozioekin eta zaintzarekin konektatzeko zailtasuna izatea).

Kontrako zentzuan, feminitate hegemonikoa edo “emakume zintzoaren” irudia zaintzaren bidez eraikitzen da; hala ere, eraikuntza horrek ezberdin funtzionatzen du, zein emakumez ari garen. Etxeko langileak potentzialki zintzoak dira, baina horretara bultzatu behar dira; zibilizatu, moralizatu eta babestu beharreko subjektuak dira (baita euren buruengandik ere), eta are gehiago landa-eremutik badatoz, eta gazteak, migratzaileak edota indigena edo arrazializatuak badira. Hori argi ikusten dugu nagusi mexikarren eta neskato langile guatemalarren arteko harremanean. Frankismoan ere oso argi ikusten zen herrietatik zetozen neskatoak tratatzeko moduan. Maiz prozesu hori instituzionalizatu egiten da, Pilar/Pili gaztea zenean gertatu bezala, etxeko langileak gaueko hamarretatik aurrera kanporatu ezin zirenean... kaletik bakarrik ibili ez zitezen. Hori ondo betez gero sari instituzionalizatua dago: Mexikon, muga zeharko migratzaileek Tokiko Bisitarien Migrazio-Formatua (Formato Migratorio de Visitante Local) eskuratu dezakete behin eta berriz, nahiz eta argi dagoen ez doazela bisitan baizik eta lanera, “zintzoak” direlako, lan “zintzoa/ona” egiten dutelako eta ez dutelako Estatu Batuetara joateko asmorik. Azkenik, esan behar da kontrol hori emakumeen bizitzan alderdi guztietan ematen dela: laneko zein familiako harremanetan, eta baita lagunarteko harremanetan ere Emakume zintzoa izateak esan nahi du gizarteak agintzen dizkizun pertsonak zaindu behar dituzula, maitasunagatik, kexarik gabe eta atsedetik gabe. Horrekin apurtzen duen edozein gauza, mugak jartzea, ezetz esatea, modu askotan zigortzen da: Flori jatorrizko komunitatera itzultzen da eta “emakume publiko” gisa ikusia izateko arriskua hartzen du; hori konpentsatu egin behar du “familia betebeharrak” bere gain hartuta. Pilar/Pilik ez ditu bere aitagarrebak zaindu nahi, eta kondena soziala jasotzeaz gain dibortzio arriskua hartzen du. Kapitalismo heteropatriarkal zuriak emakume zintzoekin funtzionatzen du, dagozkien pertsonak zaintzen dituzten emakumeekin alegia, botere-harremanen sare konplexu horretan duten posizioaren arabera.

## 2.4. Ardatzen arteko lotura



### 2.4.1. Lurralderako eta elikadura-burujabetzarako eskubidea

Iparralde globalaren kasuan, zaintza-kateen sorrera oso lotuta dago “garapen” eredu jakin bati: polo industrialen hazkundera eta landa-eremuaren jendegabetzean oinarritutako ereduari, hain zuzen. Etxeko langile askok, historikoki, landatik hirietara migratu izan dute. Era berean, landa-eremuan adineko jende asko dago eta sarritan zaintza defizit handia dago. Defizit hori asetzeko nazioarteko emakume migratzaileak kontratatzen dira, barneko etxeko langile gisa. Nukleo handietatik kanpoko etxe askok kontratatzen dituzte halako zerbitzuak. Beheko mapan ondo ikus daiteke hori, halako etxeek EAE-n duten kokapen geografiko zehatza adierazten baitu:

### Etxeko langileak kontratatzen dituzten etxeen banaketa geografikoa, EAE

6,3% ikusgai ez diren guneetan sakabanatuta

15,0% ikusgai ez diren guneetan sakabanatuta





*lantzen ez duten emakumeei saltzen diegu ekoizten duguna, eta horrela hiria elikatzen dugu*<sup>22</sup>.

Landa-eremuan, zaintzaren antolaketa sozialak hiri-eremutik bereizten dituen ezaugarri jakinak izan ohi ditu. Besteak beste, landa-eremuan zaintza-lanek denbora gehiago eskatzen dute; ohikoagoa da familia zabala eta komunitate-sarea edukitzea; eta estatuak presentzia gutxiago dauka (baliabide publikoak hirigunee-tan metatzen dira, lurralde pribilegiatua baita). Bestalde, lanaren sexu-banaketak hartzen duen forma ere ezberdina izan ohi da: enplegua/zaintza ez-ordainduaren arteko bereizketa argiak lotura du merkatu-ekonomiarekin eta urbanizatzarekin. Nekazaritza-ekonomietan banaketa hori honela islatzen da: gizonak eskala handiko lursailen ardura hartzen dute, eta emakumeek, aldiz, “etxeko” eremu zabalean (etxearen inguruko eremu zabala ere barne hartzen duena) kokatutako eta merkatuarekin lotura zuzena ez duten jardueren ardura.

Azkenik, esan beharra dago elikadura-burujabetza bermatzeko ahalegin handia eskaini behar zaiola zaintzari. Bestela esanda, elikagaiak hornitzea (ekoiztu zein hornitu, eta guztion mahaira heltzen direla ziurtatu) zaintza-lanaren alderdi nagusietako bat da. EAEn lan ez-ordainduari denbora gehien kentzen dio elikagaien prestaketak (ia ordubete herritarren batez bestekoarentzat). Halaber, emakume eta gizonen artean banatzea gehien kostatzen duen jarduera da: elikagaien prestaketan dago emakume eta gizonen parte hartze tasen arteko ezberdintasun handiena (%84 eta %58, hurrenez hurren) eta sukaldeari eskainitako denboran ere ezberdintasun handia nabari da (Mauleon, 2015).

#### **2.4.2. Energiarako sarbide justu eta jasangarrirako, eta energia-burujabetzarako eskubidea**

Energia-eredua ere estu lotuta dago zaintza-kateekin. Hegoalde globalean pixkanaka areagotzen ari da klima-aldaketak eragindako migrazioa. Erdialdeko Amerika zonalde bereziki zaugarria da, eta Mexikoko hegoaldean argi nabaritzen da Guatemalatik, Nikaraguatik, Hondurasetik eta El Salvadorretik heltzen ari den jende-fluxua. Emakume migratzaile horietako asko etxeko langile aritzen dira.

Migratzearen helburua, maiz, energia-iturriak eskuratzeko gabeziak asetzea da. Auzitegi honetan aurkeztutako txostenaren arabera, soilik Mexiko eta Guatemala-laren arteko mugaren inguruko etxeen %12k daukate argindarra. Zonalde horretan, argindar-sektorearen pribatizazioaren eta liberalizazioaren eraginez, lehentasuna eman zaio errentagarritasunaren logikari. Ondorioz, argindar-zerbitzurik

22 Ikusi lekukotza: <https://www.facebook.com/13EFLACPERU/posts/750907728332868:0>



gabe geratu dira landa-eremuak eta erosteko ahalmen txikiagoa duten herritarrak (Sanabria et al., 2005). Oinarrizko azpiegitura hori gabe, migratzaileek egiten dituzten diru-bidalketak argindarra instalatzeko erabiltzen dira nagusiki (Díaz Prieto, 2015a); zaintza-lan ez-ordainduaren funtsezko zati bat energia-iturriak hornitzera bideratzen da: esaterako, egurra biltzeak milioika ordu lapurtzen dizkie mundu osoko emakume eta neskatoei. “Azpiegitura mundutarrean” ez inbertitzeagatik gertatzen da hori; azpiegitura mundutartzat hartzen dira honakoak: “bizi eta hiltzearekin lotutako eguneroko kontuez arduratzen diren azpiegiturak, bizi-kalitate duinaren bizkarrezur direnak, baina hala ere behar globalari dagokionez jasotzen duten inbertsioa ez da nahikoa” (Ray, 2016: 2).

Kontrara, autoa ardatz duen hazkunde-eredu hiritarra sustatzen da, eta horrek zaintzaren krisia elikatzen du:

*“Hiri handiek eta garraio motorizatuak (autoentzat eraikitako hiriak) zaildu egiten dute zaintza lanak hobetzea: garraioari eskainitako denbora biderkatzen da (eta ondorioz, bizitzako denbora hori ezin zaie bestelako jardueri –pertsonalak, lanekoak, zaintzakoak– eskaini); eguneroko hainbat arlo hainbat espaziotan banatzen dira (bulegoa, osasun-zentroa, eskola, etxea), eta horrek horien guztien arteko artikulazioa eskatzen du; eta gune publikoak desagertzen dira, non modu gutxi-asko intentsiboan zaindu daitekeen (adibidez, haurrak kalera irten eta bakarrik egongo direlako beldurra).” (NBE Emakumeak, 2014)*

### 2.4.3. Bizi-maila duin baterako eskubidea

Ardatz honekiko lotura nagusia, hain zuzen ere, txosten osoan zehar aipatu dugun horixe da: zaintza-kate globalen eraketa. Bizilekutik urrun gertatzen diren prozesuek gero eta gehiago baldintzatzen dituzte pertsonen bizitzak, baina ezin dute prozesu horiei buruzko erabakirik hartu: transnazional batek lurra masiboki erostea erabaki dezake bertako nekazariak kanporatuz, eta ondorioz, nekazariak migratu egin beharko dute eta etxeko langile jardun beharko dira herrialde aberats bateko adineko herritarrak zaintzen, bertakoek ezin dituztelako lana eta zaintza bateratu. Eredu horren ondorioz, bizitza sostengatzeko, jendeak gero eta urrunago joan behar du eskubide-urraketek betetako baldintzetan, kapitalaren zirkulazio askearen eta pertsonen mugimendu globalaren kontrol gero eta zorrotzagoren artean dagoen dualtasun mingarria dela-eta.

Zaintzaren globalizazio fenomenoaz hitz egin dezakegu, zeinak barne hartzen duen -eta baita gaingitu ere- aipatutako zaintza lanen nazioartekotze prozesua:

*“Zaintza-lanetan, gero eta gehiago, nazioz gaindiko eragileak dira protagonista, nahiz eta alderdi hori ez den nahikoa ikertu. Zaintza-lanen zati esanguratsu bat zerbitzu-sektorearen liberalizazioaren testuinguruan deslokalizatzen egon daiteke; horien artean, adinekoei edo elbarrituei zuzendutako telefono bidezko laguntza zerbitzuak. Era berean, enpresa transnazionalen pisua gero eta handiagoa da zaintza-zerbitzu asko merkantilizatzen ari diren testuinguruan (etxez etxeko laguntza, erresidentziak, dependentzia aseguruak, baita etxeko lanak ere) eta konpainia handien zerbitzu-zorroa dibertsifikatzen ari den honetan.” (NBE Emakumeak, 2014)*

Orokorrean, gero eta enpresa pribatu gehiago daude zaintza-lanen arloan (EAE-ko enplegu-agentziak, adibidez). Baina zenbait eskualdetan izugarri igo da zaintza arloko negozioen bolumena: Asian, zaintza-kateak oso lotuta daude maila transnazionalen funtzionatzen duten enplegu-agentziei, eta emakume asko mugitzen dituzte herrialde batetik bestera. Espero izatekoa da eredu hori mundu-mailara zabaltzea, baita Latinoamerikaren eta Europaren arteko zaintza-kateetara ere.

Hain zuzen ere, korporazio handiek eskainitako nazioarteko zaintza-zerbitzuak izan litezke gaur egun negoziazio-prozesuan dauden merkataritza eta inbertsio itunek edo MII-ek (TTIP, CETA, TISA, TPILAR/PILI...) gehien mesedetuko dituzten negozio-hobiak; izan ere, itunok zerbitzuetan jartzen dute indarra, eta “bizitzaren merkantilizazioa” deituriko horretan sakontzen dute. Zentzu horretan, MII berrien boladak zaintza-sistemaren desperekotasuna sakonduko luke, aurreneko MIIek jada egin zuten bezala<sup>23</sup>.

Azkenik, esan beharra dago zaintza-lanen deslokalizazioak ez dituela soilik barne hartzen prozesu global eta, zentzu batean, despertsionalizatu horiek: dena hasten da edozein pertsona langile txanpiñoi izan nahi duenean edo “bizi kalitatea irabazi” nahi duenean, norberaren zaintza ez burutzearen kontura, edo beste pertsonetikiko zaintza harremanetan ez inplikatzearen kontura. Badago deslokalizazioa eragiten duen momentu bat: pertsonak beren zaugarritasunaz eta elkarren arteko dependentziaz arduratu nahi ez duten uena. Une horretatik aurrera, martxan jartzen dira desperekotasuna oinarri duten hainbat zaintza-fluxu, egungo dimentsio globalak hartzen dituztenak.

### 3. ESKUBIDE-URRAKETAK

Jarraian eskubide-urraketen korapilo nagusiak aztertuko ditugu, eta horien erantzukizuna kokatzen saiatuko gara.

<sup>23</sup> Ikerketa askok frogatu dute eragin hori. Ikus, adibidez, Bidegain Ponte (2010).

### 3.1. Zaintzarako eskubidea ukatzea

Testuingurua aztertzean azaldu dugu zer esan nahi duen zaintzaren antolaketa sozial bidegabeak: zaintzen inguruko erantzukizun kolektiboa ez egotea, eta zaintza emakumeen betebeharra dela ulertzea. Hori gertatzen da sistemikoki lotzen direnean zaintza, desperekotasuna, eta prekaritatea/txirotasuna/bazterkeria. Esan dezakegu, azken batean, zaintza-sistema bidegabe baten ezaugarria dela zaintzarako eskubidea ez aitortzea ezta bermatzea ere.

#### 3.1.1. Zaintzarako eskubidea?

Auzitegi honetan aztertutako kasuek, eta zentzu zabalagoan zaintza-kateen eraketak, oinarri dute zaintzarako eskubidea sistematikoki ukatzea. NBE Emakumeak (2014) erakundeak horrela definitzen du zaintzarako eskubidea:

*“Zaintza behar duten eta zaintzen duten alderdi bikoitz horretatik herritar guztiek duten eskubide propioa eta unibertsala. Dimentsio anitzeko eskubide honek honakoa barne hartzen du: 1) egoera ezberdinetan eta bizi-zikloan zehar beharrezko zaintza jasotzeko eskubidea, ekidinez diru-sarrera indibidualek eta lotura familiar zein afektiboek behar hori baldintzatzea; 2) zaindu nahi den edo nahi ez den aukeratzeko eskubidea, konbinatuz baldintza duinetan zaintzeko eskubidea eta zaintza delegatzeko eskubidea (zaintzea ez dadila izan genero rolen araberako betebeharra, eta zaintzak ez dezala gatazka sortu bestelako eskubideez gozatzerako orduan).”<sup>24</sup>*

Zaintzarako eskubideak zentzua dauka soilik eskubide unibertsala den heinean, alegia, pertsona ororen eskubidea baldin bada. Halaber, alderdi asko dauzka; ez da soilik batzuetan zaindua izateko eskubidea edukitzea, eta zaindu nahi den ala ez erabakitzea, besteak beste. Kontua da autonomia-mendekotasun hari horretan norberak daukan posizioaz ohartu behar garela. Zenbaitetan, zaindua izateko eskubidea besterik gabe izan daiteke kalitatezko denbora eta bitarteko materialak edukitzea geure burua zaindu ahal izateko, eta elkar zaintzako harreman onak ezartzeko. Beste kasu batzuetan, zaindua izateko eskubidea bete dadin, hirugarrenen zaintza espezializatuak behar dira, mendekotasun maila handiagoei erantzuteko. Eta kasu guztietan gai izan behar gara nor eta nola zaindu erabakitzeko.


Beharbada, ez zaintzeko eskubidea da polemikoena. Zentzu horretan, pare bat kontu aipatu behar dira. Alde batetik, esan dezakegu zaintzarako eskubidea nolabaiteko “zaintzeko betebeharr” baten eskutik doala; hau da, erantzunkidetasun

<sup>24</sup> Andersonek (2012) proposatzen du zaindua izateko eskubidearen dimentsioari gehitu behar zaiola zaintza ukatzeko eskubidea, baldin eta zaintza asmo txarrekoa edo kaltegarria bada norberaren duintasunarentzat. Zaintzarako eskubidearen inguruan, Pautassi (2010) ere kontsultatu daiteke.

sozial integral bat ezartzearekin lotuta dagoela. Zer esan nahi du horrek? Erantzunkidetasuna egoera bat dago gizarte-eragile guztiek (erakunde publikoak, merkatuak, komunitateak eta etxeak) euren artean berdintasunez banatzen dutenean zaintzeko erantzukizuna (oso eztabaidagarria da hori nola artikulatzen den eta erantzukizun gisa zer ulertzen dugun). Eta egoera horretan pertsona guztiek —genero, gizarte-klase, migrazio-estatus eta abarrak gorabehera— zaintzeko erantzukizunaren bidezko banaketa egiten dute. Hau da, ez zaintzeko eskubideak ez du esan nahi ez arduratzea, baizik eta zaintzeko ardura birplantatzea, gizarte osoa inplikatzan duen zerbait den neurrian. Bigarrenik, eta horrekin lotuta, ez zaintzeko eskubideak badakar nor zaindu nahi den aukeratzeko gaitasuna (adibidez, senidetasun loturengatik zaintzeko betebeharra ez izatea) eta zaintza delegatzeko gaitasuna, baldin eta bestelako oinarrizko eskubideekin talkan badago. Hori da emakume askoren kasua, zeintzuek lana utzi behar izan duten senideak zaindu ahal izateko.<sup>25</sup>

### 3.1.2. Erantzukizun publikorik eza

Zaintzarako eskubidearen urraketa zuzenean lotuta dago estatuaren ekintzarik ezarekin, zaintza-politikei dagokienez. Maila globalean, esan beharra dago azken hamarkadetan zaintza-politiken izan dela politika publikoetan dinamismo gehien izan duen alderdietako bat. Bestalde, beste alderdi batzuk, hezkuntza zein osasuna adibidez, leku askotan sistematikoki okertu dira; aitzitik, zaintza-politikak asko zabaldu dira, ondoko grafikoan ikus daitekeen moduan:



Iturria: NBE Emakumeak (2015)

<sup>25</sup> Erronka sozioekonomiko handiak dakartzaten zahartze prozesuen testuinguruan, zenbait herrialdek (Txinak, adibidez) adineko gurasoak zaintzeko betebeharra inposatzen ari diote jende helduari, isun edo espetxe-zigorren mehatxupean.

Hala ere, joera positibo hori (bereziki Latinoamerikan hauteman daiteke<sup>26</sup>) arazo serioak pairatzen ari da. Lehenik, nabarmena da ez dela nahikoa proposatzen dugun zaintzarako eskubide zabala bermatzeko. Gainera, eskubidearen alderdi batzuk zatika aitortzea gertatu ohi da, baina ez beste alderdi batzuk (adibidez, mendekotasun egoeran zaindua izateko eskubidea, baina ez aukeratzekoa) eta zatika, soilik kolektibo batzuegana helduz. Zatikatzeko horrek forma asko har ditzake. Zenbait eskubide enplegu formalarekin lotu ohi dira (adibidez, amatasuneko eta aitatasuneko prestazioa) eta hortik kanpo geratzen dira langabe guztiak edo sektore informaleko enplegua dutenak (bereziki kezkarria da Mexikon eta Guatemalan). Etxeko lanen sektorea maiz baztertzen da. Zatikatzeko ere fokalizazioaren eskutik etor daiteke, hau da, erantzukizun publikoa zuzentzen denean soilik txirotasun edo bazterkeria egoeran dauden kolektibo sozialengana (gainera, kalitate baxuko zerbitzuen bidez artikulatu ohi da).

Bigarrenik, politika publikoen artean arlorik ahulenetarikoa da, krisi uneetan murritzetak jasateko aukera gehien dituenetakoa. Horrela, munduko toki askotan joera positibo hori asko okertu zen azken urteotan ezarritako politika austerizidien ondorioz. Hirugarrenik, zaintzarako eskubidea bermatzeko martxan jarritzen diren zerbitzu publikoetako askok lan ez-ordaindua edo gaziki ordaindua dute oinarri. Horrela, adibidez, Espainiako Estatuan mendekotasun legea izenez ezagutzen denak<sup>27</sup> familiako testuinguruko zaintza-lan ez-profesionalak ditu oinarrian, nahiz eta legeak berak osagarri huts gisa hartzen zituen<sup>28</sup>; aldi berean, zeharka, baldintza informaletan dauden etxeko langileen kontratazioa sustatu du. Aldi berean, politika askoren joera maternalistarekin dago lotuta. Horren adibiderik agerikoena da amatasun- eta aitatasun-baimenen arteko aldea. Mexikon eta Guatemalan 84 eguneko amatasun-baimena dago; Espainiako Estatuan 112 eguneko. Aitatasun-baimenari dagokionez, Guatemalan bi eguneko da, Mexikon bostekoa eta Espainian lau astekoa. Baina joera horrek bestelako zaintza-politika

26 Gaur egungo politikiei zein laster martxan jarri nahi direnei buruzko analisi onak dira Batthyany (2015) eta Rico eta Roblesnak (2016).

27 39/2006 Legea, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa (aurrerantzean, mendekotasun legea).

28 EAE da laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa gehien sustatu den erkidegoa; hain zuzen ere, laguntza hori eskatu ohi da alternatiba profesionalizatu gisa. Horrela, mendekotasun legerari lotutako zerbitzuren bat jasotzen duten pertsonen %7,3k prestazio hori jaso zuen, eta Espainiako Estatuan %0,5ek jaso zuten. Datuen iturria: portal informatibo ([http://www.dependencia.imsero.gob.es/dependencia\\_01/index.htm](http://www.dependencia.imsero.gob.es/dependencia_01/index.htm)) del Sistema para la Autonomía y la Atención a la Dependencia. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Foru Planak 2012-2020, (<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/berdintasunerako-ii.-foru-plana>) Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, argi ezartzen du laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoen igoerak adierazten duela urratsak eman direla honako helbururantz: "Pertsona orok zaindua izateko eskubidea izatea, bermatuz zaindu beharreko pertsonen autonomiaren sustapena, eta familietako zaintzaile ez profesionalen —batez ere emakumeak— esplotazioa eza" (ikus Gómez, 2016).

asko ere baldintzatzen ditu; adibidez, duela gutxira arte, Mexikon, aitak haur-hezkuntza zerbitzuetatik kanpo zeuden<sup>29</sup>.

Azkenik, aipatu behar da zaintza-politikak aplikatzean dauden inkoherentziak, beste politikekin alderatuta. Azter ditzagun bi adibide adierazgarri. Maiz, enplegua eta zaintza bateragarri egiten dituzten eskubideak hobetzen dira lan-merkatuaren malgutze prozesuak martxan jartzearekin batera, baina prozesuon bidez eskubideen onuradunak murrizten dira. Arazo hori bereziki indartsu ageri da Espainiako Estatuan. Horren adibide dugu ere Latinoamerikako politika sozial berrien ezaugarri diren baldintzatutako transferentzien programak, muturreko txirotasuna ezabatzerako bideratuak. Programa horien bidez amei dirua transferitzen zaie, eta ordainetan zenbait baldintza bete behar dituzte, hala nola beren seme-alabek hezkuntza- eta osasun-zerbitzuetara jotzea. Nahiz eta programen onura globala eztabaidagai izan, orokorrean onartuta dago emakumeen zaintzaile rola indartzeko dutela<sup>30</sup>.

Orokorrean, Mexikoko kasuari dagokionez, Vasilevak honakoa dio: “Mexikon, zaintzen hobekuntza sozialak oso lotuta daude familiari eta merkatuari, eta horrek zaintza-sistema bidegabea sortzen du, kutsu maternalista erreproduzitzen du eta erantzunkidetasuna kentzen die etxeko gizoni, estatuari eta sektore pribatuari” (2016). Espainiako Estatuaren kasuan, gorago xehetasunez aipatu bezala, zaintzarako eskubidearen aitortza “ez dago balorazio positiboan izatetik gertu, besteak beste aitortza partziala, eskasa eta zatikakoa delako” (Pérez Orozco eta López Gil, 2011).

### 3.1.3. Zaintzarako eskubidea urratzearen ondorioak

Estatuaren eta bestelako gizarte-eragileen presentzia ahularen ondorioz, zaintzailana etxetara mugatzen da eta eskura dituen baliabide pribatuen bidez konponetzen saiatzen da norbera. Horrek, gutxienez, lau ondorio nabarmen dauzka:

1. Gorago aipatu bezala, ez dugu etxeko modu abstraktuan hitz egiten, baizik eta emakumez zehazki, haiek hartu ohi dutelako zaintzaren ardura. Horrek ondorio negatiboak ditu emakumeentzat, beste eskubideez gozatzerako orduan. Muturreko txirotasunerako eta giza eskubideetarako NBEko kontalari bereziak onartu egiten ditu horrek eskubideengan dituen ondorio negatiboak: enplegua, lan-eskubideak, hezkuntza, osasuna, gizarte segurantzaren aurkako zientifikoen gozatzea eta parte hartzea (Sepúlveda Carmona, 2013). Eskubide-urraketa horiei, Género y Desarrollo sareak gehitzen die indar-

<sup>29</sup> Ama Langileentzako Haur-Egonaldien Programa amei zegoen zuzenduta; aitei, soilik amarik ez zegoen kasuetan.

<sup>30</sup> Mexikoko Oportunitades/prospera programa ezagutzeko, ikus Orozco eta Gammage (2017).

keriarik gabe bizitzeko eskubidea urratzea (Woodroffe eta Donald, 2014). Eskubide-urraketan segida horren ondorioz, txirotasuna feminizatzen da.

2. Zaintzak lotura du genero-desparekotasunarekin eta bestelako bereizkeria motekin (klase, etnia, landa/hiri eremua, migrazio-estatusa). Esan daiteke pertsonen zaintza duinak jasotzeko duten gaitasuna ezberdintasun bektore bihurtzen dela, gizarte-taldeak haien artean bereiziz. Zaintza duinak dira: asegarriak direnak (kasuan kasuko garrantziari erantzuten diote), libreki aukeratuak direnak eta aski direnak (beharrak asetzen dituzte). Horren aurrean, zaintza hobetzeko neurri prekarioak ditugu: ez askiak ezta asegarriak ez direnak, eta libreki aukeratzen ez direnak. Azkenik, zaintzaren prekaritateak kolapsoa ekar dezake, zaintzea, besterik gabe, posible ez denean.
3. Zaintza-sistema bidegabeetan sistemikoki lotzen dira zaintza, desparekotasuna, eta prekaritatea/txirotasuna/bazterkeria. Pertsona baten posizio sozioekonomikoa zenbat eta okerragoa izan, orduan eta zaintza gehiago beharko ditu (besteak beste, osasun egoera okertzen delako), eta aukera gutxiago izango ditu beharrezko zaintza jasotzeko. Horren guztiaren ondorioz, zaintza hobetzeko neurri prekarioak sortzen dira; neurriok, aldi berean, ondorio negatiboa dute posizio ekonomikoan (besteak beste, emakumeak lan-merkatutik ateratzera behartzen dituztelako). Era berean, zaintzeak ez du posizio sozioekonomikoa hobetzen, nekez dakartzalako eskubide sozial erabatekoak, edo, ordaintzekotan, gaizki ordaintzen delako. Hori dela eta, gehiago zaintzen dute aukeratzeko askatasun gutxiago dutenek, eta aldi berean zaintzak ez du hasierako posizioa hobetzen laguntzen. Hori maiz ikus daiteke, adibidez, etxeko lanen sektorea utzi nahi duten pertsonen kasuan.
4. Orain arte aipatutakoaren ondorioz, fluxu asimetrikoen inguruan dabil zaintza: egoera okerrean dagoenak zaintzen du gehien eta jasotzen du gutxien, eta horrek hasierako posizio bidegabea indartzen du. Fluxu horiek emakumeengandik gizonengana doaz; klase herrikoiengandik klase erdi eta altuetara; migratzaileengandik herritar autoktonoengana; pertsona indigena, afro eta arrazializatuengandik, pertsona mestizo edo zuriengana; hegoalde globaletik iparralde globalera. Gaur egun, zaintzaren antolaketaren desparekotasunen ondorioz, pertsona batzuek kalitatezko zaintza eskuratu dezaten beste pertsona batzuen zaintza prekarizatu beharra dago. Bestela esanda, zaintza antolatzeke moduaren bidez ez dira eskubideak sortzen; aitzitik, pribilegioak birsortzen dira.

## 3.2. Etxeko lana, eskubide-urraketen nodo gisa

Etxeko lanaren egoera ikusita, eskubide-urraketen nodo dela esan dezakegu: lan-eskubideak sistematikoki urratzen dira, eta horrek eragin negatiboa du bes-telako eskubide asko —besteak beste, zaintzarako eskubidea— gozatzerakoan. Halaber, eskubide-urraketen sortari esker, etxeko lana gakoa da beste pertsona batzuek zaintza duinagoez gozatu dezaten.

### 3.2.1. Lan-eskubideak urratzea

Lan-eskubideei dagokienez, etxeko lanen lehenbiziko arazo prototipiko bat sek-torearen erregulazio eskasa da (ez dago erregulaziorik, edo ahula edo baztertzalea da). Munduko leku askotan, etxeko lanen sektorea ez dago erregulatuta; mundu mailan, sektoreko langileen %30 ez daude arauen bidez babestuta (LANE, 2010). Beste herrialde batzuetan badago erregulaziorik, baina oso zehatza da edo beste sektoreei aplikatzen zaiena baino maila baxuagokoa. Ondorioz eskubide gutxiago aitortzen dira, sektorearen eta langileen bazterkeria sortzen da. Hala gertatzen da Guatemalan, Mexikon eta Espainiako Estatuan.

Espainiako Estatuan, 1985. urtean onartu zen araubide berezi batek (1969ko lege frankista baten ondorengoa) erregulatu zuen etxeko lana. Immobilismozko urte luzeen ostean, 2011ko lege aldaketak oinarrizko hobekuntzak ekarri zituen, bes-te sektoreetan aplikatzen den Langileen Estatutua etxeko langileei ere aplikatu-ta. Aldaketa horrekin martxan jarri zen etxeko langileak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean progresiboki gehitzea, eta 2019. urterako guztiz bukatuta egon beharko luke prozesuak. Guatemalan, sektorea laneko kodean aipatzen da, baina 1961. urtetik aldatu ez den araubide berezi batek erregulatzen du. Mexikon etxeko lanen sektoreak lan bereziaren estatutua dauka, 1970eko Lanaren Lege Federalaren azpigitulu jakin batean adierazten dena.

Sektorearen bigarren arazo handia da aplika daitezkeen legeak oso maila baxuan betetzen direla. Guztira, LANEk enplegu bat duintzat jotzeko bete beharreko lan-eskubideak sistematikoki urratzen dira etxeko lanen sektorean. Hain zuzen, enplegu bat duina izan dadin honako eskubideak bete behar dira, LANEren ara-bera<sup>31</sup>:

- Lan-baldintza duinak, bidezkoak eta asegarriak izateko eskubidea, barne hartuta:

31 Kontrakoa esan ezean, Guatemalari buruzko informazioa Fuentes de Paz-etik (2014) eskuratu da, Mexikori buruzkoa Zenbait Egile (2016) iturritik, eta bi herrialdeei buruzko informazioa Lexartzat et al. (2016) iturriarekin osatu da; Espainia-ko Estatuari buruzko informazioa ATH-ELE (2017) elkartetik eskuratu da.



- Idatziz kontratatzeko betebeharra. Bete ezean lan-eskubideak exijitzea zailtzen du, eta administrazioko agintarien kontrola saihesten du. Guatemalan ez dago idatziz kontratatzeko betebeharririk. Espainiako Estatuan ez da beti derrigorrezkoa.
- Gutxieneko ordainsari bat izateko eskubidea (gutxieneko soldata ez-kengarria, gabonsaria, aparteko orduak ordaintzea). Hiru herrialdeetan legezkoa da lanaren zati bat salgaietan ordaintzea (ostatu eta mantenu truke). Nahiz eta hiruretan egon badagoen gutxieneko soldata bat ezarrita, maiz ez da betetzen eta soldatak bereziki baxuak dira. Mexikon, adibidez, herrialdeko batezbesteko soldataren %54 da.
- Lan-orduak zentzuz mugatzeko, atsedean hartzeko eta denbora libreaz gozatzeko eskubidea (gehienezko lanaldia, oporrak, eguneroko eta asteroko atsedendaldia). Lanaldiari soilik dagokionez: ez dago araututa, ez Mexikon ezta Guatemalan ere. Ez arautzearen ondorioz, eguneko lanaldia da derrigorrezko atsedendaldia ez den oro (derrigorrezko atsedendaldia Guatemalan 10 ordukoa da, horietatik 8 gaez izan behar dira; Mexikon 12 ordukoa da, horietatik 9 gaez izan behar dira). Espainiako Estatuan gehienezko lanaldia asteko 40 ordukoa da, baina barneko langileek “presentziazko” beste 20 ordu gehiago dituzte gainera; de facto, eguneko 12 ordu lan egin dezakete. Herrialde guztietan, lanaldi errealak lanaldi legalak baino luzeagoak dira maiz.
- Bidegabeko kaleratzeen aurkako babesa (kaleratzeko arrazoiak ematea, aurretiko abisua eta kalte-ordaina). Langileak amatasunagatik ez kaleratzeko neurriak. Hiru herrialdetan kaleratzeko askatasuna dago. Guatemalan eta Mexikon, de facto, haurdunaldiak kaleratzea dakar. Espainiako Estatuan eztabaida judiziala dago haurdunaldiari lotutako kaleratzeak duen baliogabetasunaren inguruan. De facto, horren aurkako neurriak oso ahulak dira.<sup>32</sup>
- Gizarte segurantza eskuratzeko eskubidea, hala epe laburreko ezbeharren aurrean (gaixotasunak, lan-istripuak eta haurdunaldiak), nola zahartze eta baliaezintasun egoeretan.
  - Mexikon eta Guatemalan ez da derrigorrezkoa gizarte segurantzako afiliazioa<sup>33</sup>, eta ondorioz, Mexikon formaltasun eza %97,6koa da. Kasu hauetan, formaltasun eza ez da ilegala. Horren ondorioz, ezin da presztaziorik eskuratu. Tapachulako etxeko langileen %100ek ez dute osasun-estaldurarik.

32 Beltran de Heredia Ruiz (2017).

33 Guatemalan, ordea, derrigorrezkoa da gizarte-segurantzako afiliazioa 1235. Akordioa aplikatzen delako. Araudi hori jasotzen du Etxeko Langileen Babeserako Programa Bereziak (Programa Especial de Protección para Trabajadoras de Casa Particular - PRECAPI, 2009).

- Espainiako Estatuan, etxeko langileak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean guttiz txertatzeko prozesua 2019ko urtarrilean burutuko da. Gaur egun ere informaltasun maila handia da (ez da legala, baina gertatzen da), nahiz eta 2011ko erreformari esker aurrerapen handia egon den. 2010ean gizarte-segurantza zeukaten langileen %39,7k, eta 2015ean %69,1ek<sup>34</sup>. Oraindik ere, 10 langiletik 4k ez daukate estaldurarik. Bigarren arazoa honakoa da: nahiz eta estaldura izan, zenbaitetan ezin dituzte eskubide batzuk eskuratu, hala nola, gakoa den langabezia-prestazioa. Lehengo erregimen berezia bizi izan zuten langileek, jasotzekotan, oso erretiro-pentsio baxuak jaso zituzten.
- Laneko legeria modu eraginkorrean betetzea, eta justizia eskuratu ahal izatea. Herrialde askotan, bizilekuaren bortxaezintasun eskubideak mugatu egiten du laneko ikuskaritza.
  - Esan bezala, legea behin eta berriz urratzen da eta Guatemalan eta Mexikon inpunitate osoz gertatzen da gehienetan. Espainiako Estatuan laneko ikuskaritza hobetu egin zen lege aldaketarekin, baina berriri ere geldirik dago hobekuntza hori gaur egun.
  - Laneko eskubideen gaintik lehenesten da bizilekuaren bortxaezintasun eskubidea eta enplegatzailearen etxeko intimitate pertsonala eta familiakoa, eta horrek de facto esan nahi du enplegatzaileen bizitzak baliotsuagotzat hartzen direla langileen bizitzaren aldean.
  - Azken urteotan enplegu-agentzien rola garrantzia hartu du Espainiako Estatuan eta Mexikon, eta hori ondorio negatiboak izaten ari da eskubideei dagokienez.
  - Legea ez betetzea, maiz, lotuta dago migrazio egoerarekin, nahiz eta migratzaile izateak ez duen esan nahi lan-eskubiderik ez edukitzea, administrazio-egoera irregularra izan arren.
- Etxeko langileak kolektiboki antolatzea. Herrialde askotan langileek hamarkadak daramatzate beren eskubideak aldarrikatzeko antolatzen. Hala ere, faktore askok oztopatzen dute antolakuntza hori, eta zaildu egiten dute existitzen diren antolakundeen funtzionamendua. Hiru herrialdeetan dago antolatze eta sindikatze eskubidea, eta langileek beren eskubideen aldeko borroka gogorra daramate aurrera. Aztertutako bi kasuetan ikus daiteke artikulatze kolektiboa (sindikatuetan zein langile-elkarte ez sindikaletan). Artikulazio hori nazioartekoa da, Etxeko Langileen Nazioarteko Federazioaren bidez. Baina antolakuntza hori ahalegin esker gata bati esker

34 Aldaketa handia 2011-2012 epean gertatu zen, eta batez ere Espainiako herritartasuna zuten langileei egin zien mesede; izan ere, estaldura tasa %67,8 areagotu zen, eta langile atzerritarren kasuan %24,4 (Diaz Gorfinkiel eta Fernandez Lopez, 2016). EAeko joera gainerako estatukoaren antzekoa izan da.

gauzatzen da, zailtasunak gainditzeko helburuarekin (isolatuta lan egitea, sektorea “lan” gisa ere ez hartzea, sindikatuen aldetik orokorrean babes gutxi jasotzea...).

Labur, esan dezakegu lan duina izateko eskubidea etengabe urratzen dela, eta are modu larriagoan Mexikon eta Guatemalan. Langileen zaurgarritasuna zenbat eta handiagoa izan, dela egoera pertsonalagatik (adibidez, dirua bidaltzeko presiopean daudelako) edo baldintza sozioekonomikoengatik (batez ere migrazio-estatusagatik), orduan eta okerragoak izango dira lan-baldintzak; izan ere, indibidualki negoziatzean asko aldatu daitezke baldintzak. Kasu guztietan, egoera zaurgarriena barne-langileena da.

### 3.2.2. Eskubide-urraketak, lanaz harago


Bestelako eskubide-urraketak ere gertatzen dira lanean. Besteak beste, osasun-eskubidea: maiz lan-baldintzak arriskutsuak dira (lanaldi oso luzeak, produktu kimikoak erabiltzea, ahalegin fisiko handia, zama emozionala...) eta osasun-estaldura oso baxua izan ohi da. Gainera etxeko lanen sektorea, orokorrean, ez da jasotzen laneko arriskuen prebentziorako legetan, eta ez dira laneko gaixotasunak kontuan hartzen (legalki aitortzen ez direlako, edo osasun-zerbitzuek ez dituztelako hala identifikatzen). Indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea urratzen da, ohikoak direlako gehiegikeria fisikoak zein ahozkoak, baita sexu-gehiegikeria eta indarkeria ere. Urratu egiten da, halaber, sexuagatik baztertua ez izateko eskubidea (zeharkako bazterkeria, argi eta garbi). Urratu egiten da baita ere jatorri etnikoagatik baztertua ez izateko eskubidea, eguneroko lan-harremanetan, emakume indigena eta arrazializatuen kasuan, ohikoa baita arrazakeria. Hezkuntza-eskubidea ere urratzen da, bereziki haurren kasuan. Hori lotuta dago haurren lanaren aferarekin, adingabeen zenbait eskubide urratzen baitira horrela (batez ere, babesa, justizia eta arreta integrala izateko eskubideak). Orokorrean, haurren lana ez da arazo bat Espainiako Estatuan. Aitzitik, bada arazoa Guatemalan eta Mexikon (Kids in Needs eta CDHFMC, 2017)<sup>35</sup>. Eta areago bi herrialdeen arteko migrazio-korridorean, non haurren lana lotuta dagoen haurren trafikoarekin.

Askotariko eskubide-urraketa horren ondorioz, langileen eta haien familien zaintzarako eskubidea ere urratzen da. Batetik, zainduak izateko eskubidearen urraketa zuzenean lotuta dago osasun-eskubidea urratzeak eta gizarte-segurantza ez izateak dakartzaten arazoekin. Bestetik, zaintzari buruz erabakitzekeo eskubidea urratzen da sektorean gutxitan aplikatzen direlako uztartze eskubideak eta po-

<sup>35</sup> Mexikon, etxeko lanari buruzko inkesta baten arabera (Etxeko lanari buruzko pertzepzioak: etxeko langileen eta enplegatzaileen ikuspegia, CONAPRED, 2014) galdetutako pertsonen %36 adingabe zela hasi zen etxeko langile. Arazo, Setik 1 (%21) etxeko langile hasi zen lan egiteko adin legala izan baino lehenago (10 eta 15 urte artean).

litikak. Amatasunari buruz aipatutako kasuan gertatu bezala, adibidez. Zentzu zabalagoan, emakume migratzaileen kasuan, askotan, etxeko langile aritzea ez da bateragarria ama izatearekin. Horregatik, haietako askok seme-alabak jatorrizko herrialdean mantendu dituzte edo hara bidali dituzte bueltan. Beste etxe batzuetan zaintza ez-ordainduak bete ezin dituen hutsuneak etxeko lan ordainduak betetzen ditu, eta ere berean, ezinezkoa izan ohi da hutsune horiek norberaren etxean betetzea. Etxeko langileen familia- eta harreman-sareetara hedatzen da zaintzarako eskubidearen ukazioa<sup>36</sup>.

Esan dezakegu etxeko lan ordainduaren existentziak berak eta lan-harremanaren baldintzek eragin positibo zuzena dutela etxe kontratatzaileek zaintza duinak eskuratzeko duten ahalmenean (hala ere, ez dago erabat bermatuta eta agian zaintza duinen kontzeptua birpentsatu beharko litzateke, ulertzen badugu zaintza ezin dela duina izan beste pertsonen eskubideen kontura ematen bada). Horrek “eragin zuzena du etxe kontratatzaileek gainerako eskubideez gozatzeko duten aukeretan; izan ere, eragin positibo zuzena du zaintza egokiak jasotzeko eskubidearengan eta etxeko zaintzen inplikazio-mailan modu askean erabakitzearen inguruan” (Perez Orozco eta Lopez Gil, 2011: 171). Alderantziz: “etxeko lanak berak eta lanaren baldintzak aurkako eragina dute etxeko langileen eta familia migratzaileen lan-eskubideetan, eta ondorioz, zaintza prekarioen errealitatea sortzen da” (Perez Orozco eta Lopez Gil, 2011: 172). Hitz horiek, Espainiako Estatuko kasuari buruz idatzitakoak, are larritasun handiagoarekin aplikatzen zaizkio hegoalde globaleko kasuari.



Azken finean, etxeko lan ordaindua existitzeak —sektore prekarioa den neurrian eta etengabeko eskubide-urraketen ondorioz— positiboki eragiten du kontrata-

36 Horrela, ATH-ELE elkarteak salatzen du “etxeko langileen bazterkeria Eusko Jaurlaritzaren bateragarritasun laguntzei dagokienez, baztertutako lan-sektore bakarra delako”. Ikusi adierazpena: <https://drive.google.com/file/d-/0B9JmBJnkcwulWm9objlNcTVjTms/view>

tzeko ahalmena dutenek zaintza duinak eskuratu ditzaketelako, eta negatiboki eragiten du etxeko langileengan eta beren familiengan, haien zaintza-antolara prekarizatzen delako. Horrela, eskubide-urraketen nodo bat sortzen da, eta baita zaintza-desparekotasuna-prekaritatea/txirotasuna lotura sistemikoaren funtzio-namendua ulertzeko ezinbesteko korapiloetako bat ere.

### 3.3. Eskubide-urraketen arteko intersekzioak

Etxeko lanetan zaintzarako eskubidearen eta lan-eskubideen urraketa gertatzen denean, orokorrean, gainerako herritarren eskubideen urraketa ere gertatzen da aldi berean. Eskubide-urraketen arteko intersekzio edo elkargune hori bereziki hautematen da etxeko lana migrazioak gurutzatzen duenean.

Osasun- eta hezkuntza-eskubideak unibertsalak ez direnez, pertsonak ezin dute kalitatezko osasun- zein hezkuntza-zerbitzua doan eskuratu. Emakume askok migratzen dutenean etxeko langile hasten dira, berme falta horri irtenbide indibiduala bilatzeko. Etxeko lanean aritzea ere bada gizarte-prestazioen hutsuneak betetzeko modu bat, hala nola, gurasoentzako erretiro-pentsioak lortzeko. Hala-ber, emakumeen migrazioak askotan harremana du indarkeria matxistarekin edota familiakoarekin, eta baita sexualitatea modu askeagoan bizitzeko desirarekin (hortaz, sexu-eskubideak ezin gozatzearekin ere badu lotura).

Aldi berean, emakume migratzaileen esperientzien bidez, ikus dezakegu askatasunez mugitzeko eskubidea urratzen dela. Migratzaileak oso egoera zaurgarrietan jartzen dituen atzerritarren legeen testuinguruan ematen da migrazioa. Hala gertatzen da Europa gotorlekuan, eta are larriagoa da egoera Erdialdeko Amerika osoa gurutzatuz Estatu Batuetara doan migrazio-korridorean, bertan “eskubide-krisi larria” ematen baita Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordearen arabera (CIDH, 2015). Atzerritarren legeek egoera prekarioan utzi ohi dituzte emakume migratzaileak, eta ondorioz etxeko lan ordainduetara jotzen dute, hain zuzen ere lan mota horretako informaltasuna oso altua delako.

Atzerritarren legeak eta erakundeek legeok aplikatzeko dituzten mekanismoak erakundeen arrazakeriatzat hartu daitezke; gainera, genero-bazterkeria darie eta ez dituzte zaintzak aitortzen. Zaintza ez da lan gisa hartzen, eta zentzu horretan legea ez zaio etxeko lanei aplikatzen. Adibidez, Mugako Langilearen Migrazio-Formatuaren bidez (Formato Migratorio de Trabajador Fronterizo) Mexikora erregulartasunez migratzeko aukerak ez du etxeko lana kontuan hartzen, baimen hori lortzeko idatzizko lan-eskaintza bat behar delako. Urte luzez ere gauza bera gertatu zen Espainiako Estatuan kontingenteen figura legalarekin; izan ere, jatorrizko herrialdetik irten baino lehen lan-eskaintza bat edukitzea beharrezkoa zen.

Halaber, zaintza ez da elkarren arteko mendekotasun gisa aitortzen. Atzerritarren legeek ez dute kontuan hartzen pertsona migratzaileak ardurak dituztela eta zaintzak behar dituztela. Horrela, Espainiako Estatuan senideak elkartzeko zailtasunak direla eta, zaila da gurasoak zaintzea, eta, aldi berean, emakumeek ez dute beren amen laguntza ilobak zaintzeko, eta hori da hain zuzen bateragarritasunerako estrategia gakoetako bat haurrentzako hezkuntza zerbitzu unibertsalik ez dagoenean. Aldi berean, zaintza politikek ez dute islatzen/aitortzen migrazioaren errealitatea: Guatemalan, haurrentzako bekak eskuratu ahal izateko amen presentzia eskatzen da, nahiz eta migratu duten. Espainiako Estatuan bateragarritasun eskubideak ez dira familia transnazionalen errealiterara moldatzen.

Sistemak “zaintzaz aske” diren langileak behar ditu, eta zentzu berean, mugitze-ko eskubidea ukatzen dute atzerritarren legeek, eta ez dira moldatzen zaintzaren errealiterara, etxeko lanen arau eskasekin batera. Horiek guztiak ezinbesteko tresnak dira, herrialde erlatiboki pribilegiatuak “zaintzaz aske” diren zaintzaileak bermatzeko. Etxeko langileak etengabe lan egiteko prest egotea sustatzen da, gizar-teak ezinbestean behar dituen zaintza ikusezinak egin ditzaten.

Kasu hauetan ageri diren eta auzitegian aztertu diren eskubide-urraketa zehatzez harago, esan genezake bizitzaren jasangarritasunaren eskubidearen urraketa gertatzen dela, zentzu zabalean: norberarentzat esanguratsua den bizitza bizitzeko eskubidea, besteekin batera —eta ez besteen kontura— bizitzea merezi duen bizitza bizitzeko eskubidea; elkarrekiko mendekotasuna erabat aitortuz, eta lanaren sexu-banaketaren aurka agertuz, bizitza eraikitzeko eskubidea, erantzunkidetasunaren zati bat pribilegio gutxiago dituzten emakumeen gain utzi nahi duen subjektu buruaskia izateko asmorik gabe.

Azkenik, arau nazional eta lokal zehatzak ez betetzeaz gain, zaintza kateen (globalen) funtzionamenduan suntsitzen diren nazioarteko tresna nagusiak zerrendatuko ditugu:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala
- Beijinggo Ekintza Plataforma
- Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW)
- Arrazagatiko Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa
- Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna
- Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Ituna
- Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa
- Pertsona elbarrituen eskubideen Konbentzioa
- Langile migratzaile guztien eta beren familien eskubideei buruzko Nazioar-

teko Konbentzioa

- LANEren hitzarmenak:
  - 111 enplegu arloan bazterkeria ekiditeari buruzkoa
  - 156 familia erantzukizuna duten langileei buruzkoa
  - 169 herri indigena eta tribalei buruzkoa
  - 182 haurren lan-mota okerrenei buruzkoa
  - 183 amatasuna babesteari buruzkoa
  - 189 etxeko langileentzako enplegu duinari buruzkoa

### 3.4. Erantzukizunak

Hortaz, aurre egin behar diogu aldebiko egoera bati: etxeko lana eskubide-urrakeen nodoa da; eta zaintzarako eskubidea sistematikoki ukatzen da. Horri guztiari bestelako urraketak gehitzen badizkiogu, bizitzaren jasangarritasunaren eskubidearen urraketa globalaz hitz egin dezakegu. Nor(tzuk) d(ir)a erantzulea(k)?

Lehenengo eta behin erakunde publikoak aipatu behar ditugu. Etxeko lanaren lan-eskubideak, zaintzarako eskubidea eta kolektibo kaltetuenen (emakume mi-gratzaileak, etxeko langileak beren enpleguaz harago eta neskatoak) eskubideen babes orokorra aitortzea eta gauzatzea bermatuko luketen arau eta politikei dagokienez gabezia handiak daude. Baina ez da soilik ez-egitearen kontua. Erakunde publikoen jardunak berak ere eredu hau sustatzen du; argi geratzen da hori zaintzaile zaurgarriak uneoro lanerako prest egotea bermatzen duen atzerritarren legean.

Bigarrenik, bestelako erakunde eta eragileen jarduna aipatu behar dugu. Etxeko langileen zaurgarritasunean rol bereziki serioa jokatzen dute elizak eta enplegu-agentziek. Eliza (hainbat fedetako elizak) funtsezko erakundea da aipatu-tako emakume zintzo sakrifikatuaren irudia sustatzeko. Enplegu-agentziek ere erantzukizuna dute. Esan bezala, sektorean goraka doan negozioa egiten ari dira, eta horrek arriskua du negozioan kapital askoz handiagoa eta depredatzaileagoa sartzen bada, enpresa transnazionalen bidez. Zentzu zabalagoan, zaintza eremu sozioekonomiko ikusezinetatik konpontzeko beharraren erantzule dira, batetik, enpresa kapitalistak eta lan-indarra hainbeste baliatzen duten erakunde publikoak, eta bestetik, herritarrak orokorrean, izan langileak edo “zaintzaz aske” diren pertsonak.

Hirugarrenik, eta urrunago joanda, gizarte osoa osatzen dugunok ere bagara erantzule. Erantzule da, hain zuzen, eremu publikoan arrakasta lortzean oinarritutako bizimoduak desio dituen neurrian, buruaskitasunaren ameskeria eskuratu nahi duen heinean, eta zerbitzatuko duten gizarte-klaseko kide izatea lortzeko bizi-

moduak bilatzen dituelako. Jende gehiena bere buruz gain bizi da denborari dago-kionez: beste pertsonen bizitzaren denboraren eta zaintzaren kontura. Gure bizimoduak ez dira jasangarriak. Eta erantzuleak gara zaintzaren auzia konpontzeko modu kolektiboak eta komunitarioak ez ditugulako artikulatzen; hori izan daiteke norberak etxean bere denbora eta dirua baliatuta konpondu beharreko erantzukizun gisa ulertzen delako zaintza, edo, kasurik onenean, “estatuaren” ardura dela ulertzen delako, estatua ulertuta norberarekin zerikusirik ez duen eremu gisa.

Erantzukizuna termino hain zabaletan kokatzearekin batera ezinbestean esan behar da, azken batean, eskubide-urraketak eskubide jakinez harago doazela, nahiz eta zaintzarako eskubidea aski zabala izan bere horretan. Bizitzaren jasangarritasunaren aurkako eskubide-urraketa zabala pairatzen dugula diogunean, esan nahi dugu ez ditugula eraikitzen mekanismo kolektiboak bizitza komuna ahalbidetzen duten baldintzak ezartzerako orduan erantzunkidetasuna izateko. Ez dago erantzukizun kolektiborik bizitzaren zaintzan, lehentasuntzat hartzen delako etekin monetario pribatua sortzeko prozesuak jarraitu dezan bermatzea, bizitzaren beraren kontura bada ere. Sistema horrek arriskuan jartzen du bizitza kolektiboa. Halaber, sistema horrek oinarri du desparekotasuna, oinarrian baititu zaintza-kate feminizatuak eta arrazializatuak, desparekotasunaren arabera funtzionatzen dutenak. Zaintzek esaten digute elkarren mendekoan garela; mundu honetan, arazoa da elkarren arteko mendekotasuna ezartzen dela hierarkia, desparekotasun eta esplotazio terminoen bidez.

Hori guztia zaintzen krisi gisa ulertu daiteke, hori ulertuta kapitalismo heteropatriarkal zuriaren berezko elementu gisa, eta ez aipatutako moduan epe laburreko zerbait balitz bezala<sup>37</sup>. Sistema horren testuinguruan, ezinezkoa da zaintza duinak bermatzea herritar guztiei, bizitza bera espoliatu behar delako kapital-metaketa-  
ren prozesuak funtzionatu dezan.

Irakurketa zabal horretara heldu gaitezke bide askoz zehatzago batetik, alegia, geure buruari galdetuta zergatik kontratatzen dituen jendeak etxeko langileak. Txosten honen hasieran esan bezala, kokapen estrategikoa da gure gizarteek pairatzen dituzten arazoez hausnartzeko.

Pertsona batzuek etxeko langileak kontratatzen dituzte ez daukatelako beste aukerarik, zaintzen erantzukizun kolektiborik ez dagoelako: ez dago erakunde publikorik herritarrek behar dituzten zaintzak eskaintzeko; aitzitik, egitura sozial eta ekonomikoek (lan-merkatuko ordutegiak, adibidez) bestelako lehentasunak dituzte, eta ez dute funtzionamendua moldatzen pertsonen zaintza-behar

<sup>37</sup> Zaintza-krisiei buruzko ikuspuntu ezberdinen inguruan hausnartzeko, ikus Ceballos Angulo (2017).



eta erantzukizunen arabera. Etxeko langileak kontratatzeke beste arrazoi bat da “ondo” bizi nahi izatea, hori ulertuta, modu batean edo bestean, beste batzuk baino hobeto bizitzea dela: lan “zikina” egin nahi ez izatea (ezatsegina edo aspergarria deritzoguna), denbora edukitzea gauza atseginagoak edo prestigio gehiago ematen dutenak egiteko (ibilbide profesionalari edo aisialdiari eskaintzeko denbora izatea), edo zuzenean, beste norbaitek gu zerbitzatzeak ematen digun plazeragatik (uniformez bada, hobe). Kontratatzeke hirugarren arrazoi bat da genero-gatazka saihestea. Emakume asko zaintzeko aginduaren aurrean altxatu dira, baina gizonak ez dira modu berean aldatu. Askotan etxeko lana kontratatzeraz jotzen da, etxeko lanak nork egingo dituen egunero eztabaidatzea saihesteko.

Hiru egoera horietan etxeko lana baliatzen da, hurrenez hurren, honetarako: (1) elkarren arteko mendekotasuna ez onartzeak eta bizitza zaindu beharrean esplotatzen duen sistema sozioekonomikoa eraikitzeak dakarren arazo kolektiboari konponbide indibiduala emateko; (2) pertsona batzuek “ondo bizitzearen” inguruko ideia gauzatu dezaten beste pertsona batzuk okerrago bizitzearen kontura; eta (3) “berdintasun erretorika” bat mantentzea, alegia, politikoki zuzena den diskurtso bat, zeinaren arabera zaintza emakume eta gizonezkoen kontua den, egunerokoan gezurra dela agerikoa izan arren. Berdintasun errealaren alde borrokan jarraitu beharrean, arazoa saihesten da.

Testuinguru horretan, emakumeak orokorrean, eta kasu hauetan aztertu diren emakumeak zehatzago, ezin dira inoiz ulertu biktima soil gisa edo sistema harripakari eta bidegabe batek kaltetutako pertsona gisa. Jakina, sistema honek kaltetu egiten ditu. Baina haien testuinguruan eraldaketarako eta subertsiorako eragile aktiboak dira. Emakume hauek altxatu egiten dira haien inguruko egiturazko mugen aurka: etxeko langileen lan-baldintzak hobetzeko borrokatzen dira, zaintzaren auzia konpontzeko modu kolektiboak ezartzeko borrokatzen dira, askatasunez aukeratutako harreman afektiboen testuinguruan zaintza jaso eta eman ahal izateko borrokatzen dira. Borrokatzeak ez du nahitaz lortzea esan nahi, baina bai saiatzea. Borrokatzeak esan nahi du munduan dagokigun posizioa onartzea, non inor ez den biktima edo errudun soil: hierarkia sakon eta konplexuko sistema honetan posizio desorekatuak ditugu; eta posizio horiek ez dira garbiak (ezin dira argi sailkatu zapalkuntza edo pribilegio egoera gisa). Borrokatzea da norbera bizi den posizioarekiko erantzukizunez jokatzeko, emakume hauek egin bezala, horrela errotiko aldaketarako bidea irekiz.

## 4. PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

Egungo eskubide-urraketaren aurrean ekiteko bide bat proposatzen da, ezinbesteko bi oinarri dituena: batetik, etxeko lanen sektorearen errealitatean eragitea, eta bestetik, zaintzaren antolaketa sozialean eragitea.

Gai horiei heldu aurretik, esan behar da bi oinarri horiek ez dutela biltzen egin daitekeen eta egin behar den guzti-guztia. Batetik, aipatu bezala, zaintzari buruzko ardatz honek beste ardatzekin interakzioa duelako (eta hortaz, txosten honetako gomendioak beste hiru ardatzak kontuan hartuta irakurri behar dira). Bestalde, esan bezala, badaude bestelako eskubide zehazten urraketak, haurren lanari, mi-grazio-estatusari eta jatorri etnikoari lotutakoak. Horrek guztiak bestelako esku hartzeak eskatzen ditu, nahiz eta hemen erabaki dugun horietan ez sartzea, eta zentratzea txosten honen nodo nagusia dela deritzogun horretan: zaintza-kateak<sup>38</sup>.

### 4.1. Lan-eskubideak etxeko lanetan

Zentzu horretan lau ekintza-ardatz identifikatu daitezke: legeak hobetzea, orain-go legeak betetzea, legez harago sektoreari duintasuna ematea, eta langileak ahalduntzea.

#### 4.1.1. Legeak hobetzea eta betetzea

2011n lan duinaren inguruko LANERen 189 hitzarmena onartu zen, etxeko lanari dagokiona. Hitzarmen hori erreferente global nagusia da etxeko langileen eskubideak babesteari dagokionez. Izan ere, hainbat herrialdetan (bereziki Latinoamerikan) indarberritu egin du eskubideen defentsaren aldeko borroka eta legeen aldaketa. Hitzarmenak gutxieneko estandar batzuk ezartzen ditu, herrialde guztiek bete beharrekoak, baina langileentzat onuragarriagoak izan daitezkeen bestelako legeei ez die eragiten:

*“Hitzarmen loteslea denez, berresten duten herrialdeak behartuta daude xedapenak praktikan jartzera legeen, hitzarmen kolektiboen edo bestelako neurri osagarrien bidez, indarrean dauden neurriak zabalduz edo moldatuz, etxeko langileei ere aplikatzeko edo sektorearentzako neurri jakinak eginez.” (NBE Emakumeak, 2014)*

38 Haurren lanari buruz, ikus LANERen gomendioak hemen: <http://www.ilo.org/ipecc/areas/Childdomesticlabour/lang--es/index.htm> eta Kids in Need eta CDHFMC (2017). Mexikon langile migratuen egoerari buruz jakiteko, ikus Díaz Prieto (2015b). LANERen proiektu honetan informazio interesgarria dago: [http://www.ilo.org/global/topics/labour-migration/projects/WCMS\\_386584/lang--es/index.htm](http://www.ilo.org/global/topics/labour-migration/projects/WCMS_386584/lang--es/index.htm) (Programa de Acción Mundial sobre las Trabajadoras y los Trabajadores Domésticos Migrantes y sus Familias). Espainiako Estatuko etxeko langile migratuei buruzko gomendio zehatzak kontsultatzeko, ikus Arango et al. (2013). Mexikon langile indigenen egoerari buruz jakiteko, ikus Gutiérrez Gómez (2012).

Hitzarmenaz gain, 201 gomendia ere onartu zen; azken hau ez da loteslea eta orientabide praktikoak eskaintzen ditu legeria eta herrialde bakoitzeko politikak indartzeko. Gaur egun soilik munduko 24 herrialdek onartu dute hitzarmena; haien artean ez daude ez Mexiko, ez Guatemala, ezta Espainiako Estatu ere.

Mexikon eta Guatemalan onartuko balitz, legeetan funtsezko aldaketak egin beharko lirateke derrigor. Mexikon, 2017ko martxoaren 29an —etxeko lanen nazioarteko eguna—, erakunde askok, Bazterkeria Prebenitzeko Kontseilu Nazionalaren Kontsultarako Asanbladak barne, presidenteari eskatu zioten hitzarmena onartzea, argudiatuta sektorearen prekaritate-mailarik altuena Mexikon dagoela<sup>39</sup>. Guatemalan ere, zenbait erakundek hitzarmena onartzea eskatu dute; haien artean etxeko langileen sindikatu batek (Sindicato de Trabajadoras Domésticas, Similares y a Cuenta Propia). Espainiako Estatuan ere kanpaina garrantzitsua dago zentzu horretan, baina hitzarmena onartzeak ez luke ekarriko aldaketa sakonik. ATH-ELE elkartetik honakoa diote<sup>40</sup>:

*“Etxeko lan duinaren inguruko LANERen 189 Hitzarmenak Espainiako Estatu behartuko luke aldaketa legalak egitera, bereziki Gizarte Segurantzari dagokionez. Hala ere, 189 Hitzarmeneko eskubide ia guztiak dagoeneko badaude etxeko lanari buruzko Espainiako legeetan islatuta: arazoa da, praktikan, letra hila dela.”*

Horrek ez du esan nahi, erakunde honek onartu bezala, herrialde honetan ezinbesteko eta berehalako aldaketak beharrezkoak ez direnik. Horrela, LANEk gomendatzen du “oraindik ere sektorea baztertzen duten laneko eta gizarte segurantzako eskubideak parekatzeko egutegi bat” ezartzea (Díaz Gorfinkiel eta Fernández López, 2016).

Etxeko langileen antolakundeetatik alerta bikoitza botatzen da beti: arauak hobetzeak ez du esan nahi beteko direnik. Aitzitik: “Egiaztatu da erreforma legalek, berez, ez dutela lortzen baldintzak hobetzea eta etxeko lana formalizatzea” (Lexartza, et al., 2016). Halaber, legeak hobetu gabe ere, zenbait eskubide bete daitezten defendatu ahal (eta behar) da. Baita migratutako etxeko langileen kasuan ere; haiek ere badira lan- eta giza-eskubideen subjektu (egoera irregularra izanagatik ere).

Eskubideak bete daitezten errazteko bide asko daude. “Alderdi askoko ekintza-eskemak” gomendatzen dira (Lexartza, et al., 2016). Jarraian hainbat erakundek

39 Ikus Patricia Muñoz Ríos-en albistea La Jornada-n, 2017ko martxoaren 31koa, hemen: <http://www.jornada.com.mx/2017/03/31/politica/016n2pol>. Guevararen lanean (2012) ikus daiteke zein aldaketa ekarriko lituzkeen Mexikon, eta Fuentes de Paz-en lanean (2014), Guatemalan.

40 <https://drive.google.com/file/d/OB9JmBJnkcwulUndwdHlmRFFLTIU/view> hemen kontsulta daiteke ATH-ELE elkarteak egindako konparazio-taula, 189 Hitzarmena onartzeak Espainiako legeetan ekarriko lituzkeen aldaketekin.

egindako proposamen batzuk jaso ditugu.<sup>41</sup>

- Laneko ikuskapenean eragitea
- Lan-harremana erregistratzeko mekanismoak erraztea
- Informazio- eta aholkularitza-legalerako kanpainak
- Laneko bitartekaritzako zerbitzu publikoa sustatzea
- Enplegu-agentzien jardunak legea betetzen duela kontrolatzea
- Zerga-ikuspegitik kontratazioa sustatzea<sup>42</sup>
- Negoziazio kolektiboa sustatzea: langileak ordezkatu ditzaketen antolakundeak sustatzea (non langileak protagonista diren), eta hala badagokio, patronal bat eratzea<sup>43</sup>
- Kotizazio-mekanismoak Gizarte Segurantzara egokitzea, eta soldatak sektorearen errealitatera moldatzea
- Langileak babestea eskubide-urraketak salatzen dituztenean
- Sektorearen egoera eta arau zein politiken eragina hobeto ezagutzeko ikerketak eta txostenak egitea

#### 4.1.2. Sektorea duintzea eta langileak ahalduntzea

Legeez harago, ezinbestekoa da sektorearen gutxiespenari aurre egitea eta langileen ahalduntze propioaren alde egitea. Sektorea nola duindu pentsatzerakoan, aldi berean eztabaidatu behar da zein neurritan profesionalizatu behar den etxeko lana eta nola egin behar den. Profesionalizatu nahi badugu, etxeko lanaren etiketa zabalaren atzean ezkututzen den jardueren aniztasuna mugatu behar da (haurrak zaindu eta heztea, geriatría, etxez etxeko arreta...), eta jarduera horiek egiteko behar diren kompetenziak definitu. Profesionalizazioak, halaber, berekin dakar eginkizun horien zati bat beste lan-modalitateen bidez burutzea, etxeetan zein etxeetatik kanpo. Adibidez, autonomoak ez diren adinekoen erresidentziak, haur hezkuntzako zentroak, etxez etxeko arreta zerbitzua edo elbarrientzako laguntza pertsonala sustatzea.

41 Latinoamerikari buruzko xehetasun gehiagorako, praktika onei buruzko adibideekin: Lexartza et al. (2016). Espainiako Estatuaren kasuan, Díaz Gorfinkiel eta Fernández López (2017); eta Eusko Legebiltzarrak hartu litzakeen neurri jakinen inguruan, ATH (2016). Eztabaida prozesu kolektibo baten ondorioz etxeko langile migratzaileek Espainiako Estaturako proposatutako neurriak, Ortúñez eta Camarasaren lanean (2012) jasoak.

42 Neurri hori polemikoa da, azken batean diru publikoaz zerbitzu pribatuak kontratatzea sustatzen duelako, eta horrela erakundeek erantzukizun handiagoa har dezaten eragozten da.

43 Mexikon, 2017ko ekainaren 20an, kanpaina nazional bat abiatu zen “Bidezko Enplegua Etxean” (“Empleo Justo en Casa”) lelopean, etxeko langileen eta enplegatzaileen arteko hitzarmen kolektibo bat sustatzeko. SINACTRAHOK, CACEuskal Herriak eta “Hogar Justo Hogar” enplegatzaile taldeak garatutako kontratuak lan-arauak ezartzen ditu LANE-ren 189 Hitzarmenean bezala. Ikus hemen: <http://idwfed.org/es/actividades/mexico-la-campana-de-convenio-colectivo-para-asegurar-que-las-y-los-trabajadores-del-hogar-tengan-salario-minimo-seguridad-social-y-otros-derechos>

Profesionalizazioaz gain, beste gako bat da lan-harremanaren alderdi indibidual-lean eragitea. Apustu garrantzitsua litzateke, esaterako, etxeko langileen edo zaintza-lan profesionalizatuen bestelako modalitateen kooperatibak sustatzea. Hone-lan azaltzen du LANEk:

*“Enpresa kooperatiboak eredu praktikoa eta egokia izan daitezke etxeko langileentzat, beren bizibideak eta lan-baldintzak hobetu ditzaten. Etxeko langileei ahots kolektiboa eman diezaiekete, enplegatzaileen eta politikak pentsatzen dituztenen aurrean haien eskubideak defendatu ditzaten.” (ILOcoop, 2015)*

Hala ere, aurreko guztiak ez luke sostengurik izango baldin eta langileen ahalduntze indibidual eta kolektiboa oinarritzat izango ez balu. Langileak beren kabuz antolatu dira, eta etxeko lana ikusarazten eta duintasunez baloratzen lehenengoak izan daitezten borrokatzen dira, baita beren buruak beren historia propioaren protagonistatzat aitortzeko ere. Artikulazio globalen artean, nabarmentzekoa da Etxeko Langileen Nazioarteko Federazioa (IDWF <http://idwfd.org/es>). Latinoamerikan aipatzekoa da Etxeko Langileen Latinoamerikako eta Karibeko Konfederazioa (CONLECTRAHO). Beren kasuak auzitegi honi azaldu dizkieten emakumeek ere parte hartzen dute (edo parte hartu dute) etxeko langileen eskubideen aldeko erakundeetan: Florik parte hartu du Mexikoko Etxeko Langileen Sindikatu Nazionalean (Sindicato Nacional de Trabajadoras del Hogar, SINACTRAHO, IDWFren kide dena) eta T’ja Xuj: Casa de Mujeres proiektuan (ez da soilik etxeko langileentzako, baina sektoreko langile migratu asko biltzen ditu). Pilar/Pilik ATH-ELE (<http://ath-ele.com/es/>) sortu zuen, eta oraindik ere parte hartzen du Asociación Mujeres del Mundo Babel (<http://mujeresdelmundobabel.org/>) elkartearekin.

Hemen sortzen den galdera bat (erantzun ezin izan duguna) honakoa da: bizitzeko zaintza-sistema baterantzko bidean (jarraian aztertuko duguna), egongo litzateke espaziorik etxeko lanarentzat? Ala lan-modalitate horrek berezkoak ditu morrontza-harremanak, eta ezabatu beharko litzateke? Alderdi honek eztabaida sutua sortzen du, baita feminismoaren baitan ere. Hala ere, badirudi nolabaiteko adostasuna dagoela barneko etxeko lana (enplegatzailearen etxean lo eginez) epe labur-ertainean ezabatu beharrekina.

## 4.2. Zaintzarako eskubide unibertsal baterantz

Zaintzaren antolaketa soziala sakon eraldatu ezean, beti beharko ditugu zaintza ikusezinak bizitza aurrera eramateko. Hori dela eta, etxeko lana duintzeko zaintza-sistema sakon aldatu behar da, kapitalismo heteropatriarkalaren berezko zaintza-krisia suntsitzeko, egungo sistemen bidegabekeriak leuntzeko, zaintzara-

ko eskubidea aitortzeko eta bermatzeko, eta ondorioz, zaintza duinak jasotzeko eskubidea unibertsal bilakatzeko.

Lehenbiziko urratsa, ezinbestekoa, zaintzarako eskubidea bera aitortzea (asmatzea!) da. Lleó Fernández et al. (2012) urrats hori ematearen egokitasuna nabarmentzen dute; izan ere, eskubide horrek:

*“funtzio asko betetzen ditu errealitate ikusezin bati eskubide estatusa ematen diolako, eta horrela zaintza (ona) eskubide-subjektu berri gisa berreraikitzen du; [...] nabarmentzen baitu zaintza gizartearen erantzukizuna dela, zaintza salbuespen gisa ulertu beharrean bizitzaren parte gisa ulertzearekin batera datorrena; eta eskubide horren alderdi unibertsala baldintzarik gabe nabarmentzen duelako. Unibertsaltasun irizpidea aplikatzeaz gain, uste dugu beharrezkoa dela bakartasun irizpidea aplikatzea, ez dagoelako testuinguru guztietan baliatu daitekeen zaintza-nozio bakarra [...] zaintza kontzeptua aldakorra da, eta esanahiak zentzua izango du soilik testuinguru jakinetan; baliteke zenbait testuingurutan izen horrek zentzua ere ez izatea.”*

Politika publikoei dagokienez, aurrerabide honek bi eragin-lerro eskatzen ditu. Batetik, aipatu eskubidea gorpuztu eta mamituko duten zaintza-politika koherenteak ezartzea; eta bestetik, zaintza-politika multzo horren eragina positiboa izango dela bermatzea..

#### 4.2.1. Zaintza-politika koherenteen multzoa

Zaintzarako eskubidea gauzatzeak hainbat urrats eskatzen ditu: lehen urratsa zaintzaren antolaketa soziala ondo ezagutzea da, gabeziak eta eragiteko bide egokienak ondo identifikatzeko; izan ere, esan bezala, zaintzaren inguruan ezagutza gutxi egon ohi da. Bigarren urratsa eskubide abstraktua neurri jakinetan gorpuztean datza. Nola hautatu, posible diren neurrien artean? (ikus, adibidez, UNRISD, 2016). Eztabaida benetan demokratiko baten fruitua izan behar da erabaki hori, eta zaintza-harremanen protagonista diren pertsonak zuzendu behar dute eztabaida, honako irizpideen bidez: (1) Zaintzarako eskubidea helburu gisa ulertzea bere horretan, eta ez bestelako helburuak lortzeko bitarteko gisa (adibidez, giza kapitala hobetzeko edo emakumeak lan-merkatuan txertatzeko). (2) Zaintzarako eskubidearen unibertsaltasunean aurrera egitea. Horrek esan nahi du gizarte-politika fokalizatuak abiapuntu diren tokietan, eskubide hau txertatu behar dela gizarte-babeseko etxebizitzaren definizioan<sup>44</sup>. Eta (3) Zaintzarako eskubidearen

<sup>44</sup> Ekimen hau hemen kontsultatu daiteke: <http://www.social-protection.org/gimi/gess/ShowTheme.do?tid=1321&lang=ES>

alderdi anitzen artean feedback positiboa bilatzea (adibidez, lan-baldintza onak bermatzea, aldi berean bermatzeko jasoko diren zaintzak kalitatezkoak izango direla<sup>45</sup>).

Aldi berean, mota honetako politikak hainbat eratan sailkatu daitezke. Jarraian ONU Emakumeak (2014) erakundetik hartutako sistematizazioa dakargu. Bertan irizpidetzat hartzen da eragin-eremua, eta kontuan hartzen da helburu nagusietako bat dela zaintzaren erantzunkidetasunerantz bidea urratzea, eremu sozioekonomiko guztietan.

### ZAINZARAKO ESKUBIDEAN AURRERA EGITEKO POLITIKA POSIBLEAK

- Etxean/eremu pribatuan zaintza errazten duten politikak:
  - Gizonezkoen erantzunkidetasuna sustatzen duten politikak: gizonek zaintza-lanen karga handiagoa beren gain hartu dezaten sustatzen dute, eta aldaketa legalak gauzatzen dituzte familietan emakume eta gizonen artean eskubide- eta betebeharrak berdintasuna bermatzeko.
  - Diru bidezko kontraprestazioak emateko neurriak, etxean zaintza-lan ez-ordainduak egiteagatik (zaintzeko dirua). Neurri honen abantaila nagusia da autonomia ekonomiko pixka bat ematen dietela zaintzeko erantzukizuna hartzen dutenei. Alta, neurri honen muga argia da arduraren banaketan desparekotasuna betikotu dezakeela.
  - Azpiegitura “mundutarra” duen espazioa (ura, argindarra, saneamendua).
- Etxea/eremu pribatuaren eta eremu publikoaren arteko interakzioa errazten duten politikak (bateratze politikak):
  - Enpleguari eskaintako denbora murrizteko neurriak (zaintzeko denbora): Emakume eta gizonen neurri berean aitortu ohi zaie (amatasun eta aitatasun baimenen arteko ezberdintasun handiak salbu), baina soilik emakumeek erabiltzen dute neurri hau, salbuespenak salbuespen. Muga argia dute: sektore arautuko enpleguaren inguruan artikulatu ohi dira.
  - Lanean malgutasuna sustatzea, langileen zaintza-beharren arabera.
- Zaintza-zerbitzu publikoak ezartzea, erantzukizuna etxeetatik ateratzeko eta sektorea gero eta gehiago profesionalizatzeko. Lan-eskubideak kalte gabe beharrezko zaintzak jasotzeko aukera-berdintasuna bermatzeko,

45 Zentzu horretan, Bizkaiko adinekoren erresidentzietako langileen aldarrikapenak aipagarriak dira; txosten hau bukatzen ari garen unean, 300 egun baino gehiago daramatzate greban. Horri buruzko informazioa duzue bideo honetan: <https://www.youtube.com/watch?v=zV7Oivc0GyE&t=8s>

badirudi beharrezkoa dela irabazi asmoaren logikari mugak jartzea, eta estatuak zein erakunde publikoek finantzatutako zerbitzuen alde egitea.

Testuinguruak baldintzatuko du zein den martxan jarri beharreko politika mul-tzorik egokiena. Edonola ere, politika guzti horiengan modu koordinatuan pen-tsatzeari da gakoa. Zentzu horretan, zenbait herrialdek Zaintza Sistema Nazional bat ezartzea proposatu dute; esaterako, Uruguayk: <http://www.sistemadecuidados.gub.uy/>

#### 4.2.2. Zaintzaren lau irizpideak

Analisi feministei esker frogatu izan da, generoarekin neutralak diren politikak ez dauden moduan, zaintzaren alderditik neutralak diren politikak ere ez daudela. Horregatik, politika ororen zeharkako helburuen artean agertu behar da bidez-ko zaintza-sistema bateranzko bidea urratzea. Helburu zabal horrek lau helburu jakin ditu; gaur egun zaintzaren 4 irizpideak (gaztelaniazko siglekin, lau “R”ak: reconocimiento, reducción, redistribución y representación) izenaz ezagunak dira helburuok, eta honako logikaren arabera dira: lehenbizi, zaintza kezka poli-tiko eta sozioekonomikoa sortzen duen gaia dela aitortu behar da; bigarrenik, bizi-kalitateari ekarpena egiten ez dion zaintza murriztu behar da; hirugarrenik, benetan beharrezkoak diren zaintzak berrantolatu behar dira; eta hori guztia zaintza-harremanen protagonistek zuzendu behar duts<sup>46</sup>:

### ZAINTZAREN 4 IRIZPIDEAK

#### 1. Zaintzaren aitortza:

- Lana den heinean: zaintza ez-ordaindua aitortzea konpentsazioa behar duen jarduera gisa, eta etxeko lana erabat baloratzea.
- Beharra den heinean: elkarren arteko mendekotasuna aitortu behar dugu, eta langile/pertsona autoaskiak existitzen direla pentsatzea ekidin.
- Pertsona guztien bizitzaren alderdi nagusietako bat den heinean, eta ez emakumeen jarduera edo ezaugarri propioa balitz bezala.
- Aniztasun funtzionala aberastasun kolektibotzat hartzea, eta elbarritasuna giza-bizitzaren zeharkako errealitate gisa.

#### 2. Zaintzaren modu latzenak murriztea:

- Zaintza-lanaren formarik latzenak murriztea: bai zaintza ez-ordain-duaren kasuan, baita etxeko lanaren kasuan ere (lan-baldintzak hobe-

46 ONU Emakumeak (2014) eta Artiaga Leiras eta Perez Orozcoren (2016) lanetan oinarrituta.



tzearen bidez).

- Mendekotasun egoerak murriztea eta autonomia sustatzea.
3. Zaintza-lanak eta beharrezko baliabideak berrantolatzea gizarte-eragile guztien artean, guztion artean zaintza-beharra asetzeko.
  4. Ordezkapena: zaintza-sistemetako protagonistei aitortza ematea (etxeko langileak, mugimendu feminista eta emakume-mugimenduak, adinekoak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, etab.), zaintzarako eskubidea nola gauzatu erabakitzeko eztabaidak zuzentzeko solaskide legitimo direlako.

Datozenak laukoitz horretan ezarri daitezkeen neurrien adibideak dira:

- Aitortzea: zaintza-beharrak aitortzea etxebizitzak eraikitzean eta hirigintza planak egitean.
- Murriztea: eskubide erreproduktiboak bermatzea, nahi gabeko haurdunaldiak ekiditeko; garraio irisgarria bermatzea
- Berrantolatzea: lan-jardunaldia murriztea zaintzarako denbora gehiago uzteko.
- Aitortzea: etxeko langileak kontsultatzea atzerritarren legeak berrikusterako orduan.

### 4.3. Politika publikoek baino askoz harago: eredia iraultzea

Politika publikoek askoz harago, badago “zaintza-politika ez estatu-zentrikoa” delakoaren alde egiten duenik. Horren arabera, aipatutako lau helburuok erakunde- aparatutik kanpo bilatu daitezke, komunitatearen bidez, edo komuna den horren erakundearen bidez. Bestela esanda, politika (eta politikoa den hori) erakundearen politikaz baino askoz harago doan zerbait dela ulertzea eskatzen du. Apustu horrekin batera dator “eguneroko zaintza-politika” pentsatzeko proposamena; horrek eguneroko zaintza praktikak berrasmatzea eskatzen du, baita gure identitateak berrasmatzea ere, elkarren mendeko subjektu gisa. Jarraian zenbait eztabaidagai proposatuko ditugu, politikari eta erantzunkidetasun kontzeptuari buruz ikuspegia zabaltzeari lotutakoak<sup>47</sup>.

Zaintza-politika ez estatu-zentrikoak esan nahi du zaintza kolektiboa eta komunitarioa izateko neurrien alde egin behar dela. Neurri horiek zubiak eraiki ditzakete eremu publikoarekin, eremu horrek demokratizaziorako eta kudeaketa parte hartzaileeranzko bidea urratzearekin batera. Neurri kolektiboak bilatzeko, baliteke praktika berriak asmatu behar izatea; esaterako, etxebizitza kolaboratiboak (ikus,

<sup>47</sup> Zaintza-politika ez estatu-zentrikoa planteatzea, baita eguneroko zaintza-politikaren proposamena ere, CLACSO Economía Feminista Emancipatoria taldearen hausnarketen ondorio dira, 2017ko irailaren 30ean egindako online mintegian sortuak.

adibidez, Mogollón eta Fernández, 2016). Edo beharbada existitzen diren praktikak sustatu koordinatu eta birformulatu beharko dira. Horrela, adibidez, Maria Elena Cuadra emakume-mugimenduak honakoa proposatzen du: auzoetan kolektiboki eta autogestioaz konpontzea zaintzaren erantzukizunak, emakumeek maquiletara lanera joateagatik zaindu ezin dutenean. Hauxe da ideia: “txikitik handira, behetik gora, alternatibak eraikitzen zentratzea, eta alternatiba horiek integratuta izan ditzatela kolektibitate bultzatze moduak; ez etxeetatik, ezta estatua eragile pribilegiatua dela pentsatzearen bidez ere” (Gómez, 2016). Horrek lotura dauka, halaber, inposatzen ez dizkiguten (hau da, askatasunez aukeratzeko ditugun) bizikidetzak lortzeko moduarekin. Apustua hauxe da: “familia hautatuak” deitu daitezkeen taldeez osatutako komunitateak sortzea.

Zentzu horretan, eztabaidagaia da ekonomia sozial solidarioak (ESS) jokatu dezakeen papera. Erakunde horiek “nolabaiteko merkatu erantzunkide bat bezalakoak lirateke, irabazi asmorik gabekoak diren neurrian; aitzitik, helburu sozialak dituzte, eta horien bidez ekarpen bat egin nahi zaien enpleguaren bidezko banaketari eta herritarren zein lurraldearen ongizateari”. Hala ere, ongizatearen pribatizazioaren testuinguruan, zalantzak azaltzen dira “erakunde sozial horien helburu ezkutuen eta merkatu-eremuko erakundearen muga lausoan inguruan, bereziki eredu honetan erakundeak elkarren artean lehiatzen direlako [...] afera publikoak zuzentzeko” (Artiaga Leiras eta Pérez Orozco, 2017b). Azkenik, esan beharra dago ESSko erakundeentzat oso zaila dela beren “jasangarritasun erreproduktiboa” bermatzea, metaketak gidatutako sistema ekonomikoan funtzionatzen dutelako (Partenio, 2017).

Hortik jarraituz, argitu behar dugu ere zertaz ari garen enpresak (kapitalistak) zaintzaren erantzunkide egiteaz ari garenean. Asmoa ez da, inolaz ere, zaintzaren negozio-hobi berria abiatzea. Aitzitik, langileen erreprodukzioa ordaintzea exijitzean datza kontua (gizarte segurantzaren kotizazioa ordainduta, edota zaintza-politikak finantzatzeko bestelako zergak ordainduta), ez ditzaten exijitu “zaintzaz aske” diren langileak (langileen zaintza-behar eta erantzukizunaren gainetik, laneko erritmo eta antolaerak lehenetsita).

Jakina, hori guztia bateraezina da metaketaren logikan oinarritutako eredu sozioekonomikoan, txostenaren hasieran aztertu bezala. Hartara, bidezko zaintza-sistema baterantz joateko, egitura sozioekonomikoak errotik eraldatu behar dira; horrela, egiturak ez dute ardatz izango etekin monetario pribatua, bizitzaren jasangarritasuna baizik. Bizimodu jasangarria izateko eskubidea artikulatzearen alde egitean, honakoa esan nahi dugu: elkarrekin ondo bizitzeko baldintzak ezartzeko erantzukizun kolektiboa artikulatzearen alde egitea, “ondo” bizitzeaz dugun kontzeptua eraldatu bitartean, besteen kontura bizitzea ez dela ulertuta.

Ez dugu soilik “kanporanzko” aldaketa bat exijitu behar. Horrez gain, egunero-ko praktikak eta munduan egoteko moduak aldatzeko konpromisoa hartu behar dugu (esan bezala, gorpuzten gaituzten erantzukizun asimetrikoak onartuta). Premiazkoa da balioak eta diskurtsoak errotik eraldatzea. Horien artean, hauek aipatuko ditugu bereziki: elkarren arteko mendekotasuna aitortzea, autoaskitasun idealarekin zein zaintzaren etika atzerakoiarekin apurtuta. Horretarako feminitate eta maskulinitate hegemonikoaren eraikuntza zentrala apurtu behar da; izan ere, lehenago nabarmendu bezala, bi biak zaintza-sistema bidegabearen berezko osagaiak dira. Hain zuzen ere, ezinbestekoa da zaintzeko betebeharraren aurka altxatzen diren emakumeak sostengatzea (ez zaintzeko eskubidearen alde borrokatzen direnak), baita lanaren sexu- eta arraza-banaketa eguneratuta erreproduzitzen dituzten moduak desobeditzea ere. Horretarako adibideak izan daitezke 90eko urteetan Bizkaiko Emakume Asanbladak martxan jarri zuen kanpaina, nahitaezko familia-zerbitzuari intsumisioa egiteko. Halaber, ezinbestekoa da morrontza ideia-aren aurkako matxinadak babestea, lotuta baitago iruditeria eta harreman sozial zein ekonomikoak deskolonizatzeko prozesuarekin.

Eguneroko praktika ustez “txiki” askok, sistema sozioekonomikoa irauli dezakete. Egunerokoan eraikitzen ditugu ondo bizitzeko bestelako zentzuak. Eta horra generoari desobeditzeko aukera, elkarrekin bizitzeko bestelako harremanak martxan jarrita, alde batetik autonomia eta bestetik zaintzarekiko konpromisoa konbinatuta (zaintzea ez da beti polita, bizitzak une mingarriak ere badituelako). Une horretan iraultza isila abiatuko dugu, baina kolektiboki pentsatu behar dugu horretan ari garenean. Funtsezko urratsa da harreman horiei zentzu politikoa ematea, praktika indibidual eta isolatuez harago joan daitezen. Izan ere, feminismotik diogun bezala, pertsonala politikoa da.

Etxeko langileek honakoa aldarrikatu dute: “gu gabe, mundua gelditu egiten da”. Ideia hori zaintzaren alorrera eraman dezakegu: zaintzarik gabe, mundua gelditzen da. Baina hori ez da nahikoa, ez dugulako nahi mundu kapitalista, heteropatriarkal, arrazista eta suntsitzailerik bat mugitzen jarraitu nahi. Mugiarazten dugun mundua aldatu nahi dugu, icebergaren leherrarazi, horrela erdigunean jartzeko giza (eta gizakiena ez dena) bizitzaren zaintza, bizitza zaurgarria delako, eta zaindu ezean, galduko dugulako. Bizitza guztiek garrantzia izango duten mundu batean bizi nahi dugu; non zaintzen ditugun bizitzak ez dituzten merkatuek edo beste pertsonak esplotatuko; non ongizatearen oinarria ez diren gure planeta suntsitzen duten bizimoduak; non bizitza batzuk ez diren beste bizitza batzuen kontura zaintzen, eta guzti-guztiok bizipozez bizi gaitezkeen; zaintza erakunde guztien artean partekatutako ardura izango den mundu bat, baita edozein kolore eta jatorri sozial zein geografikoko pertsona, emakume eta gizonen artean ere.

## BIBLIOGRAFÍA

- Anderson, Jeanine (2012), La migración femenina peruana en las cadenas globales de cuidados en Chile y España: Transferencia de cuidados y desigualdades de género, Lima, NBE Emakumeak-
- Arango, Joaquín, Díaz Gorfinkiel, Magdalena eta Djaouida Moualh (2013), Promover la integración de las trabajadoras y los trabajadores domésticos migrantes en España, LANE, Geneva.
- Artiaga Leiras, Alba eta Amaia Pérez Orozco (2017), “Tres años de aprendizaje colectivo y global sobre los cuidados” NBE Emakumeak (2017), ¿Por qué nos preocupamos por los cuidados? Colección de ensayos en español sobre Economía de los Cuidados, NBE Emakumeak Formakuntza Zentroa, Pilar/Pili. 98-117.
- (2017b), “Actualización de la Serie de documentos de lectura”, Documento de lectura 9 Serie Por qué nos preocupamos por los cuidados, NBE Emakumeak Formakuntza Zentroa
- ATH-ELE (2017), 2017ko etxeko langileen gida, ATH-ELE.
- (2016), Propuestas de la ATH-ELE ante el Parlamento Vasco, ATH-ELE.
- Batthyány Dighiero, Karina (2015) Las políticas y el cuidado en América Latina. Una mirada a las experiencias regionales. División de Asuntos de Género de la CEPAL
- Bidegain Ponte, Nicole (2010), Comercio y desarrollo en América Latina: el orden de los factores altera el producto, IGTN
- CDHFMC (Centro de Derechos Humanos Fray Matías de Córdoba) (2012), Situación de las y los Trabajadores del Hogar en la Ciudad de Tapachula, Chiapas, CDHFMC
- Beltrán de Heredia Ruiz, Ignasi (2017), “Empleadas del hogar, desistimiento y embarazo/maternidad: discrepancias interpretativas sobre la nulidad”, Una mirada crítica a las relaciones laborales, 2017ko otsailak 7.
- Ceballos Angulo, Gilda (2017), “El debate inacabado sobre la crisis de los cuidados”, NBE Emakumeak (2017), ¿Por qué nos preocupamos por los cuidados? Colección de ensayos en español sobre Economía de los Cuidados, NBE Emakumeak Formakuntza Zentroa, Pilar/Pili. 142-156
- CIDH (Comisión Interamericana de Derechos Humanos) (2015), Situación de los derechos humanos en México, CIDH-OEA
- Cumes, Aura (2014), “Cultura de servidumbre y trabajo en casa particular: A propósito del día internacional del trabajo”, Comunidad de Estudios Mayas.
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila (2011), Estudio de Situación Laboral de las Personas Empleadas en Servicio Doméstico de la CAPV, Eusko Jaurlaritzza
- Díaz Gorfinkiel, Magdalena eta Celia Fernández López (2016), Impacto de las reformas legislativas en el sector del empleo del hogar en España, Serie Condiciones de Trabajo y Empleo 82. zk., LANE, Geneva
- Díaz Prieto, Gabriela (2015a), Mujeres trabajadoras migrantes, el envío de remesas y la generación de cadenas de cuidado en el corredor Chiapas-Centroamérica, NBE Emakumeak

- (2015b), *Compromisos de México con los derechos humanos de las trabajadoras migrantes*, NBE Emakumeak, Mexiko
- Durán Heras, María Ángeles (2012), *El trabajo no remunerado en la economía global*, Bilbo: BBVA Fundazioa
- Fuentes de Paz, Ledy Darylé (2014), *Análisis constitucional y legal del trabajo doméstico en Guatemala, y su adecuación con los convenios internacionales de la Organización Internacional del Trabajo*, master amaierako tesia Rafael Landívar unibertsitatean
- Gómez, María Eugenia (2016), “El trabajo invisible que sostiene la vida. Cómo han sido abordados los cuidados por las feministas en Nicaragua”, en Grupo Venancia (2016) *Mujeres que sostienen la vida: Retos para los feminismos desde la realidad nicaragüense*, Pilar/Pili. 9-22
- Gómez, Laura (2016), “Sostenibilidad y política para la vida cotidiana. La práctica y la lucidez de la derrota”, en Fundación de los Comunes (ed.) (2016), *Hacia nuevas instituciones democráticas Diferencia, sostenimiento de la vida y políticas públicas*, Traficantes de Sueños, Madrid
- Guevara, José A. (2012), “¿Qué implica para México la ratificación del Convenio 189 de la OIT sobre los derechos de las personas trabajadoras del hogar”, *Dfensor*, núm. 1 *Hacia la dignificación del empleo de hogar*, 6-13. orr.
- Gutiérrez Gómez, Lorenza (2012), “Mujeres indígenas trabajadoras del hogar”, *Dfensor*, núm. 1 *Hacia la dignificación del empleo de hogar*, 19-23. orr.
- ILOcoop (2015). “Cooperar para salir del aislamiento: las cooperativas de trabajadoras y trabajadores domésticos”. *Cooperativas y mundo del trabajo*, 2. zk., LANE
- Kids in Needs eta CDHFMC (2017), *Niñez Interrumpida: Violencia Sexual y por Motivos de Género contra Niñez Migrante y Refugiada Centroamericana, 2017ko ekaina*
- Lexartza, Larraitz, Chaves, María José eta Ana Carcedo (2016), *Políticas de formalización del trabajo doméstico remunerado en América Latina y el Caribe*, LANE, Lima.
- Lleó Fernández, Rocío, Cristina Santillán Idoate, Silvia López Gil eta Amaia Pérez Orozco (2012) “Zainketak”. *Eztabaida feministarako kaierak*, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Mauleón, José Manuel (2015), “La alimentación y la preparación de comidas” eskuragarri: Legarreta Iza, Matxalen (koord.) (2015), *Dos décadas de cambio social en la C.A. de Euskadi a través del uso del tiempo. Encuesta de Presupuestos de Tiempo, 1993-2013*. Monográfico, EUSTAT, pp. 183-213
- Mogollón García, Irati eta Ana Fernández Cubero (2016), *Arquitecturas del cuidado. Viviendas colaborativas para personas mayores. Un acercamiento al contexto vasco y las realidades europeas*, Emakunde.
- OIT (2015), *Estimaciones mundiales de la OIT sobre los trabajadores y las trabajadoras migrantes. Resultados y metodología. Un enfoque especial sobre las trabajadoras y los trabajadores domésticos migrantes*, Geneva.
- (2013), *Trabajo doméstico infantil: estimaciones mundiales 2012*, LANE, Geneva.
- (2010), *Trabajo decente para los trabajadores domésticos. Informe IV (1)*, Geneva: LANE
- NBE Emakumeak (2014). *Serie de documentos de lectura. Por qué nos preocupamos de los*

- cuidados, Santo Domingo. NBE Emakumeak Formakuntza Zentroa
- (2015), *El Progreso de las Mujeres en el Mundo 2015-2016: Transformar las economías para realizar los derechos*, NBE Emakumeak, New York
- (2017), *Situación de las Mujeres Trabajadoras Migrantes. Síntesis analítica del Encuentro Internacional sobre la Situación de las Mujeres Trabajadoras Migrantes*, NBE Emakumeak, Mexiko
- Orozco Corona, Mónica E. eta Sarah Gammage (2017), “Cash transfer programmes, poverty reduction and women’s economic empowerment: Experience from Mexico”, Working Paper No. 1 / 2017, Social Protection Department ILO
- Ortúñez Gallo, Eva eta Esperanza Camarasa de los Ángeles (2012), *Memoria. Empleadas de hogar, ciudadanas migrantes, trabajadoras con derechos*, ACSUR Las Segovias
- Paiewonsky, Denise, Pérez Orozco, Amaia eta Mar García Domínguez (2008), *Cruzan-do fronteras II: Migración y desarrollo desde una perspectiva de género*, Madril: UN-INSTRAW-Instituto de la Mujer (Ministerio de Igualdad), 2008
- Partenio, Florencia (2017), “¿Es posible hablar de una sustentabilidad reproductiva?: apuntes para el diseño de una caja de herramientas en las experiencias de economía social”, NBE Emakumeak (2017), *¿Por qué nos preocupamos por los cuidados? Colección de ensayos en español sobre Economía de los Cuidados*, NBE Emakumeak Formakuntza Zentroa, Pilar/Pili. 142-156
- Pautassi, Laura (2010). “Cuidado y derechos. La nueva cuestión social”. Eskuragarri: Montaño, S. eta C. Calderón (koord.) (2010). *El cuidado en acción. Entre el derecho y el trabajo*. Santiago (Txile): Nazio Batuak. Pilar/Pili. 69-92
- Pérez Orozco, Amaia eta Silvia López Gil (2011), *Desigualdades a flor de piel: cadenas globales de cuidados. Concreciones en el empleo de hogar y articulaciones políticas*, UN-INSTRAW
- PNUD (2015), *Informe de Desarrollo Humano 2015. Trabajo al servicio del desarrollo humano*. New York: PNUD
- Ray, Isha (2016), “Investing in gender-equal sustainable development”, UN Women Discussion Paper 4.
- Razavi, Shahra eta Silke Staab (2010), “Underpaid and overworked: A cross-national perspective on care workers”, *International Labour Review*, 149: 407-422
- Rico, María Nieves eta Claudia Robles (2016), *Políticas de cuidado en América Latina: forjando la igualdad*, CEPAL
- Sagastizabal Emilio-Yus, Marina eta Marta Luxán Serrano (2015), “Género y usos del tiempo”, en Legarreta Iza, Matxalen (koord.) (2015), *Dos décadas de cambio social en la C.A. de Euskadi a través del uso del tiempo. Encuesta de Presupuestos de Tiempo, 1993-2013*. Monográfico, EUSTAT, Pilar/Pili. 385-425
- Sanabria, Antonio, Paz Antolín, María José eta Soraya González Guerrero (2005), *Centroamérica encendida. Transnacionales españolas y reformas en el sector eléctrico*, Icaria, Madril.
- Sepúlveda Carmona, Magdalena (2013), *Informe de la Relatora Especial sobre la extrema*

- pobreza y los derechos humanos sobre trabajo no remunerado y derechos humanos de las mujeres, A/68/293, 68ª sesión de la Asamblea General <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/LTD/G14/064/48/PDF/G1406448.pdf?OpenElement>
- UNRISD (2016), Capítulo 3: Políticas de cuidado, ¿cómo hacer realidad su potencial transformador?, Innovaciones políticas para el cambio transformador. Implementación de la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible, UNRISD
- Valiente, Hugo (2016), Las leyes sobre trabajo doméstico remunerado en América Latina, CDE eta NBE Emakumeak, Paraguay
- Vasileva, Jana (2016), “Situando los cuidados en el centro: Derechos económicos y laborales de las mujeres desde una perspectiva de ciudadanía activa”, Curso moderado en línea Por qué nos preocupamos por los cuidados, NBE Emakumeak Formakuntza Zentroa
- Woodroffe, Jessica eta Kate Donald (2014), “Unpaid care A priority for the post-2015 development goals and beyond”, Gender and Development Network Briefings, 2014ko uztaila.
- Zenbait Egile (2016), El trabajo doméstico en México: La gran deuda social, Gobierno de la República. Secretaría del Trabajo y Previsión Social, Mexico







Energia-  
sarbide justu  
eta  
jasangarri-  
rako

ETA ENERGIA-  
BURUJABETZARAKO  
ESKUBIDEA

## **FISKALAREN AKUSAZIO TXOSTENA**

Energiarako sarbide justu eta jasangarrirako, eta energia-burujabetzarako eskubidea

**FISKALTA:** Ana María Palacios



Ana María Palacios akusazio-txostena aurkezten Herri-Auzitegian

Egungo eredu energetikoak ondasun komunak merkaturatzen ditu, eta horrek giza eskubideak larriki urratzea eragiten du. Ardatz honek urraketa horiek agerian jartzea du xede, desparekotasuna eta diskriminazioa eragiten baitituzte munduaren Iparralde zein Hegoaldean. Bizitza Jasangarriak Izateko Eskubidearen Aldeko Herri-Auzitegi honetan (aurrerantzean, Herri-Auzitegia) aurkeztutako kasuek energiaren merkatua liberalizatzearen ondorio lazarriak erakusten dituzte, baita horiek pertsonen bizitzan (bereziki emakumeen bizitzan) eragindako inpaktuak ere.

Fiskaltzaren arabera, bi kasuen egitateak aztertu eta gero, eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan agertzen diren estandarren arabera, ondoriozta daiteke nahikoa elementu daudela xedatze-ko honako hauek erantzuleak direla:

1. 1. Nafarroako Foru Erkidegoa eta Espainiar Estatuko Gobernuak, energiako eskubidea urratzeagatik, Rosak, Santiagok eta haien alabak bizitza duina izateko duten eskubideari dagokionez.
  - 1.1. Iberdrola, bere praktikaren bitartez giza eskubideak urratzen dituelako.
2. Marokoar Estatuak, saharar herriak autodeterminatzeko eta energia-buruja-betzarako duen eskubidea urratzen duelako.
  - 2.1. Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan diharduten energia-enpresak, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta Giza Eskubideena ez betetzeagatik.
  - 2.2. Espainiar Estatuak, energia-enpresa horiek ez erregulatu eta erantzukizun zibila eta penala ez eskatzeagatik –egoitza Espainian baitute–, eta deskolonizazio-prozesurako nazioarteko hitzarmenak ez betetzeagatik.

Akusazio-idazki hau lau ataletan banatuta dago: lehenengo atalean, bi kasuen egitate nagusiak laburbildu, eta horiek gertatu zireneko testuingurua azaltetik aurkeztuko dugu. Bigarren atalean, kasu bakoitzean aplika daitekeen marko juridikoa azalduko dugu. Hirugarrenean, aldiz, kasuen azterketa juridikoa egingo dugu, giza eskubideen eta feminismoaren ikuspuntutik. Amaitzeko, laugarren atalean, Herri-Auzitegiari eskatzen diogu aurretik identifikatu ditugun subjektuen erantzukizuna ezartzeko eta banakoei zein kolektiboei dagokien ordaina zehazteko.

## 1. EPAITUTAKO EGITATEAK

Atal honetan aurkeztuko ditugun egitateak bai kasu bakoitzaren fitxan, bai Mònica Guiteras adituaren txostenean bildutako informazioaren laburpena dira.

### **Kasua: Mendebaldeko Sahara**

#### **Kasuaren laburpena**

Saharar herriaren kasuak harreman zuzena du Marokoko Estatuak Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan energia berriztagarrien instalazioak ilegalki jarri izanarekin. Marokok energia-baliabideak ustiatu eta espoliatzeko saharar herriak baliabide horiek erabiltzeko duen eskubidea urratzen du, baita haien lurraldeko jarduera ekonomikoen inguruan erabakitzearen eskubidea ere. Eskubide horiek lotura zuzena dute beste eskubide batzuekin, hala nola bizitza duina izatea, osasun

eta osotasun pertsonala izatea, autodeterminazioa eta identitate kulturala bermatzea, adierazpen askatasuna, politikoki elkartu eta parte hartzea, berdintasuna izatea eta ez diskriminazioa, eta justizia lortu ahal izatea.

Kasu honek erakusten du enpresa transnazionalak<sup>48</sup> modu orokorrean ustiatu eta espoliatzen dituztela baliabide naturalak Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan, Marokoko Estatuak baimenak ematen dizkien bitartean. Jarduera horiek Europar Batasunak eta Espainiar Estatuak Afrikako iparraldean bultzatzen duten politika energetiko neoliberalaren parte dira, eta bereziki Mendebaldeko Saharan eragiten dute, Marokoren kontrolpean, baliabideen ustiapena eta horren ingurune-inpaktua eta inpaktu sozial eta ekonomikoa ezkututzen baitituzte<sup>49</sup>.

### **Marokoren okupazioa, errepresioa eta ustiapena Mendebaldeko Saharan**

Mendebaldeko Sahara 1976az geroztik okupatutako lurraldea da, Marokok indar militar eta administratiboa erabili baitu hori kontrolatzeko. 1991. urtean Polisario Fronteak eta Marokok su-etena sinatu bazuten ere, indarkeriak, militarizazioak eta errepresio politikoak aurrera jarraitzen dute. Gainera, 1975az geroztik, Marokok ilegalki ustiatzen ditu Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak (itsasaldekoak eta meatzeetakoak), eta onurak okupazioa mantentzeko erabiltzen ditu<sup>50</sup>. Testuinguru horretan, saharar emakumeak oso lan aktiboa egiten ari dira Marokoren okupazio-politikaren interes ekonomikoa salatuz<sup>51</sup>.

Europar Batasuna Marokoren kide komertzial handiena da (harekin egin zuen Marokok 2015ean bere komertzioaren % 55,7), eta akordio komertzial horien onuradun nagusiak Espainiar eta Frantziar Estatuak izan dira. Bestalde, 2000. urteaz geroztik, Marokoko erregeak ia 1.000 akordio komertzial sinatu ditu Afrikako hainbat herrialderekin<sup>52</sup>. Energia berriztagarriak sektore energetikoaren merkatu-hobi berria dira<sup>53</sup>.

48 Transnazional eta multinazional terminoak bereizi gabe erabiliko ditugu

49 kus Mònica Guiteras adituak egindako Eje Modelo Energético txosteneko (aurrerantzean, "Mònica Guiterasen txostena") 6. orrialdea eta hurrengoak.

50 Western Sahara Resource Watch (WSRW), "Graduados saharais sin trabajo protestan en Rabat", 2010, 2017ko azaroaren 22an begiraturia, helbide honetan: <http://www.wsrw.org/a197x1542>

51 I. Mendia Azkue; G. Guzmán Orellana, En tierra ocupada. Memoria y resistencia de las mujeres en el Sáhara Occidental, UPV/EHU, HEGOA institutua (Emakume Sahararren Aldeko Euskadiko Sareak ere parte hartu du), 2016, 47. or.

52 C. Gaffey, "Why has Morocco rejoined the African Union after 33 years?", Newsweek, 2017, 2017ko abenduaren 21ean begiraturia, helbide honetan: <http://www.newsweek.com/morocco-african-union-western-sahara-551783>.

53 Ikus Mònica Guiterasen txosteneko 6. orrialdea.

## Kasuaren egitateak

**2010. urtean, Marokok Energia Eolikoaren Plan Integratua sortu zuen eta, besteak beste, sei parke eoliko eraikitzea adostu zuen<sup>54</sup>, horietariko bi Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan<sup>55</sup>. 2016an, Marokoko Elektrizitate Agentziak (ONEE) lizitazioa argitaratu gabe 4 urte igaro eta gero, bost parke eoliko (lurralde okupatuko bi parkeak barne) eraikitzeko proiekturako baimena eman zien Siemens Wind Power<sup>56</sup>, Enel Green Power<sup>57</sup> eta Nareva Holding<sup>58</sup> enpresei. Bai Siemensek, bai Enelek, proiektua ‘Marokon’ dagoela adierazi zuten, hau da, ez zituzten Maroko eta hark ilegalki okupatzen duen lurraldea bereizi<sup>59</sup>. Bost parke eolikoak (lurralde okupatuko biak barne) 2017 eta 2020 urteen artean abian jarriko direla aurreikusi da<sup>60</sup>.**

**Beste alde batetik, 2016an dokumentatu zen Foum El Oued hirian Siemensen 22 turbina daudela<sup>61</sup>, eta Marokoko Estatuaren enpresak lurralde okupatuko fosfatao esportatu ahal izateko behar duen energiaren % 95 ekoizten dutela turbina horiek<sup>62</sup>. Agertoki horretan, sahararrek bizibide duinak izatea galarratzen duten elementuetan sakontzen da, bai lurraldea okupatuta dutelako, bai**

54 Royaume du Maroc, “Integrated Wind Energy Generation Program”. Programa horrek adierazten du bi fasetan eraiki direla; lehena dagoeneko martxan dago Tazan, Marokoko iparraldean. Iturria: Western Sahara Resource Watch (WSRW), Energía para el expolio. Lo que Marruecos y Siemens esconden en COP22, Marrakech, op. cit., 8. or.

55 Western Sahara Resource Watch (WSRW), Energía para el expolio. Lo que Marruecos y Siemens esconden en COP22, Marrakech, op. cit., 8. or.

56 Haize-turbinak manufacturatzeko enpresa daniarra. 2011 urtean banandu egin zen eta Alemanian jarri zuen egoitza. 2016an, Gamesa enpresa espainiarrarekin fusionatu zen. Iturria: <https://www.siemens.com/global/en/home.html>

57 En el Taldearen parte da, energia berriztagarrien sektorean lan egiten duen eta egoitza Italian duen enpresa multinazionala. Iturria: <https://www.enelgreenpower.com/>

58 Marokoko enpresa bat da, energiaren sektorekoa, “Société Nationale d’Investissement” Inbertsio Enpresa Nazionala eta Mohammed VI Marokoko erregearen ondasuna. Iturria: <https://www.engie.com/en/journalists/press-releases/engie-and-nareva-partnership/>. Ikus Western Sahara Resource Watch (WSRW), Energía para el expolio. Lo que Marruecos y Siemens esconden en COP22, Marrakech, op. cit., 11. or.

59 Ibid., 8. or.

60 Ibid.

61 J. McKenna, “Analysis - Siemens criticised over Western Sahara project”, 2017ko urriaren 14an begiratu, helbide honetan: <https://www.windpowermonthly.com/article/1178474/analysis---siemens-criticised-western-sahara-project>.

62 Ikus <https://www.ormazabal.com/es/sobre-nosotros/donde-estamos>. Western Sahara Resource Watch (WSRW), Energía para el expolio. Lo que Marruecos y Siemens esconden en COP22, Marrakech, op. cit., 4. or. Horrez gain, egoitza Europako herrialdeetan duten eta aktiboki parte hartzen duten beste enpresa transnazional batzuk ere aipatzen dira, hala nola Ormazabal enpresa (Bizkaian du egoitza), turbina horiek eraikitzeko tresneria eman baitzuten. Horren inguruan, ikus aurretik aipatutako Energía para el expolio txosteneko 21. orrialdea.

ezinezkoa zaielako beren baliabideak erabiltzea eta, hortaz, errentak sortzea. Baliabide ekonomiko urriak dituzte, eta horien menpe dago elikadura, osasun-zerbitzuak, edateko ura, energia edota sendagaiak izatea<sup>63</sup>.

**Ildo horretan, energiaren eskuragarritasunari dagokionez, sahararren baldintzak nahikoa prekarioak dira<sup>64</sup>.** Horrez gain, sahararrek erabakitze eskubidea urratua dutela argi ikusi zen ACA Power enpresak galdeketa-prozesua egin zueanean lurralde okupatuko bi gunetan (Aaiunen eta Bojadorren) eguzki-planta bat jartzeari buruz, sahararrak ez baitzituen kontuan hartu<sup>65</sup>.

### **Kasua: Nafarroa** **Kasuaren laburpena**

Rosa Felgar, Santiago Rubio eta haien bi urteko alabaren kasua<sup>66</sup> bizitzak eta osasunak jasaten dituzten eraginekin lotuta dago, gehiegizko esfortzua egin behar baitute oinarritzko energia-beharrizanak asetzeko eta, ez ordaintzeagatik, etxeko elektrizitatea moztua izateko arriskua baitute. Halaber, hainbat oztopori egin behar izan diete aurre Nafarroako Foru Erkidegoko babes sozialerako mekanismo instituzionalen laguntza jasotzeko. Egitate horiek argi erakusten dute energiako eskubidea ukatua izan zaiela; gainera, eskubide horrek harreman zuzena du honako eskubide hauekin: bizi-maila eta etxebizitza egokiak izatea, osasuna eta osotasun pertsonala izatea, berdintasuna izatea eta ez diskriminazioa, informazioa izatea, parte hartu ahal izatea, justizia lortu ahal izatea eta hurrek babes berezia jasotzea.

Kasu horrek erakusten du Espainiar Estatuan pobrezia edo ahultasun energetikoa bizi duten familiek egoera larria bizi dutela gaur egungo eredu energetikoaren ondorioz (fosilen menpekoea, zentralizatua, oligopolikoa, patriarkala eta ekozida), eredu horrek enpresa pribatu handiei ematen baitie lehentasuna, pertsonen beharritan eta bizitzaren jasangarritasunaren gainetik.

63 Ikus Mónica Guiterasen txosteneko 11 eta 14. orrialdeak, eta ikus ere Secretary-General, Report of the Secretary-General on the situation concerning Western Sahara. S/2017/307, Security Council UN, 2017, 2017ko urriaren 26an begiratua, helbide honetan: [https://minurso.unmissions.org/sites/default/files/unsg\\_report\\_10\\_april\\_2017.pdf](https://minurso.unmissions.org/sites/default/files/unsg_report_10_april_2017.pdf).

64 Ibid, Mónica Guiterasen txostena.

65 Ikus Mónica Guiterasen txosteneko 22. orrialdea.

66 Mónica Guiterasen txosteneko 1. orrialdean adierazitakoaren arabera.

## Pobrezia eta ahultasun energetikoa Espainiar Estatuan eta Nafarroako Foru Erki-degoan

Rosa, Santiago eta haien alabaren egoera ez da kasu isolatua, hau da, energiara-ko eskubidea ukatzeak dakarren egiturazko problematika erakusten du. Izan ere, testuinguru honetan, ondasun komunak merkaturatzen dira, energiaren sektorea ez dago behar bezala erregulatuta, energiaren prezioa etengabe igotzen ari da, lan-gabezia altua da, lana prekario bihurtzen ari da eta, gainera, horrek eragin berezia du emakumeengan<sup>67</sup>.

Estatistikek erakusten dute Europar Batasuneko populazioaren % 11k (50 eta 125 milioi pertsonaren artean) eta Espainiar Estatuko etxebizitzaren % 11k (5,1 milioi pertsona) ez dutela diru nahikorik etxea bero mantentzeko<sup>68</sup>. Nafarroan, gutxi gorabehera 96.000 pertsonak bizi dute pobrezia energetikoa; pertsona horien % 30,2 Iruñean bizi da<sup>69</sup>. Bestalde, 2016ko otsaila eta urria bitartean, egunean 1,25 aldiz geldiarazi zen energiaren hornidura mozteko prozedura<sup>70</sup>, baina Nafarroan pobrezia energetikoaren aurka egiten diren ekintzak ez dira nahikoa<sup>71</sup>.

### Kasuaren egitateak

2010az geroztik, Rosa eta bere familia ahultasun egoeran daude. Izan ere, ez Rosak ez Santiagok ez dute lan ordaindu duinik, eta horrek ekarri die oinarriko zerbitzuez (ura eta argia, esaterako) hornitzeko faktura altuak ezin ordaindu izatea. Iruñean alokatzen duten etxebizitzan, uraren zerbitzua lekuko enpresa man-komunatu batekin dute kontratatua, eta fakturaren % 90 ordaintzeko laguntza jasotzen dute. Zentzu horretan, ez dute arazorik izan ez ordaintzeagatik, eta ez zaie hornidura moztu. Elektrizitatea eta gasa, aldiz, enpresa pribatu batekin, Iber-

67 Puntu horretan sakontzeko, ikus Mònica Guiterasen txosteneko 3. orrialdea eta hurrengoak. Esate baterako, pobrezia energetikoaren beste faktore bat da etxeetako efizientzia energetiko falta, eta Nafarroan horrek bereziki eragiten du alokairu sozialeko etxebizitzetan. Ikus I. Gonzalez Pijuan, Desigualdad de género y pobreza energética. Un factor de riesgo olvidado, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, 2017, 2017ko urriaren 22an begiratu, helbide honetan: <https://esf-cat.org/wp-content/uploads/2017/09/ESFeres17-PobrezaEnergeticaIDesigualdadGenero.pdf>.

68 S.-N. Boemi; G. Panaras; A. M. Papadopoulos, "Residential Heating under Energy Poverty Conditions: A Field Study", *Procedia Environmental Sciences*, vol. 38, 2017 (Sustainable synergies from Buildings to the Urban Scale), 1. or.; S. Tirado Herrero eta beste batzuk, Pobreza, vulnerabilidad y desigualdad energética. Nuevos enfoques de análisis, Asociación de Ciencias Ambientales, Madril, 2016, 14. or., 2017ko azaroaren 30ean begiratu, helbide honetan: [https://www.cecaticos.com/file/45aae51d7181a4dd96418a571b2e71ec/1496831519-estudio-pobreza-energetica\\_aca\\_2016.pdf](https://www.cecaticos.com/file/45aae51d7181a4dd96418a571b2e71ec/1496831519-estudio-pobreza-energetica_aca_2016.pdf).

69 Ikus Mònica Guiterasen txosteneko 5. orrialdea.

70 I. Martínez Lorea; L. Martínez Sordoni, Estudio exploratorio para establecer las bases de un análisis sistemático de la pobreza energética en la ciudad de Pamplona-Iruña, op. cit., 45. or.

71 Ikus Mònica Guiterasen txosteneko 6. orrialdea.

drolarekin, dituzte kontratatuta, merkatu libreko tarifa batean; hau da, enpresak berak erabakitzen du prezioa.

**2017ko martxo-apirilean, ez ordaintzeagatik Iberdrolaren lehen mezuak jaso zituztenean, Rosak Iruñeko Udaleko gizarte-zerbitzuetara jo zuen eta hainbat gestio egin zituen elektrizitatearen hornidura ordaindu ahal izateko laguntza publikoa eskatzeko. Bere eskaerari erantzunez, honako hau adierazi zion gizarte-langile batek Rosari: (I) hornidura-mozketaren abisuari itxaroteko; (II) Udalak ordaintzeko falta ziren fakturetako 2 soilik ordainduko zituela larrialdietako funtsaren bidez; gainera, funts hori mugatua dela eta, beraz, ez zizkiela faktura gehiago ordainduko<sup>72</sup>; eta (III), aurreratzean arazo bera izanez gero, gizarte-zerbitzuetan elektrizitatearen hornidura mozteko data atzeratzea besterik ezin zutela egin eta, hortaz, Rosak Iberdrolarekin negoziatu beharko zuela ordainketa. Hala, familiak hornidura-mozketaren abisuari itxaron zion eta Udalak bi fakturak ordaindu zituen.**

**Kasuaren dokumentazioa aztertuta, ikus daiteke Rosak eta Santiagok ez dutela elektrizitatearen hornidura ordaintzeko bereziki diseinatutako gizarte-laguntzarik. Hori dela eta, laguntza publikoak bi faktura besterik ez zituenez ordaindu, Iberdrolarekin zuten zorra zatikatzera behartuta egon ziren, hori baitzuten aukera bakarra atzeratutako fakturak ordaintzeko eta, horrela, Iberdrolak hornidura ez mozteko. Azken bi urteotan ez zaie hornidura moztu, Espainiar Estatuko legediaren arabera, atzeratutako fakturak ordainduz gero, ez delako hornidura moztu behar. Edonola ere, garrantzitsua da azpimarratzea haien aurreko etxean gutxienez 4 aldiz moztu zirela hornidura.**

Esandakoaren ondorioz:

1. Ziurgabetasun eta presio garaia bizi izan zuten mozketaren abisuaren zain zeudenean. Horrek guztiak ezintasuna, estutasuna, lotsa eta amorrua eragin zizkien.
2. Energiaren kontsumoari uko egin behar izan zioten, hau da, beste oinarritzko beharrian batzuk ase gabe utzi behar izan zituzten ordaindu gabeko fakturak zatika ordaindu ahal izateko.
3. Rosak tratu iraingarria jaso zuen Udalaren aldetik.
4. Larrialdietako funtsa berriro erabiltzeko aukera galdu zuten, eta horrek ahultasun egoera are larriagoa ekarri zien.

---

72 Rosak duen informazioa ikusita, segurta dezakegu familiari ez zitzaiola pobrezia energetikorako funtseko dirua eman.



## 2. URRATUTAKO MARKO JURIDIKOA

Espainiak eta Marokok berretsitako giza eskubideen tratatuek hainbat betebeharrak ekartzen dizkiete estatu horietako buruei –autonomietako eta lekuko erakundeak barne–, giza eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzeko. Espainiar Estatuan, indarrean dagoen Konstituzioaren (aurrerantzean, “EK”) 96.1 artikulua araberak, giza eskubideen tratatu bat berretsiz gero, hori barne ordenamendu juridikoaren parte bihurtzen da<sup>73</sup>. Bestalde, Marokok indarrean duen Konstituzioak hitzaurrean adierazten du konpromisoa duela “nazioarteko hitzarmenetatik datozen printzipio, eskubide eta betebeharrekin” eta, horrez gain, “giza eskubideei eta nazioarteko zuzenbide humanitarioari dagozkien sistemak babestu eta sustatzeko” ardura duela<sup>74</sup>.

Marokori Mendebaldeko Saharako gertaeren erantzukizuna eskatzen zaio nazioartean; garrantzitsua da azpimarratzea eskaera horren oinarria dela Marokok lurralde horretan ez duela ez eskumen ez subiranotasunik<sup>75</sup>, baina benetako kontrola duen edozein lurralde zein populaziotan giza eskubideen hitzarmenak aplikatzeko ardura duela<sup>76</sup>. Hain zuzen ere, Mendebaldeko Saharan, lurralde okupatuan, benetako kontrola du<sup>77</sup>.

Honako tresna legal hauek izan dira urratuak ikertzen ari garen bi kasuetan (hurrengo atalean zehaztuko dugu nola garatzen diren tresna horiek jurisprudentzian eta doktrinan, horietan oinarritzen baita salaketa):

73 Espainiar Konstituzioko 96.1. artikulua. Halaber, Konstituzioko 10.2 artikulua beste tresna batzuk interpretatzeko iturri gisa erabiltzen da, lotesleak ez badira eta barne-mailako zuzenbideko xedapenei edukia emateko balio badute. Ikus et. al., STC 53/1985, STC 242/1994 eta STC 107/1984 epaiak.

74 NBE, Documento básico que forma parte de los informes presentados por los Estados partes. Maroko. NBEen dokumentua, HRI/CORE/MAR/2012, 2012.

75 Hala ezarri dute, behin eta berrito, honako hauek: (I) Nazioarteko Justizia Auzitegiak, Mendebaldeko Saharari buruzko kontsulta-iritzian, 1975ean; (II) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, Areto Handiko 2016ko abenduaren 21eko epaiaren bidez, C-104/16 P kasuan; Auzitegi abokatu nagusiak, 2018ko urtarrilaren 10ean; Hegoafrikako Auzitegi Gorenak (Eastern Cape Local Division, Port Elizabeth), 1487/17 kasuaren ebazpenean; (III) Afrikako Batasunaren Aldeko Erakundearen Estatu eta Gobernuen Batzarrak, 1981eko 103 AHR/Res.; (IV) Gizakien eta Herrien Eskubideen Afrikako Batzordeak, 2012an Saharako Errepublikara Arabiar Demokratikoa bisitatu zuenean egindako txostenean; (V) NBEko Giza Eskubideen Batzordeak, 31. Txosten Nagusian, 10. paragrafoan; eta (VI) NBEko Biltzar Nagusiak, 1979ko 34/37 Ebazpenean eta 1978ko 2458 Ebazpenean.

76 Kontrol eraginkorri buruz, ikus Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Kontsulta-iritzia Palestinar Lurralde Okupatuan Eraikitako Harresiaren Ondorio Juridikoak Buruz, 2004, 112. paragrafoa.

77 Mendebaldeko Saharan, Marokok 100.000 tropa militar ingururekin ezartzen du kontrola. Horri buruz, ikus Hegoafrikako Auzitegi Gorena (Eastern Cape Local Division, Port Elizabeth), 1487/17 kasua, 23. paragrafoa. Ikus ere: S. Zunes; J. Mundy, *Western Sahara. War, Nationalism, and Conflict*, Syracuse University Press, 2010, 261. or.

### **Nazio Batuen Erakundearen markoan (Marokori eta Espainiari aplika dakiokena)**

- Eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Ituna (1966).
- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Nazioarteko Ituna (1966).
- Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Konbentzioa (1979).
- Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa (1965).
- Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa (1989).
- Herrialde eta herri kolonialei independentzia emateari buruzko Adierazpena (1960).
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948).

### **Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren tresnak**

- 1949ko Genevako lau Hitzarmenak eta horien 1977ko Protokolo Gehigarriak.
- Lurreko gerraren lege eta ohiturei buruzko Hitzarmena (1907).

### **Afrikar Batasunaren markoan (Marokori aplika dakiokena)**

- Afrikar Batasunaren akta eratzailea<sup>78</sup>.

### **Marokoko legeria**

- Marokoko Erresumako Konstituzioa (2011).

### **Europar Batasunaren markoan (Espainiari aplika dakiokena)**

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena (1979).
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000).
- Europako Gutun Soziala (1961).
- Zuzentarauak: 2009/72/CE, 2009/73/CE eta 2012/27/CE.
- Kontsumitzaileen Eskubideen Europako Karta (2008).

### **Espainiar Estatuko legeria**

- Estatuko legegintzaren markoari dagokionez, 1978ko Konstituzioari soilik egingo diogu erreferentzia, Mònica Guiteras adituaren Txostenak zehaztasunez aztertzen baititu energiaren erregulazioaren gabeziak.

### **Nafarroako Foru Erkidegoko arauak**

- Abenduaren 14ko 15/2006 foru-legea, gizarte-zerbitzuei buruzkoa.

---

<sup>78</sup> Maroko Afrikar Batasuneko kidea da 2017ko urtarrilaz geroztik.

### 3. AKUSAZIOAREN ARRAZOI OROKORRAK

Energia eta energia-burujabetzarako eskubidea lortzeko eta edukiz betetzeko balio duten giza eskubide estandarretan oinarritzen da akusazio hau, eta justizia energetikoari dagozkion beste eskubide batzuk ere hartzen ditu kontuan. **Energia izatea baldintza garrantzitsua da beste hainbat eskubide gauzatu ahal izateko eta, zentzu horretan, giza duintasunaren oinarritzko elementutzat hartu behar da.**

#### Energiarako eskubidea

Energiarako eskubidea beste eskubide batzuekin lotuta dago; izan ere, energia erabili ahal izateko, pertsonen duintasunarekin bateragarriak diren gutxieneko bizi-baldintzak bete behar dira. Europako markoan, energia eskuragarri izatea interes ekonomiko orokorreko zerbitzua dela ulertzen da<sup>79</sup>. Zenbait estatutan, hala nola Nikaraguan, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Maldiva uharteetan, energia oinarritzko eskubidea dela aitortu dute<sup>80</sup>. Horri lotuta, Garapen Iraunkorri buruzko Johannesburgoko Deklarazioaren 18. artikulua adierazten du giza duintasunaren oinarritzko baldintza dela energia eskura izatea.

Eskubideen ikuspuntutik, energiarako eskubidea bizi-baldintza duinak lortzeko tresna dela ulertzen dugu. Hala, ikuspuntu horrek honako hauek identifikatzeko aukera ematen digu: (I) pobrezia energetikoa sortzen duten egiturazko kausak; (II) egoera jakin batean bidegabekeria energetikoa dagoela eta horrek eragin berezia duela pertsonengan; eta (III) erakundeen eta gizartearen egiturek ez dutela pobrezia energetikoaren konplexutasuna aitortzen eta, beraz, horrek desberdintasunak areagotzen dituela eta aukera kentzen diela pertsonen beren komunitateko alor ekonomiko, politiko, sozial eta kulturean parte hartzeko, ekarpenak egiteko eta gozatzeko<sup>81</sup>.

Giza eskubideen nazioarteko tresnen artean eskubide beregain gisa aitortuta egon ez arren, energiarako eskubidearen edukia erraz kokatu daiteke estatuen bete-behar orokorren artean: (I) errespetua, (II) babesa, (III) bermea eta (IV) ez diskriminatzea eta berdintasunaren printzipioa; eta eskubide ekonomikoan, sozialen,

79 Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuneko 36. artikulua; Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Municipality of Almelo and others v. NV Energiebedrijf IJsselmij, C-393/92. kasua, 1994.

80 Nikaraguako 1987ko Konstituzioa, 105. artikulua; Kongoko Errepublika Demokratikoko 2006ko Konstituzioa, 48. artikulua; Maldiva uharteetako 2008ko Konstituzioa, 23.g artikulua.

81 R. Gillard; C. Snell; M. Bevan, "Advancing an energy justice perspective of fuel poverty: Household vulnerability and domestic retrofit policy in the United Kingdom", Energy Research & Social Science, vol. 29, 2017, 54. or. Horrez gain, Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeke Konbentzioko 14.2.h artikulua.

ingurunearen eta kulturalen betebeharrak zehatzen artean: (I) berehalako neurriak hartzea, (II) eskubideen oinarritzko maila bermatzea, eta (III) aurrera egitea, eta atzera egitea debekatzea.

Energiarako eskubidea bermatzeak zerbitzu energetiko egokiak ziurtatzeko elementu nahikoak izan beharko lituzke, oinarritzko 3 irizpideren arabera<sup>82</sup>:

1. **Erabilgarritasuna:** horrek egokitzapena, erregularitasuna, jarraitutasuna eta fidagarritasuna bermatuko lituzke. Zerbitzu energetikoa emateak bizitza duina izateko oinarritzko beharrezkoak ase behar ditu. Horren ondorioz, fakturak ezin ordaintzeagatik energia moztea debekatu behar da, deskonexioak zerbitzuen oinarritzko nukleo horri eragiten baitio.
2. **Eskuragarritasuna:** energia-zerbitzuak berdintasunean oinarrituta eman behar dira, diskriminaziorik gabe. Horrek eskuragarritasun fisikoa eta ekonomikoa bermatzea esan nahi du (arrazoizko prezioa).
3. **Kalitatea:** erabilitako energia-iturriak ez dira kaltegarriak izan behar osasunarentzat, eta ez dute ingurumena kaltetu behar.

Hori guztia dela eta, eskubide horrek ekartzen du estatuek errespetatu, babestu eta bermatu egin behar dutela, berdintasunean eta diskriminaziorik gabe, eta hornidura nahikoa, erregularra, fidagarria, efizientea, segurua, berriztagarria eta jasangarria eman behar dutela<sup>83</sup>. Modu horretara, energiarako eskubidea beharrezkoa da etxebizitza egokia izateko eskubidea ondo bermatuta izateko eta, era berean, funtsezkoa da bizi-maila egokirako eskubidea gauzatzeko.

## Bizi-maila egokirako eskubidea

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko (aurrerantzean ICESCR ituna, jatorritzko ingelesezko siglengatik) 11. artikularen arabera, pertsona guztxi errespetatu, babestu eta bermatu behar zaie bizi-maila egokia, eta horren barruan sartzen dira elikadura, ura eta etxebizitza izateko eskubidea, eta bizi-kalitatea etengabe hobetzeko eskubidea<sup>84</sup>. Eskubide horrek halaberrez barnebiltzen du eskubide ekonomikoak, sozialak, ingurunearenak eta kulturalak

82 J. Sing-hang Ngai, "Energy as a Human Right in Armed Conflict: A Question of Universal Need, Survival, and Human Dignity", *Brooklyn Journal of International Law*, vol. 37, 2, 2012, 615. or. eta hurrengoak, 2017ko azaroaren 30ean begiratu, helbide honetan: <https://brooklynworks.brooklaw.edu/bjil/vol37/iss2/6>.

83 A. Bradbrook; J. Gardam, "Placing access to energy services within a human rights framework", [http://muse.jhu.edu/journals/human\\_rights\\_quarterly/v028/28.2bradbrook.html](http://muse.jhu.edu/journals/human_rights_quarterly/v028/28.2bradbrook.html), 2006, 2017ko abenduaren 6an begiratu, helbide honetan: <https://digital.library.adelaide.edu.au/dspace/handle/2440/23003>.

84 EESKen Batzordea, 12. Txosten Nagusia, UN Doc E/C.12/1999/5, 1999; EESKen Batzordea, 15. Txosten Nagusia, UN Doc E/C.12/2000/4, 2000.

modu eraginkorrean betetzea, eta lotura zuzena du bizitzarako eskubidearen interpretazio ez murriztaile batekin:

*[...] Funtsean, bizitzarako oinarrizko eskubideak barnebiltzen du, gizaki orok bizitza arbitrarioki ukatua ez izateko eskubideaz gain, **bizitza duina bermatzen dioten baldintzak ukatuak ez izateko eskubidea ere. Estatuen eginkizuna da oinarrizko eskubide hori urra ez dadin beharrezkoak diren baldintzak sortzen direla bermatzea eta, bereziki, beren agenteek urratzen ez dituztela bermatzea. (Guk nabarmendutako zatia)**<sup>85</sup>.*

## Energia-burujabetza

Kontsumitzen den energiarekin lotutako alderdi guztiak kudeatzeko botere kontra-hegemonikoa erabiltzea da energia-burujabetza:

*Pertsona, komunitate edo herri kontzienteez energiaren ekoizpen, distribuzio eta kontsumoari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea da, beren egoera ekologiko, sozial, ekonomiko eta kulturalari hobeto egokitu daitezzen eta, betiere, bitarteko inori kalterik eragin gabe*<sup>86</sup>.

## Autodeterminazio-eskubidea

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko (aurrerantzean, ICCPR ituna, jatorrizko ingelesezko siglengatik) eta ICESCR ituneko lehenengo artikuluek herrien autodeterminazio-eskubidea aitortzen dute, eta adierazten dute horretarako herriek beren baliabide naturalak erabil ditzaketela, beren bizibideari uko egin beharrik gabe. Gainera, bi tresna horien xedapenek azpimarratzen dute autodeterminazio-eskubideak baliabide naturalekiko burujabetza barnebiltzen duela<sup>87</sup>. Eskubide hori erga omnes betebeharra da (edonoren aurrean du eragina) eta bai kanpora begira (atzerriko erakunde kolonialistekin)<sup>88</sup>, bai barrura begira erabil daiteke, herriek eskubidea baitute beren estatus politikoa determinatzeko eta estatuz-nazio sisteman zein nazioartean beren lekua zein den erabakitzeko<sup>89</sup>.

85 Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, Caso Villagrán Morales y otros vs. Guatemala. Fondo. 1999ko azaroaren 19ko epaia. C seriea, 63. zenbakia, 144. paragrafoa.

86 Xarxa per la Sobirania Energética, "Definiendo la soberanía energética", Ecologista, 81. zenbakia, Uda, 2014, 2017ko abenduaren 4an begiratua, helbide honetan: [http://www.odg.cat/sites/default/files/soberania\\_energetica-1.pdf](http://www.odg.cat/sites/default/files/soberania_energetica-1.pdf).

87 NBEren 1803/1962 ebazpena.

88 Nazioarteko Justizia Auzitegia, Portugal vs. Australia, Ekialdeko Timorri buruzko ebazpena, 1995.

89 Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena (2007), 3-26. artikulua. Ikus ere: Arraza-diskrimi-

Autodeterminazio-eskubidearen *erga omnes* izaerak esan nahi du lurralde okupatuan gertatutako egoera ilegalak ez onartzera behartuta daudela Estatu guztiak<sup>90</sup>. Zenbait irakaspen-teoriaren arabera, eskubide horrek ius cogens izaera du (Nazioarteko Zuzenbideko aginduzko araua). Horri lotuta, adierazten da pertsonen autodeterminazio-eskubidea babestu egin behar dela, estatu bat hala aitortua izateko baldintzak betetzen ez diren kasuetan ere<sup>91</sup>.

Burujabetza politikoa eta lurraldekoa sostengatzen dituen autodeterminaziorik gabe, bizibidea lortzeko eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturala izateko gaitasuna mugatuta dago eta, beraz, beste oinarrizko eskubide batzuk erabiltzea galarazten da. Autodeterminazio-eskubidea beste eskubideak erabili ahal izateko aurretiko baldintza da<sup>92</sup>.

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arabera, indar okupatzaileak arau humanitarioak urratuko lituzke okupazioa bultzatzeko, bere beharrak asetzeko edota bere egoera ekonomikoa hobetzeko erabiltzen duenean okupatutako lurraldea<sup>93</sup>. Gerra garaian pertsona zibilei zor zaien babesari buruzko Genevako Laugarren Hitzarmeneko 64. artikulua arabera, indar okupatzaileak Genevako Hitzarmenen arauak aplikatu behar ditu okupatutako lurraldean.

## Parte hartzeko eskubidea eta informazioa lortzeko aukera

Energiaren alorrean erabakitzeko eskubidea izateak esan nahi du pertsonak proiektuei buruzko informazioa eskura izan behar dutela, erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko aukera izan behar dutela eta, horrez gain, beren eskubideak urratuak izatekotan, justizia eta ordain egokiak lortzeko mekanismoak erabiltzeko aukera izan behar dutela<sup>94</sup>. Ildo berean, ICCPR ituneko 19.2 artikulua x-

---

nazioaren Kontrako Batzordearen 21. Txosten Nagusia (1996).

90 Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Kontsulta-iritzia Palestinar Lurralde Okupatuan Eraikitako Harresiaren Ondorio Juridikoei Buruz, 2004.

91 Hori izan da Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak jarritako irizpidea palestinarrek itsasoko baliabideak erabiltzeko duten eskubideari buruz, beren jurisdikziopeko uretan dauden arrainak barne, eta Gazako zerrendako Ekonomia-eremu Esklusiboa barne. EESKen Batzordea, ICESCREko 16 eta 17. artikuluen arabera Israelen betebeharrei buruzko txostena, Doc. E/C.12/ISR/CO/3, 2011.

92 S. Willcox, "A Rising Tide: The Implications of Climate Change Inundation for Human Rights and State Sovereignty", *Essex Human Rights Review*, vol. 9, 1, 2012, 6. or.

93 Lurreko gerraren lege eta ohituei buruzko Hitzarmena (1907) eta horren Araudia, 52 eta 53. artikulua.

94 Ingurumenaren arloko informazioa eta justizia eskuratzeko eta erabakietan parte hartzeko hitzarmena (Aarhus hitzarmena), 1998an sortua. 2001eko urriari sartu zen indarrean. Doc UNTS 447.

datzen duenez, pertsona orok du adierazpen askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek barne hartzen du mota guztietako informazioa eta ideiak bilatu, jaso eta hedatzeko askatasuna, mugak kontuan hartu gabe, bai ahoz, bai idatziz, bai modu inprimatuan edo artistikoki, edota berak aukeratzen duen edozein modutara.

Erauzte edo esplotazio jarduera bat dagoenean (sektore energetikoan ere) informazioa eskuragarri izatea beharrezkoa da giza eskubideak erabili edo babestu ahal izateko<sup>95</sup>. Beraz, ingurumen- edo ekonomia-politikei dagozkien auzi konplexuak sortzen direnean, lehenik eta behin, erabakiak hartzeko prozesuak ikerketa ego-kiak ekarri behar ditu, jarduera horien ondorioak aurretik ezagutu eta aintzat hartu ahal izateko<sup>96</sup>. Autonomiarik gabeko lurraldeei dagokienez, Nazio Batuen Gutuneko 73. artikulua xedatzen du estatuek aitortu behar dutela lurralde horietako biztanleen interesak beste edozeren gainetik daudela dioen printzipioa, eta estatuek lurralde horietako biztanleen ongizatea sustatu behar dutela.

## Enpresa transnazionalak erregulatzea

Lurraldez kanpoko betebeharrak aplikatzea gakoa da enpresa transnazionalen botere korporatiboari mugak jartzeko. Izan ere, enpresa transnazionaleri lurraldez kanpoko betebeharren bidez erregulazio juridikoa jartzeak<sup>97</sup> aukera ematen du giza eskubideen estandarrak erabiltzeko, bai estatuei, bai enpresei eskatu ahal izateko atzerrian jarduerak garatzean beharrezkoa den ardura izatea<sup>98</sup>. Horrez gain, enpresa horiei eta horien filialei atzerrian egindako giza eskubideen urraketengatik erantzukizun zibila eta penala eskatzeko aukera ere ematen du. Labur esanda, gaur egungo testuinguruan giza eskubideen markoa bermatzeko bide bat da, eredu globalizatzaile, kapitalista eta patriarkalaren aurrean. Izan ere, eredu horrek:

*Bortizkeria sortzen du baliabide naturalak ustiatzen diren lekuetan, komunitateen egitura soziala suntsitzen du, lan-eskubideak sistematikoki urratzen ditu... Mul*

95 Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra, Pueblos indígenas. Comunidades afrodescendientes. Industrias extractivas. OEA/Ser.L/V/II. 47/15 dokumentua, Washington DC, US, 2015, 114. paragrafoa, 2017ko azaroaren 29an begiratu, helbide honetan: <http://www.oas.org/es/cidh/informes/pdfs/IndustriasExtractivas2016.pdf>.

96 Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Taşkın and Others vs. Turkey. Application no. 46117/99, 2005, 119. paragrafoa.

97 Enpresa transnazionalen praktikak babesten dituen zigorgabetasunaren arkitekturari buruz gehiago jakiteko, edota mugimendu sozialek eraikitako alternatibetan sakontzeko, ikus: J. Hernández Zubizarreta, El Tratado Internacional de los Pueblos para el Control de las Empresas Transnacionales. Un análisis desde la sociología jurídica, Observatorio de Multinacionales en América Latina - Paz con Dignidad, 2017.

98 A. Ridell, "Human rights responsibilities of private corporations for climate change? The State as catalyst for compliance", in Ottavio Quirico, Mouloud Boumghar (arg.) Climate Change and Human Rights. An international and comparative law perspective, Routledge (Routledge research in International Environmental Law).

*tinazionalek beren jarduera egiten duten lekuetan egunerokotasunean aurkitzen ditugun praktiken adibide batzuk dira horiek<sup>99</sup>.*

Alor horretan sortu diren araudi eta jurisprudentziak oso berriak dira<sup>100</sup>. Nazio Batuetako giza eskubideen organoek horren inguruko iritzia azaldu dute, eta adierazi mota horretako betebeharrak eska daitezkeela (zehazki, ICCPR eta ICESCRen arabera estatuek dituzten betebeharrak)<sup>101</sup>.

Lurraldez kanpoko betebeharrak ezartzeak aukera ematen du enpresa transnazionalen jardueraren aurrean hainbat mekanismo jartzeko, hala nola kontrola, kontuak ematea edota biktimek justizia eta ordaina jasotzea<sup>102</sup>. Horrek zeregin zehatzak ekarriko lizkieke estatuei:

1. Legegintzan, arautegietan eta politika publikoetan hartzen diren neurri guztiez informatzea, bermatzeko enpresa transnazionalek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak errespetatzen dituztela beren ekintza guztietan, baita atzerrian jarduten direnean ere, batez ere erauzteko sektorean eta lurraldeez jabetzea ekartzen duten ekintza komertzialetan<sup>103</sup>.
2. Erregulazioa egiteko marko argia ezartzea, bermatzeko enpresak eta delako estatuko jurisdikzioan dituzten egoitza nagusiak direla legalki erantzuleak atzerrian kokatutako proiektuetan (batez ere mugaz haraindiko proiektuetan) giza eskubideak urratzeagatik. Bestalde, delako estatu horrek nazioarteko akordio bat (tratatuak eta komertziorako eta inbestitzeko akordioak)

99 B. Plaza, "El movimiento feminista frente al poder de las multinacionales", La Marea, 2015, helbide honetan begiratu: <https://www.lamarea.com/2015/07/03/el-movimiento-feminista-frente-al-poder-de-las-multinacionales/>.

100 Horren inguruan, ikus: Business & Human Rights Resource Center, "Boletín Trimestral de Responsabilidad Legal Empresarial", 25. zenbakia, 2018ko urtarrila, 2018ko urtarrilaren 11n begiratu, helbide honetan: <https://business-human-rights.org/es/bolet%C3%ADn-trimestral-de-responsabilidad-legal-empresarial-%C2%A0n%C3%BAmero-25-enero-de-2018>. Ikus ere: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, C-386/08 kasuari buruzko ebazpena, 2010, 164. paragrafoa eta hurrengoak.

101 Horren inguruan, ikus: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 12. Txosten Nagusia, 36-39 paragrafoak; EESKen Batzordea, 15. Txosten Nagusia, 30-36. paragrafoak; EESKen Batzordea, 19. Txosten Nagusia, 52-58. paragrafoak. Ikus ere: Haurren Eskubideen Batzordea, 16. Txosten Nagusia, 38-48. paragrafoak; Emakumeen Kontrako Diskriminazioa Ezabatzeko Batzordea, 28. Txosten Nagusia, 36. paragrafoa. Horretarako, honako hauek ere erabili dituzte: Nazio Batuen Gutuneko 55, 56 eta 103. artikuluetan ebatzitakoa; Nazioartean zilegi ez diren Gertakarietan Estatu batek dituen Erantzukizunei buruz NBeko Biltzar Nagusiak egindako ebazpeneko xedapenak; Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Kontsulta-iritzia Palestinar Lurralde Okupatuan Eraikitako Harresiaren Ondorio Juridikoei Buruz; eta Estatuak EESKen alorrean dituzten lurraldez kanpoko betebeharrei buruzko Maastrichteko printzipioak.

102 EESKen Batzordea, Amaierako Txostena: Txina, UN Doc. E/C.12/CHN/CO/2, 2014, 12. paragrafoa; EESKen Batzordea, Amaierako Txostena: Austria, UN Doc. E/C.12/AUT/CO/4, 2013, 11-12. paragrafoak; EESKen Batzordea, Amaierako Txostena: Norvegia, UN Doc. E/C.12/NOR/CO/5, 6. paragrafoa; Giza Eskubideen Batzordea, Amaierako Txostena: Ko-reako Errepublika, UN Doc. CCPR/C/KOR/CO.4 (2015), 11. paragrafoa.

103 EESKen Batzordea, Gaien Zerrrenda: Erresuma Batua, UN Doc. E/C.12/GBR/Q/6, 2015, 2. paragrafoa.



negoziatzen ari denean ere bermatu behar du giza eskubideak errespetatzen direla<sup>104</sup>.

3. Delako estatuaren lurraldean jarduten diren edo kudeatzen duten enpresa eta filialen erantzukizun legala zehazteko neurri legal eta administratiboak hartzea<sup>105</sup>.
4. Mekanismo eraginkorrak sortzea bermatzeko estatuaren jurisdikziopean giza eskubideen estandarrak errespetatzen direla –bereziki atzerrian jarduten denean–, eta baliabide legalak eskaintzen dituen marko legala garatzea, aipatutako enpresen jarduerak pertsonen eskubideak urratuz gero, pertsona horiek justizia eta ordaina jaso ahal izateko<sup>106</sup>.

#### 4. AKUSAZIOAREN ARRAZOI PARTIKULARRAK

**Bi kasuetako gertakarietara ikuspuntu feminista batetik begiratuz gero eta eskubideak kontuan hartuz gero, ondorioztatu dezakegu ez Espainiar Estatuak, ez Marokoko Estatuak, ez dituztela nazioarteko betebeharrak bete, bizi-maila duina izateko eskubidearen markoan energia eta energia-burujabetza izateko eskubidea errespetatu, babestu eta bermatu behar zutenean.**

#### Saharar herriaren kasuari dagokionez

Aurretik azaldutako guztia dela eta, ondorioztatzen dugu Marokoko Estatu Mendebaldeko Sahararen energia berriztagarrien instalazioak jartzearen erantzule dela, enpresa transnazionalerako baliabideak ustiatu eta espoliatzeko baimenak eman baitizkie:

1. Marokok mantentzen duen okupazioak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa urratzen du, saharar lurraldea erabiltzen baitu bere egoera ekonomikoa hobetzeko eta gune horretan okupatzaile gisa duen indarra mantentzeko.
2. Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak sahararren oniritzi eta baimekin gabe erabiltzeak herriaren autodeterminazio-eskubidea urratzen du, sahararrei bizibidea ukatzen baitie, eta beren antolamendua eta estatus politiko-juridikoa ezartzeko aukera galarazten baitie.
3. Okupazio ilegala mantentzeak eta baliabide naturalak espoliatzeak giza eskubide ugari urratzea ekartzen dute, hala nola biltzeko, adierazteko, mani-

104 EESKen Batzordea, Amaierako Txostena: Taiwan, UN Doc. E/C.12/THA/CO/1-2, 2015, 12. paragrafoa.

105 EESKen Batzordea, Amaierako Txostena: Txina, UN Doc. E/C.12/CHN/CO/2, 2014, 13.b paragrafoa.

106 Giza Eskubideen Batzordea, Amaierako Txostena: Kanada, UN Doc. CCPR/C/CAN/CO/6, 6. paragrafoa.

festatzeko eta mugitzeko askatasuna mugatzea, bazterketa ekonomikoa eta laneko eskusioa egitea, identitate kulturala ukatzea, giza eskubideak defendatzen dituztenak kriminalizatzea eta, horrez gain, derrigorrezko desageretzeak, atxiloketa bidegabeak, sexu-bortizkeria eta derrigorrezko lekualdatzeak burutzea.

Horrez gain, Espainiar Estatuak ere du erantzukizuna, 1963an Nazio Batuen Biltzar Orokorrak hartutako neurriak ez betetzeagatik, eta 1975eko Madrilgo Akordioetan Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko adostutako prozesua ez burutzeagatik. Azkenik, bi estatuak erantzukizuna dutela ezartzen dugu, enpresa energetikoak (hala nola Siemens eta Gamesa) ez erregulatu, ikertu eta zigortzeagatik, Mendebaldeko Saharan egiten duten jarduna dela eta.

### **Rosa, Santiago eta haien alabaren kasuari dagokionez**

**Aurretik azaldutako guztiagatik, Espainiar Estatu eta Nafarroako Foru Erkidegoa erantzuleak direla ezartzen dugu, aipatutako familiak pobrezia energetikoa bizi duelako eta energiarako eskubidea urratu diotelako:**

1. Horrek familiaren osasunean eragin du: ezintasuna, estutasuna eta lotsa eragin dizkie, mozketaren abisuaren zain zeudenean izandako ziurgabetasunaren ondorioz. Era berean, horrek ahultasun handiagoa ekarri die arnasteko arazoan, gripeen eta hotzerien aurrean energia erabili ezin izateagatik, ezin izan dituzte elikadura eta argiztapen egokiak izan eta, gainera, horrek guztiak bereizketa eta eskusio sozialaren sentimenduak eragin dizkie.
2. Fakturak zatika ordaindu ahal izateko, ezin izan dute dirua oinarrizko beharrianak asetzeko erabili.
3. Rosak hainbat oztopori egin behar izan zien aurre Nafarroako Foru Erkidegoko babes sozialerako mekanismo instituzionalen laguntza jaso ahal izateko.
4. Nafarroako Foru Erkidegoak ez zuen Iberdrolarekin duen hitzarmena aplikatu.

Horrez gain, Iberdrolak ere erantzukizuna duela ezartzen dugu, erabilgarri eta eskuragarri duen kalitatezko hornidura ez emateagatik, nazioartean gai honi buruz definituta dauden giza eskubideak errespetatu ordez.

## 5. AUZITEGIARI ESKATUTAKO ERABAKIAK

**Akusazio-idazki honetan garatutako izatezko eta zuzenbidezko argumentuak kontuan hartuta, Herri-Auzitegiari eskatzen diogu energia eta energia-buru-jabetza izateko eskubidea aitortzea, eta bereziki:**

### **Saharar herriaren kasurako**

- Marokoko Estatuak eta Espainiar Estatuak saharar herriaren eskubideak urratzen dituztela ebaztea, saharar herriak bere baliabideak erabiltzeko duen eskubidea urratzen baitute, baita bere lurraldeko jarduera ekonomikoen inguruan erabakitze eskubidea ere. Eskubide horiek lotura zuzena dute beste eskubide batzuekin, hala nola bizitza duina izatea, osasun eta osotasun pertsonala izatea, autodeterminazioa eta identitate kulturala izatea, politikoki informatu, elkartu eta parte hartu ahal izatea, berdintasuna izatea eta ez diskriminazioa, eta justizia lortu ahal izatea.
- Energiaren sektoreko enpresa transnazionalak okupatutako lurraldeko jardueren erantzule direla ebaztea.
- Oro har, proiektu guztiak bertan behera uztea eskatzea eta, bereziki, lurralde okupatuan, sektore energetikoan garatzen ari direnak.
- Saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea aitortzea eta independentzia lortzeko aukera emango dion erreferendumari ekitea.
- Banakako eta kolektiboarentzako neurrien bidez, genero perspektibadun ordain osoa ematea:
  - Kalte material eta immaterialak konpontzea: ahal den heinean, okupazioa gertatu aurretik zegoen egoerara itzultzea.
  - Asetze neurriak ematea: saharar herriaren oinarriko beharizanak asetztea.
  - Egoera sortu zuten gertakariak errepikatuko ez direla bermatzeko neurriak jartzea: gertatutakoari buruzko egia aitortzeko ekitaldi publikoak egitea.

### **Rosa, Santiago eta haien alabaren kasurako**

- Espainiar Estatuak energiarako eskubidea urratzeagatik duen erantzukizuna ebaztea. Eskubide horrek harreman zuzena du honako eskubide hauekin: bizi-maila eta etxebizitza egokiak izatea, osasuna eta osotasun pertsonala izatea, berdintasuna izatea eta ez diskriminazioa, informazioa izatea, parte hartu ahal izatea, justizia lortu ahal izatea eta haurrek babes berezia jasotzea.
- Nafarroako Foru Erkidegoko agintarien erantzukizuna ebaztea, pobrezia energetikoa dutenei laguntzera bideratutako gizarte-laguntzaren funtsa

- behar den arretaz ez banatzeagatik.
- Iberdrolaren erantzukizuna ebaztea, pobrezia energetikoaren kasuengatik.
  - Energiarako eskubidea eska eta justifika daitekeen eskubide beregaina dela aitortzea.
  - Banakoei eta kolektiboari ordain osoa emateko neurriak jartzea, familia-unitateko pertsona bakoitzaren beharrianak kontuan hartuta, eta bereziki Rosaren kasuan:
    - Kalte material eta immaterialak konpontzea: ahal den heinean, 2010 urtearen aurretik zegoen egoerara itzultzea, orduan hasi baitzen haien pobrezia energetikoaren egoera.
    - Asetze neurriak ematea: familia-unitatearen oinarritzko beharrianak asetzea, bereziki osasun arloan eta baliabide ekonomikoak eskuratzeari dagokionez.
    - Egoera sortu zuten gertakariak errepikatuko ez direla bermatzeko neurriak jartzea.

## **KASUAREN LABURPEN FITXA**<sup>107</sup>

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:** West Sahara Resources Watch (WSRW)

**TOKIA:** Mendebaldeko Sahara (lurralde okupatuak)

**TESTIGANTZA EMATEN DUEN PERTSONA:** Hafed Bachir



Hafed Bachir Herri-Auzitegian bere testigantza ematen

## **40 urte baino gehiagoko okupazioa eta energia-espolioa**

1975ean Marokok Mendebaldeko Saharako lurraldea okupatu, kolonoz bete eta armada eraman zuen. Okupazioa, gainera, nabarmenagoa egin zen Aljeriako mugan 1.200 km-ko harresia eraiki zutenean; harresia militarrek, hesiek eta pertsonen eta tankeen kontrako minek babesten zuten.

Ordutik, sahararrek eskubide zibil eta politikoen etengabeko urraketari aurre egin behar izan diote, eta ez dute defendatzeko inongo aukerarik. Aldi berean, lurralde okupatuetako baliabide natural eta energetikoen ustiapena ere pairatzen dute. Urte guzti hauetan Marokok lurralde okupatuetan petrolio eta gas prospekzioak egiteko baimenak eman ditu; azken hamarkadan izandako politika energetikoa,

<sup>107</sup> Fitxa osorik osorik eta kasuaren dokumentazio guztia hemen: <https://www.decrecimientoybienvivir.info/eu/bizitza-jasangarrien-aldeko-herri-azitegia/>

gainera, haize- eta eguzki-energiako instalazioak eraikitzea bideratu da, horietako batzuk lurralde okupatueta.

### **Norberaren lurraldeko baliabideei buruz erabakitze eta antolatze eskubidea**

Sahararrek 40 urte baino gehiago daramatzate bazterkeria egoera bat pairatzen, eta honek herri gisa antolatu eta babesteko eskubidea urratzea ekarri du. Horrela, urteak dira sahararrek Marokoko armadaren errepresioa pairatzen dutela, eta testigantza askotan jaso bezala, haien lan-baldintzak nabarmen okertu dira kolono marokoarren baldintzekin alderatuta.

Kalkuluen arabera, Mendebaldeko Saharako 5 biztanletik soilik 1 da sahararra, eta sahararren  $\frac{2}{3}$  errefuxiatu guneetan bizitzera behartuta aurkitu dira, non energiaren eta bestelako baliabide naturalen eskuragarritasuna oso mugatua den. Bitartean, sahararren baliabideak Marokok eta mundu osoko enpresek (Kanada, Errusia, Lituania, Zeelanda Berria, Australia, Venezuela, India, Alemania, Frantzia, Italia, Irlanda, Espainia...) ustiatzen dituzte.

Gainera, lurralde okupatueta proiektuak eraikitze lizitazioak emateak lurraldearen okupazio egoera indartzen du, hartutako erabakien inguruan sahararrei ez baitzaie inolako kontsulta edo aitortzarik egiten. Guztiaz ere, 40 urte baino gehiagoren ostean, nazioartean autodeterminazio eskubidea aitortuta dagoen arren, ezin izan dute eskubide hori gauzatu.

Horregatik guztiarengatik, kasu honetan argi eta garbi urratzen da bizitza jasangarriak izateko eskubidea, eta beraz, 2018ko otsailean Bilbon ospatu zen Herri Auzitegian epaitu eta aitortu zen.

## **KASUAREN LABURPEN FITXA<sup>108</sup>**

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:** Hipotekak kaltetutakoaren plataforma (PAH)

**TOKIA:** Iruñea

**TESTIGANTZA EMATEN DUEN PERTSONA:** Rosa Felgar



Rosa Felgar Herri-Auzitegian bere testigantza ematen

### **Energia-sektorearen etekin pribatuen aurrean, herritarren oinarrizko beharrak**

Espainiako Estatuaren egungo energia-eredua oligopolioa osatzen duten zenbait enpresak elikatzen dute. Hauek energia-sektoreko merkatua kontrolatzen dute, eta pribatizatutako zerbitzu horiek kudeatzen dituzte etekinak lortzeko, bizitzeko beharrak asetzerara bideratu ordez. Horren ondorioz, baliabiderik gabeko familia askori bizitzeko beharrezko energia edukitzeko oinarrizko eskubidea urratzen diete.

Bizimodu jasangarrietarako Auzitegian Iruñeako familia baten kasua salatu dugu. Bi pertsona helduk eta haur batek osatzen dute familia, eta beste askok bezala,

<sup>108</sup> Fitxa osorik osorik eta kasuaren dokumentazio guztia hemen: <https://www.decrecimientoybienestar.info/eu/bizimodu-jasangarrien-aldeko-herri-azitegia/>

azken urteotan ez dute baliabiderik eduki oinarritzko energia horniketa ordaindu ahal izateko.

Bi pertsona helduen denbora luzeko langabezi egoerak, zorrak pilatzea ekarri zuen, eta azkenean etxegabetu ere egin zituzten. Egoera hau noski, etxegabetutako pertsonen defentsa-eskubidea urratzen duten eta bankuak babesten dituzten neurritz gaineko legeek elikatu zuten.

Ondorengo urteetan familiak ez du zorra kitatu, eta ezin izan ditu oinarritzko horniketen gastuak ordaindu. Argindarraren fakturak urteetan ezin ordaindu ostean, argindarra moztuko zietelako ohartarazpenak jaso dituzte. Arrisku horren aurrean familia honentzako konponbide bakarra zorra epetan ordaintzea izan da eta horri aurre egiteko, bestelako oinarritzko beharrak asetzeari uko egin behar izan diote.

### **Energiaren eskuragarritasun unibertsala, duintasunez bizitzeko**

Administrazioaren babes ezak, laguntzak jaso arte itxaron beharreko denbora-tarte luzeak eta energia-konpainien sentsibilizazio faltak, are gogorrago bilakatzeko dute geroz eta familia gehiago pairatzen duten egoera hau.

Estatuko herritarren %15ek baino gehiagok fakturak ordaintzeko zailtasunak dituzte. Horrela, pertsona hauei etxebizitza duina izateko oinarritzko eskubidea urratzen zaie; hau da, oinarritzko baldintzak betetzen dituen etxebizitza, tenperatura egokiduna, eta pertsona orok behar dituen oinarritzko zaintzak gauzatzeko eta elikatzeko energia eskaintzen duena.

“Tipi-Tapa Bagoaz. Hacia vidas sostenibles” kanpainaren manifestuan jaso bezala, energia oinarritzko eskubide gisa aitortu behar da, eta horregatik pertsona ororentzako bizitza duina bermatuko duen energia-kopurua eskuratzeko legeak aldarrikatzen ditugu.



## ENERGIARAKO SARBIDE JUSTU ETA JASANGARRIRAKO, ETA ENERGIA-BURUJABETZARAKO ESKUBIDEAREN ARDATZA Mónica Guiteras adituaren txostena



Mónica Guiteras adituaren txostena aurkezten Herri-Auzitegian

### 1. TESTUINGURUA

Txosten honek oinarritzko eskubideen urraketen bi kasu azaltzen ditu, biak ala biak energia-ereduarekin lotura estua dutenak:

- Lehenbiziko kasua Nafarroan kokatzen da, eta Iparraldeko herrietako eskubide-urraketekin lotuta dago.
- Bigarren kasua Mendebaldeko Saharan kokatzen da, eta Hegoaldeko herrietako eskubide-urraketekin lotuta dago.

Txostenean aurrera egin ahala kasu horien arteko harremana azalduko dugu, bi testuinguruen analisi bana egin ondoren.

#### 1.1. Nafarroako kasua

Auzitegi honetan aztertutako Iparraldeko kasua 3 kideko familia batena da (Rosa, Santiago eta haien 2 urteko alaba). **Zailtasunak dituzte oinarritzko horniketa ordaintzeko, eta hortaz, gaur egun ez dute horniketa hori bermatuta.** Izan ere,

Espainiako Estatuan, horniketa moztea ekiditeko atzeratutako fakturak ordaindu behar dira. Azken bi urteotan ez diete horniketa moztu. Hain zuzen ere, denbora tarte horretan txirotasun energetikoaren auzia gehiago agertu da hedabideetan. Hala ere, familiaren lehengo etxean 4 alditan baino gehiagotan moztu zieten horniketa. Argindar- eta gas-horniketa Iberdrolaren bidez kontratatzen dute (merkatu libreko tarifa baten bidez<sup>109</sup>). Soilik argindarrean batez beste 70 eta 80 euro artean gastatzen dituzte hilero (kopuru nahiko altua da, kontuan hartuta ez duela barne hartzen bitrozeramika kontsumoa, ezta ur-berogailu elektrikoa ere, sukaldea eta ur-berogailua gas bidezkoak dituztelako). Ura tokiko enpresa mankomunatu baten bidez kontratatzen dute; ez dute inoiz ordaintzeko arazorik izan eta ez dute mozketarik pairatu. Ur-horniketarik dagokionez, fakturaren %90 ordaintzeko diru-laguntza jasotzen dute, eta ez da onartzen zaurgarritasun egoeran dauden familiei ur-mozketarik gauzatzea.

Iruñean bizi dira alokairuko etxebizitza batean, eta %50 ordaintzeko diru-laguntza ematen die Nafarroako Gobernuak. Familia jakin baten kasua da hau, baina problematika kolektibo batean kokatzen da, azken urteotan Espainiako Estatuan areagotu den ohiko eskubide-urraketen testuinguruan. Haien egoera estatuko familia askoren egoera da; kasu batzuk Hipotekak Kaltetutako Plataformara heltzen dira (kasu honetan, Nafarroako plataformara), edo hainbat lurraldetan txirotasun energetikoaren aurka sortu diren plataformetara. Maiz gertatzen da familiek etxebizitza arazoak konpondu dituztela, eta etxegabeteak, ordainean emateak edo alokairu sozialen negoziazioak jasan ostean, ezin dituzte energia kontsumoaren fakturak ordaindu.

Rosa, Santiago eta haien alaba zaurgarritasun egoeran daude 2010. urtetik. Santiagok lan egiten du noizean behin, Aldi Baterako Laneko Enpresen (ABLE) bidez. Rosak auto-istripua izan zuen duela urtebete eta lanetik bota zuten. Denbora behar izan du osatzeko, eta denbora tarte horretan ez du lan ordaindurik izan. Gaur egun Santiagoren langabezia-sorospenaren 300 euro pasatxo jasotzen dituzte, eta duela gutxi gizarteratze-errenta eman diete. Horrela, guztira 960 euro jasotzen dituzte hilero, 3 kideko familia izateagatik. Zailtasunak dituzte argindararren fakturak ordaintzeko. Azkenik, bide bakarra, Rosaren hitzetan “ahal bezala epetan ordaintzea” izan da.

Energia kontsumoaren fakturekin izandako lehenbiziko zailtasunak, etxe berrian daudenetik, 2017ko martxoa eta apirila artean izan zituzten; horrek, hain zuzen, baieztatzen du txirotasun energetikoak urte osoan duela eragina, eta ez soilik ne-

109 Gobernuak finkatzen dituen merkatu erregulatuko tarifetan ez bezala, merkatu libreko tarifetan enpresak finkatzen du prezioa. Merkatu libreko tarifak ordainduz gero ezin dira bonu sozialak eskatu.

guan. Fakturak ez ordaintzeagatik lehenengo abisuak jaso zituztenean gizarte-zerbitzuetara jo zuten. Bertan esan zieten argi-mozketaren abisuari itxaron behar ziotela, horrek dakarren etengabeko presioarekin, eta kontuan hartuta itxaronaldi horretan familia askok modua topatzen dutela dirua lortzeko, bestelako oinarriko beharrezan kontura. Hainbat kudeaketa eta izapide burokratiko gauzatu behar izan zituzten gizarte langilearekin, eta Rosak hartu zuen horren ardura. Bi faktura ordaindu zizkieten Iruñeko Udalaren larrialdietarako funtsaren bidez, nahiz eta funts hori ez egon txirotasun energetikora bideratuta, eta ondorioz familiak ezin du funts horretara jo bestelako larrialdiren bat izatekotan. Darabilten informazioaren arabera, ez zituzten erabili Nafarroako Gobernuak txirotasun energetikora bideratzeko dituen funtsak. Edonola ere, esan zieten mugak zeudela eta ezin zizkietela faktura gehiago ordaindu.

Nabarmena denez, familiaren diru-sarrerak ez direnez hazi fakturak ordaintzeko arazoak dituzte oraindik, eta kitatu ezin izan dituzten faktura gehiago jaso dituzte. Azkenik, ez diete argindarra moztuko familiak erabaki duelako epetan ordaindu dituela ordaindu gabeko fakturak. Praktikan, iraganean argindar-mozketa bat bizi izanaren ondorioz, familia askok ez dute berriz ere gauza bera bizi nahi, nahiz eta faktura ordaintzeak bestelako oinarriko gastuak murriztea dakarren. Hala ere, ezin da bermatu faktura gehiago pilatzean egoera errepikatuko ez denik, eta horrela betikotu egiten da arazoa.

### 1.1.1. Txirotsen eta prekarizatzen duten oligopolioak

Espainiako Estatuko energia-eredua hainbat mekanismo eta egiturazko ezaugarri zuzentzen dute. Ezaugarri ondorioz, berdintasunik eta legezketasunik eza, eta giza eskubideen urraketak sor daitezke: zor ekologiko neurrigabeak, herritarrek haien gain hartu ezin dituzten zor ekonomikoak, eta hainbat herritar baztertzea bizitzeko oinarriko baliabideak eskuratzetik.

Espainiako Estatuan energia-sektorea, eta bereziki argindar-sektorea, bost enpresa oligopolio baten kontrolpean dago. Enpresa horiek UNESAko<sup>110</sup> kide dira. 1998an sektorea liberalizatzeko bidean argindarraren prezioan aldaketak egon zirenetik, UNESA, energia kontsumoaren fakturen bidez, herritarrek pobretzeko logika batean sartu da. Herritarrek argindar konpainiekin duten zorra sortzeari “tarifa defizit” deritzo. Antza, irabazien eta kostuen arteko desoreka baten ondorio da hori, baina egiatan mekanismo horri esker Espainiako Estatuko konpainiek etekin altuenak eskuratu dituzte Europako konpainiekin alderatuta. **Hala ere,**

<sup>110</sup> Espainiako elektrizitate enpresen elkarte da UNESA, oligopolio 5 enpresak biltzen dituena: Endesa, Iberdrola, Gas Natural Fenosa, EDP eta Viesgo

**oligopolioak ez du konturik eman behar ustez kitatu ezin dituen kostuen inguruan.** Halaber, eredu horri esker dirutza jasotzen dute enpresa horiek argindarfakturen bidez modu finkoan (bidesari deritzona), eta horrela, gaur egun oraindik ere, energia-eredu zaharkituak dirutan saritzen dira (energia nuklearra eta ikatz industria, esaterako).

Estatu mailako energia-sektorea bost enpresa horiek kontrolatzen dute. Nahiz eta legez bereizi beharko lituzketen energiaren sortze-, banatze- eta merkaturatze-jarduerak, praktikan ez dituzte bereizten. Horren adibide, 2016an banaketari zegozkion irabazien %32 jaso zuen Iberdrolak; Endesak jasotako %39ekin batera, guztizkoaren (3.679 milioi euro) %71 jaso zuten bien artean<sup>111</sup>. Ondorioz, aipatutako enpresek abantailak dituzte —prezioak finkatzeko orduan, besteak beste— bezero dituzten herritarren, ETE-en (enpresa txiki eta ertainak) eta kooperatiben eskubideen kontura. Ezaguna da, baita ere, ate birakarien dinamika, oligopolioko enpresen eta kargu politiko jakinen artekoa: zenbait politikarik kargua utzi eta enpresa horien zuzendaritza-batzordeetara pasatzen dira. Aldi berean, energia-eta eraikuntza-sektoreko enpresa hauek eta beste batzuek, milioi askoko kontzesioak jasotzen dituzte mundu osoko energia-azpiegiturak kudeatzeko. Nahiz eta azpiegitura horiek ez diren planifikatzen eta ez diren kudeatzen oinarrizko beharrianak bete ditzaten, izugarri zorpetzen dituzte herritarrak (eta haiek ordaintzen dituzte azken fakturak). Megaproiektuak, edo zenbaitetan enpresa berdinek sustatutako proiektu txiki eta ertainak, eragin larriak dituztenak maila sozioambientalean, ekonomikoan, geopolitikoan, kulturean, etab. Maila globalean, fosilen mendeko energia-ereduan murgilduta gaude, zentralizatua, oligopolioan oinarritua, zaharkitua, patriarkala, ekozida<sup>112</sup> eta sozioambientalki bidegabea den erudian, hain zuzen (Xse 2015). Espainiako Estatuan eredu horren isla da oinarritzko zerbitzuen kudeaketaren bidez aberasten ari den enpresa multzoa, estatuko etxebizitzaren %11ri energia kontsumoa ukatzen dion berdina, alegia.

Ingurumen Zientzien Elkarreak (Agencia de Ciencias Ambientales, ACA) 2016an egindako ikerketa baten arabera, neguan 5,1 milioi pertsonak ezin dute beren etxebizitzan tenperatura egokia mantendu; Espainiako Estatuan, txirotasun energetikoko baldintzak pairatzen dituzte etxebizitzaren %21ek. Horrez gain, 2,6 milioi pertsonak familiako diru-sarren %15 bideratzen du energia-fakturak ordaintzera.

Lan-egoerari erreparatuz gero, halako baldintzak pairatzeko aukera gehiago dituzte pertsona langabeek, baina baita langile autonomoek eta kotizaziopeko pen-

111 IET/980/2016 Agindua

112 Ekozidio” adjektiboa “ekozida” hitzaren eratorria da: ingurumenari eta planetako ekosistemei egindako kalteari egiten dio erreferentzia, baliabide naturalekin bizitzea eta errespetuz erabiltzea ezinezko egiten duena.

tsioa jasotzen dutenek ere. Bestelako familia mota batzuek baino arrisku gehiago dute, halaber, adinekoak dituzten familiek, ama bakarreko familiek<sup>113</sup> eta 3 adingabe edo gehiagoren ardura dutenek. Kaltetuek diru-sarrera txikiak izan ohi dituzte, hain zuzen ere gutxiago gastatu arren. Alegia, **“txiroek energia xahutzen dutela” dioen estereotipotik urrun, errenta baxuenak dituzten etxebizitzek gutxiago gastatzen dute pertsona bakoitzeko eta etxebizitzaren azalera-unitate bakoitzeko, eta hala ere gehiegizko ahalegina egin behar dute fakturak ordaintzeko.** Osasun-arazoak dituzten pertsonak ere zaurgarriagoak dira: pertsona gaixoren bat zuten familien %18k adierazi zuten ezin zutela tenperatura egokia mantendu etxean, eta pertsona gaixorik ez zuten familien kasuan %10era jaisten zen ehuneko (ACA 2016).

Halako egoerek era askotako eraginak dituzte pertsonen bizitzetan. Txirotasun energetikoaren ondorioz, etxeko gastuei dagozkien erabakien dilema azaltzeaz gain, hain seguruak ez diren argitze- eta berotze-sistemetara jo ohi da, eta horrek eragin handia du osasun bio-psiko-sozialean eta bizi kalitatean. Are gehiago, txirotasun energetikoak heriotzak eragin ditzake, 2016an Reus-eko emakume batekin gertatu bezala<sup>114</sup>. ACAREN arabera (2016) 7.000 heriotza goiztiar baino gehiago txirotasun energetikoari lotuta egon litezke.

Nafarroan Iberdrolak etxeen %80,9 hornitzen ditu argindarrez, eta %17,4 gasez. Gas Natural Fenosa da Nafarroan gasa hornitzen duen enpresa nagusia; etxeen %70 hornitzen ditu. Txirotasun energetikoak 96.000 pertsona kaltetzen ditu Nafarroan, eta horietako 29.000 Iruñean bizi dira (Martinez eta Martinez 2017).

### 1.1.2. Nafarroako Plan Energetikoa: estrategiarik ez txirotasun energetikoaren aurka

Energia-eredu globalak Nafarroan duen eraginari dagokionez, energia berriztaezinen kontsumoa %80koa da, kanpotik ekarritako erregai fosilena gehienbat: petrolioa (%41) eta gasa (%29).

2016an aurkeztutako Nafarroako Energia Planak (PEN, gaztelaniazko siglengatik), 2030. urteari begira 4 helburu nagusi ditu:

#### 1. Klima-aldaketaren aurka ekitea, CO<sup>2</sup>-aren igorpena murriztuta

<sup>113</sup> “Ama bakarreko” terminoa erabili dugu berariaz, ikusarazteko erabili ohi den “guraso bakarreko” terminoaren atzean gehienbat amaz (bakarrak, bananduak edo dibortzatuak) osatutako familiak daudela. Gaztelaniazko jatorrizkoan “monomarentales” terminoa lehenetsi da “monoparentales” terminoaren aldean (Itzultzailearen Oharra).

<sup>114</sup> Gas Natural Fenosak 2 hilabete lehenago argindarra moztu zion adineko andreaki, eta etxean argia izateko erabil-tzen zituen kandelak sortutako sute batean hil zen: [http://www.eldiario.es/catalunya/Fallece-anciana-Reus-incendiarse-colchon\\_0\\_580242035.html](http://www.eldiario.es/catalunya/Fallece-anciana-Reus-incendiarse-colchon_0_580242035.html)

2. Mix energetiko baterantz abiatzea, erregai fosilen bidezko energia nabarmen murriztuko duena
3. Energia-hornikuntza bermatzea, eta txirotasun energetikoa murriztea
4. Energia berriztagarrien berrikuntzen arloan lider izatea

Helburu handi horietako bat txirotasun energetikoari aurre egitea eta murriztea den arren, planak ez du horretarako neurri jakinik jasotzen. Planaren asmoa da herritarren etorkizun energetikoan eragitea, “hornikuntza-segurtasuna” deritzona txertatuz, eta energiaren alderdi sozialei balioa emanda. Hala ere, **autohornikuntzarako eta energia berriztagarriak sortzeko ratioak hobetzeko plangintzak jasotzen ditu planak, baina horietako batek ere ez du txirotasun energetikoa murrizten ez bada neurri eta politika jakinik txertatzen. Izan ere, planean txirotasun energetikoaren kontua ez da garatzen eta ez zaio atalik eskaintzen; horrek agerian uzten du zehaztasun eta estrategia falta dagoela paperean datozen asmo onak gauzatzeko.**

Energia berriztagarrien aldeko ahalegina kontuan hartzekoa bada ere, Sustrai<sup>115</sup> edo Energia Gara Nafarroa elkarteek, besteak beste, planari buruzko irakurketa kritikoa plazaratu dute. Sustraik dio, batetik, parke eoliko gehiago eraikitzeak ez duela berez bermatuko energia arduraz ekoiztuko eta kontsumituko denik. Bestetik, nabarmentzen du planak “gehiegizko ahalmena” izan dezakeela, eta zalantzan jartzen du parke berriak egiteko beharra baldin eta lehenago ez bada arretaz aztertzen egungo eskaria beteta dagoen, edo komeni den eskari hori areagotzea. Bestalde, Energia Gara Nafarroak ohartarazi du PEN planak berriztagarrien alde egiten duela, baina ez duela argitzen nola garatuko duen teknologia berriztagarrien aplikazio hori. Horrez gain, parke eta ekoizpen-planta handietan oinarritutako sistema zentralizatua garatzen jarraitzeko asmoa dagoen galdegin du. Beraien ustez, PEN planak “*banatutako energia-ekoizpena*” sustatu beharko luke, eta horretarako “banaketa-sareak eta banatutako sistemen arteko konexioak indartu beharko lirake, eta bertan behera utzi sustapen berriak eta goi-tentsioko lineak egiteko proiektuak” (Energia Gara Nafarroa 2016). Azkenik, kritikatu egin dute energiari buruzko proposamen demokratizatzaileak ez egotea, non herritarren, erakunde publikoen eta irabazi-asmorik gabeko kooperatiben rola gakoa litzatekeen.

Datuen arabera, Nafarroan 96.000 pertsonak (herritarren %15 inguru) pairatzen dute txirotasun energetikoa, eta 44.000 etxebizitza daude egoera horretan. Hori kontuan hartuta, gutxienez kezkatu beharko ginateke gaur egun, oraindik ere, energia-, gizarte- eta ingurumen-politikak banatu egiten direlako. PEN planaren

<sup>115</sup> <http://www.sustraiarakuntza.org/sustrai-erakuntzaren-ustez-nafarroa-2030-ikusmuga-plan-energetikoaren-zirriborroak-suspentsioa-merezi>

gisako ekimenak sustatzen dituzte, eta ondoren planarekin zerikusirik ez duten hitzarmenak sinatzen dituzte, egoera zaugarrian dauden familien fakturak erakundeek ordainduko dituztela bermatuta duten merkaturatzaileekin. Hala ere, hitzarmen horiek, praktikan, ez dituzte familia kaltetuak babesten. 2016ko otsaila eta urria bitartean, Iruñean 342 hornikuntza-mozketa geldiarazteko operatiba egon ziren, eta Nafarroako Foru Erkidegoan 707 (Martinez eta Martinez). Zifra horiek oso baxuak dira kaltetutako pertsona kopuruarekin alderatuta.

Gauzak horrela, auzitegi honetan aztertutako kasua ikusita eta zifren atzean dauden beste kasuei erreparatuta, hitzarmen hauek ematen duten erantzuna oso eskasa da. 2016ko urtarrilean Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu zuen Iberdrolarekin, otsailean Gas Natural Fenosarekin eta maiatzean CHC Energía-rekin. Hiru enpresek argindarrez eta gasez hornitzen dituzte Nafarroako etxeen %90. Praktikan, hitzarmen horiek enpresentzako bermeak dituzte, txirotasun energetikoa pairatzen duten familientzat baino gehiago. Izan ere, hitzarmenetan adosten da enpresek horniketa ez moztea baldin eta atzeratutako fakturak funts publikoen bidez ordaintzen badira.

**Sinatutako hitzarmenak ez dira ondo funtzionatzen ari, hainbat arrazoi direla eta. Batetik, beharrezko informazio falta nabarmena dago, bai enpresa hornitzaileen aldetik bezeroekiko, zein Gobernuaren aldetik oinarrizko gizarterbitzuekiko.** Protokoloen inguruko ezjakintasuna orokorra da. Bestalde, neurri hauen inguruko publizitatea eginagatik, ez da bermatzen hobeto funtzionatuko duenik edo beharrak asetuko dituenik, hitzarmen hauek muga nabarmenak dituztelako. Funts publiko horiek oligopolioaren etekina handitzeko erabiltzen dira, eta gainera enpresa horiek zigorrak gabe ateratzen dira, nahiz eta beren betebeharrak saihestu eta giza eskubideak urratzen dituzten. Noiz edo noiz enpresa horiei isuna jartzea lortu izan da; esaterako, Iberdrolak prezioak manipulatu zituenean<sup>116</sup>, edo Endesak Bartzelonako Udalarari zor zizkion zergen kasuan<sup>117</sup>. Hala ere, gehienetan erakundeek eta erregulatzaileek ez dute adore eta botere nahikorik hori salatzeke, oligopolioak duen merkatuaren kontrola dela eta.

## 1.2. Mendebaldeko Saharako kasua

Auzitegi honetan aztertutako Hegoaldeko kasua honakoa da: Marokok energia berriztagarriko plantak eraikitzea Mendebaldeko Saharan, lurralde horretan bujurjabetzarik ez duen arren. Txosten honek batez ere energia berriztagarrietako

116 <http://www.europapress.es/economia/energia-00341/noticia-cnmc-multa-25-millones-iberdrola-manipulacion-precio-mercado-electrico-20151130174646.html>

117 [https://www.economiadigital.es/politica-y-sociedad/colau-multa-a-endes-a-por-impagos\\_412230\\_102.html](https://www.economiadigital.es/politica-y-sociedad/colau-multa-a-endes-a-por-impagos_412230_102.html)

proiektuei helduko dien arren —eolikoei bereziki—, Marokok hamarkadak daromatza proiektu energetikoak garatzen lurralde okupatuetan gasa eta petrolioia bilatu eta ustiatzeko<sup>118</sup>. San Leon Energy Irlandako enpresak Mendebaldeko Saharan inoiz egin den lehorreko lehen zulaketa egin zuen, 2015ean. Enpresa honek lurralde okupatuan petrolio esplorazioak egiteko eskubidea dauka 2006. urtetik.

Eguzki eta haize bidezko energia-ekoizpen guztiaren %7 Mendebaldeko Saharan ekoizten da, eztabaida sortuz. 2020. urterako zifra horrek gora egin lezake %26,4ra arte (WSRW 2016a) Tartean dauden enpresa nagusiak: NAREVA Holding (Maroko), Taqa (Arabiar Emirerri Batuak), Enel Green Power (Italia) eta Siemens (Alemania).

Gauzak horrela, proiektuak hedatzeko planak direla eta, orain arteko eraginak mantentzeaz gain areagotzea espero da. 2010ean gobernuak energia eolikoaren ekoizpen nazionala bikoiztea erabaki zuen, 2020rako beste 1.000 MW ekoiztita. Ahalmen erantsi horren %40 gune okupatuan ekoiztuko da (Bojador-en 100 MW-ko planta bat, eta Tiskrad-en, Aaiun-etik gertu, 300 MW-ko beste bat).

Proiektuak “Build Own Operate Transfer” (BOOT) eskemaren bidez egituratzen dira, Lankidetzeta Publiko-Pribatu (LPP) moduko bat; bertan eremu pribatua azpiegituraren jabe da jardun bitartean, eta eremu publikoak bermatzen du. Elkartze horretan, batetik, enpresa transnazional jakin bat dago, eta bestetik, ONEE<sup>119</sup>, Société d’Investissements Énergétiques (SIE) delakoa eta Hassan II Erregearen Funtsa; estatuaren esku daude hirurak. ONEEk enpresari bermatzen dio sortutako argindar guztiaren erosketa 20 urteko kontratu baten bidez; energia hori, neurri handi batean, fosfato industriari salduko zaio gero. “Win-win” hutsa, bai enpresa transnazionalentzat (ETN) baita Marokoko erreinuarentzat ere (WSRW 2016a).

Marokok 40 urte baino gehiago daramatza fosfatoa ustiatzen: mineral berriztaezina da, balio handikoa eta estrategikoa, eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan erauzten da hein handi batean atzerriko ongari-ekoizleei saltzeko (WSRW 2015). Siemensek Mendebaldeko Saharan dituen 22 errotek sortzen duten energiaren %95 fosfatoen erauzketa industriara bideratzen da. **Orain energia “berdea” erauzketa-industriaren zerbitzura ere egongo da, eta espoliazioa hedatzen joango da horrela.** Badago datu adierazgarri bat: Marokok fosfato bi-

118 San Leon Energy Irlandako enpresak Mendebaldeko Saharan inoiz egin den lehorreko lehen zulaketa egin zuen, 2015ean. Enpresa honek lurralde okupatuan petrolio esplorazioak egiteko eskubidea dauka 2006. urtetik. Enpresa horrek lurralde okupatuan petrolio esplorazioak egiteko eskubidea dauka 2006. urtetik.

119 Marokoko argindar agentzia



dalketa batekin sortzen duen aberastasun kopurua errefuxiatu sahararrek urtebetean jasotzen duten laguntza humanitarioaren heren baten parekoa da (WSRW 2016a).

Egoera honek argi erakusten du Mendebaldeko Sahararen okupazioa estrategikoa dela Marokok energia berriztagarrien inguruan dituen planak garatzeko (baita erauzketa planak garatzeko ere). Era berean, horrelako proiektuek Maroko laguntzen dute lurralde okupatuetan presentzia izaten, energia berriztagarrien aldeko jarrera aitzakia gisa hartuta.

### 1.2.2. Geopolitika eta baliabide-ustiapena lurralde okupatuetan

Mendebaldeko Saharan gertatzen diren eskubide-urraketen testuinguruan sakondu beharra dago; bereziki, Marokok eta Europar Batasunak (EB) energia eta geopolitikaren inguruan duten agenda politikoarekin lotutako alderdiei erreparatu behar diegu. Alderdi edo elementu horiek lagungarriak izango dira urraketen aurrean zigorgabetasuna eta isiltasuna gailendu daitezten.

Afrika iparraldeko beste herrialde batzuk (Aljeria, Libia edo Egipto) ez bezala, Marokok ez du petrolio edo gasik bere lurraldean, eta energia beharren %90 inportatzen du. Gainera, nagusiki fosilekiko mendekotasun energetikoa du; petrolio produktuak guztizkoaren %67,6 dira<sup>120</sup>. Beharbada horregatik gauzatu zuen 2008an Energia Berriztagarrien Plan Nazionala. Hala ere, Auzitegi honetan aztertutako kasuak agerian uzten du bestelako faktoreek ere sustatzen dituztela halako proiektuak.

Hain zuzen, halako proiektuak sustatzen dituzte EBren kanpo-politikari zein energia-politikari lotutako helburuek —azken horretan Espainiako Estaturua sartzeko da eragile gako gisa, kokapen estrategikoa dela eta—. Helburuok honako alderdiak hartzen dituzte kontuan:

- **Energia berriztagarriena merkatu-hobi berria da, energia- eta eraikuntza-entrepresa handiak haren aldeko apustua egiten ari dira.** Izan ere, aurreikusten dute energia-sektorea eraldatzea beharrezkoa dela —eta baita ekonomikoki aberasgarria—, erregai fosilekiko mendekotasuna murrizteko. 2020. urterako helburua: berriztagarrien bidez lortutako energia 27%<sup>121</sup> izan dadila (nahiz eta tokiko iturrien bidez hornitu litekeen, baliteke kanpoko iturriak behar izatea). Oraindik ez dago argi Europako etorkizuneko ener-

120 <http://bruegel.org/2016/04/energy-across-the-mediterranean-a-call-for-realism/>

121 <https://ec.europa.eu/energy/en/topics/energy-strategy-and-energy-union/2030-energy-strategy>

gia berdearen eskaria autohornikuntzaren bidez bete ahal (edo nahi) izango den. Izan ere, babes politikorik izan ez zuenez, 2013an desegin zen Mediterraneoeko Eguzki Plana (Plan Solar Mediterráneo): Mediterraneoaren aldeko Batasunaren proiektua zen, mediterraneo itsasoaren iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko hurbileko elkarlana helburu zuena. Bestalde, Desertec proiektuak ere porrot egin zuen 2014an: Alemaniako industriak babestutako plana zen, 2050. urterako Europak beharko zuen energiaren %15 Afrika iparraldeko eguzki-energiaren bidez lortzea helburu zuena. Eskualdeko eta tokiko zenbait proiektu salbu, **EBren energia-politika eta bereziki Espainiakoarena, gaur egun berlokalizazioaren logikatik urrun daude. Halaber, megaproiektu gehienak eta baliabide-ustiatketaren eraginak kanpora bidaltzen dira oraindik ere, errentagarria zaien guztietan.** Zentzu horretan, Europako ETNentzat helburu argia da berriztagarrien arloan negozioa egitea: *“Hazteko eta zabaltzeko aukera hau ondo hartu beharko lukete Europako argindar-enpresek, energia berriztagarrien manufakturan eta energia-eraginkortasunean dabiltzan konpainiek eta baita Europako petrolio eta gas enpresek ere; azken hauek irrikitan daude beren plangintzak dibertsifikatzeko energia-trantsizio global zabalago baterantz doan testuinguruan”*<sup>122</sup>.

- Hau astiro baina etenik gabe gertatu bitartean, **Afrika iparraldeko zonaldea (MENA region izenaz ere ezaguna) helburu geopolitikoa da gaur egun EBren gas eskariari erantzuteko dibertsifikazioari dagokionez, 2014ko Krimeako krisiaren ostean batez ere.** Magreb-Europa gasbidea da Maroko zeharkatuz Europara gasa daramanetako bat. **MENA eskualdearekin dauden argindar-interkonexioak ere estrategikoak dira, eta etorkizunean areagotzeko asmoa dago. Marokon eta Mendebaldeko Saharan sortzen den energia berriztagarria EBra esportatu ahalko litzateke interkonexio horien bidez,** baina oraingoz argindarra Europatik Marokora doa.
- Azkenik, energiaren merkatuen **liberalizazioan sakontzea** zeharkako helburua da. Europako Energia Batasunaren ustezko helburua da EB energetikoki hobeto eta segurtasun handiagoarekin hornitzea, interkonexio azpiegituren bidez eta herrialdeen arteko lehia hobetuz. Hala ere, horren atzean ezkututzen da **besteren baliabideak ustiatzea eta horren ondorio sozioambientalak, eta azpiegiturak erabiltzea finantza-aktibo gisa inbertsio pribatuak sustatzeko berme publikoen kontura.**

Marokoko Gobernuak, berriz, ondo ezagutzen du energia-sektorearen ahalmena eta sektorearen aldeko apustua bere lurraldean egiteaz gain, Mendebaldeko

122 <http://bruegel.org/2016/04/energy-across-the-mediterranean-a-call-for-realism/>

Saharako energia-baliabideak ere ustiatzen ari da. Gainera, lurralde okupatuetao proiektuak bereziki estrategikoak dira etengabeko eguzki-erradiazioa eta haizea dagoelako.

- Eguzki-erradiazio bereziki handia: eguneko 4,7kwh/m<sup>2</sup> iparraldean eta 5,6kwh/m<sup>2</sup> hegoaldean, urtean 280 eta 340 egun artean (lurralde okupatuetaan).
- 6000 MW-ko haize-potentziala, kontuan hartuta Marokok Mendebaldeko Saharan kokatutako proiektuak.

Gauza bera egin du Espainiako enbaxadak Rabaten (2012): Marokoko **energia berriztagarrien inguruko txosten batean, energia berriztagarriek duten sortze-ahalmena neurtzeko Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetao baliabide naturalak kontuan hartu ditu**. Horrelako proiektuetan Espainiako enpresek parte hartzea erabakigarria da ulertzeko Espainiako Estatuak interesak dituela eta horregatik ematen diola bizkarra Mendebaldeko Saharako kausari, interes ekonomikoak lehenetsiz nazioarteko zuzenbidearen eta giza eskubideen errespetuaren gainetik.

Jada martxan dauden proiektuez gain, Marokok bere lurraldean dauden negozio-aukerak promozionatzen ditu, Mendebaldeko Saharakoak barne, propioak balira bezala. Horrela, abantailak promesten ditu zergeri eta mugei dagokienez, soldata-kostu baxuak, eta esportazio-kostu lehiakorrak (CCISME 2013).

Marokoko energia-sektorearen ezaugarri bat da Errege-etxeak kontrolatzen duela. Espainian ate birakarien fenomeno dago, gobernuo karguen eta energia-oligopolioko enpresen administrazio-batzordeen artean. Baina Marokon erabateko solapatzeaz ari gara: Errege-etxea eta energia-enpresak eragile baliokideak dira.

Batetik, Energia eta Meatze Ministerioa eta ONEE agentzia daude (azken honak erabakitzen ditu energia berriztagarrien enkanteak). Errege-etxea da haien jabea eta erregulatuzailea; izan ere, 2015ean gobernuari agindu zioten berriztagarriekin lotutako energia-politika kontuak Errege-etxearen ardurapera pasako zirela. Gauza bera gertatu da bestelako sektoreekin: finantzak, nekazaritza eta telekomunikazioak, esaterako.

Halaber, Errege-etxearena da SNIren %74 (Société Nationale d'Investissement, holding pribatua), eta aldi berean SNIk dauka Nareva enpresaren %100. Nareva, berriz, ONEEko zuzendari ohi Ahmed Nakkouchek gobernatzen du. Nakkouch OCPren (fosfatoen konpainia nazionala) meatze-ustiapen saileko zuzendaria

izan zen baita ere. Azkenik, plan hauek finantzatzen dituen konpainiak, aipatutako Société d'Investissements Énergétiques (SIE) delakoak, 1.000 milioi dirhameko kapitala dauka (100 milioi dolar inguru); konpainia horren %71 estatuarena da, eta gainerako %29 Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Hassan II.a Funtsarena da. Egoera horrek monopolioa sortzen du inportazio zein esportazioei dagokienez, eta monopolioaz gertuko egoera sortzen du energiaren ekoizpenari eta banaketari dagokienez.

### 1.2.2. Kapitalismo berdea?

Aspaldi ikasi zuen kapitalismo heteropatriarkalak adierazpide berriak hartzen, horrela, nahierara, eredu ekonomiko hegemonikoa mantentzeko: bere burua berdez mozorrotzea da adierazpide horietako bat. Bere garaian, hainbat gizarte-mugimenduk erabili zuten jada lema hau: “Ekonomia berdea, etorkizun beltza”<sup>123</sup>. Horrekin esan nahi zuten arriskutsua zela ingurumena zaintzearen aldeko praktikak eta printzipioak txertatzea merkatu-logika batean. Horrela, azken urteotan Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta ezarri diren energia berriztagarriak bidegabeak dira gizarte eta ingurumen alderditik.

WSRW (2016b) erakundeak etengabe salatu zuen 22. UNCCC (United Nations Climate Change Conference) Marrakechen ospatzea, zeinaren barnean ospatzen zen COP22 konferentzia. Lehenik eta behin, hamarkadak direlako Marokok sahararren eskubideak urratzen dituela. Eta bigarrenik, Marokok energia berriztagarrien inguruan dituen estrategiak —baita Mendebaldeko Saharan ere— Konferentzia horretan promozionatu direlako eta, areago, lurralde okupatueta gartzeko proiektu berriak onartu direlako. Konferentzia horretan sinatu zen, halaber, *“Adierazpen bateratu bat ezartzeko bide-orria, Argindar Jasangarriko Hitzarmen bat adosteko Marokoren eta Europako Energiaren Barne Merkatuaren artean”*. Adierazpen hori sinatu zuten Alemaniak, Frantziak, Espainiak, Portugalek eta Marokok. Halako ekimenak ez dira aurrera atera, baina hala ere, txosten honetako testuinguru atalean azaldu bezala, adierazgarriena da Maroko eta EBk daukaten alde aurretiko joera Mendebaldeko Saharako aberastasuna ustiatzeko ustezko energia “berde” baten alde, nazioarteko zuzenbidearen aurkako praktikak baliatuta.

Aipagarria da ere kapitalismo berdea, Mendebaldeko Sahararen kasuan erabilia, txirotasun energetikoa arintzeko zenbait ekimenetan ere ageri dela. EBN, energia-eraginkortasunerako programekin lotutako zenbait neurri, halaber, bidegabeak izan daitezke arlo sozialean eta ingurumenarenean; batez ere, baldin eta

123 <https://alianzaeconomieverdefuturonegro.wordpress.com>

sarritan merkantilizatzen diren errezeta bihurtzen badira<sup>124</sup>, eta soilik aplikatzen badira egoera zaugarrian dauden familien kasuan, gizarte osoaren ohituretan eragin zuzenik izan gabe. Bestelako errezeta ustez “berdeak” dira, baita ere, mugimendu ekologistak aspalditik gogor kritikatzten dituen bioerregaiak, karbono merkatuak edota proiektu hidroelektriko handiak, besteak beste.

Ezin dugu honakoa ahaztu: energia berriztagarrien ekoizpena, garraioa, banaketa eta merkaturatzea oligopolioko eragileek beraiek kontrola dezakete, jokoaren arauak batere aldatu gabe. Hausnarketa hori funtsezkoa da, aldaketa hutsak baino gehiago errotiko eraldaketak planteatzerako orduan; bai auzitegi honetan aztertutako kasuetan, zein mundu osoan antzeko testuinguru eta logiketan kokatzen diren beste kasuetan.

### 1.3. Energia-ereduaren ondorioak bizitzan

Egungo energia-ereduak **lehenetsi egiten ditu enpresa handiei mesede egiten dieten erabilpenak, azpiegiturak eta kudeaketa-ereduak, bizitzaren iraunkortasunaren aldeko erabilpenen eta pertsonen beharren kontura**. Eredu horrentzat, ustiatu nahi den lurraldean aurkako komunitateak edo herritar sektore zaugarriak eratzea isilarazi beharreko kanpo-efektuak dira, horrela, azkenean, baliabideak merkatuarentzako modurik eraginkorrenean ustiatzen jarraitzeko. Baina pertsona eta lurralde hauek ez dira kanpo-efektuak; aitzitik, aberastasunaren benetako jabeak dira.

Hegoalde globaleko herritarrak beren baliabideak ustiatzearen bidez esplotatzen dituzte, izan langile esplotazioaren bidez edo zerbitzu pribatizatutako zein emakida bidezko zerbitzuen gehiegizko tarifaren ondorioz. Egiaz, herritarren diruaz ordaintzen dira azpiegiturak egiteko inbertsioak edo enpresen etekin handiak, oinarrizko bizibideak —izan soldata edo baliabide naturalak— lapurtuz. Azken batean, herritarrek eurek erabakiko balute baliabide horiek nola, noiz eta zein baldintzatan erabili, haien bizi-kalitatea hobetu ahalko litzateke. Adibide bat ematearren: errefuxiatu sahararrek, duela gutxi arte, eguzki-energia isolatua zeukaten (bateria bidezkoa), eta gaur egun Aljeriako sare elektrikoaren bidez hornitzen dira. Hala ere, oraindik ere hornikuntzak ez ditu berme guztiak eta kanpo-eragile baten mendekoa da. Era berean, Espainiako Estatuan argindar-mozketen mehatxupean dauden pertsonak askotan ez dakite zer egin: fakturak ala hilabe-

<sup>124</sup> Horren adibide ona da Erresuma Batuko “Green Deal” delakoa. Programa horren helburua kostu-eraginkortasuna da, hau da, diseinatuta dago txirotasun energetikoa pairatzen duten familiek faktura atzeratuak pagatu ditzaten, beren etxebizitzetan energia-konsumoa murrizteko hobekuntzen bidez aurreztutakoari esker. Praktikan, etxebizitzetan egindako aldaketa horiekin ez zen beti aurrezten, eta familiak zorpetu egiten ziren etxeetan egindako obren inbertsioaren ondorioz. (Guiteras 2016)

teko oinarrizko erosketa ordaindu, eta batzuetan sendagaiak edo beste oinarrizko beharrak erosteari uzten diote.

Labur, horrelako negozioak eskubideen kontura egiten dira, eta bizi-baldintzak okertzearen kontura. Gainera, giza eskubideen urraketek areagotu egiten dituzte desparekotasun sozialak. Hori posible da **estatuei esker, ondasun komunak merkantilizatzearen eta baliabideak espoliatzearen konplize baitira**. Ez da aitortzen horrek maila sozialean, ekonomikoan, politikoan, kulturean eta ingurumenean duen kostua, bestela gaur egungo etekinak ez lirateke posible izango. Halaber, ez da pertsona kaltetuen aldeko legerik egiten, eta ez dira babesten bizitzaren aldeko oinarrizko input-ak; aitzitik, interes eta aberastasun handiek markatzen dute agenda mundu mailako baliabideen kontrolari dagokionez.

Ondasun komunak (ura edo energia) azpiegituren bidez merkantilizatzea eta finantziarizatzea<sup>125</sup> dira gaur egungo ekoizpen- eta energia-eredu nagusia zuzentzen dituzten praktikak. **Etekin esponentzialak dituen negozio gisa ulertzen da energiaren eta bestelako oinarrizko zerbitzuen kudeaketa, eskubideei batre erreparatu gabe** (Gerebizza y Tricarico 2013). Azken hamarkadan, bereziki krisiaren ostean eta higiezin burbuilak eztanda egin eta gero, energiarena eta energia-azpiegituren eraikuntzarena merkatu-hobi berriak dira finantza-inbertsoreentzat (Cotarelo 2015, Cotalero y Pérez 2015). Horrela, merkatu-logikak zuzentzen ditu oinarrizko zerbitzu horniketarako (ura, energia) errezeta asko.

**EBk onartu egiten du energia-merkatuen ohiko funtzionamenduak pertsonen desparekotasuna eragin dezakeela, familia zaurgarrienek ordaindu ezin ditzaketan prezioen ondorioz, besteak beste. Hala ere ez dute uste hori arazo bat denik**, edo proposatutako eredia zalantzan jartzen duen disfuncionaltasun sintoma bat denik. Izan ere, pertsona erabiltzaileen egoeraz harago, argi dago merkatuen eta konpainia hornitzaileen jardunak eta praktikek ere baldintzatzen dutela zaurgarritasuna. Eta hala ere, desparekotasuna sortzen duten merkatuen barne-funtzionamendua zuzentzeko neurriak sustatu ordez, EBk babesa eta herritarren ohitura aldaketak bultzatzen ditu: *“Gauzak horrela, kontsumitzaileek aurre egin diezaiekete gaur egun handituz doan zaurgarritasun arriskuari; arrisku hori hainbat arrazoi ezberdinek (edo pilotutakoek) eragin dezakete: osasun egoera kaskarra, diru-sarrera txikiak, egoera ekonomiko prekarioa, etab. Egoera hori larriagotu liteke merkatu-praktika desleialaren ondorioz edo marketing estrategia selektiboen ondorioz; izan ere, zaurgarritasuna neurri berean baldintzatzen dute pertsona bakoitzaren*

125 Finantziarizazio esaten zaio finantza-arloa ekonomiaren edo bizitzaren hainbat esparrutan sartzeari. Finantziarizazioaren adibideak dira finantza-merkatuetan baliabide natural batzuek, lehengaiak edo are elikagaiak dituzten gorabeherak. Halaber, fenomeno horren adibide dira kapital-merkatuetan saltzen diren proiektu energetikoen bonuak; horrela finantza-aktibo bihurtzen dira oinarrizko ondasun eta zerbitzuak (energia eta elikagaiak, esaterako).

*egoerak eta merkatuaren jardunak. (...) Azken aldian arazoa gero eta garrantzitsuago bihurtzen ari da, baina hori ez da argudioa merkatuak irekitzeko eta lehiakortasuna sustatzeko etengabeko liberalizazioaren aurka; aitzitik, egoera horrek azpimarratu egiten du zaurgarri bihur daitezkeen kontsumitzaileei zuzendutako neurri egokiek lagundu behar dela merkatu-erreforma.” (VCWG, 2013)*

Inpunitate-logika oso antzeko batekin jarduten du Marokok Mendebaldeko Saharan, lurralde horiek okupatuz eta bertako baliabideak espoliatuz. EBk sobera ezagutzen (eta aitortzen) du Mendebaldeko Saharako egoera, baina ez du proposatzen inolako aldaketarik kanpo-politikan, ezta egoeraren kausei heltzeko neurrikerik ere. Jarrera espresuki bipolarra dauka EBk. **Esku batekin laguntza humanitarioa bidaltzen du Mendebaldeko Saharara, eta beste eskuarekin Marokorekin salerosketan aritzen da. Era berean, esku batek babes-neurriak proposatzen ditu kontsumitzaile zaurgarrientzat, eta beste eskuak argindar- eta gas-merkatua sakonki liberalizatzeko neurriak sustatzen ditu.**

Gainera, energia-ereduak bizitzan duen eraginaz gain, ondorio ezberdinak ditu gizonengan eta emakumeengan, zeinak Auzitegi honetan aztertutako kasuen bidez ikusarazten diren. Bizi garen munduan, etxean zein kalean, rol-banaketan lanaren sexu-banaketaren araberakoa da. Pobrezia Energetikoaren Aurkako Aliantzan<sup>126</sup> parte hartzen duten pertsona kaltetuekin egindako ikerketen arabera, gizonezkoek male-breadwinner (soldata etxera dakarrena) delako rola hartzen dute oraindik ere, eta emakumezkoek bere gain hartzen dituzte etxeko eta zaintza lanak (lan horietako asko lotuta daude oinarrizko horniketaren erabilerari):

*“Horrek berretsi egiten du genero-rolen ikuspegi patriarkala, eta emakumeen gain uzten du txirotasun energetikoaren ardura. Hartara, emakumeak dira gehienbat kudeaketan, borrokan eta konponbide bilketan aritzen direnak, eta horren ondorio zuzenak pairatzen dituztenak. [...] Ezaugarri hori generoari egotzi ahal zaio, zeinaren arabera gizonezkoek Gizarte Zerbitzuetara jotzeko joera txikiagoa duten ondoriozko estigmatizazioa dela eta. Horren aldean, emakumea “gai” da beharrezko gestioak egiteko, eta etxeko beharrak bermatze aldera arriskatzeko. Beste behin, ikuspegi patriarkala islatzen da hemen, zeinak emakumeen estigmatizazioari garrantzi gutxiago ematen dion emakumeek, ustez, hori onartzen dutelako, eta horrela ukatu egiten ditu lehena-go aztertu ditugun ondorio psikologikoak, bakardadea eta bazterkeria. Argudio hori arriskutsua da; izan ere, ezaugarri femininotzat dituenak (gaitasuna, aguantatzea, zailtasunei aurre egitea), egiatan, genero-desparekotasunaren isla dira, non ardurak eta ondorioak ez diren parekotasunez banatzen.” (González 2016)*

126 <http://pobresaenergetica.es/es/>

Jarraian, auzitegi honetako kasuetan ageri diren giza eskubideen urraketek zein ondorio –eta bereizgarri– izan dituzten zehaztuko ditugu, tipologiaren arabera:

### **Biopsikosozialak**

Eskubide-urraketa horien ondorio biopsikosozialetan sakonduz gero, lehenik eta behin ikusiko dugu eragin handia dutela kaltetuen osasun fisikoan zein ingurumenean. Fosilen mendeko energia-eredu zaharkituak ekozidio zurrumbilo bate-rantz garamatza duela hamarkada askotik, eta ez du errukirik planetako bizitza-rekin. Batetik, baliabide naturalak ezin eskuratzeak —edo, hirietan, oinarrizko zerbitzuak ezin bermatzeak—, bizi-baldintza material guztiz prekarioak dakartza. Ezin badira ase berotzeko (edo freskatzeko), argiztatzeko, elikagaiak prestatzeko, eta abarrerako beharrak, errazagoa da gaixotasunak harrapatzea, osasungarritasunik gabe bizitzea eta desnutrizioa izatea, besteak beste. OMEk ohartarazi du, gainera, Hegoalde globalean ohikoagoa dela emakumeek eta haurrek seguruak ez diren erregaiak erabiltzea etxean, batez beste haiek direlako etxean denbora gehien pasatzen dutenak (OME, 2016).

Nekea, indar falta, ezintasun sentipena, beldurra, depresioa, erruduntasuna, porrota eta, noski, adinez txikikoengan eta adinekoengan duen eragin jakina. Halaber, egoera horiek familia-haustura eta bazterkeria zein bakardade sentimenduak eragin ditzakete. Etxean seme-alabentzako gutxieneko baldintzak ezin eskaintzeak arazo psikologiko garrantzitsuak sortzen dizkie gurasoei. Hala gertatzen da, baita ere, konpainien telefono bidezko mehatxuekin; faktura atzeratuak ordaintzeko eskatzen diete familiei, eta ordaintzen ez badute auzitara eramango dituztela esaten diete. Horrek oinaze handia sortzen du kaltetuengan (Gonzalez 2017).

Halaber, saharar gehienak errefuxiatu guneetan bizi dira; izan ere, handik joango balira beren borroka “baztertu” dutela esan nahiko luke. Errefuxiatu izateari uztea, hobea izan daitekeen bizileku batera joatea, haientzako bidezkoa den horren aldeko borroka bertan behera uztea da. Kasu honetan baliabide materialak ez izateari eta bazterkeria pairatzeari gehitu behar dizkiogu deserrotzea, abandonu eta ahanztura sentimendua, etab..

### **Ekonomikoak**

Eskubide-urraketak gertatzean (bereziki EESK eskubideak, hau da, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalak), zenbait elementuk ez diete pertsoneri bizitzeko nahikoa bitarteko uzten, dela beren lurraldea okupatu dutelako, baliabide naturalak eskuratu ezin dituztelako edo ordaindu ezin dituzten fakturak, zilegi ez diren kontzeptuen kobratzea edo benetan eskaintzen ez diren zerbitzuen ordainketa inposatzen dietelako, kitatu ezin den zorpetzea eraginez.



Hegoaldeko herrialdeetako emakumeengan energia-ereduaren bestelako ondorio bat irabaziak izateko ezintasuna da. Megaproiektuak inposatu egiten dituzte, eta horrela ezinezkoa da lurraldeetako komunitateek beren baliabide propioez gozatzeari. Hau da, sistematikoki urratzen dira oinarrizko zerbitzuen eta baliabide naturalen erabilpenari lotutako eskubideak; horrek zaintza-lanen karga handiagoa dakar, prekaritatea, zaurgarritasuna eta mendekotasuna artatzeko. Eta etengabe zaintzen denean, ez dago diru-sarrerarik. Gehienbat emakumeek eratzten dituzte ondorio horiei erantzuteko sostengu-sareak (Vicent 2013).

Hain zuzen ere, genero-ikuspegi horretatik egokia da sostengu-lanak baloratzea, eta hala ere energia-ereduaren eraginez etxeko eta zaintza lanen karga igoera kritikoki aztertu behar da, askotan emakumeek beregain hartzen baitituzte halako lanak. Era berean, saharar gehienak errefuxiatu guneetan bizi dira, eta haiek ere irabaziak sortzeko ezintasuna dute, bizi duten egoeraren ondorioz. Baliabide ekonomiko gutxi dituzte ere, eta horren menpe daude **elikadura, osasun-zerbitzuak, edateko ura, energia edo sendagaiak. Hori guztia laguntza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren menpe egoteak**<sup>127</sup> agerian uzten du ez dagoela herri-subiranotasunik; autodeterminazio-eskubidea ukatzea ere horren adibide da.

## Politikoak

Maila politikoan, halako testuinguru bat sortzen du egoera honek, non ETNak eta botere politiko ustela bera zuzenbide publikoan sartzen diren, nahieran moldatuz. Horren ondorioz, oposizio-adierazpenik txikiena ere kriminalizazioarekin eta estigmatizazioarekin erantzuten da. **Historikoki, lurraldearen defentsan parte hartzen eta antolatzen diren komunitate zein herritarren jarduna “antidesarrollista” hitzaz saldu izan zaio iritzi publikoari.**

Horrez gain, Mendebaldeko Saharan pairatu izan dituzte justifikatu gabeko kalera-eraketak, soldata jaitzierak eta sahararren negozioei boikotak (azken hauek gizonei zuzenduak batez ere, lanaren sexu-banaketa dela eta). Emakumeek ere pairatu izan dituzte torturak eta errepresio militarra, protesta egiteagatik edo, besterik gabe, ustez subertsiboa den norbaitekin harremana izateagatik.

Hala ere, klima politiko honen baitan, baliabide naturalen eta oinarrizko zerbitzuen aldeko mobilizazioak areagotzen ari dira, eta pertsona kaltetuak baliabide naturalen eta **auzi energetikoaren ber-politizazio prozesua** gauzatzen ari dira. Horrek batasuna eta ahalduak sortzen ditu, kaltetuen eskubide-urraketa zigorgabearen aurrean. Batez ere emakumeek parte hartzen dute, gizonek baino

127 Gatazkak 40 urtetik gora dituenek, mota horretako laguntza onartu da ere, baina azken hamar urteotako nazioarteko krisi ekonomikoaren ondorioz nabarmen murriztu da laguntza hori. Errefuxiatu guneetan baliabide falta nabaritzen hasiak dira, eta oinarrizko eskubide gehientsuak mugatuta dituzte.

gehiago, Hipotekak Kaltetutako Plataforman (PAH) edo txirotasun energetikoaren aurkako mugimenduetan; emakume hauek pairatzen duten ondorioetako bat da oraindik ere egokitzen dieten zama astun hori —etxeen ardura— kanalizatzea, eta beren borrokak indar kolektiboa eta autoestimua sortzen dizkiela ikustea, haien eskubideak urratzen ari diren enpresen aurrean. Parte hartzeko eta ahotsa izateko aukera oinarritzkoa da ondorio psikologikoak eta sozialak indargabetzeko, eta horrek ahalbidetzen du erresistentzia kolektiboa sortzea kaltetuen lekukotza zuzenetatik abiatuta.

### **Antropologikoak/kulturalak**

Bizimoduak ere aldarazten dituzte auzitegi honetan aztertutako kasuetako eskubide-urraketek. **Enpresa edo gobernuen jardunak (edo, zenbaitetan, jardun ezak) gizartea egituratzeko modu jakinak eratzen ditu, eta kaltetutako kolektibo eta komunitateak hautemateko iruditeriak sortzen ditu.** Egungo hedabideetan oso presente dago fakturak ordaindu ezin dituzten pertsonen irudia, eta iritzi publikoaren zati handi batek zalantzan jartzen du haien egoera: “Ez da izango ez dutela ordaindu nahi?”. Era berean, sahararrak Espainiako Estatuko historia hurbilaren parte diren arren, herritar gehienek memoriatik at daude, eta are garrantzitsuagoa dena, politikari gehienek memoriatik at. Gizartearen “eboluzioak” bidean ahazten ditu kanpo-efektutzat dituenak. Horrela, bizitzeko (edo bizirik irauteko) moduak sortzen ditu, eta ahaztutako horren gainean (des)ezagutza moduak eraikitzen ditu. Ahanztura, zapalkuntza, bortxaketak, bata bestearekin pilatzen doaz. Zaurgarritasuna eragiten edo larriagotzen duten faktoreak gizartearen hainbat mailatan daude, eta maila horien baitan neurri handiagoan edo txikiagoan eragiten dute. Zaurgarritasun faktoreek elkar gurutzatzen dute, adinaren, generoaren, diru-sarreraren, jatorrizko herrialdearen... arabera. Baina bestelako ezaugarriek ere baldintzatzen dute egoera; esaterako, herrialde jakin bateko energia- eta ekoizpen-ereduak, bertako erakundeen kultura demokratikoak, etab.

### **Ardatzen arteko lotura**

Elikadura- eta energia-burujabetzak helburu bera daukate: baliabideen ustiapena eta lurren desjabetzea, ustezko “garapenaren” izenean egiten dena, geldiaraztea. Baina egiatan “garapen” horrek bizimoduak, komunitateak eta ingurumena desartikulatzea dakar. Bi proposamenek, elikadura- zein energia-burujabetzak alezia, gure baliabideen inguruan erabakitzeko eskubidea proposatzen dute, betiere errespetua izanik gainerako herriekiko eta ama lurraiekiko.

Ekonomia berlokalizatzeak laguntzen digu lurraldearekiko errotzea berreskuratzen, lurraldearen beharren eta ahalmenen diagnostikoa egiten, eta hainbat mai-

latan burujabe izateko gaitasuna neurtzen. Hurbiltasunetik elkartu ahal izateak elkar hurbiltzen gaitu eta inplikatu egiten gaitu. Gainera, energiaren (ber)lokalizazioa ere bada ekonomiaren (ber)lokalizazioaren zati garrantzitsu bat; izan ere, energiaren menpe gaude bizitzeko oinarritzko behar asko asetzeko.

Zaintzari dagokionez, ezingo genuke proposatu norberaren baliabideez gozatzeko eta oinarritzko horniketa eskuratzeko eskubidea defendatzea, baldin eta ez badugu aitortzen megaproiektu energetikoen inposaketak edo txirotasunak (baita txirotasun energetikoak ere) aktibatzen dituzten zaintza-kate globalak. Zaintza balioestea ere bada lurraldearen eta lurralde-gorputzen aldeko mugimenduen aldarrikapenetako bat. Borroka horiek gogorarazten digute premiazkoa dela elkar sostengatzea eta zaurgarritasunei arreta jartzea, baina aldi berean kritikatu egin behar dute zaintza sistematikoki emakumeen ardura izatea.

#### 1.4. Gizartearen eta hedabideen ikuspuntua

Hedabideek energiaren gaia nazioarteko politika sailean edo ekonomiarenean aipatu ohi dute, betiere mundu mailan energia-merkatua kontrolatzen duten enpresa handien ahotik. Txirotasun energetikoaz hitz egiteko, aldiz, gizarte sailera joan beharko dugu eta albistea familia-drama gisa eskainiko digute. Espainiaren ardura diren gatazka enkistatuei buruz, ordea, orrialde bat bera ere ez. Tristeza da ikustea oinarritzko baliabideekin egiten diren negozioak soilik gertakari agerikoek eta mediatikoek (isolatuak ez izan arren) ikusarazten dituztela, gizarte-mobilizazio jendetsuez laguntzen direnean —Berta Caceresen hilketa<sup>128</sup> edo txirotasun energetikoaren ondorioz hildako Reuseko andrea, kasu—. Halaber, tristeak dira ere zerbitzu horien kudeaketa enpresa pribatuen edo erregimen eta agintari demofobo-oen esku uztearen ondorioak. Eta hala ere, beste kasu askok isilpean jarraitzen dute oraindik ere.

Gertakarien protagonisten ahotsetik eta ikuspegitik, kazetaritza hegemonikoan energia-ereduak kaltetutako pertsona eta komunitateen problematika soziala profil baxuan mantentzen da, betiko erreportaje sentsazionalista ez bada, behintzat; kasu horretan enfasi handia jarriko da bizi-baldintza negargarriak erakustean. Komunitateen eta enpresa pribatuen arteko botere harremanak zalantzan jartzen dituzten gatazka sozial eta politiko ia guztietan, herritarrekiko mesfidantza gailentzen da: Zergatik ez dute ordaintzen? Zergatik daude aurka? Izan ere, maiz, enpresa horiek iragarkiak jartzen dituzte hedabide horietan. Herritarrek,

128 Lider indigena, hoguei urte baino gehiagoz izan zen Hondurasko Erakunde Herritar eta Indigenen Herri Batzordeko (Consejo Cívico de Organizaciones Populares e Indígenas de Honduras, COPINH) ordezkaria, 2016ko martxoaren 3an hil zuten gizon armatuek, goizaldean, Esperanzako (Intibucá) bere etxean lo zegoela: <http://www.ecologistasenaccion.org/article31755.html>

normalean, ez dituzte ezagutzen enpresen gehiegikeriak, eta ez dute ulertzen zein konplexuak diren energia-eredua eta eredu horren sistemak (argindarrarena, gasarena, etab.) eta eragileak. Era berean, ez dute ulertzen herritarrek kudeatuko dituzten ondasun komunak aldeko borrokaren aurka dagoen errepresio orokortua zein konplexua den. Gaur egun, hedabideek ardura zuzena daukate gatazka sozioanbiental eta geopolitikoek energiarekin duten loturari buruz iritzi publikoak daukan ezjakintasunean.

## 2. GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK

### 2.1. Marko legegilea eta legitimoa

Argindar-horniketa ezinbestekoa da duintasunez bizitzeko. Hala ere, Espainiako Estatuan ez dago estatu mailako legerik txirotasun energetikoaren inguruan, edo, bermeetan pentsatuta, energiarako eskubideari buruzkoa. Zentzu horretan, erregulazioari dagokionez, Espainiako Estatuan soilik argindar sektoreari buruzko 24/2013 Legea dago, eta eskasegia den bonu soziala.

#### 2.1.2. Egoera zaurgarrian dauden kontsumitzaileei buruzko europar zuzentzarauak

2009/72/CE eta 2009/73/CE zuzentzarauak, 2009ko abuztuaren 14koek (3rd Energy Package ere deitutakoak), helburu nagusitzat dituzte energia-merkatua babestea eta, aldi berean, egoera zaurgarrian dauden pertsonak babestea ere: “Egoera zaurgarrian dauden kontsumitzaileak babesteko edozein mekanismo bat etorri behar da merkatuaren funtzionamendu lehiakorrarekin, eta kontuan hartu behar ditu EBko estatu-kideek dituzten gizarte politikarako neurriak. Halaber, lehiakortasunak ez luke ongizate galera ekarri beharko, bereziki zaurgarritasun egoeran dauden herritarren kasuan”(VCWG 2013).

Zuzentzarau horien bidez EBko estatu-kide guztiei eskatzen zaie kontsumitzaile zaurgarri kontzeptua definitu dezatela, eta ziurtatu dezatela nahikoa berme dagoela haiek babesteko. Lege horiek EBko estatu kideei adierazten diete beharra dagoela estatu bakoitzeko energia-merkatuetan zaurgarritasuna areagotzen duten faktoreak identifikatzeko eta zuzentzeko. Hala ere, arau pakete honek estatuek hartu behar dituzten neurriak aipatzen ditu, baina kasu gehienetan enpresa hornitzaileek kudeatzen dituzte zerbitzu horiek, dela kontzesio-erregimenean, dela eredu gutziz liberalizatuetan. Horrela, gobernuek enpresa horiei exijitu behar diete zerbitzuen prestazio egokia bete dezatela, kontuan hartuta txirotasun energetikoaren gisako arazoei eskaini beharreko arreta.

Zuzentzarauen mugetako batek funtzio bikoitzarekin du zerikusia; izan ere, merkatua babestearen ondorioz, maiz, egoera zaurgarrian dauden pertsonak ez dira babesten. Bestalde, ez dago argi nola ezarriko diren zuzentzari horiek aurreikusten dituzten babes-neurriak, ezta zeintzuk diren exijentzia hori betetzeko mekanismoak. 2009/72/CE Zuzentzariaren 3.2 artikulua da horren adibide bat, Espainiako Estatuak ez baititu betetzen bertan jasotakoak:

*“EBko kide diren estatuak, interes ekonomiko orokorraren izenean, argindar-enpresei inposatu ahalko dizkiete zerbitzu publikoko betebeharrak, hainbat arloren ingurukoak: segurtasuna (horniketaren segurtasuna barne), erregulartasuna, horniketaren kalitatea eta prezioa, ingurumena zaintzea (energia-eraginkortasuna, energia berriztagarria eta klimaren babesa barne). Zerbitzu publikoen betebeharrak argi definitu beharko lirateke, eta gardenak, ez-diskriminatzaileak eta kontrolagarriak izan beharko lirateke, EBko argindar-enpresa guztiei baldintza berdinetan kontsumitzaile nazionalengana iristea bermatzeko”.*

### 2.1.2. Argindar-sektorearen legearen eta bonu sozialaren babesik eza Espainiako Estatuan

Argindar-sektorearen 24/2013 legeak arautzen du Espainiako Estatuan sektore honen jardunaren marko legala. Praktikan, lege honek argindar-merkatuaren liberalizazioan sakontzen du, eta energia “interes ekonomiko orokorreko zerbitzua” dela dio. Horrela, argindarra ez da zerbitzu publikotzat hartzen, eta ondorioz, merkatua babestea da lehentasuna.

Egoera zaurgarrian dauden kontsumitzaileak babestea, energiaren arloan, ez da Espainiako legeetan txertatu 2017. urtera arte, eta soilik argindarrari dagokionez burutu da (7/2017 ELD), hain zuzen ere 2009/72/CE eta 2009/73/CE zuzentzariak 2009. urtetik transposizioa eskatzen zutenean argindarrari eta gasari dagokienez. Kontsumitzaile zaurgarriak babesteko legean egindako aldaketak ez dira nahikoa; areago, beste trikimailu politiko bat dira, eta urrun daude babes eraginkorrerako mekanismo izatetik. **Errege Lege Dekretua (ELD) baino lehen, familiak horniketa-mozketengandik babesteko neurri bakarra “ezinbesteko” horniketetan aplikatzen zen, bizi-euskarri ziren tresna elektrikoek kasuan, alegia**<sup>129</sup>. Halaber, “babes neurritzat” hartzen zen bonu sozial eskasa (KTBParen)<sup>130</sup>

129 Etxebizitzen kasuan, honakoak dira ezinbesteko horniketatzat hartzen dena: “Etxeko edozein horniketa, baldin eta mediku batek formalizatutako dokumentu batek jasotzen badu argindarra ezinbestekoa dela pertsona batek bizirik iraun dezan ezinbesteko mediku tresneria elikatzeko” (24/2013 legea, abenduaren 26koa, Argindar-Sektoreari dagokiona). Pertsona batek gauzez ondo arnasteko beharrezko izan ditzakeen makinei aplikatu ohi zaie. Artikuluaren esaldiagatik antzeman daiteke oso interpretazio murriztailea egiteko borondatea dagoela.

130 Kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa, potentzia eta energia terminoek eraturakoa.

terminoei atxikitutako fakturaren zatiaren %25eko deskontuan zetzan babes neurriak, eta merkatu arautuko tarifak dituzten pertsoneri zuzentzen zen soilik). Bonu soziala soilik balizko onuradunen %40k jasotzen zuten; diru-sarrerekin edo gaurko zaurgarritasun kasuekin zerikusirik ez zuten irizpideen arabera zen.

7/2017 ELDan 3 taldeko sailkapen korapilatsua proposatzen da: Zaurgarritasuna, zaurgarritasun larria eta zaurgarritasun larria gizarte-bazterkeria arriskuarrekin. Sailkapen horrek mozketak geldiarazteko mekanismoa (soilik hirugarren taldeari dagozkion kasuetan) ezkutatzen du, horrela administrazio publikoek, gizarte-zerbitzuen bidez, pilatutako fakturak ordaindu ditzaten. Lehenengo eta bigarren taldeen kasuan bonu sozial zabalago bat eskaintzen du ELDak. Horrela, aipatutako deskontua %25ekoa izatetik %50koa<sup>131</sup> izatera pasatzen da (berriro ere, soilik fakturaren zati bati aplikatuta); ez da mekanismorik bermatzen laguntza hori jasotzeko tramiteak errazteko, eta ez da oligopolioa jotzen arduradun barkartzat. Gainera, praktikan, errenta-mugak ez dira nahikoa<sup>132</sup>, eta ez dira heltzen Kataluniako Parlamentuko 24/2015 legeak eskaintzen duen babesa eskuratzera; lege horrek barne hartzen ditu etxebizitza behar larriaren eta txirotasun energetikoaren aurkako premiazko neurriak<sup>133</sup>.

Gizarte-zerbitzuetako zuzendari eta kudeatzaileek ohartarazi dute ELDak izan ditzakeen ondorioez, kontsumitzaile zaurgarriei zuzendutako babes-neurriak eta bonu sozialaren erreforma aldatzen baititu Espainia mailan<sup>134</sup>. Kritikatu dute zenbait egoera positiboki diskriminatzen direla (familia ugariak adibidez, diru-sarrerak gorabehera) baina askoz ere gogorragoak diren beste egoera batzuk (ama bakarreko familiak edo bakarrik bizi diren pertsonak) ez direla kontuan hartzen. Halaber, ohartarazi dute errege dekretuko neurrien kostu totalak ez duela ondorio zuzenik estatuko aurrekontuetan, aurrekontu partidak areagotu behar direla adierazten duen kostu jakinik ez dagoelako, **baina maila lokalean asko eragiten duelako aurrekontuetan; izan ere, udalak dira (haien arteko lurralde-desperekotasunak barne) auziaren azken ondorioaren ardura dutenak.**

131 Zenbaitetan %40koa.

132 Horniketa-mozketen aurkako babes-neurriak soilik eskaintzen dira zaurgarritasun zorroztza gizarte-bazterkeria arriskuarrekin pairatzen duten kontsumitzaileen kasuan (399,38€ baino baxuagoko errenta dutenak; familia ugarien kasuan gehienez 1.065€-koa izan daiteke errenta). Betiere dagokion autonomia erkidegoak edo udalak fakturaren %50 ordaintzeko konpromisoa hartzen badu (bonu sozialaren deskontua baino lehen).

133 Lege honek, gainera, "zuhurtasun-printzipio" deritzona barne hartzen du. Horrek horniketa moztea debekatzen die konpainiei, baldin eta ez badute lehenago gizarte-zerbitzuetara jotzen faktura ordaindu ez duten familien inguruan jakiteko. Zalantza egotekotan ez da horniketarik mozten, eta enpresak dauka gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzeko ardura eta, halaber, familiari bere eskubide eta bermeen inguruan informatzekoa. Antzeko legeak ere aurkeztu izan dira Valentziako Erkidegoa, Murtzia, Arago edo Balearretan.

134 <http://www.directoressociales.com/prensa/406-bono-social-eléctrico.html>

### 2.1.3. Mendebaldeko Saharari buruzko epaiak eta kontsulta-iritziak

#### 1975eko Nazioarteko Justizia Auzitegiaren kontsulta-iritzia

1974an Nazio Batuen Batzar Orokorrak eskatu zuen, Marokok eta Mauritaniak hala proposatuta, 1975eko urriaren 16ko Nazioarteko Justizia Auzitegiari Mendebaldeko Saharari buruzko kontsulta-iritzia. Eskaera horren helburua zen NBE-ko Batzar Orokorrari aholku ematea, Batzarrak berretsi zezan Mendebaldeko Saharako lurralde ez autonomoa deskolonizatzeko autodeterminazio-erreferendumerako prozedura, edo, aitzitik, erabaki zezan prozedura hori aldatu behar zela Maroko eta Mauritaniaren eskaerei jaramon eginez, bi herrialdeek argudiatzen baitzuten autodeterminazio-printzipioa aplikatzea beren “lurralde-osotasunaren” aurka zegoela. Nazioarteko Justizia Auzitegiak, kontsulta-iritzi honen bidez, aho batez erabaki zuen **Mendebaldeko Sahara Espainiak kolonizatu zuen unean ez zela terra nullius deritzon lurraldea (jaberik gabeko lurraldea) eta ez Marokok ezta Mauritaniak ere ez zutela subiranotasun eskubiderik beregain:**

*“Aurkeztutako elementuek eta informazioak ez zuten frogatzen lurralde-subiranotasuneko harremanik zegoenik Mendebaldeko Saharako lurraldearen eta Marokoko Erresumaren edo Mauritaniaren artean. Hortaz, Auzitegiak ez zuen frogatutzat eman lotura juridiko nahikorik zegoenik 1514 (XV) ebazpena aldatzeko Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioari zegokionez, eta zehatzago, herritarren borondatearen egiazko adierazpen librearen bidezko erabakimen askearen printzipioari zegokionez.”*

Horrela, Nazioarteko Justizia Auzitegiak ebatzi zuen oraindik ere aplikatu zitezkeela **Nazio Batuen Batzar Orokorraren 1514 (XV) ebazpena**, herrialde eta herri kolonialen inguruko independentziari buruzkoa.

#### Europar Batasuneko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia

2016ko abenduaren 21ean Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sala Nagusiak epaia eman zuen balio gabetzeko urtebete lehenago EBko Auzitegi Orokorreko 8. Salak emandako epaia. Epai horren bidez irmoago bermatzen da Saharako herriaren autodeterminazio-eskubidearekiko errespetua.

Batetik, argi uzten du Mendebaldeko Sahara ez dela Marokoren parte, eta hortaz EBren eta Marokoren arteko hitzarmenek ezin dute Mendebaldeko Sahara barne hartu. Sahararrek ez dute adostasunik adierazi EB-Maroko hitzarmenean sartu daitezzen, eta hortaz, Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, nazioarteko bi eragilek ezin dute hirugarren bati eragiten dion ezer adostu hirugarren horren adostasunik gabe:

*“Itunenganako eragin erlatiboari dagokion Nazioarteko Zuzenbide printzipioari jarraiki, Vienako Konbentzioaaren 34. artikulua dakarren araua adierazpide zehatza duena, itunek ezin dute hirugarrenenganako ondorio ez positibo ez negatiborik izan haien baimenik gabe”.*

Bestalde, epai honen ondorioa da ere sahararrek autodeterminazio-eskubidea izan dezatela, eta Fronte Polisarioa izan dadila sahararren ordezkaria.

Espainiako Estatuarentzat ere ondorioak ditu epai honek. Espainiako Estatuak EBren aurrean eskatu zuen Ozeano Atlantikoaren bere eskumeneko urak mugatzea, Kanaria uharteen inguruan zehazki. Marokok zalantzan jarri zituen Espainiako Estatuak proposatutako mugak, Mendebaldeko Saharako urak, Marokok “berek” balira bezala aurkeztu zituelako. Ondorioz, zilegitasuna galtzen du guttiz Marokoren eskaerak.

Finan, epai hori bereziki garrantzitsua da agerian uzten duelako Marokoren “lurralde-osotasunak” ez duela barne hartzen Mendebaldeko Sahara. Marokok merkataritza askeko hitzarmena egiteko eskaeraren fede ona egiaztatzeko (Nazioarteko Zuzenbidean beharrezkoa baita), Afrikako Batasunak galdetu diezaioke Marokori argitzeko zein den bere “lurraldea”. Adierazten badu bere lurraldea ez dela nazioarteak aitortzen duena, “fede ona” delakoa ezin izango litzateke frogatu. Vigeo Eiris<sup>135</sup> (Erresuma Batuko Eiris eta Frantziako Vigeoren arteko fusioa), Siemens (Alemania), Enel (Italia) eta San Leon Energy (Irlanda) enpresak, antza, epai hori urratzen ari dira.

#### **2.1.4. Nazioarteko Zuzenbidea eta ETNen zigorgabetasun logika**

PEmpresa transnationalei (ETN) dagokienez, marko legegile loteslerik ez dagoenez, badaude Dismantle Corporate Power sarea bezalako kanpaina globalak. Halakoek urteak daramatzate Nazio Batuetan eragile izaten hitzarmen lotesle bat onartu dadin ETNei erantzukizuna ematen diena giza eskubideen arloan: *“Enpresa transnazionalak, beren bazkideak eta hauteskunde-kanpainetarako donazioen bidez lagundu dituzten gobernuak, edo legalki zein ilegalki (hainbat ustelkeria eta mesede motaren bidez) zuzenean beregain hartu dituzten gobernuak, edo inbertsioak aginduz (baita egingo ez dituztela esanez ere) xantaia egin dieten gobernuak: guzti horiek erantzukizun sozial korporatiboko neurriak sustatzen dituzte, edo Ruggieren printzipioetan oinarritutako ekintza-plan nazionalak bultzatzen, Iparraldeko herrialdeetako baina bereziki Hegoalde globaleko giza eskubideen urraketa sistemati-*

<sup>135</sup> Vigeo Eiris enpresak bonu berde deitutakoei ziurtagiria eman die Marokoko Eguzki Energia Agentziarentzat (MASEN), Mendebaldeko Sahara okupatuko bi lekutan eraikiko diren bi eguzki-energia proiektu marokorretara bideratutakoak (WSRW 2017).



*koak kezkatzen dituelako irudia emateko. Eta aldi berean, estatu batzuk, mundu osoko erakundeen, sareen eta gizarte-mugimenduen laguntzarekin, enpresa transnazionalen zigorgabetasuna ezabatzeko hitzarmen bat egiteko lanean ari dira.*<sup>136</sup> Megaproiektu energetikoen inguruko planek ere transnazionalen boterea eta zigorgabetasuna behar dute. ETNen kostuak igo egingo lirateke demokrazia sakon batean, beren ekintzak justifikatu beharko balituzte; horrek haien pribilegioak murriztuko lituzke, lurralde-ekonomiak ber-zuzenduko lituzke eta, batez ere, inoiz egin ez den zerbait ekarriko luke: enpresa horien irabazi-kuota murriztea.

2014ko ekainean **Giza Eskubideen Kontseiluak 26/9 ebazpena hartu zuen, enpresa transnazionalentzako nazioarteko tresna legal lotesle bat egiteko, giza eskubideen arloan.** Mendebaldeko Saharan kasu, horrelako hitzarmen baten bidez posible litzateke erantzukizunak eskatzea Marokorekin batera lurraldeak okupatzen, baliabideak espoliatzen eta giza eskubideak urratzen dituzten ETNei.

Beste maila batean ere sustatu izan dira ekimen legal edota legitimoak, esaterako Herrien Auzitegi Iraunkorra edo lurraldeetan proiektuak ezartzeari buruzko kontsulta komunitarioak, komunitatearen iritzia jakite aldera<sup>137</sup>.

Mendebaldeko Saharan, adibidez, 2016ko azaroaren 30ean ACA Power-ek kontsulta bat egin zuen, Ouerzazate, Aaiun eta Bujadorreko 170 MW-eko eguzki-zentral bati buruz (azken bi horiek Mendebaldeko Saharan), baina Marokoko poliziak ez zien sahararrei kontsultan parte hartzen utzi. Horrez gain, ez dago argi zein den enpresa sustatzaileek antolatzen dituzten kontsulten helburua, kon-tuan hartuta sahararrek adierazi dutela ez dietela utzi halako kontsultetara sartzen (WSRW 2016c).

## 2.2. Eskubide-urraketa eta ondorioak

Zein eskubide-urraketa gauzatu dira aztertutako kasuetan? Zein ondorio ari dira pairatzen pertsona zein lurralde kaltetuak? Zein ondorio dute eta nola eragiten dute urraketa horiek pertsonen bizitzan?

Aztertutako kasuak ikusita, nabarmena da enpresa handien zerbitzura dagoela energia, edo nolana ere, elite ekonomiko eta politikoen zerbitzura, alde batetik bestera pasatzen baitira lapurtu dituzten baliabideen kontrola behin ere galdu

136 <http://www.stopcorporateimpunity.org>

137 Guatemalan nahiko zabaldua dago lurraldeari buruzko kontsulta komunitarioak egiteko ohitura. 2004-2014 tar-tean, 114 kontsulta burutu ziren: Zementu-fabrika bat, 7 zentral hidroelektriko, 101 meatzaritza proiektu, meatzaritza eta megaproiektu bat, meatzaritza eta kable elektrikoan 2 proiektu, petrolio proiektu bat eta lurralde proiektu bat.

gabe. Baliabide eta aberastasunen erauzketaz ari gara, eta hortaz, baliabide horiek hobetu ditzaketen bizi-baldintzak kontzienteki oztoptazeaz.

Txosten honetan aztertutako urraketek, gainera, genero desparekotasunari ere eragiten diote; gizon eta emakumeek ondorio ezberdinak pairatzen dituzte, energia-eredua ere heteropatriarkala den seinale. Era berean, energia-eredu hau eta dagokion logika merkantilista lotuta dago balio “maskulinoekin”. Balio horiek hainbat botere-espaziotara iragazten dira, hain zuzen energia-politikak erabakitzen diren espazioetara, bai estatu mailan baita mundu mailan ere. Liderren jarreran zein politika horien edukietan balioa ematen zaie “maskulinitasun” horri lotutako rolei: lehiakortasuna, indarra, menderatzea, “objektibotasunez” mozorrotutako pentsamendu bakarra edo konfrontazioa legitimotzat eta beharrezkotzat hartzen dira. Ekuazioaren beste aldean, gutxietsi egiten dira gizarteak berez femeninotzat dituen balioak: zaintza lana, zaurgarritasunei arreta jartzea edota bizikidetzeta.

### 2.2.1. Norberaren aberastasunak eta baliabideak askatasunez erabiltzeko eskubidea

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (ICESCR, ingelesezko siglengatik) lehenengo artikulua arabera, *“beren helburuak lortzeko, herri guztiek askatasunez eduki eta erabili ditzakete dagozkien aberastasun eta baliabide naturalak, nazioarteko zuzenbidean zein elkarrekiko etekinen printzipioan oinarritzen den nazioarteko lankidetzeta ekonomikoaren ondoriozko betebeharrak kaltetu gabe. Inola ere ezingo zaizkio herri bati dagozkion bizibideak ukatu”*.

WSRW (2016a) erakundeak askotan salatu du Mendebaldeko Saharan nabarmen ukatzen dela norberaren lurraldeko aberastasunak eta baliabideak erabiltzeko eskubidea, eta agerikoa dela ere eskubide hori defendatu edo erabili nahi izatekotan dauden zailtasunak (presentzia militarra, ondorio penalak, torturak, desagerpenak, erailketak).

**Lurraldeen okupazioaren eta zatiketa fisikoaren ondorioz, ezinezkoa da energia-baliabideak ordezkatzeko dituzten aberastasunak eskuratzea.** Sahararren erdia errefuxiatu bizi da Aljerian: ez dute zuzenean elikagaiak jasotzeko aukerarik, ezta Mendebaldeko Saharako baliabideek sortutako etekinak zeharka eskuratze-ko modurik ere.

Egoera horrek honako ondorio eta eraginak sortzen ditu: Marokoko Erresuma aberastea, burujabetza ez duen lurralde bateko baliabide naturalak saltzearen kontura, eta okupazio hori bera erabiltzea lurraldean duen presentzia ilegala gehiago onartu dadin (eta zonalde horretan kolono marokoarrak finkatzen jarraitzea). Ustiatzen diren baliabide berriztaezinen kasuan, Marokoko gobernuak erabiltzen

dituenez, baliabide gutxiago geratzen dira sahararrek erabili ditzaten; nolana ere, sahararrek ez dute eskubiderik baliabideekin zer egin erabakitzeke. Halaber, Espainiako Estatuan ere baliabideez gozatzea ukatzen dela esan dezakegu. Zehatzago, auzitegi honetan aztertutako Iruñeko familiaren kasuan, ukatu egiten zaie energia-baliabideez gozatzea, kudeaketa pribatizatu egin baita.

**Energia sektorea botere-eremua da, non pertsonen eta planetaren bizitzari zuzenean eragiten dieten erabakiak hartzen diren. Hartara, energia-baliabideen gainean (ustiaketa edo kontserbazioaz, kWh kopuru jakina sortzeaz, zein iturritatik datozen, zein lurraldetan ezarri azpiegiturak, zertarako, etab.) kontrolik ez izateak, zuzenean eragiten du gure bizitzaren baldintza materialengan.**

Botere-eremu hau energia-baliabide naturaletan materializatzen da eta patriarkatuak kontrolatzen du. Energia-diagnostikoak gizona zkoek egin ohi dituzte. Diagnostiko hauetatik emakumeak baztertzeko (baita ikuspegi eko-feminista batetik ere) esan nahi du ziurrenik ez dugula argazki erreal eta osoa lortuko. Logika honen bidez, eztabaidatik eta agenda politikotik kanpo geratzen dira emakumeengan eragin zuzena duten kontuak, oinarrizko beharrak. Genero-ikuspegia diagnostikoetatik kanpo geratzen da, eta baita ustezko konponbideetatik kanpo ere. Esaterako, lanpostuak sortzeari dagokionez energia berriztagarriek eskaini ditzaketen aukerak, emakumei bizkarrez eraten ari dira; erraz ondorioztatu daiteke, hortaz, aukera horietatik kanpo geratuko direla emakumeak, prestakuntzan pairatzen duten eta zuzentzen ez den bazterkeria dela eta (del Campo 2017).

Baliabideen —baita energetikoen— erabilerari buruzko erabakiak, historikoki, emakumeen parte hartzetik urrun hartu izan dira. Desparekotasun horren aurrean, pertsona guztiek (gizon, emakume eta Iparralde zein Hegoalde globaleko herriak) baliabide horiek erabiltzeko eta horiei buruz erabakitzeke eskubidea bermatu behar da, bizi-baldintza hobek izateko eta hirugarrenei negatiboki eragin ez diezaion.

### **2.2.2. Autodeterminazio-eskubidea eta lurra izateko eskubidea, oinarrizko beste eskubideen berme gisa**

Saharak autodeterminatzeko ezintasuna du, eta ondorioz, bitartean, Marokok Mendebaldeko Saharako baliabide ustiapenari probetxua atera eta aberastu egiten da. Ondorioz, kalte sozial, ekonomiko, ambiental eta kulturalak eragiten dizkie sahararrei, baliabide horiek ukatuta. Horrela, aipatutako Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak eta baita Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunak (ICCPR, ingelesezko siglengatik) ere jasotzen duten autodeterminazio-eskubidea larriki urratzen da (WSRW 2016a).

WSRW erakundearen arabera (2016a), **Marokok Mendebaldeko Saharako lurrrak eta baliabideak erabiltzea ilegala da, Marokoren jarduna ez dagoelako bideratuta sahararrei dagokien autodeterminazio-eskubidearen alde laguntzera; aitzitik, eskubide hori gauzatzea ekiditen du Marokok.** Marokok lurralde hori aldarrikatzen jarraitzen du, nahiz eta duela hamarkada asko Nazioarteko Justizia Auzitegiak lurralde horretan duen burujabetza ukatu zion. Horrek agerian uzten du Marokok ez duela lurralde horietatik aldentzeko inolako asmorik. Lurraldeen okupazioaren bidez, Marokok ekiditen du Mendebaldeko Saharan erreferendum librekoa, bidezkoa eta gardena antolatzea, zeinaren bidez sahararrek erabaki ahal izango duten, besteak beste, beren estatus politikoa eta adostasuna —aldez aurretikoa, librekoa eta informatua—; horrela, askatasunez gozatu eta erabili ditzaten beren aberastasunak eta baliabide naturalak.

**Lurraldea izateko eskubidea<sup>138</sup> ere oso lotuta dago autodeterminazio-eskubidearekin, baita bestelako eskubideekin ere: elikadura, lana eta segurtasuna izateko pertsonen eskubidea, eta baliabideak zaintzeko eskubidearekin, alegia.** Lurra izateko eskubidea bermatuta izatea funtsezkoa da bizitzeko lurra eta luraren baliabideak behar dituen munduko jende gehienarentzat. Hiri-eremuari dagokionez, bereziki hirietako pertsona txiroentzat, luraren gaineko eskubideak aitortzea oinarrizkoa da etxebizitza egokia izateko eskubidea babesteko, eta zehatzago, oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko bestelako ogibideak eskuratzeko. Eragina dauka ere bestelako oinarrizko zerbitzuengan, urarengan esaterako. Milaka sahararrek ezin dute ur edangarria eskuratu (Le Matin 2002, AFASPA eta France Libertés-ek aipatua 2002).

Aipatzekoa da lurra izateko oztopoek Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuak kaltetzez gain, marokoarrak ere kaltetzen dituela. Aipatutako Nareva Holding enpresak sustatutako parke eolikoak eraikitzeo (Tarfayaren kasuan, adibidez, Afrikako parke eolikorik handiena izango dena) artzaintza-lurrrak desjabetzen dituzte. Eskubide hau defendatzeko saiakerak atxiloketa eta espetxeratzeeekin erantzuten dituzte, aitzakia gisa jarrita ez daukala zentzurik erregearen proiektuen aurka joateak. Mendebaldeko Saharan arazo horiek are konplexuagoak dira: Marokoko Gobernuak lurralde okupatuak erabiltzen jarraitzen du, eta horrela are gehiago oztopatzen du sahararren lurra izateko eskubidea.

138 ICESCR hitzarmenaren 11. artikuluko erreferentzia egite die lurra izateko eskubidearen alderdi batzuei, baina oraindik ere eskubide honi buruzko interpretazio zehatzagoa egin beharra dago: "ez dago itun edo adierazpenik erreferentzia egiten dionik lurra izateko giza eskubideari; zentzu hertsian, nazioarteko zuzenbidean ez da existitzen lurra izateko giza eskubidea. Hala ere, hori gorabehera, lurra izateko eskubidea giza eskubideen funtsezko alderdia da. Eskubide hori oinarrizkoa da elikagaiak eta etxebizitza eskuratzeko, zein garapenerako; lurrik gabe, herri askok segurtasun falta ekonomiko handia daukate" (Gilbert 2013).

**ONDORIOAK ETA ESKUBIDEEN ARTEKO LOTURAK:  
BALIABIDEAK ERABILTZEKO ESKUBIDEA,  
AUTODETERMINAZIO-ESKUBIDEA ETA LURRA IZATEKO ESKUBIDEA**

Lurra eta lurraldearen defentsa, funtsean, lehenengo mugaren defentsa da, muga hurbilenaren defentsa, zeinaren barruan bizitza eta duintasuna mantendu nahi diren. Landa-eremuko herritarrek, emakumeek bereziki, hainbat indarkeria- eta zapalkuntza-mota pairatzen dituzte (matxismoa, arrazakeria, neokolonialismoa, txirotasuna, etab.). Hori dela eta, bizitza bera defendatzeko saiakerak —hau da, gorputzak lehenbiziko gudu-zelai gisa—, berarekin dakar lurra, lurraldea eta munduko bizitza defendatzea. Gorputzak lurralde hori behar du ondo bizitzeko, eta ikuspegi horretatik errespetatzen du eta babestu nahi du. Zentzu horretan, egokia da feminista komunitarioen ikuspegia plazaratzea: lurraldeen zein gorputzen gaineko burujabetza berreskuratzeko beharra, sendatu daitezen eta haien inguruan erabakiak hartzea posible izan dadin.

Halaber, txirotasun energetikoaren aurkako borrokan, nolabait, lurralde-gorputzen defentsaren alde borrokatzen da, maiz emakumeek zuzenduta. Izan ere, historikoki, emakume indigenak lehenak izan dira elkar gurutzatutako hainbat zapalkuntza ezkutatzen dituen logika kolonialistarekin apurtzeko hausnarketa proposatzen. *“Haien antolaera-prozesu komunitarioetatik abiatzen diren hausnarketetan ohikoa da elkarlotzea lana, generoa, natura eta botere politikoa. Gorputz-lurraldeak defendatzeak jarrera hartzera bultzatu ditu bestelako lidergoekin izandako eztabaidetan, direla komunitateko agintari maskulinoak, buruzagi nekazariak, emakume ladinoak edo agintari publikoak. Inolako botere-gebiegikeria edo indarkeriarik ez pairatzeko autoestimu-bizipen berriek eragin dute emakume indigenak gero eta gehiago antolatzea. Horren ondorioz, gatazka komunitarioak bizi izan dituzte, pairatu dituzten arauak deseraiki nahi izan dituztenean; hain zuzen, zaintzapean, itxita, zigortuta eta zelatatuta bizitzera behartu dituzten arauak”.* (Palencia 2017)

### **2.2.3. Etxebizitza egokia izateko eskubidea**

ICESCR hitzarmenaren 11. artikulua aitortzen du pertsona orok eta bere familiak eskubidea dutela bizi-maila egokia izateko, barne hartuta elikadura, jantziak eta etxebizitza, eta baita bizi-baldintzen etengabeko hobekuntza ere. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak etxebizitza-eskubidearen inguruko edukia garatu du hainbat Ohar Orokorren bidez. Hain zuzen ere, 4. oharrean zehaztu ditu **etxebizitza bat “egokia” izan dadin bete behar dituen baldintzak:**

**uneoro eskuragarri izatea baliabide naturalak eta komunak, edateko ura, eta sukalderako, berogailurako zein argindarrerako energia.**

Eskubide jakin horiek hainbat betebeharrak sorrazten dizkiete administrazio publikoari. Zentzu horretan, 3. Ohar Orokorrek zehazten du ahalegin posible oro egin behar dela eta beharrezko baliabide guztiak bildu behar direla eskubide horiek asetzeko; horrela, administrazioen zein banakoen (hala nola, enpresak) gehiegikerien aurrean, lehenetsuna eman behar zaie kolektibo zaurgarrienei.

Zoritxarrez, Mendebaldeko Saharan etxebizitza egokia izateko eskubidea gorago aipatutako eskubide-urrauketek baldintzatzen dute: norberaren aberastasuna eta baliabideak askatasunez erabiltzeko eskubidea, autodeterminazio-eskubidea eta lurra izateko eskubidea.

Auzitegi honetan aztertutako txirotasun energetikoari buruzko kasuak ikusita, eta Espainiako Estatuko antzeko familien kasuan ezagututa ere, argi geratzen da **lotura dagoela txirotasun energetikoaren eta etxebizitza problematikaren artean** (Bouzarovski et al. 2012, Gonzalez 2017). **Maiz, halako familiek etxegabetze prozesu bat pairatu dute edo pairatzen ari dira, edo etxebizitza baldintza prekarioetan daukate. Areago, zenbait familiak beren burua behartuta ikusi dute dagokien jabetza- edo alokairu-titulurik gabeko etxebizitzak okupatzera, kalean ez geratzeko.** Duintasunez bizitzeko etxebizitza ez edukitzearen ondorioz, maiz txirotasun energetikoko egoerak sortzen dira. Areago, Rosa eta Santiagorena bezalako kasuetan, nahiz eta alokairu sozialeko etxebizitza eskuratu, hilabete amaierara heltzeko borrokan ez dago ekonomikoki errekuiperatzeko astirik energia-horniketaren prezio altuengatik eta kontsumoaren eta fakturen arteko lotura eskasarengatik. Egoera horren berehalako ondorio materiala da familiak aukeratzera behartuta daudela: ur-, argindar- eta gas-fakturak ordaindu, ala hilabete eza ordaindu. Horrela, bizi-maila egokia izateko oinarrizko baldintzak asetu ahal izatea —adibidez, oinarrizko horniketara— beste alderdien kalterako da, elikaduraren kalterako adibidez. Elikadura ordaintzearen gainetik zerbitzuak ordaintzea aukeratzera, ageriko beldur baten ondorio da: energia-horniketara berehala moztearen beldurra, edo fakturak ez ordaintzeagatik konpainiek telefono bidez egiten duten jazarpenaren beldurra. **Oinarrizko zerbitzuak atzerapenik eta mozketarik gabe ordaintzeko lasterketa balentria itzela da diru-sarrera gutxi dituzten familientzat. Horrela, aurrera ateratzeko burokrazia onartzen dute (Subirats 2016) eta datorren hilabetean gauza bera gertatuko den zalantzarekin bizitzera ohitzen dira.**

Nafarroako Gobernuak diru-laguntzen programak eskaintzen ditu familia zaurgarrien beharrak asetzeko, oinarrizko energia-horniketari dagokionez. Batetik,

**laguntza bereziak** eskaintzen ditu urtarrila eta azaroa artean: 1,45 milioi bideratu ziren 1.953 familiaren oinarrizko beharrak artatzeko —horietatik 550 familiak laguntzak jaso dituzte oinarrizko energia-horniketaren gastuak ordaintzeko, 236.779 eurotan estimatuak—. Horrela, laguntza berezi horietan edozein egoera behartsu sartzen da, eta horren bidez ordaintzen dira ere pilotutako fakturak, horniketa-mozketak ekiditeko. Ezin dugu ahaztu faktura horien zenbatekoa maiz ez dela bidezkoa (gehiegizko potentziak, beharrezkoak ez diren kontzeptuak ordainaraztea, aldeztu aurretik informatu gabe merkatu libreria pasatu diren kontratuak, etab.). Bigarrenik, **larrialdietarako laguntzen** programatik ere funtsak bideratzen dira: 2017an 2 milioi euroko aurrekontua izan zuen programak, zeina oinarrizko gizarte-zerbitzuek kudeatzen duten (udaletatik). 2016an larrialdi-laguntzetara 1,56 milioi euro bideratu ziren 3.240 familiarentzako (9.604 pertsona), hainbat behar asetzeko: alokairua edo hipoteka ezin ordaintzea, txirotasun energetikoa, osasun-, hezkuntza- edo elikadura- beharra. Kalkuluen arabera, 2017an 500.000 euroko larrialdi laguntzak bideratuko dira 1.500 familia artatzeko, hau da, 333 euro familia bakoitzeko (Martinez eta Martinez 2017).

Ez dago argi zein den familia bakoitzak atzeratutako fakturak ordaintzeko jaso dezakeen gehieneko diru-kopurua; horrela, praktikan, **horniketa-mozketa hila-bete bat edo bi atzeratu daiteke, baina ez gehiago, ez badago funts nahikorik gehiago ordaintzeko**. Oinarrizko horniketara bideratutako funts horiek erabiltzearen ondorioz, gainera, aurrerago sor daitezkeen bestelako oinarrizko beharrak asetzeko funtsa murriztu daiteke. Finean, txirotasun energetikoa betikotzen da, hila-betero errepikatzen da, eta ez da errotiko konponbide edo bermerik eskaintzen.

#### 2.2.4. Energia-eskubidea

Eskubideen logikan oinarritzen den diskurtsoak gero eta gehiago hartzen du energia “bigarren mailako” eskubidetzat; mota horretako eskubideen bidez, mundu osoko herritarren behar sozioekonomikoak edo ongizatezkoak, politikoki adierazgarriak, asetzeta da asmoa. Nazioartean eta eskualde mailan artikulatutako energia eskubideak honakoa argudiatzen du: *“energia ez da merkantzia hutsa, eta estatu-eragileek zein energia hornitzeko ardura duten beste batzuek betebeharrak dituzte zentzu horretan; horrela, energia kontuak merkatu harremanez (bidegabeen) harago joan behar dute”* (Walker 2016). Zentzu horretan, energia eskubidea zertxobait moldatuz gero, oinarri hartuta adibidez ura eskuratzeko eskubidea, agerian geratzen da energia ez dela gauza bakarra, baizik eta gauza asko dela aldi berean (hainbat baliabide eta iturririk dator), eta hortaz, beste trataera bat behar duela. **Zerbitzu askok sortzen dute energia, baliabide naturalen fluxuek prozesuan parte hartzen dute, etab. Ondorioz, gerta liteke energia sustatzea bermatu gabe pertsona zaurgarrienek eskuratu dezaketela, edo kontuan hartu gabe**

**fosilekiko mendekotasuna duten ekoizpen-ereduen erreprodukzioa.** Zentzu horretan, egokiak dira, hain zuzen ere, oinarrizko beharrak asetzeko argindarra erabiltzeko eskubidea aipatzen duten ikuskerak, pertsona bakoitzaren egoera sozioekonomikoa edozein dela ere (IDHC Kataluniako Giza Eskubideen Institutua 2007 eta 2009). Horrez gain, behar horiek zehazten dituzte (argia, beroa, etab.) eta kontuan hartzen dute kontsumo horrek mundu-mailan duen izango duen eragina eta behar dituen baliabideak (Walker 2016).

Zentzu horretan, legitimoa da sahararrek beren baliabide energetikoez hornitzea aldarrikatzea, horrela energia eskubidea bermatzeko aukera baitago. Aldarrikapen horrekin batera joan behar da baliabide naturalak arduraz erabiltzea, eta ingurumena eta datozen belaunaldiak errespetatzea.

Energia botere-eremua da: energiari buruzko erabakien menpe daude gure bizitzako alderdi asko, eta zoritxarrez, oso sektore etekintsua bihurtu da baliabide horiek ustiatzen dituzten enpresa eta estatuentzat. Hain zuzen ere horregatik mantentzen dituzte herritar xumeak energia-sektorearen funtzionamendutik urrun, sistema hori ulertzetik aldentuta; horrela, enpresa horiek finkatutako prezioak ordaindu ezin dituztenei energia eskubidea ukatzen zaie. **Historikoki emakumeak energia-eremutik aldentuta egon dira, komeni izan den arte. Irakatsi egin zitzairen, ordea, etxeko lanei lotutako energia nola erabili, etxetresna elektrikoak sortu zirenean eta etxeko lan batzuk egiteko beharrezko denbora murriztu zenean. Komeni zen emakumea lan-merkatuan sartzea, baina horrek bi ahoko ezpata sortu zuen: lanaldi bikoitzak** (Xse 2017).

Energia eskubidea izateko bermerik ez izateak, edo nahikorik ez izateak (adibidez, arautu gabea edo kalitaterik eta matenu egokirik gabea<sup>139</sup>) zuzenago eragiten dio espazio pribatu delakoari —hau da, etxeari— lotuago daudenei; gaur egun, oraindik ere, gehienak emakumezkoak dira. Maiz, gauza bera gertatzen da berme hori lortzeari eta norberaren eskubideen aldeko borrokari eskaintzen zaion denborarekin: gehienbat emakumeen esku geratzen dira kudeaketa, burokrazia, gizarte-zerbitzuetara bisitak (Gonzalez 2017). Nabarmenezkoa da Nafarroako datuen arabera emakumeek gizonek baino 2 aldiz denbora gehiago eskaintzen dietela etxeko lanei<sup>140</sup>. Egoera zaurgarrian dauden pertsonen kasuan, gainera, etxeko zaintza lanak biderkatu egiten dira. Horrela, txirotasunaren feminizazioa arintzeko administrazioak proposatzen duen nahaspila burokratikoa ere feminizatu egiten da.

139 Salaketa asko egin dira banaketa-sareen egoera dela eta, banatzaileek mantenu egokia ez eskaintzeagatik.

140 Nafarroako Estatistika Erakundeak emandako datuen arabera – Denboraren erabilerari buruzko inkesta 2009-2010



Energia-ereduak zaurgarritasuna eta prekarietatea sortzen ditu; hegoalde globalean energia eskuratzeko baldintzak ere halakoak dira, eta etorkizunera begira ez dago hori aldatuko delako itxaropen handirik. Gaur egun energia-ereduan gertatzen ari diren aldaketei esker hobeto bizi gara bio-psiko-sozialki? Egia esan, ez du halako hobekuntzarik ekarri Mendebaldeko Saharan energia berriztagarriak ezartzeak (sozialki bidegabeak eta ingurumenaren alderditik eztabaidagarriak) edo diru publikoarekin faktura energetikoak ordaintzeko ahalegina egiteak.

Bestalde, Iruñean **energia-merkatutzaila bat sortzeko prozesuari esker aukerak egon litezke administrazioak energia eskubidea bermatu dezan:**

Asmoa da Udal Energia Merkatutzailaren funtzioa izatea **“etorkizuneko merkatutzailak sortuko dituen etekinak inbertitzea txirotasun energetikoa arintzeko programetan”** (Iruñeko Udala 2015). Iruñeko merkatutzailak, gainera, merkatutzate hutsaz harago doazen bestelako funtzioak ere izango lituzke; adibidez, **herritar prosumitzaileak aholkatzea eta sustatzea. Prosumitzaile deitzen zaie, hain zuzen, kontsumitzaile ez ezik behar duten energiaren (berriztagarria) ekoizle ere badiren horiei; eraldatu nahi duten energia-ereduaren subjektu aktiboei.** Udal-antolaketari buruzko dekretuan, Energia Berdearen arloan, helburu jakin bat da merkatutzaila hori sortzea, une honetan garatzen ari direna. Zentzu horretan interesgarria izan daiteke gizarte-zerbitzuek eta merkatutzailak etorkizunean elkarlana garatzea; horrela, kasu zaurgarrietan, gizarte-zerbitzuek udal merkatutzailera aldatzeko aukera eskaini ahalko lukete. Hala ere, ez litzateke egokia izango udal merkatutzaila txikiek edo energia berdeko kooperatibek soilik ordaintzea oligopolioaren botere-gehiegikerien ondorioak, azkenean oligopolioak soilik kontsumitzaile kaudimendunak izango lituzkeelako. Izan ere, zerbitzu publikoko betebeharrak argindarrarekin zein gasarekin dute zerikusia, eta enpresa izugarri aberatsei ere aplikatu behar zaizkie.

#### **ONDORIOAK ETA ESKUBIDEEN ARTEKO LOTURAK: ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA ETA ENERGIA-ESKUBIDEA**

Txirotasun energetikoaren aurrean, ez dira gutxietsi behar administrazioaren eta enpresa hornitzaileen arteko hitzarmenak, ordaindu gabeko fakturak diru publikoz kitatu daitezten. Izan ere, halako hitzarmenak txeke zuri bihurtu daitezke oinarrizko zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresentzat. Nafarroan baliabide publiko ugari bideratzen ari dira horretarako, zati bat Gizarteratze-errentara eta beste bat Erreta Bermatu berrira; 2016an 83 milioi inguru bideratu ziren, eta 2017an 87 milioi. Egia da horniketa-mozketa baten alerta baldin badago administrazioak bitarteko guztien bidez ekidin behar duela, baina zentzuzko zalantzak daude jarraitu beharreko estrategiaren inguruan;

alegia, estrategia dirutza publikoa gastatzea den, edo Gizarteratze-errentetara bideratutako kopuru garrantzitsuak bidegabeko prezioak ordaintzea den.

Fakturak ordaintzearen logikak ex-post funtzionatzen du, behin zorra sortu denean. Izan ere, fakturak ordaintzeko zailtasunen aurrean, familiak ordaindu ahal izateko zer egin daitekeen galdetzen da maiz konponbideak bilatzeko. Baina galdera egokia, eskubideen ikuspuntutik, bestelakoa litzateke: nola bermatu daiteke, nahiz eta ezin ordaindu, oinarrizko horniketa izateko eskubidea? Edo, nola lortu batezbesteko soldata dutenek ere ordaindu ezin dituzten fakturak sortzen ez dituen kudeaketa-eredua? (Guiteras 2016) Finantza-laguntzazko neurriak ezartzen dituzten ereduak arazoak kausak ahaztu, edo are betikotu egin ditzakete. Izan ere, konpainia hornitzaileei irabaziaz bermatzen dizkie baita mozketak egiten dituztenean ere, bestelako gehiegikerien artean (aski ezaguna da sekulako etekin ekonomikoa sortzen duela). Hau da, mozketak ordaintzeko mekanismoa aktibatzen badu, esanenezake fakturak diru publikoaz ordaintzearen bidez maltzurki sustatzen dela enpresek mozketak egiten jarraitzea.

Horniketa bermatuta ez izatearen oinazeak berarekin dakar estigmatizazioa eta karga burokratikoa, ondorio psikologiko garrantzitsuekin batera. Zaurgarritasun faktoreak gurutzatu egiten dira, eta bereziki kaltetzen ditu ama bakarreko familiak eta familia migratuak (maiz emakumeek zuzenduak baita ere). Kalte larriak pairatzen dituzte, halaber, adingabeek, adinekoek eta mendekotasuna duten pertsonak. Nafarroan kaltetutakok 44.000 familiatik, (<http://www.noticiasdenavarra.com/2017/02/01/sociedad/navarra/unas-96000-personas-se-encuentran-en-situacion-de-pobreza-energetica-en-navarra>) <http://www.noticiasdenavarra.com/2016/12/21/sociedad/navarra/movilizacion-contra-pobreza-energetica-que-en-navarra-afecta-a-44000-hogares>) 707 familia baliatu dira gobernuaren eta argindar-enpresen arteko hitzarmenetan adostutako neurriez, horniketa-mozketak geldiarazteko (Martinez eta Martinez 2017); hau da, soilik kaltetutako familien %1,6.

Mendebaldeko Sahararen kasuan, autodeterminazio-eskubidea eta baliabide naturalak erabiltzeko eskubidea urratzea oztopo izugarria da etxebizitza duina izateko eskubidea eta energia eskubidea bermatu daitezen. Premiazkoa da urraketa hauek geldiaraztea, eta sahararrei bermatzea baliabide naturalen gaineko kontrola eta sortzen duten energia. Duintasunez bizitzeko ezinbestekoak dira energia bezalako oinarrizko horniketak, ez da hobekuntza demokratikoen edo berme politikoen kontu soila; gizarte-, ekonomia- eta osasun-onura ekarriko luke eskubide horiek betetzeak.

## 2.2.5. Eskubide zibil eta politikoak

### Justizia eskuratzeko eskubidea

Justizia eskuratzea, nahiz eta ICCPR ituneko 10. eta 14. artikuluek jasotzen duten, zaurgarritasuna sortzen edo areagotzen duten faktoreek mugatzen dute: adinak, generoak, aniztasun funtzionalak, diru-sarrerek, jatorrizko herrialdeak, nola-koa den egoera edo pertsona bera kokatzen den sistema judiziala. Horrek guztiak baldintzatzen du pertsona bakoitzak —eta herritarrek orokorrean— egoera salatzeko duen ahalmena:

*“Txirotasun energetikoa energia-zerbitzuak banatzean ematen den bidegabeberia kontua da; diru-sarrerekin, energiaren prezioekin eta etxebizitza baldintzekin lotutako desparekotasunen arteko interakzioaren bidez sortzen den bidegabeberia, alegia. Hala ere, txirotasun energetikoari aurre egitea ere bada, batetik, aitortza eta justizia kontua, talde zaurgarrien eskubide eta behar zehatzak aitortzeko beharra dagoelako, eta bestetik, auzibide justizia kontua ere bada, bermatu behar delako informazioa eskuratzeko eskubidea, prozedura legalak eta eragin eraginkorra erabakiak hartzean” (Walker y Day, 2012).*

### Norberaren askatasuna eta segurtasuna izateko eskubidea

ICCPR itunaren arabera, pertsona orok dauka askatasuna eta segurtasuna izateko eskubidea. Eskubide honek lotura du halaber 1948. urteko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko osotasun fisiko, psikiko eta moralarekin (5. artikulua), eta baita 1949. urteko gatazka armatuei buruzko Genevako Konbentzioarekin ere (II. protokoloa, 4. artikulua). Finean, segurtasun fisiko, psikologiko eta abarrez ari gara, arbitrariotasuna eta kriminalizazioaren aurrean.

Gaur egun Mendebaldeko Saharan 23 preso politiko daude: zortzik biziarteko espetxe zigorra daukate, hiruk 30 urteko espetxe zigorrak, lauk 25 urtekoa eta beste hiruk 20 urtekoa. Gainerako lau presoek espetxe zigor txikiagoak dituzte<sup>141</sup>. Eskubide Zibil eta Politikoen estatutuko eskubide eta bermeen urraketak salatzen dituzten lekukotasunak ere jaso dira; “Mendebaldeko Saharan Marokoko administrazioak erabiltzen dituen errepresio-elementuen normalizazioa” ikusarazten dute (AFASPA eta France Libertés 2002), honako kontu larriei dagokienez:

1. Torturak, zigorrak, tratu ankerra, gizagabea eta umiliagarria.
2. Arbitrarioki atxilotzea edo espetxeratzea.

141 <http://porunsaharalibre.org/tag/presos-politicos/>

3. Informazio eza atxilotetaren anean.
4. Justizia auzitegi bateko epailearen aurrean ahalik eta lasterren ez eramatea.
5. Justizia auzitegi batean jendaurreko entzunaldi bidezkoa ez izatea.
6. Apelazio prozedura bati errekurtsioa jartzeko bermerik eza.

Ikuspegi ekofeministatik abiatuta, askatasuna ukatzea edo kriminalizazioa bizitzaren aurkako eraso zuzenak dira, bizitza zentzu zabalean ulertuta. Presoen aurkako eraso zuzena, baina baita haien familien aurkako ere, edo presoen borroken aurkako; horrek familien banaketa dakar, eta baita mugimenduen eta erresistentzien desartikulazioa ere. Bortxatua eta prekarizatua izateak neke handia dakar, eta aldi berean estigmatizazioa eta kriminalizazio iritzi publikoaren aurrean. Horrek oinarizko eskubideen urraketaren aurkako borroka oztopatzen du.

### Parte hartzeko eskubidea

Pertsona orok dauka gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, baita boto-eskubidea eta funtzio publikorako hautatua izateko eta funtzio hori burutzeko eskubidea ere; eskubide hori Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jaso zen, eta ICCPR ituneko 25. artikulua bidez juridikoki bermatu eta babestu zen. Energiaren arloan, parte hartzeko eskubidea energia burujabetzari dagokio, hau da, *“gizabanako kontzienteek, komunitateek eta herriek erabakitzeke duten eskubidea, energia sortzea, banatzea eta kontsumitzeari dagokionez; horrela, egoera ekologiko, sozial, ekonomiko eta kulturalari egokituko zaio energia-prozesu hori, betiere hirugarrenak kaltetzen ez baditu”* (Xse 2013).

Eskubide honek parte hartze kontzeptua hobeto ulertzea eskatzen du, hauteskundeetako botoa gorabehera —izan orokorrak, autonomikoak zein udaletakoak—, eta ordezkari politiko gisa hautatua izateaz edo funtzio publikoan aritzeaz harago. Asanblada herrikoiak erakunde legitimotzat hartzen dira tokiko gaien inguruan erabakitzeke eta komunitate jakin baten interesak ordezkatzeko, baita herritar eta gobernuen arteko kontsultak edo eztabaida publikoetan eta elkarrizketetan parte hartzea ere.

Auzitegi honetan aztertutako kasuak kontuan hartuta, energia ardatzeko kasuak zehatzago, agerikoa da kolektibo batzuentzat zaila dela iritziak plazaratzea edo beren inguruko bizitza politikoan aktiboki parte hartzea. Hori eragiten dute elkar gurutzatzen diren zapalkuntza-eremu anitzek: generoa, jatorrizko herrialdea, diru-sarrerak, erakunde demokratikoen osasun egoera, eta ekonomia-, ekoizpen-zein energia-ereduen idiosinkrasia, praktikan, jokoaren arauak mugatzen baitituzte parte hartzeari dagokionez. Mendebaldeko Saharako herritarrak, eta txirotasun energetikoak kaltetutako pertsonak nekez erabili dezakete parte hartzeko

eskubidea. Aitzitik, azken urte eta hamarkadetan gero eta zailagoa bihurtu da eskubide hori guztiz (ezta neurri batean ere) bermatzea. Mendebaldeko Sahararen kasuan, egoerak eta estatus politikoak parte hartzea baldintzatzen duelako gertatzen da hori (lurra eskuratzeko eskubidea edo autodeterminazio-eskubidea beste eskubideak lortzeko giltza dira). Espainiako Estatuko txirotasun energetikoko egoeretan, aldiz, oligopolioak energia-ereduaren gaineko kontrol handia duelako (are gehiago sektore horiek liberalizatu direnetik), eta zehatzago, argindar- eta gas-sistemen gainekoa.

**Bizitza publikoan emakumeek historikoki pairatu duten ikusezintasuna medio, praktikan, bereziki mugatzen da haien parte hartzeko eskubidea. Emakumeak solaskide “baliogabetzat” hartzen dira maiz, baina aldi berean protagonistak dira barne-gatazkak konpontzeko prozesuetan (prozesu ikusezinak), oinarrizko borroketan gertatzen diren hainbat negoziazioetan.** Zentzu orokoragoan, energia-eredua ere heteropatriarkala denez, gure parte hartzeko antolae-ran sozialki onartu dugu energiari buruzko erabakiak adituen esku uztea<sup>142</sup>. Alabaina, parte hartzeko eskubideaz benetan —eta aktiboki— gozatzea herritarrei dagokie, euren lurraldearen adituak haiek baitira, eta balioetsi beharko lukete beren inguruari buruzko esperientzia eta ezagutza, alde batera utzita jakintza batzuek beste batzuen gainean duten hegemonia. Politika energetikoagatik kaltetutako pertsona orok aukera izan beharko luke eragingo dieten erabakietan parte hartzeko. Begirada horri esker ikuspuntu ekofeministara hurbildu gaitezke, bizitza erdigunean jarriz eta konponbide tekniko edo teknologiko hutsak zalantzan jarriz.

### Informazioa eskuratzeko eskubidea

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 19. artikuluan adierazpen-askatasuna funtsezkoa dela aipatzeaz gain, jasota dator ere honako eskubidea: “ikertzeko eta informazio zein iritziak jasotzeko, eta hori inolako mugarik gabe zabaltzeko eskubidea, edozein adierazpideren bidez”.

Informazio askatasuna, zeina sistematikoki urratzen den Auzitegi honetako bi kasuetan, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean garatu zen; zehatzago, ingurumenari buruzko informazioari dagokionez, 1992ko Ingurumen eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpenean. Adierazpen horren 10. Printzipioak hala dio: *“Ingurumen auziei heltzeko modurik onena interesa duten herritar guztien parte hartzearen bidez egitea da, dagokion mailan. Maila nazionalean, pertsona orok izan beharko du informazioa eskuratzeko agintari publikoek ingurumenari buruz duten informazioa eskuratzeko eskubidea, barne hartuta komunitateentzat arriskutsuak*

142 Jatorrizkoan, gaztelaniaz, egileak espresuki adierazi du maskulinoan idatzi duela: expertos (Itzultzailearen Oharra).

*diren material eta jardueri buruzko informazioa, eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera. Estatuak herritarren sentikortzea eta parte hartzea erraztu eta sustatu beharko dute, informazioa guztion esku jarrita. Prozedura judizial eta administratiboetarako irispide eraginkorra eskaini beharko da, besteak beste kalte ordainak eta baliabide egokiak<sup>143</sup>*

### 2.2.6. Bestelako eskubide urraketak

Mendebaldeko Saharan ere eskubide sozioekonomikoak urratzen dira, elkartzeko eta adierazteko askatasunaren aurkako zigor ekonomikoen ondorioz. Eskubide horiek erabili nahi izan dituzten pertsonak kalte sozioekonomikoak pairatu izan dituzte; besteak beste, lanetik kaleratzea, lanean kategoriaz jaitea edota bestelako jazarpen motak bizi izan dituzte (AFASPA eta France Libertés 2002). Txirotasun energetikoak kaltetutako pertsonen kasuan, argindarra modu erregularrean eskuratzea etengabe eta arrazoirik gabe ukatu dieten familiengan, ondorio sozioekonomiko larriak ditu argindarra arautu gabeko moduen bidez eskuratzen saiatzeak: zigorrak, haien aurkako auzi judizialak abiatzea edo aipatutako kriminalizazioa (Aliança contra la Pobreza Energètica 2016).

Azkenik, bistakoa da energia-ereduari lotutako urraketa hain orokortuen aurrean —auzitegi honetan aurkeztutako kasuez harago doazenak—, bestelako oinarriko eskubideak ere zalantzan jartzen dira. Bizitzeko eskubidea bera (ICCPR ituna: 6.1, ICESCR ituna 12.2 a) eta ingurumen eskubidea (ICESCR ituna 12.2.B.) edo, ikuspuntu antropozentrikotik aldentuta, ama lurraren eskubideak<sup>144</sup>, sistematikoki urratzen dituzte egungo energi-ereduak eta eragileek, boterea eta in-punitatea baitute, eta lurraldea eta baliabide naturalak bahituta baitituzte maila globalean. Energia-ereduaren eta, bereziki, baliabide naturalen gaineko kontrola ez berreskuratzean galtzen ari garen hori gizakion bizitzaren aurka doa, baina baita planeta mugatu honetan bizikide ditugun beste bizitzen aurka ere.

## 3. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### 3.1. Diagnosi ekofeminista

Gaur egun enpresa handien zerbitzura dago energia, estatu zapaltzaileen zerbitzura, eta baliabideak eta aberastasuna erauzten dituen logika bati erantzuten dio, jendearen eskuetatik aldentuz. Energia-sektoreak etekinak esponentzialki sor-

143 1992ko Ingurumen eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpena: <http://www.unece.org/env/pp/documents/cep43s.pdf>

144 <http://rio20.net/propuestas/declaracion-universal-de-los-derechos-de-la-madre-tierra/>

tzea eta ekonomia finantziarizatzea ahalbidetzen du. Zentzu horretan, bizitzaren iraunkortasunari lotutako energia-erabilerak (hala nola, oinarritzko horniketa, baina baita okupazio testuinguruan baliabide naturalak eskuratzea ere) oso errentagarriak dira eredu liberalizatuan funtzionatzen duten gutxi batzuentzat. Hori dela eta, etekin- eta merkatu-logika horretatik atera behar ditugu, pertsonen eta inguruaren zerbitzura jar daitezten. Horrela, sozioambientalki bidezkoa den energia-ereduak erdigunean jarri behar du bizitza. Gehiago zehaztuta: **energiak pertsonen bizi-baldintzak hobetzen lagundu beharko luke, planetak dituen mugen kontzientzia izanda.** Horrek ekarriko du, adibidez, Iparralde globalak kontsumoa eta inpaktuak murriztu behar izatea, Hegoalde globalak posible izan dezan bizitzaren iraunkortasuna eta gozamenari lotutako energia-erabilerei baliabideak eskaintzea eta energia erabiltzeko eskubidea izatea.

### 3.2. Eskubideen ikuspuntua

“Energia eskubidearen” helburua da, nazioarte eta eskualde mailan artikulatua, argudiatzea energia kontuak merkatu harreman desorekatuez harago joan behar dutela; izan ere, energia merkantzia baino zerbait gehiago da, eta gobernu zein sektoreko eragileek (enpresak, erregulatzaileak, etab.) horrekiko betebeharrak dituzte. Halaber, energia gauza asko da aldi berean: hainbat zerbitzutan eraldatuta (argia, beroa, etab.), hainbat baliabide naturalen bidez sortua, batzuk berriztagarria eta besteak berriztaezinak, eta hortaz, baliabide horien fluxua eta erabilgarritasuna ere aldatu egiten da. Zentzu horretan, energiak trataera berezia eskatzen du, saihestu dadin energia sustatzea jendeak eskura dezakeela bermatu gabe, edo kontuan hartu gabe fosilekiko mendekotasuna duten ereduaren ekoizpena. Hori gertatzen da, esaterako, Mendebaldeko Saharan mineral berriztaezinak espoliatzeko 22 Siemens errotek ekoizten duen energiaren %95ekin (WSRW 2016a). Zentzu horretan, energia zerbait abstraktua den heinean dituen ziklo eta prozesu naturalak zaindu beharko dira, eta aldi berean bermatu beharko da energia eskuragarria izatea, pertsona oro duintasunez bizi dadin bermatzeko oinarritzko baliabide gisa. Labur, beharrezkoa da energia eskuratzeko eskubidea giza eskubide gisa defendatzea, eta energiari (bere konplexutasun osoan) aitortza egitea zaindu beharrekiko ondasun komunei lotuta dagoen heinean. Labur, baliabide horien erabilpen arduratsua sustatzeko, haien gaineko kontrola hartzeko bidean urratsak eman behar dira, baliabide horiek eskuratzea bermatu dadin eskubide unibertsal gisa.

### 3.3. Herrien (eta herrien arteko) energia-burujabetza

Herrien energia-burujabetzak, eredu gisa proposatuta, proposatzen du pertsonak eta komunitateek erabaki propioak har ditzaketela energiaren sorrera, banaketa eta kontsumoari dagokionez; horrela, alderdi horiek egokituko dira unean unean

ko egoera ekologiko, sozial, ekonomiko eta kulturalari, betiere hirugarrenei kalte egiten ez badiete. **Herriek energetikoki burujabe izateko dituzten aukerak haien arteko ariketa batek baldintzatuko du; alegia, haien bereizgarri, zapalkuntza eta testuinguruen arteko elkartasun eta aitortza ariketa garrantzitsu batek.** Zentzugabea izango litzateke estatu zein Europa mailan eskubide horiek bermatzen ez dituzten kudeaketa-ereduak helburu izatea, ikusarazi gabe beren lurraldeetatik argindar lineak pasa arren argindarrik ez duten Hegoalde globaleko komunitateak, edo aintzatesi gabe megaproiektu energetikoek edo txirotasunak (energetikoak ere) aktibatzen dituzten zaintza-kate globalak. Halaber, ezin dugu alde batera utzi sortutako zor ekologikoa; zori hori, neurri batean, Europako etxebizitzak neguan berotzeko erauzitako erregai fosilek sortu baitute.

### 3.4. (Ber)udalekotu, (ber)lokalizatu eta demokratizatu

Zerbitzuak (ber)udalekotzearen bidez energia-burujabetza sustatzeak energiaren gaineko kontrola berreskuratzea erraztu dezake (Xse 2015). Horrek, halaber, erraztu ahalko luke sortzen edo merkaturatzen den energiari buruzko erabakiak hartzea, oligopolioarekiko menpekotasunetik at (lurralde bakoitzak lortu dezakeen buruaskitasunaren arabera). Era berean, eskala txikiak ere lagundu dezake (ber)lokalizatzen, energia ez ezik baita ekonomia ere.

Alabaina, **ezinbestekoa da (ber)udalekotze prozesuak eta energiaren demokratizazioa lotzea, prozesuok ekimen eraginkor bihurtzeko herrien energia-burujabetza lortzera bidean.** Energia ereduaren eraldaketa ez da gauzatuko sustatzen diren energia berriztagarriak oligopolioaren esku baldin badaude eta logika zentralizatzailea baldin badute; modu berean, energiak, maila lokalean (izan udalmerkaturatzaileen bidez edo kooperatiba txikien bidez), pertsonen beharrei erantzuteaz ez ezik, eraldaketa-eragile izateko duten gaitasunari ere erantzun behar diote, trantsizio horren subjektu aktibo diren neurrian. Beharrezkoa izango da ere argindar-banaketaren arloan eragiteko formuletan sakontzea (Xse 2015) — Espainiako estatuko lurraldeetan monopolio natural gisa funtzionatzen baitu— egungo ereduaren sektore guztiak eraldatu eta demokratizatu ahal izateko.

### 3.5. Baliabideen kontrola berreskuratzea eta kalteak ordaintzea

Gaur egun inposatutako eta alferrikako megaproiektu ugari daude, edo, bestela esanda, oso proiektu handi asko, gutxi batzuen etekinerako. Proiektu horiek **ondorio latzak dituzte ingurumenean, baina baita gizartean, ekonomian eta alderdi kulturean ere. Ez du axola zein “berdeak” diren;** enpresa berdinen esku daude, eta gobernuen baimenari esker jarraitzen dute funtzionatzen.



Zoritzarrez herri guztiek ez dute aukera energia-zerbitzuak segituan (ber)udalekotzen hasteko, ez dutelako bermatuta beren lurraldeetako baliabideak eta aberastasanak askatasunez eskuratzeko eskubidea. Hori dela eta, **premiazkoa da aldi berean defendatzea herri eta komunitate guztiek beren lurraldean garatuko diren proiektuen inguruan erabakitzeko duten eskubidea (energetikoez gain, meatzaritza, nekazaritza, garraio-azpiegitura eta bestelako proiektuak ere). Komunitateren baten borondateari entzungor egin bazaio, eragindako kaltea ordaindu beharko da** (hoberen egokitzen den moduan: ekonomikoa, morala, etab.), eta justizia eta memoria prozesu bat abiatu. Horretarako gakoa izango da ez errepikatzeko bermea eta mekanismoak zehatzea.

### 3.6. Politiken koherentzia

Pertsona kontsumitzaileek energiarekin duten harremana kontu ekonomiko huts gisa planteatzen duten proposamenei uko egin behar diegu. EBk planteatzen duen pertsona kontsumitzaileen “ahalduntzeak” ere merkatu logika bati erantzuten dio, eta horrek errealitatean sortzen duen iruditerian pertsona zaurgarriak oztopo bat dira, edo sistemaren kanpo-efektu bat, ez dutelako diru-sarrerara nahikorik edo ez dutelako ulertzen energia-merkatuaren funtzionamendua. Pertsona kaltetuak kontsumitzaile indibidual gisa tratatzeko joera, egiatan, txirotasun energetikoaren kontua despolitizatzeke eta kontu tekniko huts bihurtzeko maniobra bat da. Halaber, **gizarte politikak sustatzen dituzte txirotasun energetikoa arintzeko, baina ez dituzte aldatzen energia-politikaren jokoaren funtsezko arauak.**

Espainiako estatuak eta EBko beste herrialde batzuek ere **Marokorekin negoziatzen dute oraindik ere, nahiz eta honek Mendebaldeko Saharako lurraldeak okupatzen dituen eta bertakoen eskubideak sistematikoki urratzen dituen; horretarako aitzakiatzat hartzen dute haien arteko jarduera ekonomikoa eta erabaki politikoak zein juridikoak bereizi daitezkeela.** Kontu hau agenda politikoan kokatu dadin, gizarte-mugimenduek, erakundeek eta, orokorrean, herritarrek, babesa agertu behar diete erresistentzian dauden sahararrei. Maila honetan, politikak koherenteak izan daitezen exijitzea ere ezinbestekoa da. Funtsezkoa da ere, txosten honetan aipatutako giza eskubideak bermatu daitezen, Marokoko Gobernuak, inplikaturako enpresen jatorrizko herrialdeetako gobernuek edo enpresa horiek burututako edozein eskubide-urraketa salatzea, izan esplizituak zein egin ezekoak.

## BIBLIOGRAFÍA

- AFASPA eta France Libertés (2002) Misión internacional de investigación en el Sáhara Occidental. La situación de los derechos civiles, políticos, socio-económicos y culturales de los saharauis La situación de la explotación económica de este territorio no autónomo.
- Aliança contra la Pobresa Energètica (2016). La APE se concentra ante Endesa para reclamar contadores para las familias que han recuperado una vivienda. Bartzelona
- Asociación de Ciencias Ambientales, ACA (2016) Pobreza, vulnerabilidad y desigualdad energética. Nuevos enfoques de análisis. ACA
- Ayuntamiento de Pamplona (2015eko irailak 15) “Decreto de Organización Municipal”. Hemen eskuragarri <http://www.pamplona.es/verdocumento/verdocumento.aspx?id-doc=1068955><http://www.pamplona.es/verdocumento/verdocumento.aspx?id-doc=1068955>
- Bouzarovski, S., Petrova, S., eta Sarlamanov, R. (2012). Energy poverty policies in the EU: A critical perspective. *Energy Policy*, 49, 76-82.
- CCISME (2013). Invertir en Marruecos. Cámara de Comercio, Industria y Servicios de Marruecos en España
- Cotarelo, P. (2015). El cost real de l'energia. Estudi dels pagaments il·legítics al sector elèctric espanyol 1998-2013. Observatori del Deute en la Globalització.
- Cotarelo, P., eta Pérez, A. (2015). Obrint la caixa negra de la UE: metabolisme energètic, dependències geopolítiques. Observatori del Deute en la Globalització.
- del Campo, A. (2017), “Empoderamiento, mujeres y soberanía en la necesaria transición energética”, *Viento Sur*, 151. zk., 2017ko apirila.
- Embajada de España en Rabat (2012) El sector de las energías renovables en Marruecos. Oficina Económica y Comercial de la Embajada de España en Rabat
- Energía Gara Nafarroa – Som Energía Navarra (2016). Análisis del Plan Energético de Navarra horizonte 2030. Sección territorial Som Energía
- Ernst eta Young. (2016), “Women in Power and Utilities. Index 2016”
- Gerebizza, E. eta Tricarico, A. (2013). Large Infrastructure to overcome the crises? The case of the Europe 2020 Project Bond Initiative. *Re:Common, Counter Balance, The Corner House*.
- Gilbert, J. (2013). El derecho a la tierra como derecho humano. Argumentos a favor de un derecho específico a la tierra. *Revista internacional de derechos humanos* 18, 123-145.
- Gobierno de Navarra (2016) Plan Energético de Navarra Horizonte 2030.
- González, I. (2016) Desigualdad de Género y pobreza energética. Un factor de riesgo olvidado. *Enginyeria Sense Fronteres*. Hemen eskuragarri <https://esf-cat.org/wp-content/uploads/2017/09/ESFeres17-PobrezaEnergeticaDesigualdadGenero.pdf>
- Guiteras, M. (2016) Pobreza energética i models de gestió de l'aigua i l'energia. Cap a la garantia del dret universal als subministraments bàsics. *Enginyeria Sense Fronteres*. Hemen eskuragarri <https://esf-cat.org/wp-content/uploads/2017/03/ESFeres16-Pobreza-Energetica-Models-de-Gestio.pdf>

- IDHC. (2007). Carta de Drets Humans Emergents - Institut de Drets Humans de Catalunya. Hemen eskuragarri <http://www.idhc.org/ca/formacio/seminari-taller-el-dret-huma-a-l-acces-a-l-aigua-potable-i-alsanejament.php>  
<http://www.idhc.org/ca/formacio/seminari-taller-el-dret-huma-a-l-acces-a-l-aigua-potable-i-alsanejament.php>
- IDHC. (2009). Declaració Universal dels Drets Humans Emergents - Institut de Drets Humans de Catalunya. Hemen eskuragarri <http://www.idhc.org/ca/recerca/publicacions/drets-humans-emergents/declaracio-universal-dels-drets-humans-emergents.php>  
<http://www.idhc.org/ca/recerca/publicacions/drets-humans-emergents/declaracio-universal-dels-drets-humans-emergents.php>
- Martínez, I. eta Martínez, L. (2017) Estudio exploratorio para establecer las bases de un análisis sistemático de la pobreza energética en la ciudad de Pamplona-Iruña. Servicio de Energía Verde del Ayuntamiento de Pamplona-Iruña.
- OME (2016) “Contaminación del aire de interiores y salud”. Hemen eskuragarri <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs292/es/>  
<http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs292/es/>
- Palencia, T. (2017) “Intensa renovación de la resistencia y la rebeldía de las mujeres indígenas” en Estado de los derechos de los pueblos indígenas a 20 años de la firma de la paz. Guatemala
- Subirats, J. (2016ko azaroak 5). Hemen eskuragarri: [http://ccaa.elpais.com/ccaa/2016/11/05/catalunya/1478376656\\_021825.html](http://ccaa.elpais.com/ccaa/2016/11/05/catalunya/1478376656_021825.html)  
[http://ccaa.elpais.com/ccaa/2016/11/05/catalunya/1478376656\\_021825.html](http://ccaa.elpais.com/ccaa/2016/11/05/catalunya/1478376656_021825.html)
- VCGW. (2013). Vulnerable Consumer Working Group Guidance Document on Vulnerable Consumers. Hemen eskuragarri [http://ec.europa.eu/energy/sites/ener/files/documents/20140106\\_vulnerable\\_consumer\\_report\\_0.pdf](http://ec.europa.eu/energy/sites/ener/files/documents/20140106_vulnerable_consumer_report_0.pdf)
- Vicent, L. et al. (2013), El desigual impacto de la crisis sobre las mujeres. Fuhem, Madril.
- Walker, G. (2016). The Right to Energy: Meaning, Specification and the Politics of Definition. L'Europe en Formation, (378), 26-38.
- Walker, G., eta Day, R. (2012). Fuel poverty as injustice: Integrating distribution, recognition and procedure in the struggle for affordable warmth. Energy Policy, 49, 69-75.
- WSRW (2015) P de pillaje. Exportaciones marroquíes de fosfatos de los territorios ocupados del Sáhara Occidental.
- WSRW (2016a) Energía para el expolio. Lo que Marruecos y Siemens esconden en COP22, Marrakech.
- WSRW (2016b) “COP22, escenario de negocio sobre plantas solares en el Sahara ocupado”. Hemen eskuragarri <http://wsrw.org/a110x3680>
- WSRW (2016c) “Reunión energía “verde”: la policía impide el acceso a saharauis”. Hemen eskuragarri <http://www.wsrw.org/a110x3693>
- WSRW (2017) “WSRW preocupada: VigeoEiris blanquea la energía sucia en los T.O”. Hemen eskuragarri <http://www.wsrw.org/a110x3713>
- Xarxa per la sobirania energètica (2013) Definició de sobirania energètica. Hemen eskuragarri <http://xse.cat>

Xarxa per la sobirania energètica (2015). Proposta energetica municipalista. Xarxa per la sobirania energetica. Hemen eskuragarri <http://xse.cat/la-xse-presenta-una-proposta-energetica-municipalista/>

Xarxa per la sobirania energètica (2017). Energia i gènere. Miradeseconfeministes sobre l'energia. Bartzelona

LURRALDERAKO  
ETA ELIKADURA  
BURUJABETZARAKO  
ESKUTIDEA



## **FISKALAREN AKUSAZIO TXOSTENA**

Lurralde eta elikadura-burujabetzarako eskubidea

FISKALTA: María Victoria Fernández Molina

### **1. SARRERA**

Estatuek bete egin behar dituzte haien ordezkariak berek izenpeturiko tratatuetatik datozen nazioarteko betebeharrak, halakoak herrialde bakoitzaren barne-arauetara egokiturik egon zein ez, hori guztia baimen librearen, onustearen nahiz pacta sunt servanda printzipioetan oinarriturik. Tratu horiek giza eskubideen babesari buruzkoak direnean, are gehiago indartzen da betetzeko beharra, eta aginduzkoa ere bada nazioarteko komunitateak berebiziko garrantzia ematen dien eskubide batzuetarako. Beharrezkoa da, halaber, Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioko (1969) 27. artikulua aipatzea, non berariaz debekatzen baita Estatu batek bere barne-zuzenbideko xedapenak baliatzea, Estatu horrek berak berretsitako tratatu baten ondoriozko arauak ez betetzea justifikatzeko.

Planteamendu hori abiapuntu, akusazio-idazki honetan zehar puntuz puntu xehakatzen dira tartean diren Estatuak eginiko urraketak giza eskubideak babes-teko nazioarteko arauen arloan, estatu horiek nazioarteko erantzukizun juridikoa egoztea justifikatzeko oinarritzat.

Akusazio-idazkia lau ataletan egituratuta dago. Lehen atalean, bi kasuetako egitate nagusiak laburbiltzen dira, eta halakoak gertatzen diren testuingurua orokorrean azaltzen da. Bigarren atalean, kasu bakoitzari aplikatzekoa zaion zuzenbide-esparrua deskribatzen da. Hirugarren atalean, kasuen azterketa juridiko bat egiten da, feminismoaren eta giza eskubideen ikuspegitik. Azkenik, laugarren atalean Herri Auzitegiari eskatzen zaio lehen identifikatutako egileen erantzukizuna ezar dezala, eta dagozkion banakako zein taldekako ordainak zehatz ditzala.

### **2. EPAITUTAKO EGITATEAK**

#### **1. kasua. Euskal Herria**

Lehen kasuan, abiadura handiko trenaren proiektua (aurrerantzean, AHT) gauzatzearen aurka dauden Euskal Herriko 112 herrien egoera azaltzen da, Espainiako Estatuko Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak 2006an bultzatutako proiektu bat, hain zuzen. Oposizio zibila justifikaturik dago, proiektu horrek trenbidearen trazatuaren pareko lurraldeetan bizi diren familiei eragin dizkien

ondorio larriengatik, hala haien osasunean nola elikadura-burujabetzan, bai eta proiektuaren beraren gardentasunik eta jasangarritasunik ezagatik ere. Adibidez, bi kasu paradigmatico hartu dira: Atxondo eta Ezkio-Itsaso.

Atxondon, bizilagun gehienak mobilizatu dira, AHTa egiteari aurka egiteko helburuz, haren trazatuak Apatamonasterio herria zeharkatzen duelako (horrek herriak irautea arriskuan jartzen du) eta Urkiolako Parke Naturaletik 500 metrora igarotzen delako. Tarte horren obrak Obrascón Huarte Lain (OHL) enpresari esleitu zitzaizkion. Marko horretan, Kikeren kasu zehatza nabarmentzen da. Bera barazki-ekoizle gazte bat da, eta haren soroa –soroaren 2 mila metro karratu, zehazki– desjabetu egin dute. Horrek haren bizimodua, haren lana, eta elikagaiak eskuratzeko aukera arriskuan jarri ditu, bai eta haren osasunerako eskubidea eta ingurumen osasuntsu bat izateko duen eskubidea ere.

Bigarren kasua Ezkio-Itsason kokaturik dago, antzeko egoeran dagoen beste herri batean. Han, Marilu Gardokik eta Xabi Akizuk baserri hondatu bat berreraiki zuten, elikagai jasangarriak –agroekologikoak ere deituak– ekoizten jarduteko asmoz. Kasu zehatz horretan, AHTaren trazatuak haien fruta-ustiategia zeharkatzen du, eta, beraz, lurak desjabetzeari gogor egin zioten aurka; hala eta guztiz ere, desjabetzearen zenbatekoa onartzera behartu zituzten, bestela ezer gabe geratuko baitziren.

Zehazki, hauek dira epaitzen diren egitateak:

1. Nahi ez den eta beharrezkotzat sentitzen ez den megaazpiegitura batek lurzorua okupatzea eta, horrez gain, desjabetu aurreko negoziazio-prozesuan indarra eta hertsapena erabiltzea.
2. Kutsadura; hots-kutsadura bereziki, informazio-azterlan batek larrizat sailkatu baitu (84-92 dezibelen artean legoke, maila optimoa 70 dezibelean dagoenean). Horrez gain, airearen kutsadura dago, eraikuntza-prozesuan bakarrik egingo diren berebiziko CO<sup>2</sup>-isurketa handiak direla bide, eta lurzoruaren kutsadura, obren harri-hondarren ondorioz hondakindegia ugaltzean.
3. Biztanleen bizi-kalitatea apaltzea, lurraren erabileraren mugapena nahiz elikadura egokia izateko eskubidearen murrizketa direla bide, eta baserri-munduko identitate kulturala nahiz landa-bizitzarako ingurunea desagerrarazten parte hartzea.
4. Ondorioz, pertsonak landa-eremua uzten dute eta hirietara eta atzerrira migratzen dute, lan-aukera bila. Prozesu horren ondorioak hauek dira: langa-

bezia handia; deserrotzea; lan-prekarietateak sortutako frustrazioa; pobrezia-indize handia.

5. Tunela Urkiolako Parke Naturaletik 500 metrora baino gutxiagora igarotzen da, naturaren gordeleku baten iraupenari eraso eginda; izan ere, hura konserbatzeak gizateria guztiari on egiten dio, isurtzen duen oxigenoagatik eta gordetzen dituen espezie endogenoengatik.

## 2. kasua. Argentina

Bigarren kasuan, Bajo Hondo herrian (Argentina) kokatutako Iacu Cachi komunitate indigenak "OMARA" agronegozio-enpresa salatzen du, bai eta, zeharka, Argentinako Estaturik eta haren botere judiziala ere, honako egitate hauek direla eta:

Iacu Cachi komunitate indigenako biztanleak beharturik eta indarkeriaz lekualdatzeko prozesua, esportatzeko soja monolaborantzan ekoizten diharduen "OMARA" enpresak bidalitako talde paramilitarren eskutik. Legez kontrako egitate hori are larriago gertatzen da, Argentinako gobernuak eta haren justizia-organok *de facto* ematen dioten zigorgabetasunagatik. Hona hemen agronegozioak gauzatu dituen giza eskubideen urraketa larriak:

- Mehatxuak, legez kanpoko atxiloketak eta torturak polizia-funtzionarioen eskutik.
- Protestaren kriminalizazioa: existitzen ez ziren delituak egotea, kasu guztietan lurraldearen defentsari loturik.
- Jabetza pribatuaren suntsipena: ibilgailuak erretzea; ura ateratzeko motorrak eta ponpak lapurtzea; eguzki-panelak lapurtzea; eta hesi elektrikoa haustea.
- Komunitatearen bizi-baliabideen suntsipena: haren arrantxoak erretzea 4tan baino gehiagotan; giza kokaguneak legez kontra basogabetzea; 1000tik gora behi, txerri, akabatzea eta lapurtzea, etxaldeko beste abere batzuen artean.
- Ura eskuratzeko eragozpena, osasuna zein bizia arrisku larrian jartzen dituzten ekintza batzuen bidez: pertsonen zein animalien kontsumorako ur-putzu bakarria pozoitzea eta suntsitzea.
- Dozenaka agrotoxiko-fumigazio, komunitateko biztanle guztiak, umeak eta haurdunak bereziki, oso toxikotasun handiko produktu fitosanitario batzuen isurketen eraginpean jarrita, legez kontrako distantzia batzuetara, biziari eta



osasanari arrisku larria ekarrita, eta fetuetan malformazio larriak eta oso larriak sortuta.

- Argentinako Estatuaren botereen konplizitatea, botere judizialarena batik bat, egitate horiek guztiak gertatu direlako beren herritarrak babesteko betebeharra bertan behera utzita. Horrez gain, Estatuak berak urratu ditu Iacu Cachi komunitatearen oinarrizko eskubideak, giza eskubideen aldeko pertsonen zein haien liderren kriminalizazioan parte hartu dutelako; izan ere, segurtasun-ingarri publikoak erabili dira delituak egiteko, arrazoirik gabeko atxiloketak eta torturak, zehazki.

### 3. URRATUTAKO ARAUAK<sup>145</sup>

#### BABES-SISTEMA UNIBERTSALA

##### Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. 1948ko abenduaren 10a

Zehazki, artikulua hauek:

3. artikulua. Bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea; 7. art. Legearen aurreko berdintasuna; 8. art. Norbere herrialdeko auzitegiaren errekurtso eraginkorra jartzeko eskubidea; 9. art. Arrazoirik gabe atxilotzeko debekua; 17. art. Bakarka nahiz taldean jabe izateko eskubidea; 22. art. Pertsona orok du bere duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomia-, gizarte- eta kultura-mailako eskubideak aseak izateko eskubidea; 25. art. Bizitza-maila egokia izateko eskubidea; 26. art. Hezkuntza-eskubidea.

##### Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna. 1966ko abenduaren 16a

Zehazki, artikulua hauek:

1. artikulua. Herrien determinazio askerako eskubidea (bi itunetan jasoa); 2. art. Estatu alderdiek itun honetan aitortutako eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko betebeharra; 3. art. Legearen aurreko berdintasuna; 6. art. Bizitzeko eskubidea; 7. art. Torturaren eta tratu krudel, anker edo apalesgarrien debekua; 9. art. Askatasun eta segurtasun pertsonalerako eskubidea; 14. art. Legearen aurreko berdintasuna eta errugabetasun-presuntzioa

<sup>145</sup> Jaso diren artikuluek ez dute eratzten zerranda zehatz-oso bat, helburua baita Estatuak bete behar dituzten eta kasu paradigmakoetan urratu dituzten eskubideen kopuru handia agerian jartzea bakarrik. Hala ere, nabarmendu behar da hor ez daudela agertu beharko luketen eskubide guztiak, urratu diren eskubideen aniztasun handia eta babes-sistemen luze-zabala direla eta.

### **Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna. 1966ko abenduaren 16a**

Zehazki, artikuluko hauek:

1. artikulua. Herrien determinazio askerako eskubidea (bi itunetan jasoa); 10. Tratu berezia emakumeentzat erditu aurretik eta ondoren, eta haur-nerabeentzat; 11. art. Bizitza-maila egokia izateko eskubidea; 12. art. Pertsona ororen eskubidea osasun fisiko eta mentalaren ahal den mailarik onena izateko; 13. art. Hezkuntza-eskubidea.

### **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak onartutako ohar orokorrak**

7. Etxebizitza egokia izateko eskubidea (Ituneko 11. artikuluko 1. paragrafoa): behartutako kanporaketak.

12. Elikadura egokia izateko eskubidea (11. artikulua).

13. Hezkuntza-eskubidea (13. artikulua).

14. Ahal den osasun-mailarik onena izateko eskubidea (12. artikulua).

15. Ura izateko eskubidea (Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko 11. eta 12. artikulua).

16. Gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasuna eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak baliatzeko (3. artikulua).

### **Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Konbentzioa, herri indigena eta tribalei buruzkoa, 1989**

6. Artikulua. Kontsultarako eskubidea; 7. art. Erabakitze eskubidea; 12. art. Giza eskubideen babeserako eskubidea; 13. art. Herri interesdunen kultura eta balio espiritualentzat lurrarekiko harremanak duen garrantzi berezia; 14. art. Tradizioz okupatzen dituzten lurren edukitza eta jabetza izateko eskubidea; 15. art. Herri interesdunen eskubideak beraien lurretan dauden baliabide naturalen gainean; 16. art. Herri interesdunak ez dira okupatzen dituzten lurretatik lekualdatuko, baimen libre eta informatua eman ezean; 18. art. Legez zigor egokiak ezarri beharko dira herri interesdunen lurretan baimenik gabe sartzearen aurka edo kanpoko pertsonen lurro baimenik gabe erabiltzearen aurka, eta gobernuek neurriak hartu beharko dituzte arau-hauste horiek eragozteko.

### **Nazio Batuen Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adierazpena. Batzar Nagusiak 2007ko irailaren 13an onartua**

2. artikulua. Herri eta norbanako indigenak askeak eta gainerako herri eta pertsonen berdina dira, eta badute eskubidea inolako bazterkeriarik ez jasateko beren

eskubideak baliatzean, bereziki haien jatorri edo identitate indigenan oinarrituriko bazterkeria; 3. art. Herri indigenek badute eskubidea beren erakunde politiko, juridiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak gorde eta sendotzeko, eta aldi berean Estatuko bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalan, hala nahi badute, bete-betean parte hartzeko eskubidea atxikitzen dute.

### **Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW)**

3. artikulua. Estatu alderdiek esparru guztietan eta, bereziki, politika-, gizarte-, ekonomia- eta kultura-esparruetan, neurri egoki guztiak hartuko dituzte, baita legegintzazkoak ere, emakumearen erabateko garapena eta aurrerapena ziurtatzeko; horren xedea izango da emakumeak giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak egikaritzea eta izatea, gizonak egin ohi duen baldintza berberetan.

### **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989**

3.2. artikulua. Estatuak konpromisoa hartzen dute neska-mutil guztiei haien ongizaterako beharrezkoak diren babesa eta arreta bermatzeko...; 24.1. art. Neska-mutilek ahalik eta osasun mailarik onena izateko eskubidea dute, eta, gaixo daudenean, sendatzeko eta osatzeko zerbitzuak eta tratamendua jasotzeko eskubidea dute. Neska-mutil guztiek behar-beharrezkoak dituzten laguntza medikoa eta osasun zerbitzuak dituztela bermatu behar dute agintariek.

## **Eskualdeko arauak**

### **Europakoak**

#### **1.1.A. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena**

Giza eskubideen interdependentziaren eta unibertsaltasunaren printzipioei begira, aipatu behar da zer gutxi garatzen diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean (eskualdeko hitzarmen homologoek hala egiten dute, ordea). Horrek babesik gabe uzten du haren babespean dauden pertsonak. Eskubide-zerrenda urritik, 6. artikulua nabarmentzen dugu: prozesu ekitatibo bat izateko eskubidea.

#### **Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna, 2000ko abenduaren 7a**

1. artikulua. Giza duintasuna; 35. art. Osasunaren babesa. 37. art. Ingurumenaren babesa.

## Latinoamerikakoak

### 1.1.B. Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa, 1969ko azaroa.

4. eta 5. artikulua. Bizitzeko eta osotasun pertsonalerako eskubidea; 8. art. Berme judizialak izateko eskubidea; 21. art. Jabetza pribaturako eskubidea; 24. art. Legearen aurreko berdintasuna; 25. art. Babes judiziala.

### Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko Protokolo Gehigarria, “San Salvadorreko Protokoloa”

1. artikulua. Neurriak hartzeko betebeharra; 10. art. Osasunerako eskubidea; 11. Ingurumen osasuntsua izateko eskubidea; 12. art. Elikadurarako eskubidea.

## 4. AKUSAZIOAREN ARRAZOI OROKORRAK

Ekonomia kapitalista liberala ezarri zenetik (zenbait egileren arabera, “Amerikaren aurkikuntza” gertatu zenean), aberastasunen akaparamenduan eta banaketa geostrategikoan oinarrituriko eredu politiko-ekonomiko bat inposatzen hasi zen, gehiago daukanari gehiago emanez, pobreenen bizkar. Ekoizpen-sistemaren markoan kokaturiko ikuspegi horrek Iparraldeko eta Hegoaldeko rola esleitzea dakar, eta halakoen zaintza orain nazioarteko erakundeen esku dago, besteak beste, Munduko Merkataritza Antolakundearen esku (MMA). Rol horien adibide dira, hain zuzen ere, aurkeztu diren kasu paradigmaticoak, eta haien oinarria da Hegoaldeko lurak erabiltzea Iparraldeko pribilegio kontsumistak mantentzeko behar diren elikagaien hornidura-iturritzat. Aitzitik, Iparraldean gutxietsi eta kanporatu egiten dira, baita indarkeriaren bidez ere, luraren inguruko tradizioari eustea eta mendeetan harekin sortu zen bizitza eta kulturazko lotura berreskuratzea aldarrikatzen duten sektoreak.

Ondorioz, Hegoaldeko herrialdeetan lur oparoenak monolaborantzako ekoizpen estentsiborako erabiltzen dira, toxikotasun handikotzat sailkatutako herbizidak eta ongari kimikoak erruz baliatuz, esportazioa xede. Hori dela eta, bertako biztanleak berak beren lurretatik kanporatuak gertatzen dira (bereziiki populazio indigenak, zeinek planetan geratzen diren paradisu natural bakanak zaintzen baitituzte), eta ikusi behar dute nola suntsitzen dituzten haien elikadura-sistemak eta nola mugatzen dieten elikagaiak erabiltzeko eta eskuratzeko aukera. Hala, muturreko pobrezia, gaixotasunera eta gosera eramaten dituzte, edo kriminalizatu, torturatu eta are erail egiten dituzte, prozesu horien aurka egiteagatik. Hegoaldeak, “munduko aletegia” ere deitzen dioten horrek, Iparraldea elikatu behar du (edo agro-

regai “ekologikoz” hornitu), oso kalitate gutxiko produktu ultraprozesatu batzuen bidez, Hegoaldeko bertako biztanleak gosez hiltzen uzten dituen bitartean.

Iparraldeak, bestalde, elikadura-sistemak despertsonalizatu egin ditu, eta jende gehiena enplegatu/langile bihurtu ditu; haiek, halabeharrez, merkatuan dauden elikagaiak merkatuak berak ezarririko prezioetan kontsumitu behar dituzte. Despertsonalizatze hori eragin da landa-eremua uzteko politiken bidez eta landa-tradizioei eusten dieten populazio-taldeen karikaturizazioaren bidez, ezjakintzat edo atzeratutzat hartuz, eta, beraz, baliogabetzat. Gaur egun, kontsumitzaileek elikagaiak kontsumitzen dituzte haien jatorria, hazteko modua eta ekoizpena zein diren jakin gabe. Hau da, ez da ikusten, platerean oilasko-bularki bat edukitzeko, animalia bat gaizki tratatu dela eta beste milaka animaliarekin batera antibiotiko eta hormona bidezko prozesuak jasanarazi zaizkiola, luzarora geure osasunarentzat ondorio larriak ekarriko dizkiguten prozesu batzuk, hain zuzen; eta gauza bera, Espainiako Estatuan urtarrilean jangarri-itxura edukitzeko, marrubi batzuek daramaten kimiko-kantitatearekin. Era berean, efektu maltzur gisa, produktu organiko eta ekologikoen moda sortu da, eta halakoak produktu arruntenak baino askoz prezio handiago batzuetan eskaintzen dira, eta hormonarik, antibiotikorik eta toxikorik gabeko produktutzat iragartzen dira: hortik atera dezakegun ondorioa da produktu kaltegabeak erosahalmen handia dutenek baino ezin dituztela jan. Eredu horren arabera, elikadura-burujabetza “aberatsen kontua” da.

Munduko elikadura-sistemak agroindustriako transnazional handien irabaziaren maximizaziorako planifikatze horrek eskubide ugari alde batera uzten eta urratzen du: elikadurarako eskubidea; ahal den osasun-mailarik onena izateko eskubidea; berdintasunerako eskubidea; eta pertsona bat eta/edo familia bat zernolako elikadura-sistemari atxiki nahi zaion erabakitzeko askatasuna. Horregatik, ikuspegi merkantilista horren pean, edozein proiektuk –zein ere jasangaitza den– balio handiagoa izango du finkatutako herritartasun-paradigma alboratu duten pertsonen bizitza-proiektu txikiek/handiek baino, pertsona horiek erroak berreskuratzea erabaki dutenean, eta beren autonomia eta emantzipazioa agertzea, kontsumitzaile hustzat hartzen dituen sistemaren aurrean. Erabaki delikatu hori hartzeak berekin dakar beren elikagaien sorkuntzan eta kontsumoan parte-hartzaile aktiboago bihurtzea, bai eta beren etorkizunaren sorkuntzan ere. Izan ere, halako ekimenak orokortuz gero, gizarte askeago bat eraikiko litzateke, jasangarritasunaren eta planeta zaindu beharraren kontzientzia handiagoa lukeen gizarte bat; hartara, burujabeagoa litzateke, bere erabaki eta eginei dagokienez. Era berean, Hegoaldean kulturak zein pertsonak suntsitzen dituzten ekoizpen-sistemak aldatzera behartuko luke, atsedendaldi bat emanik horrela, bai eta aukera bat ere, beren prozesu demokratiko propioak sortzeko eta beren identitatea deseraikitzeke, herrien burujabetza sostengatuz nola Iparraldean hala Hegoaldean.

## 5. AKUSAZIOAREN ARRAZOI PARTIKULARRAK

Euskal Herriko kasuan, baserritarrek nahiz eredu horren berezko ekoizpen-erek existitzeko duten eskubidea hartu behar da abiapuntutzat, Euskal herritarrok, bereziki, eta jakintza unibertsal guztia, oro har, halakoan jaraunse garelara, herrion originaltasuna eta antzintasuna direla eta.

Ez da posible garapenerako aukeratzat onartzea pertsonentzat eta ingurumena-  
rentzat ondorio kaltegarri gehiago sortzen dituen eredu bat, transnazional han-  
diei eta estatuei etekin ekonomiko itzelak sortzeko besterik ez. Horixe da kasua  
AHTaren proiektua (edo beste azpiegitura batzuk, hala nola frackinga) lehenes-  
tean, elikadurarako eskubidea eta lurra zein beste ondasun natural batzuk eskura-  
tzeko eskubidea urrututa ere, halakoak oinarria izanik herri baten elikadura-buru-  
jabetza bermatzeko. Galera horrekin batera, baserritarrak pixkanaka galduz joatea  
ere, euskal identitate eta kulturaren osagai garrantzitsua izaki, eskubide kulturalen  
urraketatzat kontuan hartu behar da.

Bigarren kasuan, salatu behar dira sojagintzako enpresek Argentinan hartutako  
indarkeriazko neurriak, biztanleak bortxaz kanporatzeko, edo desagerrarazteko,  
esportaziorako ekoizteko helburuz, biztanle horien oinarritzko eskubideak urratu-  
rik, besteak beste, haien bizitza bera.

Kasuetako lehena hartuz, Atxondo kasua, hain zuzen, Kikeri dagokiona, honako  
eskubide hauek urratu dira:

- AHTa egiteko proiektuaren ibilbideak hartzen dituen nekazaritzako lurral-  
deen nahitaezko desjabetzea. Ez ziren beharrezko kontsultak egin, libreak,  
aldez aurretikoak eta informatuak; gainera, hertsapena gertatu zen, jabe le-  
gitimoei desjabetzean, baldintzak onar zitzaten. Proiektuaren behargabeta-  
suna nabarmendu behar da.
- Inguruan proiektu horrek arlo guztietan sortuko duen kutsadura orokorra:  
hots-kutsadura 84-92 dezibelen artean legoke, maila optimoa 70 dezibele-  
tan dagoenean; ikusizko kutsadura: trenak espazioaren harmonia hausten du; ai-  
re-kutsadura: CO<sup>2</sup>-isurketen bidez; espazioaren kutsadura: harri-hondarrak  
gordetzeko sortuko diren hondakindegia direla bide; ur-kutsadura: ur frea-  
tikoaren kutsadura.
- Biztanleen bizi-kalitatea apaltzea, tokiko elikadura-sistemen bidezko elika-  
dura-autonomia bukatu eta/edo gutxitzean. Egoera horren ondorioa litza-  
teke elikagaiak hirietako merkatu edo supermerkatuetan erostea, eta horre-

tarako diru-baliabide gehiago beharko lirateke. Horrek –bai eta kutsadurak eta landa-eremuko identitate kulturala desagertzeak ere– bertakoen bizi-kalitatea apaltzea eragingo dute.

- Aurrekoarekin loturik, landa-eremua utzi, eta migrazioak gerta litezke, beste toki batzuetara joateko, bizi-kalitatearen galera dela eta; horrek landa-eremuaren despopulazioa dakar, eta hirietako biztanleak gehitzea, gaizki ordaindutako lanpostu batzuen bila.
- Tunela Urkiolako Parke Naturaletik 500 metrora baino gutxiagora igarotzen da, degradazioa eta kutsadura sorturik.
- “Balio justua” erabiltzea kalte-ordaina emateko neurritzat, aldebakarreko egintza baita.

Kasuetako bigarrenean, Marilu Gardokiri eta Xabi Akizuri dagokien kasuan, AHTaren trazatuak haien fruta-arboladia zeharkatzen zuen, eta aurka egin eta erresistitu arren, bikotea sinatzera eta desjabetzearen zenbatekoa kobratzera behartuta gertatu zen, dena galtzeko beldurrez.

Estatuak pertsona hauen elikadurarako eskubidea errespetatu eta babesteko bete-beharra hautsi du; izan ere, ez haren proiektuak ez hura gauzatzeko erabilitako bi-deek ez dute bermatu aipatutako pertsonen elikadurarako, askatasunerako eta elikadura-burujabetzarako eskubideak atxiki daitezten. Haien bizi-baliabideen zati bat suntsitzean, beste batzuk bilatzera eta hutsetik hastera behartzen dituzte, eta ez lukete kalte hori jasan beharko. Bestalde, basoa komunitate guztiak erabiltzen du, eta, hortaz, espazio publikoa pribatizatu egin da, kaltetutako komunitateei inolako onurarik ekarri gabe.

Kontsultarako eskubidea ere urratu da. Komunitate askok herri-galdeketak egin dituzte, edo azterlanak eginarazi –Atxondoko Udalak kasu–, zeuden informazio-hutsuneak betetze aldera. Horrez gain, tokiko lurren (publikoak zein pribatuak) akaparamenduaren aurkako gaitzespena agertu dute, eta negoziazio-mahaiak sortu dira ETSrekin (Euskal Trenbide Sarea), desjabetzeek kaltetutako jabeen aholku emateko.

Hegoaldeko elikadura-burujabetzaren inguruko ikuspegiari lotuz orain, egitateen kontakizunean aditzera eman denez, lehenik eta behin kontuan hartu behar da nekazaritzako elikagaien enpresak duten botere handia, esportaziorako monolaborantzan diharduten lur-jabe handiekin elkar harturik. Lurraren baliabidea erabiltzeko teknika ez da jasangarria, oso toxikoa izateaz gain, eta lurra bera sun-

tsitzen du. Enpresa horiek, hala, baliabide-harrapari bihurtzen dira, etekin gehien sortzen dituzten lurren bila, ongien zaindutakoak direlako, hain zuzen ere. Horregatik, ez da harritzekoa behartutako kanporaketak batez ere komunitate indigenen aurka egitea, haiek gorde baitute ongien beren ondare naturala.

Nekazaritzako elikagaien enpresek irabazi handiak jasotzen dituzte, eta halakoek bide ematen diete eroskeriaren bidez erabateko zigorgabetasuna lortzeko. Horren froga da, komunitateak hamaika salaketa jarri arren, batek ere ez duela eraginik izan; are gehiago, gehiegikeria eta giza eskubideen urraketa larri horien aurka protesta egin dutenak kriminalizatu egin dira.

Azaldutakoaren ildotik, Iacu Cachi komunitatearen behartutako kanporaketari dagokion kasuan, hauek dira puntu nagusiak:

- Komunitatea bere antzinako lurraldetik kanporatzea bera. Komunitate indigenek badute eskubidea beren lurraldearen jabe izateko eta lurralde hori antolatzeko, bai eta bertako baliabide naturalez baliatzeko ere, beraiek garapenaz eta bizitze onaz duten kontzeptuaren arabera. Inork, inola ere, ezin ditu komunitateak kanporatu beren lurraldeetatik.
- Sistema enpresarial, politiko eta juridikoaren arteko konplizitatea. Estatu guztien betebeharra da haren lurraldean dauden pertsonen eskubideak errespetatzea, haien eskubideak urratu nahi dituzten hirugarren batzuegandik babestea, eta eskubideok gauzatzen direla bermatzea. Kasu honetan, Argentinako Estatuak bere gain du enpresek, talde paramilitarrek nahiz haren organoek berek (polizia) eta botere judizialak egindako delitu guztien erantzukizuna.
- Baso natiboaren legez kontrako mozketak. Estatuak komunitatearen baliabideak babestu behar ditu, eta legea betearazi.
- Soja transgenikoaren ereintza inposatzea. Estatuak elikagai-eskaria asetzeko ekoitzi behar dute; alabaina, esportaziorako ekoizpenaren filosofiaren arabera, pertsona-talde txiki batentzat etekinik handiena ateratzea izango da erabakigarria labore-lurren erabileran.
- Talde paramilitarrak erabiltzea, inguruan muturreko indarkeria erabiltzeko: haurrek eskolara joateari utzi diote (hezkuntza-eskubidea); ez dago mugitzeko askatasunik; eta pertsonak ohiko bideetatik joateko beldur dira
- Beste urraketa bat, oso larria, komunitatearen ur-putzuak berariaz pozoitu izana; horrek bertakoen heriotza ekar dezake, edo ura izateko eskubideaz



gabetzea. Baina agrotokikoen aldetik ere gertatzen da pozoidura; izan ere, lursailen fumigazioek animalien heriotzak, fetuen malformazioak eta biztanleen osasunarentzako kalte larriak eragiten dituzte.

## 6. AUZITEGIARI ESKATUTAKO ERABAKIAK

Aurreko guztiagatik, eskatzen da auzitegiak AHTaren proiektuaren aurkako erabakia eman dezala, honako arrazoi hauek direla eta:

1. Lehenik, giza eskubide eta oinarritzko eskubide ugariren urraketan Espainia-ko Estatuak eta Eusko Jaurlaritzak duten erantzukizuna, prozesu hau sortu duten beste eskubide batzuen artean, ahal den osasun-mailarik onena izateko eskubidea, elikadurarako eskubidea, eta ingurumen osasuntsu bat izateko eskubidea urratu direla.
2. Ez da behar bezala frogatu AHTaren proiektuaren “interes publikoa”, ez eta haren iraunkortasuna ere denboran zehar.
3. Desjabetzeen ondoriozko lurren eta herri-ondasunen akaparamendua indarrez edo hertsapenez lortu da, enpresen interesen onerako.
4. Testu inguru horretan, arreta jarri behar da ahultasun-egoeran dauden bi kolektiboren eskubideetan. Batetik, gazteak daude, etorkizun duin bat lantzeko egoera ekonomiko oker bati aurre egin behar diotela. Kolektibo horretan, langabeziaren nahiz enplegu prekarioen tasa oso handia izateaz gain, landa-ingurunea uztera bultzatua gertatzen da, landa-eremua babesgabe uzten duten politikak direla eta. Bigarrenik, tradizionalki emakumeak jabetzari eta lurra eskuratzeari loturiko sistemetatik baztertu izan ditu sistema sozial, juridiko eta politiko patriarkal eta kapitalista batek, eta, horrenbestez, halakoen defentsarako negoziazioetatik ere bai. Hala ere, emakumeak berak arduratu izan dira etxeko baratzeko eta autokontsumorako ekoizpenez, baita etxeko bertako lanaz eta, zenbaitetan, soldatapeko lanaz ere, batere aitormenik jaso gabe.
5. Halaber, auzitegiari eskatzen zaio elikadura-burujabetzaren aldeko erabakia eman dezala, nekazaritzako elikagaien sistemaren garapena era jasangarrian gidatzeko ardatz gisa, hau da, ekoizpen agroekologikoko sistemen bidez, tokiko elikagai osasuntsuak, kalitadedunak, kulturalki egokiak eta nekazari-entzako lan-baldintza duin batzuetan oinarrituak ekoitzita, baserriko ereduan gertatzen den bezala. Ekoizpen-sisteman aldaketa hori egiteak pobrezia

desagerrarazten lagunduko luke, elikagai osasuntsuak, behar adinakoak eta egokiak ekoiztea eta eskuratzea bermatuko luke, eta bioaniztasuna kontserbatzen nahiz klima-aldaketa geldiarazten lagunduko luke.

6. Aurrekoarekin loturik, Espainian lurra izateko eskubidea berreskuratu eta sendotzeko nahiz ondasun komunak atxikitzeke deia egiten da, elkartasunean eta bakean oinarrituriko gizarte-ehun bat berregituratzeko, eta herriak beren giza eskubideen bermearen bidez garatzeko, merkatu espekulatiboaren interesak gorabehera.
7. Auzitegiari eskatzen zaio Espainiako Estatuari eta Eusko Jaurlaritzari gardentasuna izatea eta kontu ematea galdegin diezazkiela, bai eta AHTan parte hartu duten eraikuntzako ABEE guztiei ere (aldi baterako enpresa-elkartek). Bereziki, erakunde horiek frogatzea "interes orokorra" delakoa, eta kontabilitate argi eta zehatz bat erakuts dezatela, esleitutako dirutza publiko itzela nora joan den azaltzeko modukoa. Era berean, eskatzen da erantzukizunak erreklama daitezela abiadura handiko trenbidearen trazatuan dauden akatsengatik; eta, bukatzeko, azpiegitura horren epe luzerako iraunkortasun ekonomikoa frogatzea, haren zorpetze handia dela eta.
8. Azkenik, Herri Auzitegiari eskatzen zaio erakunde publiko guztiei galdegin diezaiela nazioarteko hitzarmenetan berretsitako giza eskubideak errespetatu, babes eta bermatu dituzten; izan ere, Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioaren arabera (1986), eta zehazki konbentzioko 27. artikulua arabera, Estatu orok bete behar ditu berak berretsitako tratatuaren ondoriozko nazioarteko betebeharrak, halakoak haren barne-arauetara egokiturik egon zein ez. Betebehar horren jatorria da estatu batek tratatuak berrestea baimen librearen eta onustearen printzipioetan nahiz pacta sunt servanda arauan oinarritzen dela, bai eta guztien giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetu unibertsalean ere, Nazio Batuen Gutunean adierazita dagoenez.

Bigarren kasurako, Herri-Auzitegiari eskatzen diogu agerian jar dezala:

1. Giza eskubide eta oinarritzko eskubide ugariren urraketan Argentinako Errepublikak duen erantzukizuna, prozesu hau sortu duten beste eskubide batzuen artean, ahal den osasun-mailarik onena izateko eskubidea, elikadurarako eskubidea, eta ingurumen osasuntsu bat izateko eskubidea urratu direla.
2. Dagoen konplizitatea, sistema judizialaren, agronegozioko enpresaburuen eta botere politiko nazionalak halako egoerei emaniko babesaren artean, hori oinarritzeko frogatzat hartuz –komunitate horri pairarazitako giza eskubi-

deen urraketa larriengatik ere— Estatuak eta haren erakundeek komunitate horretako pertsonen giza eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzeko beren betebeharrak bertan behera utzi dituztela.

3. Halaber, auzitegiari eskatzen diogu erabakia eman dezala, dokumentaturiko egitateen inguruan Estatuak ikerketa inpartzial bat abiarazteko beharrari buruz, ikerketa horren bidez egitateak argitzeko, erantzukizunak eskatzeko (egiteengatik zein omisioengatik), errudunak zigortzeko, eta sistema bat ezartzeko biktimei ordaina emate aldera, Amerikako Auzitegiak ezarritako parametroei jarraituz.
4. Estatuaren erantzukizuna komunitate indigenen eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzeko garaian, haien lurraldeei eta ondasun naturalei lotutakoak bereziki.
5. Sojagintzako enpresak, haren jabeak, eta komunitateko kideen giza eskubideen urraketa larrietan parte hartutako langileek duten erantzukizuna, berriz ez gertatzeko bermeak eskatzeaz gain.

## **KASUAREN LABURPEN FITXA<sup>146</sup>**

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:** Bizilur

**TOKIA:** Euskal Herria

**TESTIGANTZA EMATEN DUEN PERTSONA:** Valentín Jauregi eta Aitor Solozábal



Valentín Jauregi eta Aitor Solozábal Herri-Auzetegian beraien testigantza ematen

### **Azpiegitura suntsitzailea eta bideraezina**

998. urtean abiadura handiko tren baten inguruko zurrumurruek hasi ziren, hiru euskal hiriburuak elkartu ondoren hiriburuok Espainiako eta Frantziako Estatuekin lotuko zituen. 2004-2005 artean publikoki aurkeztu zen Abiadura Handiko Trenaren (aurrerantzean, AHT) ibilbidea, gaur egun Euskal Y izenaz ezaguna dena (192 km-ko ibilbidea); guztira, 10.000 milioi euroko inbertsioa dakar azpiegitura honek. Planifikazioa eta diseinuaren eskumena Espainiako Gobernuaren Sustapen Ministerioarena eta Eusko Jaurlaritzarena izan da.

2006an hasi zen AHTa eraikitzeko obra, eta euskal paisaiaren bereizgarritasunak direla eta, ibilbidea konplexua eta suntsitzailea da: %70 tuneletan barrena doa,

<sup>146</sup> Fitxa osorik eta kasuaren dokumentazio guztia hemen: <https://www.decrecimientoybienestar.info/eu/bizimodu-jasangarrien-aldeko-herri-azuzitegia/>

eta %10 zubibideetatik. Gaur egun, ibilbidearen zati handi bat eraikitzen dabil-tza oraindik ere, eta azpiegiturari dagozkion alderdi garrantzitsu batzuk ez daude zehaztuta.

Trenbide-sare hau Espainiako eta Frantziako Estatuko hiriburuen artean konexio azkarra edukitzeko asmatu zen bereziki. Hala ere, ez dago bi konexio horiei bu-ruzko proiekturik ezta aurrekonturik, eta zalantzak daude bideragarritasunari da-gokionez. Gainera, adituen arabera, hiriburuen arteko distantzia laburra dela eta, AHTak ezin izango du bidaietan denbora nabarmen murrizteko espero zen abia-dura hartu. Erabiltzaile profil nagusia negozio-gizon zuria da, eta horrek errenta baxuko pertsonak baztertzea dakar.

Hartara, AHTaren arrakastaren hasierako oinarriak, gaur egun, ezerezean geratu dira.

### **Lurraldearen defentsaren eta elikadura burujabetzaren alde mobili-zatuta**

Bestalde, elikadura burujabetzako ikuspegitik, hipotekatu egin da lurraren era-bilera (674 hektarea desjabetu dira) eta baita baliabide natural asko ere; horrela, pertsonen premia errealekin bat datorren lurralde-antolaera ukatu zaie, eta tokiko elikagaiak ekoizteko aukera oztopatu.

Bilbon ospatutako Bizimodu Jasangarrietarako Herri Auzitegiak 1.400 eta 1.600 biztanle dituzten Atxondo eta Ezkio Itsaso herrietako kasu paradigmaticoak sa-latu ditu. Nekazaritza tradizioa duten bi herrioi lurraldearen zati handi bat desja-betu diete. Inguruko nekazaritza kaltetu du horrek, eta ondorioz, baita elikadura burujabetzarako eskubidea ere. Eta jakina, pertsonen bizi-kalitatea ere kaltetu du, baita paisaia ere. Bi komunitate hauek hasieratik adierazi dute AHTaren aurkako jarrera irmoa.

**KASUAREN LABURPEN FITXA<sup>147</sup>**

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:** MNCI (Argentina)

**TOKIA:** Bajo Hondo, Juan Felipe Ibarra departamendua, Santiago del Esteroko probintzia (Argentina)

**TESTIGANTZA EMATEN DUEN PERTSONA:** Iacu Cachi komunitateko Fabián Ernesto Orellana



Fabián Ernesto Orellana Herri-Auzetegian bere testigantza ematen

## Enpresen interesak eta desplazamendu behartuak

Argentinako landa sektorean, nekazaritza lurak familia kontserbadorez osatutako oligarkia baten eskuetan pilatzen dira nagusiki. Familia horiek transgeniko-ekoizle nagusien interesak ordezkatzen dituzte, eta nekazaritzan eredu industrial neodesarrollista ezartzearen alde egiten dute. Eredu horren helburua da herri indigenen, nekazari txikien eta eremu babestuetako lurraldeetako baliabide naturalak kontrolik gabe ustiatzea, nekazaritzako negozio-eredua eta monolaborantza zabaltzeko.

<sup>147</sup> Fitxa osorik eta kasuaren dokumentazio guztia hemen: <https://www.decrecimientoybienvivir.info/eu/bizimodu-jasangarrien-aldeko-herri-azuzitegia/>

Helburu horrekin, azken hamarkadetan enpresariak bortizki oldartu zaizkie komunitateei haien eskubideei uko egin diezaieten, eta epaiz kanpoko kaleratzeekin mehatxu egiten diete. Herri indigenek lurraekin duten harremana ezinbestekoa da bizirik iraun eta garatu daitezen; hortaz, komunitatearentzat heriotza-epaia da beren lurraldetik desplazatzea edo baliabide naturalak kentzea.

Horren ondorioz, Bajo Hondoko Guaycurú herriko Iacu Cachi komunitate indigenak etengabeko gatazka eta erresistentzia egoera bizi izan du azken urteotan, eta mehatxuak, legez kanpoko atxiloketak eta torturak pairatu dituzte polizien aldetik. Halaber, komunitateko kideak arrazoirik gabe kriminalizatu dituzte, eta delitu faltsuak leporatu dizkiete. Horrekin batera, enpresariak kaputxadun armatuen taldeak sartu dituzte lurraldean; talde hauek landako eremu murriztu batean familiak gatibu mantendu eta indarkeria eta beldurra baliatuz estortsio egin diete, komunitateko bideak blokeatzen dituzte eta miaketa operazio ilegalak egiten dituzte.

### **Indarkeriaren inpunitatea eta lacu Cachi herriaren erresistentzia**

90eko urteetan 40 familia inguru bizi ziren Bajo Hondon, 4000 hektarea inguruko eremuan. Ordutik, hainbat enpresa-gizonek (Putiniano, Bielsa...) lurren zati handi bat bereganatu dute eta antzinako benetako jabeak bota dituzte, basogabete eta hesitze lanak segituan abiatzeko.

2012an Orlando Canido enpresa-gizona, Manaos soda edariaren jabea, iritsi zen lurraldera. 4000 hektarea erosi zituela adierazi zuen, eta herritarren aurka egin zuen haien jabetza eskubideak eta akzioak eman zitzaizten, bestela lurraldetik epaiz kanpo botako zituela mehatxatuz.

2016ko uztailean lau kamioneta eta aurpegia estalita zuten 20 pertsona armatu bortxaz sartu ziren lurraldean; Valeria Araya eta Mari Leguizamón mehatxatu zituzten, animalien kortak eta askak suntsitu, erre eta ur putzuak pozoitu zituzten. Irailean, Orlando Canidoren Manaos enpresako hiru kamioneta —armatutako 15 pertsona barruan— lurraldean sartu ziren eta komunitatearen aurka tiroka oldartu ziren. Komunitateko biztanleak mendira ihes egin behar izan zuten babes bila seme-alabekin; gizon armatuek haietako bat zauritu zuten, eta haien etxeak eta ibilgailuak nola erretzen zituzten ikusi zuten.

Egoera horretan hurrek herriko eskolara joateari utzi diote, etengabe kontrolatzen dituztelako, eta hortaz oinarrizko hezkuntza-eskubidea urratu diete. Gainera, gobernuak eta botere judizialak enpresariaren inpunitatea babesten dute, eta hartara, komunitatearen salaketek ez dute eraginik izan.

Besteak beste, Iacu Cachi komunitate indigenak elikadura-, hezkuntza- eta osasun-eskubideei dagokienez, baita askatasunez mugitzeko eskubideari dagokionez ere, eskubide-urraketa larriak pairatu ditu.



## LURRALDERAKO ETA ELIKADURA-BURUJABETZARAKO ESKUBIDEAREN ARDATZA

Esti Redondo Adituaren Txostena (2017ko iraila)



Esti Redondo Adituaren Txostena aurkezten Herri-Auzitegian

### 1. GAIAREN TESTUINGURUA EDO AZTERKETA OROKORRA

Bizi garen mundu honetan, nazioarteko hamar korporaziok hartzen dituzte erabakiak planetako milioika pertsonaren elikaduraren gainean. Iraultza berdea eta nekazaritza kapitalista garatu izanak gaur egun ditugun datuak ekarri ditu: munduko pertsona gosetuena %70 elikagai-ekoizleak dira, emakumeak gehien-gehienak.

Sistema agroindustrial horrek oso ezaugarri zehatzak ditu, hogeigarren mendeko hasierako hamarkadetako industria belikoetan oinarriturikoak, eta nekazari-bizitza eraldatu dute, ez bakarrik ekoizpen-sistemen aldetik, erreprodukzio-sistemen aldetik ere bai.

40ko hamarkadan, munduko gosea desagerrarazteko aitzakiaz, elikagaiak ekoizteko metodo klasikoak ordezkatuko zituen sistema industrial bat garatzen hasi zen. Sistema berri horrek oinarriak ezarri zituen gaur egin bizitzen eta pairatzen

ari garen joera eta ondorio askotarako. Ekoizpenaren arloan, familia eta komunitateen elikadura-beharrizanak asetzeko funtzio nagusia zuten alor bioanizkun batzuetatik monolaborantzako ekoizpen batzuetara igaro ginen, ekoizten diren lekuan ere kontsumitu gabe, askotan. Brasilen diotenez, *“nekazaria da jateko erein, eta soberakina saltzen duena; lur-langilea, saltzeko erein, eta soberakina jaten duena”*.

Monolaborantzarekin batera, ondasun komunuen pribatizazioa etorri zen: lurra, ura, basoak, haziak, ezagutza... Komuna/komunitatearena zen jabetza banakoen eskuetara igaro zen, eta tokiko familiak ondasun horien erabileraz eta aprobe-txamenduaz gabetu ziren. Erabakiak hartzeko prozesua, hala, komunitateetatik bulegoetara aldatu zen.

Bereziki mingarria da hazien, bioaniztasunaren eta halakoei tradizioz lotuta joan ohi diren jakintzen kasua; izan ere, balioa galdu eta laborategietara eramatean, aldi berean erabakitzeko ahala ere hara eraman zen. Nekazariak milaka urtean egin zuten zaintza- eta hobekuntza-lana ikusezin bihurtu zen, ukatu egin zen, eta kasurik okerrenetan, legez kanpo ere utzi zen, gero onura pribaturako aprobe-txatzeko.

Handizki pentsaturiko eredu bat da, metatzeko helburuz (kapitalista petoari dagokion bezalaxe), inbertsio handiak, gastu handiak behar dituen eta irabazi handiak atera nahi dituen. Merkatuaren logika da, diruak hara-hona ibili behar du. Berarekin batera, beraz, makineria handia, lur-eremu handiak, instalazio handiak... izaten dira. Aldaketa-plana aurrera eramateko, gauza batzuk falta ziren, beste batzuk sobera zeuden. Pozoiak eta ongari kimikoak falta ziren, sistema horrek ezin baitu iraun agrotoxikoak kantitate handietan erosi eta erabili gabe. Biozidak negozio bilakatu ziren, eta, hortaz, ez ziren zalantzan jartzen haien etika edo ekar zitzaketan ondorioak.

Sobera, nekazariak zeuden. Sistema “moderno” horrek makineriaren aldeko apus-tua egin zuen (traktoreak, abionetak, fumigatzeko makinak...), eta horrek esku-lanaren beharra murrizten du, eta komunitateak kanporatzen hasten da. Datu bat emategatik, Brasilen, MPAREN arabera (Nekazari Txikien Mugimendua), agronegozioak pertsona bat behar du 176 hektareako, eta nekazarien laborantzak, aldiz, bi pertsona behar ditu hektareako.

Argi dago jende asko sobera zegoela; nahikoa ezagunak dira exodoa bultzatze-ko metodoak, hala nola landa-eremua zerbitzurik gabe uztea, itotze ekonomikoa, xantaia, mehatxuak, erailketak... Eta hori hainbat aitzakia jarritz egiten da, “guz-tien onuraren” edo “interes orokorraren” gerizpean. MOCASEk eta Bizilur-ek auzitegi honetara aurkeztutako kasuetan aditzera ematen denez, Argentinan ko-

munitateak kanporatzen dira “aberastasuna sortzeko” sojarekin, edo Euskal Herrian baserritarrak beren lurretatik bidaltzen dira haien ekoizpena “interes partikularrekoa” delako, eta AHTa, “interes orokorrekoa”.

Azkenik, ekoizpen-eredu agroesportatzailearen ezaugarri kaltegarriei buruz luze eta zabal hitz egiten jarraitzea genukeen arren, hitz egin dezagun merkaturatzeaz. Eskala handiko monolaborantzako eredu horretan, ekoizten dena ez da kontsumitzen eta saltzen hurbiltasunari edo herritarren beharrezan loturiko irizpide batzuekin. Negozio handia garraioan dago, eta elikagaiak munduaren beste bazterreraino eramatean. Hala, toki bakoitzean gauza bat edo bi ekoiztea egokitzen zaigu; Argentinan, batez ere, soja transgenikoa Europako ganadu-pentsuetarako; eta Euskal Herrian oraindik ere behin eta berriz esaten digute hobe ezer ekoizten ez badugu, hobe guztiz parasitarioa den zerbitzu- eta kontsumo-gizarte honetan txertatzen bagara. Horrexegatik, soja transgenikoaren laborantza masiborako lurdesjabetzeak edo abiadura handiko trena egiteko desjabetzeak txanpon beraren bi aldeak dira, logika berarekin eta sistema beraren barnean diseinaturikoak.

## Aldaketak ere arlo erreproduktiboan

Desjabetze horiek eredu agroesportatzailean laguntzen dute, eta azken horrek, lehen ere esan dugunez, ekoizpen-bizitzak ez ezik, landa-eremuetako logika erreproduktibo guztia ere aldatu du, hango pertsona arteko harremanak zein egunero-ko bizitzaren beste alderdi batzuk. Idealismoaren idealismoz nahasi egin gaitzke; iraultza berdearen aurretik, patriarkatua jaun eta jabe zen, izan ere, landa-eremuko herri eta auzoetan, baina kapitalismoa patriarkatu horrekin sinbiosian sartu zen, biak aliatu eta eraldatu egin ziren, egungo zapalkuntza anizkuneko sistema sortzeko. Etxaldeko Emakumeen (Etxaldeko Emakume Baserritarrak) barne-debaterako agiri batean<sup>148</sup> azterketa bat egiten dute gai horri buruz:

- Sistema agroindustrialak pertsonen lanarekin zuten harremana aldatu zuen, konpartimentutan banatuz eta etekin ekonomikoak ekar zezakeen zerbaiten eran kategorizatuz. Horrek eragin zuen lana sexuaren arabera are gehiago banatzea eta gizonen eta emakumeen artean partekatutako lan-denbora gutxiago izatea; aldi berean, emakumeen lan-karga handitu egiten zen (lanaldi hirukoitza).
- Emakumei gizonetikiko mendetasun handiagoa sortu zien; nekazaritza industrialak “gizonena” da, eta emakumeak “besterentzat lan egitera” mugatu ditu. Boterea diruan zentratzen da, hartara, ekoizpen-lana egiten duenak erabakimen handiagoa dauka; aldi berean, txikia den guztia, patxadazko guztia,

148 ETXALDEKO EMAKUMEAK. Etxaldeko Emakumeak aurkezteko agiria. 2017ko ekaina.

- emakumeen jakintzak balioz gabetuz joaten dira.
- Horren ondorioa bikoitza da: batetik, lan eta espazio kolektiboak desagertzean, emakumeen bakartze handiagoa sortzen da landa-eremuan; eta, bestetik, etxeko espaziotik irtetera bultzatzen ditu, kanpoan ikastera eta lan egitera, espazio horietan libreago sentitzen direlako, hirigune handiago batzuetara migratzera.
  - Haurrekiko eta adinekoekiko harremana ere aldatzen da. Nolabait, ikusezin bihurtzen dira eta lehen betetzen zituzten funtzioak kentzen zaizkio; adinekoak enbarazutat ikusten dira, ez baitira produktiboak, ez dira aintzat hartzen haien ezagutzak edo gaitasunak. Eta haurrei ezagutza horiek berak ukatzen zaizkio, lurrarekiko eta elikadurarekiko loturaz gabetzen dira.
  - Gero eta integrazio gutxiagoko harreman horiek eragiten dute zainketa-tzako lekurik ez egotea eta zainketa horiek gero eta gehiago esternalizatzea. Bada continuum bat, alegia, emakumeek lan horiek beren gain hartzen jarraitzen dutela; lehen familiakoak ziren, orain langileak dira, eta askotan baldintza miserabletan lan egiten dute. Izan ere, zerbait aldatu ez bada, hori ikusezintasuna da, eta zaintza-lanorduen aitormen eskasa.
  - Familia arteko harremanak eta mundua ikusteko erak ere aldatu ziren. Ez diogu lehen lan kolektiboa eta elkartasuna erabat nagusi zirenik, baina sistema honek sakondu egin ditu lehian eta nork bere opilari su egitean oinarrituriko harremanak. Lan-esplotazioaren era berriak ere ekarri ditu, bereziki landa-eremuko langile immigranteentzat. Eta egoera hori nazioartean ere gertatzen da, planetaren alde bateko eta besteko ekoizleak elkarren aurkako lehian jarrita.
  - Hainbeste itxuragabekeriatik ezer ateratzekotan, hori izan da nekazarien erreakzio-ahalmena, nazioarteko elkartasunezko harremanak, eta sistemaren aurkako jarrera globalak.
  - Kontsumitzaileekiko harremanak urrunduz eta merkantilizatuz joan dira bitartekariak gehitzean. Ezagutzen ez dugunarekin elkartasuna izatea edo hura zaintzea zailagoa da; hala, ekoizle agroindustrialari berdin zaio bere produktuen benetako kalitatea, eta hura kontsumitzen duenari ez zaizkio axola ekoizten duenaren bizi-baldintzak.
  - Kontsumitzaileek gaur egun ustez duten “aukeratzeko ahalmenaren” izenean, elikadura gero eta neurri handiagoan irizpide estetiko batzuetan oinarritzen da, eta produktuei buruzko informazio garrantzitsu gutzia ezkutatu egiten da.
  - Naturarekin dugun harremana ere aldatu da. Baziren hainbat urte ondasun naturalak aprobetxatzen eta gehiegikeriaz erabiltzen ari ginela, baina hori larriagotu eta biderkatu egin da agroindustriarekin. Areagotzen da sistema endogamikoak izatetik –non espazioak aukerak asko mugatzen zituen– planeta guretzera eta aukera mugagabeak ikustera igaro ginelako. Areagotzen da, halaber, ondasunen pribatizazioa eta merkantilizazioa handitzen delako;

etekin gehiago denbora gutxiagoan nahi ditugulako, eta horrek naturaren be-  
rezko denborak behartzen dituelako. Eta, orobat, teknologia berriek hautsi  
egin dituztelako lehen geneuzkan suntsipen-mugak. Azkenean, naturarekin  
dugun harremana gero eta urrunagoa da, eta gero eta gehiago oinarritzen da  
ekonomiaren eta merkataritzaren arloko interesetan.

- Horrek guztiak beste harreman-elementu batzuetara garamatza. Dirua da orain erdigunea, botere eta pribilegioen iturria; aukera handiago bat dago, halaber, mugikortasun sozialerako eta metaketarako; lehen, lurra edukitzeak bizi-kalitatea esan nahi zuen, orain, pobrezia. Eta urteen poderioz beharrian berriak eta diru-laguntzekiko mendetasunak sortu dira.
- Badirudi mendetasuna dela ezaugarrietako bat harreman askotan; ekoizpe-  
nari begiratzuz gero, esaterako, sargaiekiko eta merkatuarekiko mendetasunak erabakimena murrizten ari dira. Zer landatu esaten digute, tresnak handizka saltzen dizkigute, denborak inposatzen dizkigute, horretan guztian sinesteko hezten gaituzte, gure autonomia mugatzen duten eta jakintza guztiari ospea kentzen dieten lege batzuekin inbaditzen gaituzte.
- Eta horren guztiaren ondorioz, elikadurarekin dugun harremanak ere alda-  
ketak jasan ditu: orain ez dugu hain sano jaten, globalago, lasterrago, presta-  
tuago jaten dugu, tokiko produktu gutxiago, eta, batez ere, gero eta gehiago merkatuan kontsumitzera eramán gaitu, eta geure burua elikatzeko alternati-  
bak gero eta gutxiago bilatzera.<sup>149</sup>

## Akaparamendua eta artifizializazioa

Kapitalismoa-patriarkatua-kolonialismoa aliantza hirukoitzari dagokion sistema konplexu hori garatuz eta konplexuagotuz joan da. Ondorioak asko eta askotari-  
koak dira, eta hemendik aurrera lurra eta lurraldeak metatzeari eta artifizializa-  
tzeari loturikoan zentratuko gara, aurkeztu diren bi kasuak, gure ustez, kokatuta dauden esparruan, alegia.

GRAINEk 2016an lur-akaparamenduari buruz eginiko azterlanak<sup>150</sup> egiaztatu egi-  
ten du hektarea-kopurua gora doala oraindik ere; hortaz, fenomenoaren problematiko-  
tzat hartzen jarraitzen du, eta jarraipen berezia egin behar zaiola deritzo. Aditza-  
ren ematen duenez, helburu nagusia aldatu egin da; duela zortzi urte aitzakia zen beren  
mugapean nahikoa ekoizteko ahalmena ez zuten herrialdeen elikadura-segurta-  
sunarekiko interesa; gaur egun, agronegozioaren hedapena. Txostenak honela dio,  
gainera: *“Orain ere ebidentzia nabarmenagoa dugu, garraioa eta energiaren*

149 ETXALDEKO EMAKUMEAK, , Análisis de las consecuencias de la agroindustria en nuestras relaciones

150 GRAIN (2016) El acaparamiento global de tierras en el 2016, sigue creciendo y sigue siendo malo, Bartzelona, GRAINen txostena

*eta petrolioaren errekontzak ez ezik, bai elikagaiak ekoizteko sistema industrialak eta bai haren hedapena bultzatzen duen baliagarritasun-bilaketak ere kausatzen dutela klima-krisia. Hain zuzen ere, klima-aldaketa eta lur-akaparamendua oso estu lotuta daude elkarrekin*". Alde positiboan, bada errotik aldatu den zerbait, duela zortzi urtekoarekin erkaturik, negozio-akordio horiek eragin duten erresistentzia- eta mobilizazio-maila, hain zuzen. Pertsonak orain informatuago daude, eta inoiz baino gehiago erreakzionatzen dute.

**Argentinako Santiago del Esteroko** kasuan, lurren erabileraren aldaketak bi fenomeno ditu oinarrian. Batetik, belaunaldietan zehar bertan bizi izan diren eta lurra landu duten hainbat familia kanporatu izana; eta, bestetik, probintzian oraindik geratzen diren zuhaitz-eremuak basogabetu izana, gehien bat El Chaco aldean.

Egun, eskualde horretako laborantza nagusia sojagintza da, labore, barazki eta animalien nahaste tradizionala ordeztuta. Gaur egun oraindik da nagusi –erresistentzian ari diren komunitateetan– familien elikadura gutxi-asko orekatua bermatzen duen sistema agroekologikoa. Hala eta guztiz ere, sojak 17 milioi hektarea ere hartu ditu Argentinan, eta nekazaritza eta abeltzaintzaren mugak izandako aurrerakadaren eragile nagusia da. Argentinako lur landuaren %50 soja transgenikoak okupatzen du.

Soja hazteko lurrak erosteak etekintsua izateari utzi zion, eskakizun handiegiko labore bat delako eta erabiltzen duen agrotokiko-kantitate handiak lurra oso denbora gutxian antzutzen duelako. Orain boladan dagoena da lurrak alokatu edo okupatzea, eta bertan behera eta mortu uztea ustiapen intentsiboko lauzpabost urteren buruan. Horretarako badute bide-orri bat: *“Argentinako Iparraldean asko erabiltzen da lekualdatzearen metodologia; hala, agroenpresaburuek lur-eremu handiak alanbrez hesitzen dituzte, helburu espekulatiboz itxaroteko, edo bortxaz olandatzen zaizkie komunitateei, beren eskubideak lagatzera behartzeko, eta kanporatze estrajudizialekin mehatxatzen dituzte”*<sup>151</sup>. Sistema horrek eragiten du nekazaritza eta abeltzaintzaren mugaren aurrerakada are bizkorrago gertatzea, eta aurrerakada horrek, hain zuzen, bidean aurkitu duen bizia suntsitu egin du, komunitateak izan zein baso natiboak izan.

Gonzalo Cambak bere tesian honako hau idatzi du probintziaren deforestazioari buruz:

*“Santiago del Esteron eraldatu zen azalera 4 milioi hektareatik gorakoa izan zen. Eraldaketa handiagoa izan zen 2003tik 2008ra bitartean. Probintziaren eralda-*

<sup>151</sup> MOCASEren txostena (2017), Herri Auzitegia, bizimodu jasangarriak izateko eskubidearen alde - Euskal Herria, 2018.

*keta-tasa 2000-2012 aldian handiagoa izan zen ekoeskualde osoan, Hego Amerikan eta are munduan izandakoa baino, beste baso-mota batzuk gainditurik.*

*Basoei buruzko legearen eraginkortasuna partziala izan zen; izan ere, eraldatutako azalera eta tasa gutxitu egin ziren probintzian, baina agerian geratu zen legea ez zela bete, basogabetzea baimendua ez duten kategorien gainean gauzatutako eraldaketa handia dela eta.*

*2000-2010 aldian, gutxi gorabehera 52.158.000 hektarea baso eraldatu ziren mundu osoan, eta haietatik %76 (39.971.000 ha inguru) Hego Amerikakoak izan ziren (FAO, 2011). Era berean, aldi horretan bertan, basoen batez besteko eraldaketa-tasa 3,4 aldiz handiagoa izan zen Hego Amerikan, munduko batez besteko tasa baino (FAO, 2011). Eskualde honetan, aldatetarik gehienbat hiru baso-ekosistemaren gainean gertatu ziren: Cerrado (Brasil), Chiquitanos-eko oihana (Bolivia) eta Amerikako Gran Chaco (Argentina, Bolivia eta Paraguai) (Volante, 2014).”*

Horregatik, hemen aurkeztutako kasuaz gain, probintzian badira, neurri handiagoan edo txikiagoan, antzeko egoeran dauden 37 komunitate. Haietako batzuetan badaude guardia armadunak, kanporatzeko mehatxuak, eta abar, eta guztien kasuan botere judizialak ez du komunitateen aldeko akziorik batere gauzatu.

Euskal Herriarentzat, lur-akaparamendua garrantzizkoa izanik, are garrantzi handiagokoa da lurraldeen artifizializazioa; kasu horretan, urtero porlanizatutako hektareen kopurua izugarri gehitu dute azpiegitura handiek, hala nola AHTak, autobiek, eta beste garraio-sare batzuek, etxeen eraikuntza masiboarekin eta industrialde berrien nahiz kontsumo-esparru berrien ezarpenarekin batera.

Jasangarritasunaren Behatokiak eginiko “25 Años urbanizando España: La generación que multiplicó la superficie artificial de una forma insostenible 1987-2011” (URB16) txostenak oso datu kezagarriak ematen ditu EAERI buruz:

*“Euskadiko azalera artifiziala 41.317 hektareakoa da egun. Horren arabera, eraikuntza eta azpiegiturekin okupatutako lurzorua %5,83 dela, azalera guztitik (708.900 hektarea). Ebuneko horrekin, EAE laugarren autonomia-erkidegoa da Espainiako Estatuan, azalera artifizial gehien daukatenen artean; Madril, Kanariak eta Valentziako Erkidegoa dira bark baino gehiago daukatena.”*

Txosten horren arabera, Euskadiko azalera guztiarekiko azalera artifizialaren tasak (%5,83) alde handiz gainditzen du estatuko batez bestekoa –azken hori %2,42 izanik–, %75eko hazkunde erlatiboa izan eta gero 1987az geroztik (estatuan %55ekoa izan da hazkunde erlatibo hori).

EAE n, azalera artifiziala egunean 2,02 hektarea hazi da azken 25 urteetan; horren ondorioz, pertsonen esku-hartzea dela medio eraldatu den azalera guztiaren %48 industriak, merkataritzak eta garraioek okupatzen dute, eta %39,76 hiri-eremuak dira. Euskadiko azalera artifizial guztiaren %43k eraldaketa 1987az geroztik jasan du, alegia, aurreko historia guztian ia bezainbeste lurzoru okupatu da azken hiru hamarkadetan.

Nafarroan, 2010ean, artifizializaturiko hektareak baziren 30.000 baino gehiago; hogeita hamar urtean boskoiztu egin dira. Garraioari begiratuta, Europako errekorra dugu errepide- eta trenbide-kilometroen kopuruan: 82,9 kilometro autobia 1000 kilometro karratuko. Azpiegitura horiek lurraldearen %1 hartzen dute dagoeneko. Eta bitartean, datuak bestaldetik begiratuta, 2001. urtean jada aditzera ematen zen lur landuen azalera erdira murriztua zela 10 urtean, eta azken hamarkadan nekazaritza-azalera izandako galera %4koa zela.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei (aurrerantzean, LAG) Desazkundea kolektiboak aurkezturiko alegazioetan honako hau esaten zen:

*“mugikortasuna %314raino igo da. Euskal Hiriak mugikortasun-fluxuen diagramak marrazten jarraitzen du, halakoei arbitrariotasunez “jasangarriak” deituta, eta horiek babesa ematen diete, halaber, errepide, AHT, portu eta aireportuen hedapenerako plan sektorial zenbatezinei.*

*Sistema horrek berekin dakar eskualde, herrialde eta kontinenteen arteko fluxuen gebikuntza nabarmen bat, produktu eta zerbitzuen etengabeko truke batean. Horrek sortzen du, batetik, fluxuek zirkulatzeko azpiegitura konplexu batzuen beharra, eta, bestetik, biltegiatzeko, stockak kudeatzeko, karga zatikatzeko, trukatzeko, eta abarretarako leku espezializatuak egon beharra. EAE n, garraio-azpiegiturek okupatzen duten lurralde-ehunekoa Europako batez bestekoa halako bi da.*

*Hori etorkizunari begira aglomerazio- eta eskala-ekonomia baten aldeko apustua egitea da, plataforma logistikek garrantzi handia bereganaturik hala, bai eta garraio-azpiegituren eraikuntzak ere (esaterako, abiadura handiko tren edo Bilboko superportua).”*

Alegazio horietan lurralde-antolamenduaren beste ondorio batzuk aipatzen dira, abiapuntutzat balio digutenak azterlan honek planteatzen dituen dimentsioen azterketarako.



## Ondorioak eta haien harremanak

### Ondorio biopsikozialak

**Exodoa hirietara eta beste herrialde batzuetara.** Lehen ere aipatu dugu sistema hori (hedabideak, hezkuntza-sistema...) hirietarako exodo bat sortzen ari dela. Batzuetan, sistema guztiak leku horiek garapen eta ongizaterako lekutzat izendatzen dituelako; eta beste batzuetan, landa-eremua bertan behera uzten delako, zerbitzurik gabe, eta bizitza duin bat izateko aukerak desagertu egiten direlako.

Sistemak prozesu horiek bizkorragotu nahi dituzenean, bide zuzenagoak erabiltzen ditu, presio ekonomikotik hasi, eta zapalkuntzaraino. Horren ondorioa da hainbat familiak jatorriko lekua uzten dutela hiri handietan bizitzen jartzeko (Argentinan), edo lurra lantzeari uzten diotela eta lanpostuak lortzen dituztela industrian edo zerbitzuetan (EH). Horrek badu eragina bizitza sozial eta komunitarioan, eta eragiten du bakartzea, autoestimua apaltzea –hutsetik hasi behar izategatik–, jakintzak galtzea, harremanak galtzea... Belaunaldi berriak landa-eremuari bizkarra emanik hezten dira, eta guztiz bestelakoak diren balio batzuekin. Elikagaien ekoizpenak ematen duen duintasuna galtzen da, harreman sozialak gutxitzen dira, belaunaldi arteko transmisioa... Ondorioak bereziki kezkarriak dira landa-eremuan geratzea erabakitzen duten emakumeentzat, bizitza soziala gutxienera murrizten baitute (eta alde egiten duten eta familiaren barruko rola galtzen dutenentzat), jada ezer ez dakitela eta ezer ulertzen ez dutela sentitzen duten adinekoentzat, eta inguruari buruzko ezagutza guztiak ukatzen zaizkien haurrentzat.

Euskal Herrian landa-eremu horri berriz ematen zaio balioa bizi-kalitate bikaineko ingurunetzat, eta, hirian lan egiten dutela, landa-ingurunean etxebizitza bat (lehen edo bigarren etxebizitza) erosi ahal duten pertsonak okupatzen dute. Landa-eremuak ez dira gehiago elikagaiak ekoizteko lurralde komunitarioak, eta urbanizazio bihurtzen dira, lurraren prezioaren gainean presio handia sortuta. Lur horren erabilera aldatzen da, eta merkantilizatu egiten da, kultura desagertu eta globalizatu egiten da, eta elikagaiak ekoizteari uzten diote.

**Osasun fisikoa.** Argentinako kasuari dagokionez, esan behar da soja transgenikoak glifosatoa jasaten duela; hortaz, fumigatu egin daiteke, eta gainerako belarrak desagertuko dira, baina soja osorik geratuta. Soja-mota hori erabiltzeko arrazoi bakarra da haren gainean glifosato-ihintzadura erabiltzea; bestela, ez du inongo zentzurik.

Glifosatoak pertsonen zein planetaren osasunean dituen eraginei buruz MOCASEk eginiko azterlanak<sup>152</sup> oso datu interesgarriak ematen ditu horrek pertsonen osasunari eragiten dionaren inguruan:

*“Soja ekoizteko egungo nekazaritza-ereduan, agrokimikoak zenbaitetan ongarriztat erabiltzen dira, baina gehienbat, izurrien eta belar txarren kontrolerako. Nagusiki erabiltzen den soja transgenikoa (RR soja eta haren aldaerak) glifosato herbizida jasan dezan eraldatu da genetikoki. Aminoazido aromatikoak (fenilalanina, tirosina eta triptofanoa) bidezidor metabolikoan funtsezkoa den entzima bat inhibitzen du glifosatoak landare baskularretan eta beste espezie autotrofo batzuetan.*

*Duela sei urte, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) glifosatoaren sailkapen toxikologikoa aldatu zuen, 4. klasetik (banda berdea) 3. klasera (banda urdina), hain zuzen. Gero, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Zerbitzu Nazionalak (SENASA), hori berretsi zuen, 302/2012 Ebazpenaren bidez. Aldi berean, OMEren mendeko Minbiziari buruzko Ikerketarako Nazioarteko Agentziak (LARC) glifosatoa kantzerigeno probablea deklaratu zuen.”*

Osasun erreproduktiboaren aldetik, glifosatoz fumigatutako eremuetan, berezko abortuen eta malformazioen indizea handia izaten ari da. Ugalkortasuna ere behera egiten ari da; pentsa dezagun airea, ura, lurra eta elikagaiak halaberrez gure organismoan eragina duen biozida batez ihintzaturik daudela. Glifosatoa horren kausa dela oso zaila da frogatzen, toki horiek beste biozida batzuen fumigazioak ere jasaten dituztelako; eta agintariek erakusten duten interes eskasa dela eta. Hala ere, kondena batzuk ezartzen hasi dira fumigazioek (zenbait agrotoxikorenak) osasunean eraginiko ondorioengatik, bai eta agrotoxikoak erabiltzeko debeku batzuk ere, Buenos Aires eta Córdoba probintzietan. Ildo horretan Ituzaingó-n lortutako epaia nabarmendu behar da<sup>153</sup>.

Euskal Herriko AHTari dagokionez, herrietan galdutako bizi-kalitatea asaldagarria da. Batetik, horrek dakarren ikusizko kutsadura; espazio laburretan distantziak eta denborak luzatzea (hiriak hurbiltzen dira, baina etxeak beren soroetatik edo baserriak kaletik urruntzen dira); inguru batzuen bakartzea; hots-kutsadura... eta lotutako osasun-arazoak, AHTak paraleloan goi-tentsioko linea bat darama eta.

Arazo zehatzago batzuek arituz, “TAV. Las razones del no” deritzon liburuko artikuluko batean, Helen Groome-k pertsonen zein animalien osasunarentzako ondorioak aipatzen ditu, esaterako:

152 MOCASE-Vía Campesina. Memoria de los Orígenes de la Central Campesina de Quimilí. Argentina 2017.

153 <https://www.pagina12.com.ar/diario/elpais/1-118075-2009-01-12.html> (2017ko iraila).

*“Obrek sortutako kutsadura (hauts-metaketa batik bat, ondorio negatiboekin fotosintesi-prozesurako, eta arnasbideetan ondorioak izateko aukerarekin), hots-kutsaduraz gain; pertsona eta animalien estresa areagotzea.*

*Egitura elektrikoak sortutako kutsadura: kutsadura kimikoa, magnetikoa eta elektromagnetikoa. Halakoek osasunean eragiten dituzten ondorioak ikertzen ari dira.”*

Baina Gromme-k hau dio:

*“sonako hauetara bihur daitezke: ozono troposferikoaren eta nitrogeno oxidoen gehikuntzak (berotegi-efektua eta euri azidoa indartzen dituzte, eta eraginak izaten dituzte gure osasunaren gainean); eremu magnetikoen sorrera (animaliei orientazio-galerak eragiten dizkiete); behe-maiztasuneko erradiazio elektromagnetikoak (hormonen eta proteinen ekoizpenean nahasmenduak eragiten dituzte); minbizi eta leuzemien gaineko eragina.”*

**Lan-bizitza.** Euskal Herrian dena justifikatzen da langabezia-tasa jaisten bada, zerbait lan-kontratuak ekartzekoa bada; baina hori epe laburrerako ikuspuntu batetik egiten da, etorkizunerako ondorioak kontuan hartu gabe. Inork ez du zenbatu zenbat baserritar geratu diren lan ordaindurik gabe edo baserrietako zenbat enplegu prekarizatu diren AHTaren obrak iristean. Landa-eremuko lana ez da behar bezain duintzat jotzen, eta, hortaz, tokikoa eta elikagai-ekoizlea den ekonomia bat mantenduz gero sor litezkeen lanpostuak ez dira kontuan hartzen. Emakume baserritarren kasuan, askotan ez daude gizarte-segurantzian inskribaturik, soldata ez delako nahikoa langile autonomoen kuotak ordaintzeko; hortaz, haien lana ere ez da kontabilizatzen, eta galtzen den lan ordaindu hori ez da estatistiketetan jasotzen.

Familien eta komunitateen autonomia-galera parekoa da bi kasuetan, behartuta besteren konturako lanak bilatzera, sasoikako langile ibiltzera, industriaguneetara migratzera, edo ordura arte erdietsitako duintasuna galtzera

**Elikadura-burujabetza.** Elikagai-ekoizle batek ekoizteari uzten dion bakoitzean, hauexek galtzen ditugu: elikagai kalitatedunak; zirkuitu laburrak; bioaniztasuna; osasuna... elikadura-burujabetza galtzen dugu. Horrek gizarte guztiari eragiten dio, ez bakarrik desjabeturiko familiari.

### **Ondorio ekonomikoak**

Espainiako Estatuan, nekazaritzako ustiategien kopurua %23,2 gutxitu zen 1999-2009 artean. Hamar urtean bakarrik, 1.289.451tik 989.796ra igaro da, hots, egunean 82 ustiategi galdu dira. Hamar urte horietan, erabilitako nekazaritza

azaleraren (ENA) galera egunean 650 ha izan da, hau da, 2,4 milioi hektareako gutxikuntza gertatu da (26,15 milioi hektareatik 23,75era). Datu horren agerpenak prozesuaren larritasuna erakuste digu. Euskadin, 10 urteko aldi batean, nekazaritza-azaleraren %25 galdu zen.<sup>154</sup>

Euskal Herrian baserritarrak ez dira %3ra iristen, baina asko aldatzen da probintzia batetik bestera; hala, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, biztanleria aktiboaren %20 lehen sektorean enplegurik dago, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, %1 baino gutxiago. Egun, EAEn 25.000 nekazaritza-proiektu dauzkagu, 1999. urtean 39.956 ziren, eta baserritarrak galtzen jarraitzen dugu.

Santiago, hango kideek kontatzen digute nola galdu zituzten labore batzuk:

*“hasteko, guk... txikitari, familiak kotoia egiten zuen. Banekien batata egiten; aitonak tipula egiten bazekien, orain bazterrotan ez du inork tipularik egiten; baratxuria... haiek kordak egiten zekitelako, eta Añatuyara eramaten zituzten, abaide asko zituztelako. Asko egiten zen, eta oso ongi zihoan baratxuri-parteak.” “Baita gu ere... ni kotoi-ekoizlea nintzen, beti ereiten nuen, eta kotoiak... zuk egiten baduzu, beti zerbait ematen badizu ere, garai batzuetan baliteke apur bat gehiago ematea, garai batzuetan, familiaren arlokoa denez... lan baten sarreraren parekoa zen. Norberak egiten zuen, bere familiarekin, eta ez dakit nik... eta ez zen oso kutsakorra, erein egiten zen. Soja sartuz geroztik, laurogeita hamar eta gehiagoan... 95-96an, gauzak aldatu hasiak dira, fumigatzen dizutelako eta ekoizpen guztia hiltzen dizutelako; ezin duzu ezer ere erein, dena kutsatzen dizute.”<sup>155</sup>*

**Tokiko gastronomien galera.** Ondorioak biztanleria guztiarengana iristen dira tokiko gastronomiaren galerarekin; dietak estandarizatuz doaz, eta lehen eguneroak ziren hainbat produktu desagertu egiten dira. Horrek, komunitateetan ez ezik, biztanle guztiengan ere izaten du eragina oro har; izan ere, osasunak okerrera egiten du eta tradizionala eta eskuragarria zena, zenbaitetan, gutxi batzuentzako luxuzko produktu bihurtzen da. Jatetxeen sektoreak ere kaltea jasaten du; behar bada, ez jatetxe handiek, baina bai behera erakartzeko produktuen kalitatean oinarritzen diren negozio txikiak.

Horrekin batera, iraupeneko ekonomiak desagertzen dira, eta, hain zuzen ere, halakoek kapitalismoaz kanpoko logika ekonomiko batzuk erakusten zizkiguten (edo dizkigute), metaketa helburu nagusizat ez duten logika batzuk. Halakoak ez dira gehiago existitzen, familiak lan-merkatuan sartzerako beharturik aurkitzen direlako.

154 HANDS OFF THE LAND eta MUNDUBAT, Informe Acaparamiento de tierras en Europa, 2015

155 Sojaren etorrerari buruz MOCASEk bildutako lekukotasunen pasarteak.

## Ondorio politikoak

**Gizarte-mugimenduen errepresioa.** ETC taldeak “El año que no fue normal” izenburuko bere artikuluan 2016ko aktualitatearen berrikuspena egiten du, eta badauka atal bat nazioartean gizarte-mugimenduen aurkako errepresioak izan duen gorakadaz. Aditzera ematen du areagotu egin direla presioa eta kriminalizazioa mugimendu horien aurka eta, oro har, gizarte zibilaren aurka. Gehien erasotako sektoreak herri indigenak, beren eskubideen alde borrokatzen diren nekazariak eta aktibista ambientalistak izan ziren.

“Global Witness” txostenak ohartarazten du gehitu egin direla lurren eta ingurumenaren defendatzaileen erailketak, 2015. urtean 186 erailketa gertaturik 16 herrialdetan, historiako erregistrorik handiena.

Santiago del Esteron ongitxo dakite errepresioa zer den, azken urteetan bi lagun erail dituzte sojaren hedapenaren aurka protesta egin eta nekazarien eskubideak defendatzeagatik. Gainera, zenbait epaiketa jasaten ari dira, eta, haien txostenean irakur daitekeenez, agintari judizialak agintari errepresibo eta ekonomikoekin elkar harturik dabilta, haien eskakizunei ez erantzuteko.

AHTaren aurkako borroka ere zenbateko nabarmen batzuk utzi ditu errepsioaren arloan, eta, batez ere, zentzugabekeria judizialen historiara sartuko diren hainbat anekdota. Esaterako, “tartalarien” kasua<sup>156</sup>, Auzitegi Nazionalera eraman, eta haien kontrako kartzela-zigorak eskatu baitzituzten; edo Itsasondoko tune-laren obretan egin zen ekintzaren ondoriozko epaiketa. 2008ko abuztuaren 3an egin zen ekintza horrekin AHTaren obren ondoriozko suntsipena salatu nahi zen. Donostiako kaleetan, sei lagunek hormigoiz betetako bidoi batzuei kateatu zuten beren burua, eta hiriko trafikoa ordu batzuek geldiarazi zuten. Gure ibarrak itotzen dituzten azpiegitura handien hormigoiz bera erabili zuten.

2012. urtean, bidoiei kateatutako sei lagun horiei sei hilabeteko kartzela-zigorak ezarri zizkieten (ez zuten bete beharko), eta ekintza babestu zuten beste 5 pertsona falta batengatik kondenatu zituzten.

AHTaren aurkako taldeek hainbat isunari aurre egin behar izan diete, obrak labore-lurren gainetik igarotzea edo baserriak txikitzea eragozten saiatzeko ekintzak egiteagatik. Urbinan edo Zornotzan, erresistentzia-kanpaldiak egin ziren, eta obrak denbora batean geldiaraztea lortu zuten. Herria zigortzeagatik, agian, Ertzaintzak eraso gupidagabea egin zuen obretara zihoan martxa baketsu baten

<sup>156</sup> Abiadura handiko trenaren (AHT) aurkako aktibista batzuek tarta bat jaurti zioten Yolanda Barcina Nafarroako lehendakariari, Tolosa Okzitaniar, 2011. urtean, protestako ekintza gisa.

aurka Urbinan; orduan, hainbat pertsona zauriturik atera ziren, 8 atxilotu, eta 6 kondenatu zituzten, 3 urte eta 4 hilabeteko zigor bat batuz guztira.

Bi tokietan, desjabetzeek eta errepresioak protesta eta mobilizazio ugari ere sortu dituzte, eta, hartara, horrelako proiektuen ondorio positibo bat da gizarte-mugimendu berriak sortzen edo sendotzen direla. Halakoek, hain zuzen, proiektuak atzeratzea eta iritzi publikoaren aurrean zalantzan jartzea lortzen dute. Alabaina, utzarazpen-estrategiek eta lurzorua erabilera aldatzeko inposaketak demokraziarik eta gardentasunik eza dute bereizgarri nagusien artean. AHTaren kasuan, 22 udalerri herri-galdeketak egin zituzten, eta haietan agerian geratu zen trenaren gaitzespena; eta, hala eta guztiz ere, herriaren borondatea isilarazi eta zapaldu egin zen.

**Politika publikoak.** Desjabetze horiekin batera badatoz beste plan zabalago batzuk, nekazaritzako inguruak mortu bihurtzeko, komunitateek autonomia galtzeko, eta sistema politiko eta ekonomikoarekiko mendetasun berriak sortzeko. Horregatik, gizarte-zerbitzuak desagertuz doaz –edo ez dira inoiz sortzen– landa-eremuetan. Euskal Herriko baserriei dagokienez, familia batek edo bik lekua utzi behar izateak landa-eskola edo osasun-zentroa desagertzea eragin dezake.

### **Ondorio antropologikoa/kulturala**

Euskal Herrian baserri bat galtzen den bakoitzean, lurra lantzeko era bat ere galtzen da, tokiko tresna eta teknologiei buruzko informazioa, zenbaitetan berreskuratzen zailak diren zenbait euskal hitz, berriz aurkitu ezingo ditugun hazi-barietate batzuk, eta hainbat ezagutza, historiari, jolasei, musika eta musika-tresnei, janari-errezetei, garbiketa-trikimailuei, auzo arteko harremanei... buruzkoak. Ez da nahikoa dokumentatzea eta sistematizatzea, kulturaren zati bat eguneroko bizitzatik desagertzen denean, hil egiten da; eta museoek ez dute kultura biziberritzen, iragana kontatzen digute.

Euskal Herriaren etorkizunerantz begiratzen badugu, baserriak behar ditugu, jarrai dezaten, ez bakarrik kultura atxikitzen, baizik eta kultura eraikitzen eta eraldatzen; iragana kontatu ahal izan diezaguten orainarekin zein etorkizunarekin duen harremanaren arabera; etorkizuneko belaunaldien hezkuntzak bere aingura edo erroak gal ez ditzaten. Gipuzkoako edo Bizkaiko baserriak, Arabako edo Nafarroako landak, Iparraldeko etxaldeak... zeinek bere historiarekin eta munduaren aurrean agertzeko erarekin.

Leticia Urretabizkaiak honela dio, eredu agroindustrialaz ari dela:

*“horrek berekin landa-ingurunea balioz gabetzea dakar, bai eta, ondorioz, baserriko bizimodutik datozen ezagutzak eta balioak ere gabetzea balio horretaz, eta landa-ingurunean pixkanaka gizarte-zerbitzuak desagertzea. Ondorioak nabariak dira han bizi direnek bizi-baliabide duin batzuk izateko eskubidea gauza dezaten, bereziki mendekotasuna duten pertsonen zaintza bere gain hartzen duten emakumeentzat eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzat.”<sup>157</sup>*

Azpiegitura handi horiek badute, orobat, nolabaiteko eragina hizkuntzaren gainean. Euskal Herriari dagokionez, euskara berreskuratzeko eta berriz balioz janzteko egiten ari den lan guztiaren kaltetan datoz. “Informe de impactos del TAV en Euskal Herria” txostenean, (AHT gelditu! Elkarlana, 2007ko martxoa) honako hau ematen da aditzera:

*“Euskal kulturarik ere ohartarazi da azpiegitura handien hedapen neurrigabeak (AHTa, bide-sare handiak, superportuak...) ekarriko lituzkeen ondorio soziolinguistikoaz. Abisatzen dute eredu horrek nabarmen areagotuko duela biztanleria metropolitanoan kontzentratzea, eta etorkizunean larriagotu egingo duela euskal hiztunek jasan izan duten destokitze demografiko eta kulturala. Gainera, euskararen erabilera handia gordetzen duten biztanleguneak irentsita geratuko dira metropoliak handitzean, eta horrek erabat desegitura ditzake euskararen erabilerari eusten dioten lotura sozial eta erlazionalak.”*

Horregatik, ez da garrantzizkoa galtzen den baserri- edo hektarea-kopurua, baizik eta balioztatzen zailagoak diren beste gauza batzuk, hala nola errezeta-kopurua, elikadura kalitadeduna eskuratzeko aukera duten pertsonen kopurua, harremanena, dantzena, atzean utzitako barreena. Jakintzen galera hori, bariatateen, praktika kulturalen, lan-moduen, harreman-moduen galera hori kontuan hartu beharko litzateke desjabetze bakoitzaren eraginak balioztatzean. Beharbada, horrela uler-tuko genuke elikagaien eta kulturen ekoizpena ere “interes orokorrekoa” dela.

Eta hemen etxeak edo hektareak galtzen ditugularik, Argentinan komunitate osoak galtzen dira. Zer dakar horrek? Zenbat *chacarera* geratu dira konposatu gabe? Zenbat mate edan gabe? Desjabetze horiek eritimoak eta denborak ere kentzen dizkigutelako eta merkatuak behar duenera moldatzera behartzen gaituztelako. Santiagoko naturak lau orduko siestak eskatzen ditu, beroa eramanezina delako, baina sojaren industriak gehiago lan egiteko eskatzen du. MNCIk auzitegiarentzat eginiko txostenak jatorrizko herrien kasua aipatzen du:

157 URRETABIZKAIA GIL, Leticia. DE GONZALO ARANO, Isabel (2012). Las mujeres baserritarras: análisis y perspectivas de futuro desde la Soberanía Alimentaria. Baserripress SL.

*“beren lurraldeetatik lekualdatzeak edo beren natura-baliabideak erabiltzeko aukera eragozteak komunitatearen heriotza-zigorra dakar berez.”*

### **Ardatzen arteko interkonexioa.**

Elikadura-burujabetza eta auzitegi honetara aurkezten diren akaparamenduko eta lurralde-artifizializazioko kasuak estu loturik daude auzitegiak epaituko dituen beste ardatzekin. Soja transgenikoaren ekoizpenak eta abiadura handiko trenaren eraikuntzak, elikadura-burujabetzaren arloan ez ezik, beste lan-ardatz batzuetan ere badituzte ondorioak.

Sojagintza **energetikoki** zentzugabekeria da, pausoz pauso aztertzen badugu. Soja egin ahal izateko, hainbat nekazari-komunitate era sistematikoan desmuntatzen eta lekualdatzen ari dira (bi ondasun natural, energetikoki oso garrantzitsuak, desagerraraziz horrela); eta gero erregai fosilak kantitate neurrigabeen erabiltzen dituzte ekoizpenean: agrotoxikoak nahierara erabiltzean; makineria astuna erabiltzean; eta gero, berriz ere, banaketan (Europar gehienbat, 10.000 km egin eta gero) eta eraldaketan (energetikoki ez-eraginkorra den haragi-ekoizpen baterako). Baina, gainera, kalkula genezake zenbat oparitzen duen Argentinak ondasun komunetan (lurra, ura...) soja-esportazioa dela eta. Gastu horiek ez dira kontabilizatzen merkatuko prezioetan.

Eta, bitartean, Euskal Herrian tren bat eraikitzen ari da goi-tentsioko linea paralelo bat daukana, tokiko ondasun komunak eta nekazaritza-sarea suntsitzen ari dira, dagoeneko badauden zerbitzu batzuk bikoizten duen garraio baterako, defizitarioa den garraio baterako, hura erabiltzen duten pertsona-kopuruagatik, bideragarritasun energetikorik ez izateaz gain. Neurririk ez duen eta mugapenik ikusten ez duen munstro bat elikatzen jarraitzen dugu, amildegirantz gero eta abiadura handiagoan eramango gaituena.

Baina kasu hauek badute lotura estua **zaintza-lanaren** gaiarekin ere. Sistema agroindustrialak beste hiri eta herrialde batzuetarako migrazioen eragileetako bat da. Migrazio horiek zaintza-lana maila globalean eraldatu dute, eta “zaintza-kate globalak” deritzenak sortu dituzte. Emakumeek lan egitera alde egiten dutenean, amek eta ahizpek hartzen dituzte beren gain dena delako emakume horrek gehiago ezin egin ditzakeen lanak: haur, zahar, gaixoak zaintzea; elikadura; higiena, soroko lanak... eta, ondorioz, zaintzaren kargak areagotu eta kontzentratu egiten dira jatorriko lekuetan.

Helmugako lekuetan, emakume horiek askotan ahalmen ekonomiko handiagoa duten beste emakume batzuen zaintza-lanak egiten dituzte, prekariedade-baldin-



tzetan eta (hemen) ia ezer bermatzen ez duen lan-hitzarmen batekin; eta hura bete ere ez da egiten. Barneko etxeko langile diharduten emakumeak, XXI. mendeko esklabo berriak.

Neurri txikiago batean, hori ere gertatzen zaie hirietara migratzen duten emakume baserritarrei, funtzio soziala galtzen dutela, egoera berrietan eta, batzuetan, oso bakarrik aurkitzen direla. Bakardadea eta bakartzea askotan errepikatzen den ezaugarri bat da emakume baserritarren artean. AHTak jarriko dituen hesiek are gehiago bazterreratu baino ez dituzte egiten.

Sistema hau emakumeek gehienbat egiten duten doako zaintza-lanean oinarritzen da, baina naturak egiten duen doako lanean ere bai. Natura jarduteko lurralde gisa, zaindu eta bizirik mantendu behar dugun lurralde gisa ikusten duten sistema batzuetatik merkatu-harreman batera igarotzen gara, non natura tresna bat baizik ez den, edo produktu bat, hura hondatu eta beste bat bila dezakegarrik.

**Bizi-maila duin baten eta tokiko ekonomien** alde lan egiten badugu, sistema agroekologikoetan oinarrituta eta ekoizpenetan zein gure elikaduran oreka lortuta, orduan ez dugu abiadura handiko trenik behar, ez dugulako oso urrutira joan behar, hurbil daukaguna banatu baizik. Apustu egiten bada tokiko merkatuen alde, tokiko zerbitzu komunitarioen alde, auzo eta herriak biziberritzearen alde... orduan ez da AHTrik behar. Tren hori landa-eremu antzu eta huts baterako pentsaturik dago, hiri batetik beste hiri baterako trenbideari eusten dion landa baterako.

Eta tokiko sistema horretan Argentinak soja ekoiztea ere ez dugu behar, nahikoa proteina dago bazterrotan haragi-ekoizpen orekatu baterako. Eta, jakina, Argentinak ekonomiaren berlokalizazioaren alde apustu egiten badu, ez du zertan jarraitu bere komunitate eta kulturak suntsitzen, produktuak eta ondasun naturalak esportatzeko.

## 2. ESKUBIDE-URRAKETAK

Aurkezturiko kasuek agerian uzten dute hainbat lege eta hitzarmen hautsi izana, nazioartekoak, estatukoak zein tokikoak. Santiago del Esteroko (Argentina) Iacu Cachi komunitatearen lurren usurpazioaren eta Atxondoko eta Ezkio-Itsasoko (Euskal Herria) nahitaezko desjabetzeen kasuan, hausten ari diren zenbait lege aipatzen ditugu, eta gero azalpen xeheago bat ematen dugu kasu bati zein besteari lotutako eskubide-urraketei buruz. Legeak labur-labur azaltzen ditugu, fiskalaren txostenean alderdi horretan gehiago sakonduko delakoan.

### Argentinako legeak:

26.160 Legea, komunitate indigenek tradizioz okupaturiko lurren edukitzaren eta jabetzaren arloan larrialdia ezartzekoa, 2006ko azaroaren 1ean berretsi zen. Gizarte Garapeneko Ministerioak eta Indigenen Gaietarako Institutu Nazionalak –Komunitate Indigenen Lurraldean Azterketarako Programa Nazionalaren barruan– Lurren Edukitzaren eta Jabetzaren arloan Larrialdia ezartzeko Legea argitalpen batean aurkeztu zuten, kontakizun historiko bat eginik, eta honako hau onartzen dute:

*“Jatorrizko herrien eskakizun sentituenetako bat da tradizioz okupatzen dituzten lurren edukitza eta jabetza komunitarioa konstituzioaren bidez aitortzea.”*

Hona hemen legearen funtsezko puntu batzuk:

**1. artikulua.**- Deklara dadila larrialdia herrialdeko jatorrizko komunitate indigenek tradizioz okupaturiko lurren edukitzaren eta jabetzaren arloan, nortasun juridikoa Komunitate Indigenen Erregistro Nazionalan edo probintziako erakunde eskudunean inskribaturik daukatenei edo lehendik zeudenei dagokienez.

**2. artikulua.**- Eten daitezela deklaraturako larrialdiaren epean epaien, egintza prozesalen edo egintza administratiboen betearazpena, haien xedea 1. artikuluan aipaturako lurak utzaraztea denean.

Hala eta guztiz ere, lege hori 2006. urtean aldarrikatu bazen ere, komunitate indigenek azken urteetan hamaika mehatxu, gehiegikeria eta kanporaketa jasan dituzte behin eta berriz beren lurraldeetan bertan.

Lege hori, gainera, Konstituzioko 75. artikulua barruan sartzen da:

*“... eta tradizioz okupatzen dituzten lurren edukitza eta jabetza; eta giza garapenerako egokiak eta nahikoak diren beste batzuk eman daitezzen arautzea; ezingo da haietako bat ere besterendu, eskualdatu edo zergaz edo habituraz kargatu. Baliabide naturalen nahiz doazkien gainerako interesen kudeaketan parte har dezaten ziurtatzea.”*

Eta 1994ko Konstituzio Erreforman, Cristina Kirchner-ek honako hau zioen:

*“Komunitateen lurraldeek betetzen duten rola, mundu-ikuskera aborigenaren barruan (iraganeko eta oraingo herri askorentzat bezala, lur bakarra dagoela uste dutela), ez da bakarrik bizirik irauteko behar diren ondasunak eskuratzeari edo ekoizteari lotutakoa –Mendebaldeko kulturarentzat hala dela–, baizik eta haien*

*kulturaren osotasunaren zati izatea, identifikazio-elementu gisa, arbasoen atsedenekua, gurtzak eta praktika erlijiosok kontsakturiko hainbat lekuren euskarri, bizi-emailea.”*

Alabaina, oraindik ere lur/lurralde indigenen erregularizazio-falta dago, eta hori bereziki larria da komunitate indigenentzat, lurrarekiko harremana funtsezkoa baita haien iraupen eta garapenerako. Erregularizazio-falta horrek bide ematen du lege hori gutxieteko eta ondorio praktikorik ez izateko.

#### 6.942 Legea, Santiago del Estero Probintziako Baso Natiboen Lurralde Antolamenduari buruzkoa.

Gonzalo Hernán-ek, Ingurumen Zientzietan lizentziadun-titulua eskuratzeko egin zuen gradu-tesian, lege horren ondorioen azterketa egin zuen (legea oso konplexu eta tekniko da auzitegi honetan garatzeko), eta honela zioen:

*“Naturaguneak giza aprobetxamendurako eraldatzea aldaketa globalaren dimentsio nagusietako bat da. Nekazaritza eta abeltzaintzaren hedapenak deforestazioa bultzatu zuen Chaco erdiaridoaren ekoeskualdean, 2000z geroztik, mundu guzti-ko balio handienetara iritsi den tasa bateraino. Santiago del Estero prozesu horrek gebien kaltetutako probintzien artean egon zen. 2007. urtean, baso natiboak babes-teko lege nazionala berretsi zen. Basoei buruzko Legea berretsiz geroztik, probintziako azalera eraldatua eta eraldaketa-tasak murriztu egin ziren; hala ere, agerian geratzen da araua ez zela bete neurri handi batean, basogabetzea baimendua ez duten zenbait kategoriaren gainean eraldaketa handiak gauzatu zirela ikusten baita.”*

MNCIk bere auzi-eskea oinarritzen du, orobat, Argentinako Nazioaren Konstituzioko 41. eta 43. artikuluetan; hain zuzen, honela diote:

- **41. artikulua.**- Biztanle guztiek badute ingurune osasuntsu, orekatu bat izateko, giza garapenerako egokia, bai eta ekoizpen-jarduerak oraingo beharri-zanak etorkizuneko belaunaldienak arriskuan jarri gabe asebetetzeko ere, eta badute hura zaintzeko betebeharra...
- **43. artikulua.**- Pertsona orok babes-akzio ireki eta azkar bat jar dezake, baldin bide judizial egokiagorik ez badago, agintari publikoen edo partikularren egite edo omisio ororen aurka, azken horrek Konstituzio honetan, tratatu batean, lege batean... onarturiko eskubide edo berme batzuk arbitrariotasun edo legezkontraktotasun nabariz urratzen, murrizten, aldatzen edo mehatxatzen dituenean, unean bertan edo berehalako une batean...

Eta MNCIk bere auzi-eskea oinarritzen du, era berean, Santiago del Esteroko Probintziaren Konstituzioko 35. eta 59. artikuluetan; hain zuzen, honela diote:

- **35. artikulua.**- Bizi-kalitatea. Biztanle orok badu ingurune osasuntsu bat izateko eskubidea, eta ekoizpen-jarduerak oraingo beharrianak etorkizuneko belaunaldienak arriskuan jarri gabe asebetetzeko eskubidea ere. Eskubide horren barruan sartzen dira osasuna kaltetzen duen faktorerik gabeko ingurune fisiko eta sozial batean bizitzea, baliabide naturalen, kulturalen eta aniztasun biologikoaren kontserbazioa, eta floraren eta faunaren babes. Debeku da probintziako lurraldean toxikoak diren edo izan daitezkeen hondakinak sartzea, instalatzea edo kokatzea.
- **59. artikulua.**- Babes judiziala. Pertsona orok babes-akzio ireki eta azkar bat jar dezake, baldin bide judizial egokiagorik ez badago, agintari publikoen edo partikularren egite edo omisio ororen aurka, azken horrek Konstituzio honetan, tratatu batean, lege batean... onarturiko eskubide edo berme batzuk arbitrariotasun edo legekontrakotasun nabariz urratzen, murrizten, aldatzen edo mehatxatzen ditueanean, unean bertan edo berehalako une batean...

### Hego Euskal Herria ukitzen duten Espainiako legeak, eta EAEko legeak

Espainiako Konstituzioak<sup>158</sup> hainbat oinarrizko eskubide jasotzen ditu, eta horietako batzuk urratzen ari dira. Horietako batzuk aipatuko ditugu:

- Bizitzeko eskubidea. Espainiarrek badute bizitzeko eta inolako indarkeriarik ez jasateko eskubidea.
- Bizilekua aukeratzeko askatasuna.
- Ideiak eta iritziak adierazteko askatasuna. Espainiarrak badute eskubidea beren ideiak eta iritziak askatasunez adierazteko.
- Jabetza eta jarauntsia. Pertsonak badute eskubidea gauzak jabetzan edukitzeko eta jarauntsiz jasotzeko. Inork ezin dizu zure gauzak kendu, esaterako, zure etxea.
- Lan egiteko eskubidea. Espainiarrek lan egiteko eskubidea eta betebeharra dituzte. Espainiarrek nahi duten lanbidea hauta dezakete. Badute eskubidea, halaber, bizimodua lanaren bidez ateratzeko.
- Naturaren babes. Pertsonak badute naturaz gozatzeko eskubidea. Natura zaintzeko betebeharra ere badute. Erakundeek ingurumena babestuko dute eta natura kaltetzen duten pertsonak zigortuko dituzte.
- Historia- eta arte-ondarea. Erakundeek arte- eta historia-ondarea zaindu behar dute,

Batzuetan, legeak berak daude diseinaturik gehiegikeriak egin ahal izateko edo

158 La Constitución Española en lectura fácil (2015). Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

familiak bizi diren, ekoizten duten edo hazten diren lekuez gabetzeko. Horietako bat da Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legea (Espainiako Estatuaren legea), azkenekoz 2015eko urriaren 31n aldatua; honela dio:

*“Nahitaezko desjabetzean, interes publikoaren eta pribatuaren arteko aurkakotasuna erabakita, interes pribatuaren lehentasun logikoa aintzat hartuz... eragindako partikularrari printzipioz aitortzen zaion bidezko kalte-ordaina ematen da... Legea saiatzen da desjabetzearen aurka, zeharka bada ere, jar litezkeen oztopo prozesalak kentzen;...”*

Toki-mailan ere gertatzen zaigu hori; horregatik, erreferentziatzen hartu ditugu zenbait kolektibok Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei (LAG) eginiko alegazioak. Hain zuzen, gidalerro horiek 2017. urtean aztertu dira Eusko Legebiltzarrean.

Iñaki Antiguedad-ek (UPV/EHU), LAGen azterketa egitean, gidalerro horien filosofia bera kritikatzeko du, eta honela dio:

*“Lurralde-antolamendua (LA) “interes orokorreko” jarduerak “finkatzera” eta “lurralde-eremu aproposetara” jarduerak ekonomikoa erakartzeko baldintza egokiak sortzera” bideratzeak gutxietsi egiten du, idatzizko bertsioan bederen, lurraldearen beraren funtzioa, ingurune fisiko dinamikoa den aldetik; hain zuzen ere, halakoa izanik, bere espazio batzuetan eta besteetan “finka” daitezkeen jarduerak baldintzatu behar ditu. Are gehiago, Lurzoruari eta Hirigintzaren buruzko 2/2006 Legean (Oinarrizko dokumentuko 1.1.5 atala) jasorik dagoenez, baldin berresten bada lurralde-antolamendua gailentzen dela hirigintza-antolamenduaren aurrean, orduan, logikaz, ekonomia-antolamenduaren aurrean ere berretsi beharko litzateke gailentasun hori, “lurraldea orekatzea bermatzeko” lurralde-antolamendua baten aurkakoa izan ez dadin azken hori, alegia.”*

Eta lurraldearen ikuspegiari buruz:

*“Alderdi hori funtsezkoa da... argi geratu beharko litzateke lurraldea bizirik dagoen zerbait dela (kontzeptu ekosistemikoa) eta ez gizartearen eta ekonomiaren arloko, edo azpiegituren arloko, jardueren euskarri butsa (jasangarritasunean egiaz sinestean baldin badugu).”*

Desazkundera mugimenduak aditzera ematen du, LAGei buruz Eusko Jaurlaritzaren aurrean aurkezturiko alegazioetan, Euskal Hiria deritzon proposamen berriak indarrean dauden LAGen ildotik jarraitzen duela, “hiri-sistema” deitutakoan oinarrituta, helburu honekin:

*“inbertsio berritzaileak erakartzeko lehian diren gune ekonomikoen nazioarteko testuinguru berrian, ekoizpenerako lurralde lehiakorra lortzea.”*

Eta hori lurralde arteko desorekak eta baliabideen esleipen ez-eraginkorra eragiten ari da.

Aipatutako alegazioetan hau azaltzen dute:

*“Erabilera urbanoetarako eta azpiegituretarako lurzorua kontrolik gabe okupatu izanak eta industriara bideratutako baso-landaketak bultzatzeko sustatutako politika erasokorrak euskal nekazaritza-abeltzaintzako sektorearen marjinazio erabatekoa eragin du. Lehen sektorea estrategikoa da edozein herrialderen ekonomian, 27-EBean jarduera honetan diharduen biztanleria aktiboaren batez bestekoa %5,2koa da (iturria: Eurostat). EAEn, aldiz, %0,9 (iturria: Eustat), Europako baxuena (Luxenburgo bezalako herri baten azpitik). 2009ko Nekazaritza Erroldaren arabera, erabiltzen diren nekazaritza-lurrak (ENA) 190.000 ha inguru baino ez dira. EHNE sindikatuak egindako diagnostikoetan auto-hornikuntza ez da %5era ere iristen, EAEn dugun elikagaien behar osotik. Jarduera maila %5era gehitzearekin bakarrik, 38.500 lanpostu berri sor litezke.*

*Presakoa da lurraldearen antolakuntzak legez babes dezala auto-hornikuntza bermatzeko beharrezko diren nekazaritza-lurrak, 336.974 ha inguru. Hala ere, larria da Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenak nekazaritza-abeltzaintza sektoreaz aipamenik ere ez egitea, edozein herritan sektore estrategikoa izanik, ezta pairatzen dugun elikagaien menpekotasunak duen eraginaz ere, jakinik larriagotzen joango dela garraioaren kostuak garestitzen eta mundu-merkatuan lehengaien espekulazioak gora egiten duen neurrian.*

*Horren ondorioz, lurraldea hiru hiriburutan polarizatu da, eta eragin zuzen eta maltzurra du horrek, inguruetako gainerako lurraldea “zuri” ageri da, igarobide huts bezala utzi baita (baita Euskal Hiriaren mapen irudikapenean sinbolikoki “gaueko ikuspegian).”*

## **Nazioarteko erregelamenduak**

Ondoren, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren zenbait artikulua aurkezten ditugu:

- Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatua, familia, etxean edo postan esku sartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du esku-sartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko es-

kubidea.

- Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.
- Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko.
- Pertsona orok du lana izateko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan-baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.
- Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa...
- Pertsona orok du bizi-maila egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongizatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena...

Era berean, LANEren 169. Konbentzioko zenbait artikulua aurkezten ditugu (Herrialde independenteetako herri indigena eta tribalei buruzkoa, Argentinako Errepublikak 24.071 Legearen bidez berretsia):

- “...herri interesdunen kultura eta balio espiritualentzat era batera edo bestera okupatzen edo erabiltzen dituzten lur edo lurraldeekiko –edo biekiko, kasuaren arabera– harremanak duen garrantzi berezia errespetatu beharko dute gobernuek, eta bereziki harreman horren alderdi kolektiboak.”
- “...beharrezko neurriak hartu beharko dituzte gobernuek, herri interesdunek tradizioz okupatzen dituzten lurak zehazteko eta haien jabetza- eta edukitza-eskubideak benetan babesten direla bermatzeko.” “Prozedura egokiak ezarri beharko dira sistema juridiko nazionalaren barruan, herri interesdunek lurren gainean eginiko aldarrikapenak ebazteko.”
- “Herri interesdunek beraien lurretan dauden baliabide naturalen gainean dituzten eskubideak bereziki babestu beharko dira. Eskubide horien artean dago aipaturiko baliabide horien erabileran, administrazioan eta kontserbazioan parte hartzeko herriok duten eskubidea.”

Bai eta NBEren Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adierazpeneko zenbait artikulua ere. Nazioarteko adierazpen horrek honela dio hasieran:

*“Kezkaturik herri indigenek bidegabekeria historikoak jasan dituztelako, besteak beste, kolonizazioaren ondorioz eta beren lurrez, lurraldeez eta baliabideez gabetu izanaren ondorioz, horrek eragotzi dielarik, bereziki, garapenerako eskubidea beren beharrian eta interesen arabera erabiltzea...”*; hemen kasu hauetarako garrantzi gehien dituzten artikulua nabarmentzen ditugu:

- Herri indigenek autodeterminazio-eskubidea dute. Eskubide horretan oinarriturik, libreki erabakitzen dute beren estatus politikoa eta libreki bilatzen dute beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala.
- Herri indigenak ez dira indarrez lekualdatuko beren lur edo lurraldeetatik. Ez da inolako lekualdakatarik egingo herri indigena interesdunek baimen libre, aldez aurrekoa eta informatua eman gabe, ez eta aldez aurreko itun bat egin gabe, kalte-ordain justu eta ekitatibo bati buruz eta, ahal den guztietan, itzultzeko aukerari buruz.
- Herri indigenek beren sendabide tradizionalak izateko eta beren osasun-jardunbideei eusteko eskubidea dute, beren bizitzarako funtsezkoak diren sendabelarrak, animaliak eta mineralak barne hartuta. Indigenek badute, orobat, gizarte- eta osasun-zerbitzu guztiak erabiltzeko eskubidea, batere bereizkeriarik gabe.
- Herri indigenek badute eskubidea beren harreman espiritualak atxiki eta sendotzeko lurrekin, lurraldeekin, urekin, kostaldeko itsasoekin eta tradizioz eduki edo okupatu eta erabili dituzten beste baliabide batzuekin, bai eta horri dagokionez etorkizuneko belaunaldiekin dituzten ardurak beren gain hartzeko eskubidea ere.
- Herri indigenek badute eskubidea tradizioz eduki, okupatu edo erabili edo eskuratu dituzten lur, lurralde eta baliabideetarako.
- Herri indigenek badute eskubidea jabetza tradizionalaren bidez edo beste okupazio- edo erabilera-mota tradizional baten bidez dauzkaten lur, lurralde eta baliabideak, bai eta beste era batean eskuratutakoak ere, eduki, erabili, garatu eta kontrolatzeko.
- Estatuak lur, lurralde eta baliabide horien aitormen eta babes juridikoak ziurtatuko dituzte. Aitormen horrek behar bezala errespetatuko ditu kasuan kasuko herri indigenen ohiturak, tradizioak eta luraren edukitza-sistemak.
- Herri indigenek badute eskubidea beraien lur edo lurraldeei eta baliabideei dagozkien ingurumenaren eta ekoizte-ahalmenaren kontserbazio eta babesarako. Estatuak herri indigenei laguntzeko programak ezarri eta gauzatu beharko dituzte, kontserbazio eta babes hori ziurtatzeko, bereizkeriarik gabe.
- Herri indigenek badute eskubidea beren ondare kulturala, ezagutza tradizionalak, adierazpen kulturalak nahiz beren zientzia, teknologia eta kulturen agerpenak atxiki, kontrolatu, babestu eta garatzeko, eta halakoek barne hartzen dituzte giza baliabideak eta baliabide genetikoak, haziak, sendabideak, animalien eta landareen propietateei buruzko ezagutza, ahozko tradizioak, literaturak, diseinuak, kirol eta jolas tradizionalak, eta ikusizko eta antzez-penezko arteak.
- Herri indigenek badute lehentasunak eta estrategiak erabaki eta taxutzeko eskubidea, beraien lur edo lurraldeen eta beste baliabide batzuen garapenari eta erabilerari dagokienez.



- Estatuek kontsultak egingo dituzte eta fede onez arituko dira lankidetzan herri indigena interesdunekin haien ordezkaritza-erakunde propioen bidez, baimen libre eta informatua eskuratze aldera, haien lur edo lurraldeei eta beste baliabide batzuei eragiten dien edozein proiektu onartu baion lehen, bereziki baliabide mineralen, hidrikoen edo bestelako baliabide batzuen garapenari, erabilerari edo ustiapenari dagokienez.

## Nekazarien Eskubideen Gutuna

*Nekazariaren Gutunak* (NBEk sortua, 1979an) ezin izan zituen nekazariak babestu nazioarteko liberalizazio-politiketarik<sup>159</sup>. NBEen urteetan eztabaidatzen ari diren agiri hori ere kontsultatu dugu. Badirudi ez dagoela adostasunik haren inguruan. Negoziazioetan parte hartzen ari diren La Vía Campesinako zenbait pertsonak diote badaudela gogor egiten duten bi fronte: eskubide kolektiboek dagoen atala, batetik, eta genero-eskubideei buruzkoa, bestetik.

Lege horiek guztiak dira bi kasu hauetan urratzen direnak? Bai, antza denez, eta ziur asko besteren batzuk ere aipatu gabe geratu zaizkigu. Ikus ditzagun pixkanaka bi kasuei dagozkien urraketak, bai eta Argentinako kasuak dituen berezitasunak ere, komunitate indigena bat izaki.

**Elikadurarako eskubidea** adierazpen eta tratatu ugarritan jasorik dago, baina, batzuetan, herri-ekimenek zantzu gehiago ematen dizkigute urratzen ari diren eskubideei buruz edo dauden sentsibilitateei buruz. *Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak*<sup>160</sup> elikadura osasuntsua izateko eskubidea adostu zuen, honako testu honekin:

*Pertsona orok elikadura osasuntsua izateko eskubidea duela aldarrikatzerakoan, giza eskubide batetaz ari gara. Baserritarren eta arrantzaleen funtzioa elikagaiak ekoiztu eta eskaintzea da, ez industria transformatzailearentzako lehengai merkeak ekoiztea. Horretarako hau bermatu behar da: ekoizpena ahalik eta baserritar eta arrantzale gebien artean banatzea; ura eta lurra zaintzea, lan horretara pertsona gehiago batu daitezten; gure ekoizpena barneko merkatura bideratu, kanpoko merkaturen konkista bezalako helburuetatik ihes eginez, bestelako ekonomia harremanak bultzatuz eta elkartasunean, elkar osagarritasunean eta bidezko merkataritzan oinarrituz.*

159 La Vía Campesinaren arabera, nekazarien eskubideez arduratzen diren beste nazioarteko itunak ere ezin izan ziren aplikatu. Itun horiek dira, besteak beste: LANeren 169. Hitzarmena; Bioaniztasunari buruzko Hitzarmeneko 8J klausula; Agenda 21eko 14.60 puntua; eta Cartagenako Protokoloa. Baita NBEk ere politika eztabaidagarriak egiten ditu, korporazio transnazionalen interesetara egokitutakoak, ez munduko nekazarien interesetara.

160 Argibide gehiago, hemen: <http://www.eskubidesozialenkarta.com/>

Eta gaineratzen du:

*Populazioa modu osasuntsuan elikatzeko helbururantz joateak suposatzen duen al-daketa-prozesuari aurre egin ahal izateko, ezinbestekoa da pertsona berriak hastea nekazaritza eta arrantzan. Nekazaritza-eskoletan matrikulazioak gora egiten du (eskariak eskaintza gainditzen du gaur egun) eta horrek ardurak bat suposatzen du, formazioa eskuratu duen pertsona orok aukera izan behar baitu nekazaritza aktibitateari inorporatzeko. Era berean, arrantzara pertsona berriak inorporatzeko proposamenak artikulatu beharra dago, arrantza ontzien desguazea ekidinez eta arrantzontziok arrantzan hasi nahi duten pertsonen eskainiz. Tresnak eta mekanismoak egon badaude, gakoa borondateak biltzean dago, aipatutako norabidean aurrera egin ahal izateko.*

Aurkeztu diren bi kasuek proposamen horien aurka egiten dute, eta horregatik uste dugu argi eta garbi urratzen dutela elikadurarako eskubidea; eskubide hori ekoizle zein kontsumitzaileei ukatzen diete, eta, gainera, elikagaien beharrezko kalitatea jaisten dute. Espetro zabaleko urraketa bat da, familia desjabetuak, pen-tsua erosten dituzten familia abeltzainak, kontsumitzaileak... kaltetzen dituelako.

Eskubideak batzuetan elkarri loturik daude eta, hortaz, haien urraketak ere bai. Elikadurarako eskubidea badator beste bi eskubideren eskutik helduta, eta horiek dira **lana izateko eskubidea eta norberak nahi duen lekuan bizitzeko eskubidea**, nazioarteko zein herrialdeetako legeetan jasota dauden eskubide batzuk.

EHNE Bizkaiak, 2011n, landa-eremuaren egoera aztertzeke eginiko gogoeta sakon batek<sup>161</sup> honela dio:

*Nekazaritza-sektoreak ekonomiaren gainerako sektoreekin batera jokatu zuen lan-gileen erabateko murrizketan 2008az geroztik. Soldatapeko lanaren jaitziera handi-agoa izan da, eta horrek soldatarik gabeko lanak gora egin dezan eragin du, az-ken hori nagusi izanik, eta gehienbat emakumeek egina. Datuen arabera, badirudi emakumeak gizonak ordeztzen ari direla soldatapeko lanean, eta gizonak, bestalde, sektorean ekintzaile gisa sartzen direla.*

*Nolanahi ere, nekazaritza-sektoreak ozta-ozta enpleguaren %1 jartzen du Eus-kadin. Bizkaian, 1989 eta 2009 artean, nekazaritzako ustiategien ia erdiak gal-du dira, eta 10.000 hektarea baino gehiago erabilitako nekazaritza-azalera-rik, Nekazaritza Erroldaren arabera. Horrek ekarri zuen nekazaritza-lur urriaren*

<sup>161</sup> <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20111025/299160/es/EHNE-Bizkaia-exige-soberania-alimentaria-frente-PAC> (2017ko iraila).

*gainean urbanizatzeko-presioa gertatzea, eta gatazkak lurzorua erabileraren inguruan, lehenagoko biztanleen eta biztanle berrien artean. Euskadiko herritarren barne-migrazioari buruzko datuen arabera, krisialdian eutsi egin zaio bizilekua hiri-ingurunetik kanpoko udalerrietan izateko lehenespenerari, baina landa-inguruneke udalerrietarako migrazioa jaitsi da, eta hiri-inguruneetarako migrazioa igo da, 2008az geroztik, nabarmenago 2011tik aurrera.*

Lana izateko eta haren bidez soldata duina eskuratzeko eskubidearen urraketa hori hainbat eratan gertatzen da. Lurren desjabetzea kasu argia da, baina itotze ekonomikoa edo kutsadura ere izan daitezke tokiko familien hondamendiaren eragile.

Glifosatoa haien labore-lurren inguruan nahiz Bajo Hondo guztian erabiltzeari buruz MOCASEk eginiko azterlanak<sup>162</sup> honako hau ematen du aditzera: *“Purdue University-k kukurbitazeoei buruz eginiko azterlan batzuek (Chacoko eskualdean nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizle txikiek hazten dituzten espezieetako asko barne hartuta: angurria, meloia, kuia) ondorioztatu dute halakoei eragin egiten diela agrokimikoak egoteak, hala nola 2,4-D eta/edo glifosatoa; hala, heltzeko denborak atzeratzen zaizkie eta etekin gutxiago ematen dute, eta horrek kostu ekonomiko handiak dakartzkie ekoizle horiei, aztertutako lurzoruetan, 4500 USDtik gora”.*

Eta **norberak erabakitzen duen lekuan bizitzeko eskubideari** dagokionez, ozeanoaren alde bateko eta besteko enpresek eta enpresaburuek egiten dituzten presio politikoak, ekonomikoak, baita presio hertsatzaileak ere, dauzkagu. Nahitaezko desjabetzeari buruzko legeak Estatuari ematen dio arrazoia, beti interes orokorraren aldean kokatzen baitu, lantzen diren eta elikagaiak ematen dituzten lurrak interes partikularrekotzat jota, eta azpiegitura bat egitea, aldiz, interes orokorrekotzat.

Badaude beste era batzuk biztanleak beren etxeetatik botatzeko; MOCASEren historia jasotzeko egin ziren elkarrizketetan, honako hau esaten da:

*“Eta horrela, 6. lotean, nire auzoan, alegia, ez zen inor geratu, gutatik inor ez da hor bizi, eta lursailak ez dira gureak. Ez kendu zizkigutelako, halere. Aitak berea saldu zuen, auzokideak ere bai. Guevara-rekin baino ez zuen gatazkak jarraitzen, eta ez da jada han bizi. Víctorrek, Guevara familiako batek, lursaillean edo ondoko lursaillean jarraitzen du. Ez dakit. Berak lursail horretan lan egiten zuen, haiei etxe osoa erre baitzieten. Zera esaten ziguten: “zoaz herrira bizitzera, nik lursaila errentan hartuko dizut eta; urtean hainbeste ordainduko dizut”*

162 MOCASE-Vía Campesina. Memoria de los Orígenes de la Central Campesina de Quimilí. Argentina 2017.

Nekazaritza jenderik gabe eraikiz joateko estrategia bat da, eta horretarako prest daude ekonomikoki itotzeko, pozoitzeko edo zuzeneko indarkeria erabiltzeko; dena dela, gero gehiago hitz egingo dugu zapalkuntzaz. Baina Santiago del Estero-ko hainbat eskualdetako komunitateek, ez bakarrik Bajo Hondokoek, egoera hori jasaten 20 urte daramatzate, soja iritsi zenetik, eta honela deskribatzen dute egoera hori:

*“Inguru horretan basamortu bat geratu da. Lanik ere ez da geratu. Dauden gazteek beste nonbaitera alde egin behar dute edo lan bila, lur-puska txiki batean itxita gaude-lako. Autokontsumorako angurria, kuia-eta ekoizten dugu, eta dena erretzen digute... egia esan zerbait ateratzen dugu... mendia hor dagoelako inguratuta, baina berdin galtzen da... ez da batek atera dezakeen ekoizpena, edo kantitatea... asko gutxitu da.”*

Aurreko eskubideak errespetatzen ez badira, nola gozatu **bizitza duin, kalitate-dun, batez?** Estatuak eta nazioarteko erakundeak ustez eskubide horien bermatzaileak dira, baina kasu hauetan ikusten dugu alde batera uzten dituztela eta biztanleen zati bat baztertzen dutela, gizarte-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzu kalitate-dunak erabiltzeko aukera ukatuz, esaterako. Lehen ere aipatu ditugu LAGak landa-eremuko pertsonen eskubideak urratzeko legezko tresna gisa; ildo horretan, berriz ere jotzen dugu Desazkundera kolektiboaren alegazioetara, honako hau kritikatzeko dute eta:

*Eskualdeetako biztanleak oinarrizko zerbitzuetatik (osasuna, hezkuntza, sustapena...) gero eta aldenduago, “murriztea eta zentralizatzea” bilatzen duten estrategien menpe. Bigarren mailako hiritarrak, azken finean. Ordainetan, herritar horiek konbentzitzen saiatzen dira, irisgarritasuna mugikortasunerako azpiegiturak (atetik aterako autobideak) hedatzea dela esanda, hiriburura ailegatzen denbora gutxiago eman dezaten.*

*Azken finean, metropoli-tan dena zentralizatu beharrak dakartzan kanpo-eraginen biltontzietarako gune izaten amaitzen dute (mugikortasunerako linea handia, hornikuntza, saneamendua... eta errauskailuak, zaborte-giak, harrobiak... kokatuko diren tokiak). Ereduek honek mailakatu egiten du lurraldea, erdigunea vs periferia, hiri handien, ertainen eta landa-guneen arteko harremana arautu behar lukeen ezinbesteko “lurralde-kontratua” hautsiz. Kohesiorako beharrezko den akordio hori hautsita, ezinbestez sortuko dira gatazkak eta tentsioak.*

Eta hori Argentinan ere gertatzen da; han, kideek diotenez:

*“95-96rako gauzak aldatzen hasi ziren, fumigatu eta ekoizpen guztiak hiltzen zizutelako, ezin zenuen ezer erein, dena kutsatzen zizuten. Ingurunea kutsatzen*

*dizute, ekoizten duzuna hiltzen dizute... animaliek umea botatzen dute; gauza asko soja artean.”*

**Osasunerako eskubidearen urraketa.** Iacu Cachi komunitatean, Orlando Canido-ren fumigazioek komunitatearen ur-iturriak kaltetzen dituzte, eta komunitateko kide guztiak pozoitzen dituzte. Airez ere pozoitzen dituzte, eta laboreen kutsaduraren bidez. Batzuetan, medikuek pozoidura diagnostika dezaten lortzen dute, baina zaila izaten da oraindik fumigatzaileak legez akusatzea. Badira bi kasu, bide berri bat ireki zutenak, baina bide hori motela da, eta ez du beti funtzionatzen. CONAMURI erakundeak, Paraguain, bi lur-jabe kondentatzea lortu zuen familia baten gainean eginiko fumigazioagatik, Silvino Talavera izeneko haurra-  
ren heriotza eragin baitzuen. Agrotokikoen ondorioz homizidiogatik ezarri zen lehen zigorra izan zen. Argentinan, Córdoba-ko auzo bat eta Buenos Aireseko herri bat borrokari lotu zitzaizkion minbizi-kasuek izandako gorakadagatik, fumigazioak zirela medio. Haiek ere nolabaiteko garaipen judizial bat lortu zuten; bi kasuetan, behinik behin, auzitegiak agindu zuen fumigazioak bertan behera uzteko, eta zer eremu babestu behar ziren zehaztu zuen. Hala eta guztiz ere, ohikoena izaten da halako salaketak aurrera ez ateratzea.

Bertakoek argi dute:

*“Han egon beharra dago erresistitzeko. Ez da samurra. Fumigazio-garaian, une oro egon behar duzu ea fumigatzen duten. Niri, adibidez, goragale moduko bat ematen dit, sudurrean. Nik uste, pozoiak dira, fumigazio-garaian izaten delako, eta orduan hasten delako agertzen...” “Imajinatu hegazkin bat. Hegazkin bat lurretik bi metrora joaten da hegan, lurraren arrasean oso. Lurretik bi metrora gutxi gorabehera. Batzuk ia lurraren arrasean doaz, eta orduko berrehun kilometrora. Imajinatu, pozo hori darama, pozoiak joan behar du, hemen eten arren, haizeak berak eramaten du, ezin da inoiz toki horretan agertu...” “Ezin bazaituzte kanporatu utzarazpenen indarrez, pozoia-  
ren indarrez kanporatu nahi zaituzte... eta han egon beharra dago erresistitzeko...”*

Baina kontua da pertsonen bizitza ingurumenari loturik dagoela; horregatik, bi kasu hauek agian subjektiboagotzat jo daitezkeen beste eskubide batzuen urraketa argi bat dira. Nolanahi ere, eskubide horiek Espainiako eta Argentinako konstituzioetan jasorik daude, eta batez ere Nazio Batuen herri indigenen eskubideei buruzko adierazpenean, esaterako, **ingurumenaz gozatzeko eskubidea eta estatuek hura babesteko betebeharra**, eta ez uzteko inork kalte dezan. Hala ere, kasu honen azpian dagoen ekoizpen-eredua etengabeko hedapen-prozesu batean oinarritzen da, eta berekin dakar ingurumena hondatzea, hainbat nekazaritza-proiektu desagertzea eta nekazaritza-ekosistemak ahultzea.

Argentinako kasuari bereziki gagozkiola, eta ingurumenari zein hondakin toxikoei buruzko legeak egon arren, soja transgenikoaren agroesportazio-ereduak ezinbestez glifosatoaren erabilera behar du. Lehen aipatu dugu pertsonen osasunari zer egiten dion, baina azterlanek diote lurrarentzat ere ondorio kaltegarriak dituela

*“berez glifosatoa jasaten duten edo, herbizidaren eraginpean emandako belaunaldien poderioz, erresistentzia garatu duten gero eta belar txar gehiago. Horregatik, glifosatoarekin batera, askotan, belar txar horien hazkunderari eragiteko moduko beste herbizida batzuk aplikatzen dira (2,4-D kasu).*

*Gero eta txosten gehiagok esaten dute glifosatoa oso luzaro atxikitzen dela mineral-kontzentrazio handiko lurzoruetan, bereziki burdin oxidoak dauzkaten lurzoruetan, baina, era berean, atxikitze-denborak askoz luzeagoak izaten direla buztinak dauzkaten lurzoruetan, materia organiko gehiagoko lurzoruetan baino.”*

**Eta Bajo Hondoko komunitateen, kasu honetako auzi-jartzaileen, kasuan:**

*“Bajo Hondok hartzen duen lurraldean, horizonteek burdin eduki moderatua daukate, eta glifosato-adsortzioaren konstante altuak; degradazio biologikoko erreazioetarako eskuragarri ez dagoenez, edo mekanismo abiotikoen erreazioetarako (erreakzio fotokimikoak kasu), agrokimikoa neurri handian atxikiko da lurzoruan, eta denbora luzez (hilabeteak), 1980ko hamarkadaren hasierako txostenei kontrajarrita, haiek degradazio-denborak aste gutxiak zirela baitzioten”; bai eta urari dagokionez ere: “...La Platako Unibertsitate Nazionalaren azterlan batzuek glifosatoaren degradazioaren hainbat produktu aurkitu zituzten Bajo Hondoko urak tratatzeko instalazioetatik hurbil dagoen presa bateko uretan. Azken hori hamar metrora baino gutxiagora dago toki hartako lehen hezkuntzako eskola eta haurtzaindegitik (eta biztanleak edateko urez hornitzen duen instalazioaren ondoan).”<sup>163</sup>*

**Euskal Herrira itzulita, 2008rako Euskadi Forestal aldizkarian<sup>164</sup> honako hau esaten zen:**

*“Baso-eremuek jasango dituzte ondoriorik handienak, abiadura handiko trenaren trazatua dela eta. Legearen arabera desjabetze-mekanismoak (artikulu honetan informatzeko helburu hutsez azaldua) ez ditu konpentsatzen trazatutik gertuko*

<sup>163</sup> Aipu hauek MOCASEk bizimodu jasangarriak izateko eskubidearen aldeko Auzitegirako (2018) eginiko azterlanetatik hartuak dira.

<sup>164</sup> EUSKADI. FORESTAL. TAV y expropiaciones forestales. Julio 2008

*basoen titularrei eraginiko arazo guztiak, batez ere jabari publikoko aldeetan eragindakoei dagokienez.”*

Iñaki Petxarroman-ek, Lurra zorua bailitzan bere liburuan (Txalaparta, 2010), ingurumen-politiken eta halakoek Euskal Herriko naturan izan duten ondorioen berrikuspena egiten du. Esaterako, berak dio berotegi-efektuko gasen isurketa %47 igo zela 1990etik 2008ra bitartean. AHTaren proiektuari dagokionez, berak bakarrik nekazaritza-lurren heren bat desagerraraziko du mendebaldeko probintzietan. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Estrategiak onartzen du garraio-sistemak hainbat ondorio ekarriko dituela, hala nola: “garatzeko lur berrien etengabeko beharra, erregai fosilen kontsumoaren etengabeko igoera, eta atmosferara doazen gas kutsagarrien gehikuntza”. 2009an, gas-isurketaren %23 garraio-sektorean sortu zen.

Horrez gain, lurpeko urak desagertu eta kutsatu egiten dira; AHT Gelditu! Elkarlana-k AHTaren inpaktuei buruz eginiko txostenaren arabera:

*“AHTk interes hidrogeologiko ezaguneko eremuak zeharkatzen ditu eta “Euskal Y”ak, berak bakarrik, ahultasun handi eta oso handiko kalifikatutako 31 km akuifero zeharkatuko lituzke, Aramotz (Udalaitzen), Ernio eta Gasteizko unitate hidrogeologikoetan... Une honetan, ingurune askoren ezagupen hidrogeologikoak hain eskasak eta mugatuak izanik, ebatzi gabeko hainbat arazo daude, AHTak (obren fasean zein gerokoan) lurpeko urei eragin diezaikekeen kalteen tamaina zehatz-mehatz aztertzea galarazten dutenak.*

AHTaren trazatuaren aurkako zenbait alegazio eskubide honetan oinarritzen dira, eta berariaz ingurumenari eta herritar gisa hartaz gozatzeko dugun eskubideari erasotzen dioten trazatu-zatiak aipatzen dituzte. Hona hemen alegazioetako baten pasarte bat:

*“Adierazten dut zuzeneko interes ekonomikoak ditudala espediente honek eragindako jabari publikoko ondasun ezagunak egin izan dudak eta egiten jarraitu nahi dudak erabilera librea dela bide, aipaturiko ondasunen artean daudela errepideak, bideak, pistak eta bidezidorrak, ur-lasterren ibilguak eta bazterrak, jabari erradioelektrikoa, baliabide naturalak eta 1978ko Espainiako Konstituzioko 132. artikuluko 2. paragrafoan, administrazio publikoen ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 5. artikuluan, eta Kode Zibileko 339. artikuluan barne hartutako beste batzuk.*

*Oso kaltetuta gertatuko dira desjabetze-prozesu honetan sartutako lurzatiek emandako ondasun horien obiko zein noizbehinkako in situ erabilera eta gozamina (bideak, ur-lasterak, basoak, jabari erradioelektrikoa, paisaia, isiltasuna, aire garbia,*

*flora, fauna edo natura-ingurunea), bai eta produktuen bilketarenak (frutak, fruitu lehorrak, perretxikoak, eztia, barraskiloak, iturburu eta ibaietako ura, sendabela-  
rrak, loreak, haziak, zobikatza, argazkiak). Nabiz eta kalte hori erlatiboki txikia izan proiektu hau osagarri zaion proiektu nagusiak dakarren kaltearekin alderatuta, kalte handi hori larriagotu egiten du honek, ingurumen-inpaktuaren azterketak aditzera eman duen baino are gehiago (proiektu osagarri honek ez du bete ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozesua; hain zuzen, ebaluazio hori pasatu beharko zukeen, osatzen duen proiektu nagusian integraturik), eta egun gauzatzan ari diren obretan dagoeneko ikus daitekeen lurralde-suntsipen handiaz gain. Ezkio-Itsason trenak aparkatzeko eta aurreratzeko gune bat eta bidaiarientzako geltoki bat egitea aurreikusita dagoenez, bai eta, beharbada, Nafarroako adarrerako sarbide bat ere, eragindako azalera beste trenbide-zati batzuetan baino handiagoa izango da.*

*Desjabetze-prozesu honetan sartutako lurzatien jabetza-erregimena gorabehera, lurzati horien inguruan sortutako jabari publikoko ondasun guztiak herritar guztien ondare komuna dira; horregatik, haiek erabiltzeko nire eskubidea erreklamatzan dut. Jabari publikoko ondasunen erabilera eta gozamina izateko eskubide horrek berekin dakar ni interesduntzat jo behar izatea, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeko 4. artikulua ondo ondo, zeren eta desjabetzearen ondorioz ondasunetan eragindako kalte galera ekonomiko batekin pareka baitaiteke, desjabetzearen zioz galdutako zerbitzu eta produktuek merkatuan luketen prezioa baino txikiagoa ez litzatekeen galera batekin, hain zuzen.*

Eta eskubide-urraketa gehiago aipatzen jarraitzen dugu: **justizia erabiltzeko** eskubidea ere nazioarteko tratatuetan zein eskualdeetako eta herrialdeetako legeetan jasota dago. Kasu honetan, Santiago del Esteroko kasuari dagokionez, komunitateetako pertsonen hitzek berek ematen digute aditzera zer gertatzen ari den hainbat urtean. Ustezko justizia horrek eragotzi du, botere politiko eta ekonomikoekin elkar hartuta, komunitateek aurkezturiko salaketek aurrera egitea, baina, ordea, nekazarien mugimenduen aurka lur-jabeek aurkezturiko salaketak bideratu egin ditu.

Quimilí-ko (Santiago del Esteroko beste toki bat) familiekin eginiko elkarrizketa batean, elkarrekin hitz egin, eta honelakoak aipatzen dituzte:

*“...baina gero, fumigatzen hasten direnean, landareak ihartu egiten dira. Hutsean geratzen den lan bat da, norberak alferretan galdutakoa... salaketa jarri dugu, baina ez dakit zer gertatzen den, gauzak errespetatu ezin dituzte eta...”*

Kasu berean, agrotoxikoekin eginiko dozenaka fumigazio aipatzen dituzte, komunitateko kideak, umeak eta haurdunak fitosanitario debekatuen eraginpean jarrita,



eta legez kontrako distantzia batzuetara, epailearen konplizitatearekin. Horrela, bada, estatu nazionala zein estatu probintziala konprometitzen dituen herrialdeko eta nazioarteko araudia hausten da.

Abiadura handiko trenaren kasuan ere gertatzen da botere judizial, ekonomiko eta politikoen arteko aliantza hori. Lehen ere esan dugunez, legeak diseinaturik daude nahitaezko desjabetzeak posible egiteko, eta botere ekonomiko kapitalista kultura-arloko edo tokiko balioen gainetik jartzeko.

Funtsezko puntu bat izan da hori AHTaren trenbide-zati batzuen aurka aurkez- turiko alegazioetan. Hain zuzen, halakoan bidez zatiok ezar zitezten atzeratzea ere lortu da zenbait kasutan. Estrategia hori nahikoa zabaldu da, eta garaipen erlatibo batzuk izan ditu, bereziki Durango-Elorrio trazatuan, han urte batzuk atzeratuta baitabilta desjabetzeak eta obrak. Legea ez da argia erakunde publikoei egite- koak diren desjabetzeen inguruan, eta, horregatik, aurkaratzen saiatu dira. (Ikus AHTari buruzko alegazioen eranskina).

*Nahitaezko desjabetze-prozesu honek eragindako ondasun eta eskubideak jasoz ar- gitaratu den zerrendak ez du zehazten lurzati batzuk jabari publikokoak direla (batzuetan, Udala edo ur-konfederazioa ageri dira titular gisa, baina haiek, egiaz, jabari publikokoak diren lurzati batzuen administratzaileak dira). Gainera, ze- rrenda horretan aipatu gabe uzten dira jabari publikokoak diren beste ondasun asko. Omisio horiek zaildu egiten dute ondasun eta eskubide horien ohiko erabiltzaileek kaltetu- eta interesdun-izaera eska dezaten, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeko 4. artikuluari helduz, eta ondasun batzuetarako (hala nola bideak, bidezidorrak, basoak, perretxikoak, erleak, iturburuak, flora, fau- na, paisaia, isiltasuna, jabari elektrikoa eta natura ingurunea), erabiltzaile horiek ez dira inguruko biztanleak bakarrik, baizik eta eskualdekoak eta urrunagokoak ere.*

*Onura horiek guztiak kontuan ez hartzeak zaildu egiten du kaltetu hauek guztiok konpentsazioa jaso dezagun, eta hori nahikoa arrazoi izan daiteke desjabetze-pro- zedura eteteko, behar bezala bete ez direlako Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeko 17. artikulua eta haren erregelamenduko 16. artikulua. Gainera, omisio ho- rrek berekin dakar **azpiegitura hau eraikitzeak gizarteari, oro har, eragiten dion benetako kostua nabarmen azpitik balioztatua** izatea, haren ebaluazioa egite al- dera, eta horrek etorkizunean okerreko erabakiak hartzea eragin dezake, antzeko azpiegiturak eraikitzeari edo hau handitzeari buruz.<sup>165</sup>*

Baina, horrez gain, AHTaren aurkako borroketan **herrien autodeterminazio-es- kubidea eta erabakimena** erabiltzen saiatu ziren, herri-galdeketak eginez; haie-

165 Angiozar auzoan AHTaren desjabetzei eginiko alegazioen pasartea. Bibliografiako erreferentzietan jasota daude.

tan, garaipen argia lortu zuen AHTarentzako ezetzak. Galdeketa horiek aintzat ez hartzeaz gain, udal horietako zinegotzi batzuk akusatu eta desgaitu ere egin zituzten, beren herrietan trena igarotzeari buruz galdetzeagatik.

*Angiozarko biztanleek (AHTaren linea honen mendebalderanzko luzapenak eragiten dio Angiozarri) AHTaren proiektua errefusatu zuten 2007ko uztailaren 1ean egin zen herri-galdeketa. Erroldatik, %84k parte hartu zuen, eta botoen %2 AHTaren aldekoa izan zen, eta %94, aldiz, kontrakoa.*

*Hurbileko Itsasondo herriko biztanleek (AHTaren linea honen mendebalderanzko luzapenak eragiten dio Itsasondoari) AHTaren proiektua errefusatu zuten 2006ko abenduaren 3an egin zen herri-galdeketa. Guztira, 232 herritarrek parte hartu zuten, erroldaren %44k, alegia, eta haietatik, %10'8k AHTaren aldeko botoa eman zuen, eta %88'8k, kontrakoa.*

*Beste hogeit hamar herri, hurbileko Itsasondo eta Alegia tartean, abiadura handiko lineari buruzko herri-galdeketa egin dituzte (Urbina, Gasteizko 20 kontzeju, Anoeta, Atxondo, Alegia, Aramaio, Elorrio, Legorreta, Lizarragabengoa eta Arbizu), eta haietan guztietan botoen gehiengoa AHTa egitearen kontrakoa izan da. Egungo sistema legal eta politikoari legitimotasuna larriki kentzen dion nagusikeriazko jokabide bat izan da, trazatuak zuzenean kalteturiko zenbait udalerritako udal, kontzeju edo auzo-talde batzuek herri-galdeketa deitu dutenean, udal haiek antolatzea ere debekatu izana (Aramaio, Elorrio eta Irurtzunen kasu) eta haietan guztietan emaitzak gutxietsi izana (guztiak AHTa ezartzearen aurkakoak, orain arte), zuzenean eta modu garrantzitsuan eragiten dieten gaien inguruan toki-mailan erabakitzearen eskubidea errespetatu beharrean.<sup>166</sup>*

Kasu bakoitzak baditu, orobat, berezko eskubide-urraketa batzuk; hala, Argentinako kasuan garrantzitsuena da, beharbada, **jatorrizko herriak** direla eta, hortaz, 26160 lege nazionalak zein herri indigenen eskubideei buruzko NBERen adierazpenak babes berezia ematen dietela, ustez. Eskubide-gutun hori ia erabat urratzen da, gainera, Bajo Hondoko komunitateen kasuan.

*Salaketan bertan urraketa horien funtsak aipatzen dira, eta halakoen jatorritzat ematen dute eredu neodesarrollista bat aukeratu izana, agronegozioa eta monolaborantza zabaltzearen, herri indigenen, nekazaritza txikiaren, eta komunitate tradizionalen lur eta lurraldeez zein baliabide naturalen kontrolik gabeko ustiapenetik babestutako eremuez baliatzeko helburua duen eredu bat.*

Azterlan honetan agerian geratzen dira **kultura, mundu-ikuskerak, erlijioa, hezkuntza...** izateko eskubideen urraketa. Jatorrizko herriei buruzko lege guztiek lurraldea aipatzen dute herrion mundu-ikuskerak garatzeko faktore nagusitzat,

166 Idem.

*lurrak ez du bakarrik balio ekoizpen-bideak ziurtatzeko edo ondasunak metatzeko, identitate bereizia duen komunitate baten eran existitzea bermatzeko ere bai. Beren lurrez gabetzea edo lurrok kutsatzea eraso bat da herri horiek kultura eta tradizio bat izateko duten eskubidearen aurka.*

Iacu Cachi komunitatearen kasuan, argi dago urraketa hori, han bizi diren adingabeek herriko eskolara joateari utzi diotelako, pertsona zital horiek etengabeko jarraipena egiten diotelako. Mehatxuak, kontrolak eta ekintza armatuak bertakoak eskolara joatea eragozten ari dira.

Eta usadio eta ohiturak ere aldatuz doaz; horrek subjektiboa eta are saihetsezina eman dezake, baina ikusi behar dugu non dagoen ikuspegi kapitalistaren eta indibidualismoaren hastapena. Horretarako, gizarte-eredu batean baino gehiagotan bizi izan direnei entzutea oso baliagarria da; Quimilí-ko nekazari batek honela dio:

*“duela 20 urtekoaz ari gara, oso bestelakoa izan zen... askozaz hobea nire ikuspuntutik, sanoagoa zen, zerago... zera zegoen, ez dakit nola esan, elkartasun handiagoa zegoen, nik horrela ikusten dut.”*

Horrek **zirkulazio askerako eskubidearen** urraketara garamatza, eta hura ez dagokio Argentinako kasuari bakarrik. Euskal Herrian, AHTaren aurkako borroka gogorragoa zenean, trenaren aurkako militante bat gelditu, mehatxatu eta jo egin zuten errepide-kontrol batean. Poliziak agiraka esan zion: “orain AHTaren aurka zaude, baina preso sartzen zaitugunean, ama tren horretan joango da zu bisitatzera”. Halako kasuak Euskal Herrian nahiz Santiagon gertatzen dira; hala, MOCASEko militanteek diotenez, komunitateko kideek ezin dituzte ohiko bideak erabili herrira joateko, talde armadunak daudelako.

**Adierazpen- eta bilera-eskubideak** ere hautsi, urratu, ikusezin bihurtu eta suntsitu egiten dira, indar polizial, parapolizial, ekonomiko eta judizialen zapalkuntzaren bidez, erreakzio antolatuak egon baino askoz ere lehenago hasten direlarik horretan. Kontrol-mekanismoak gatazkak baino lehen agertu ohi dira, baina nabariago eta gordinago egiten dira antolakundeek aurrera egiten dutenean, hazi, eta proiektuak gelditzea edo atzeratzea lortzen dutenean.

Zenbakiak zirrargarriak dira, baina are gehiago kontakizunak; hala, Yaku Cachi komunitateak hau salatzen du

*“etengabeko gatazkan dago, mehatxuak, legez kanpoko atxiloketak eta torturak jasaten polizia-funtzionarioen eskutik. Halaber, komunitateko kideak gogor krimi-*

*nalizatu dituzte faltsukeriaz, eta existitzen ez ziren delituak egotzi dizkiete, kasu guztietan lurraldearen defentsari loturik. Enpresaburuak lurraldera jatorri ezezaguneko talde txanodunak sartu ditu, arma askorekin. Hertsapenez eta beldurrez, familiak gatibu eta estortziopean eduki dituzte landa-eremu txiki batean, auzo-bideak blokeatu dituzte, eta legez kanpoko konfiskazio-operazioak egin dituzte, eta komunitatearen ur-putzua kamioak zekartzan hondakinekin estali dute.”*

Batzuetan, indarkeria hori komunitate osoak pairatzen du, baina beste batzuetan berriazko indarkeria izaten da, liderren aurkakoa edo komunitatearentzat garrantzizko kide izan daitezkeen pertsonen aurkakoa. Hala, bada, erasoetan beldurrarazten saiatzen dira zenbaitetan, edo galderak egiten dituzte, ea MOCASEko kideak diren..

### 3. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Yacu Cachi komunitateak aurkeztu duen txostenak ezin hobeki laburbiltzen du bizitzen ari den egoera, honako hau nabarmendurik:

*“kasu hau paradigmatico bihurtzen duena da sistema judizialaren, agronegozioko enpresaburuaren eta halako egoerei botere politiko nazionalak ematen dioten babesaren arteko konplizitatea.”*

Esan genezake antzera gertatzen dela AHTa egiteko desjabetzeen kasuan: EAJk bultzatutako ekonomia-sistema kapitalista bat, era misteriosuan alderdiarekin lotura duten enpresa batzuei esleitua, Euskal Herriko eta Espainiako zenbait botere ekonomikorekin elkar harturik, eta neurrira eginiko sistema judizial bat.

Giza eskubideei edo indigenen eskubideei buruzko nazioarteko esparru edo akordioak ez dira inolako bermea eskubide horiek errespetatzeko edo are toki-ko legeetan jasotzeko. Argentinako kasurako, herri indigenen eskubideei buruzko legea sortzea aurrerapausoa izan zen, baina egoera konplexuagotu egiten da, herrialdea herri horiek badirela ezkututzen saiatu delako beti, eta herri indigenatzat hegoaldeko herriak edo herri andetarrak baino ez dira ezagutu.

Herrien eskubideak defendatzeko beste oztupo bat da estatuek interes partikularraz eta interes orokorraz egiten duten interpretazioa. Estatu kapitalista batzuetan bizi gara, eta halakoek beren erabaki eta espektatiben erdigunean dirua jartzen dute; hortaz, interesak ere irabazi ekonomikoan ia bakarrik pentsatuz hartzen dira aintzat. Esaterako, baserritar baten lurra interes partikularrekoak direla irizten zaio, haiek ustiatzean familia horrek lortuko duen soldatan edo onura ekonomi-

koan pentsatzen ari delako, baina ez da aintzat hartzen ingurumenaren, osasunaren, elikaduraren, kulturaren, transmisioaren... aldetik datozen onuren interes orokorra.

Eta, bestalde, enpresa handien irabazi ekonomikoari eta kapitalen eta kapitalisten mugimendu handiari interes orokorra irizten zaie, eta horregatik AHTa egitea gizartearentzat onuragarritzat jotzen da, baina atzera ere ahazten dute ingurumenaren, osasunaren, elikaduraren, kulturaren, transmisioaren... aldetik datozen onuretan eragindako kaltea.

Kultura kapitalistaren aurrerapenak, dirua “astoarentzako azenario” gisa daramala, ez du bazterretarantz begiratzen, eta ez da kezkatzen igarotzean zanpatzen edo suntsitzen duenaz ere. Dagoeneko hitz egin dugu halako proiektuen ondorio negatiboez, desjabetu edo kanporatutako familien bizi-kalitatea ez ezik, bizitza bera ere oro har kaltetzen baitute.

Gehiegikeria horiek galarazteko bide judiziala alperrekoa izaten da askotan, eta are gehiago bide indibidual bat hartzen bada. Bi kasuek irakasten digute, ezer agronegozioaren eta garraio-sistema desarrollistaren aurrerapena geldiarazteko gai izatekotan, hori borroka kolektiboa dela, espazio judizialetan zein kale eta bulego politikoetan: epaileen aurrean salatzea, baina hedabideen eta gizarte zibilaren aurrean ere bai.

Horrez gain, ikasi dugu bide horiek berekin dakartzatela errepresioa, isilaraztea, kartzela eta, batzuetan, laguneren erailketa. Hedabideak, sistema judiziala, ekonomikoa eta politikoa elkar hartuta badoaz, eskura dituzten arma guztiak erabil ditzaizkete, ondorioez kezkatu gabe; horri baderitzo, hain zuzen, **indarraren monopolioa**.

Eder ematen du bioaniztasunaz hitz egiteak, baina soja transgenikoa eta proiektu desarrollistak –hala nola AHTa, frackinga, autobideak...– agroaniztasuna suntsitzen ari dira, tokiko barietateak eta zegoen elikagai-aberastasuna desagerrarazten dituztelako, hazien eta hozi-plasmaren bioaniztasuna, kulturen eta jatorrizko herrien aniztasuna, jakintzen, bizitzeko eta mundua ikusteko... eren aniztasuna. Homogeneizazioko eta monolaborantzako mekanismoak dira.

Elikadura-burujabetzaz hitz egitea ere boladan dago, baina hura:

*“tokiko izaeraz gain, badago loturik ekoizpen-ereduari. Ez da bateragarria nekazaritza intentsibo edo industrializatu batekin eta mugapen biologikorik gabeko erauzketa-arrantza batekin, tokikoa izanik ere. Ez da posible bi abiadurako nekazaritza bultzatzen jarraitzea: ekoizpen gehiena eredu intentsibo eta industria-*

*lizatuetan, eta ekoizpen osasuntsuago bat (ekologikoa) ehuneko txikiago batean. Zentzu berean, arrantza-politikan ez da posible ustiatzen jarraitzea gehieneko errendimendu jasangarriaren (GEJ) gainetik. Bazterkinak bertan behera uztea eta arrantza-mota hautakorrekin arrantzatzea eztabaidea ezinak dira, arrainak artisauro-metodoen bidez eta ingurunea errespetatuz ateratzeari lehentasuna emanik.*<sup>167</sup>

### **Gomendio orokorrak**

1. Honelako kasuak berriz ez gertatzeko egunero-egunero munduko hainbat tokitan, ez da nahikoa legeak aldatzea, lege horiek inspiratzen dituen logika aldatu behar da. Bizia erdigunean jartzen duten tokiko eta nazioarteko akordio batzuk behar ditugu, planetaren nahiz pertsonen bizia, eta herrien bizitze ona helburu nagusitzat dutenak. Horrek berez behar du interes ekonomikoen mende ez dauden eta dirua metatzea helburutzat ez duten akordio batzuk egitea.
2. Elikadura-burujabetza garatzen laguntzen duten akordio eta politika publiko batzuk behar ditugu. Gure ikuspegitik, elikadura-burujabetza da herriek elikatze-prozesu guztiaren gainean erabakitzeko duten eskubidea, eta bada, orobat, elikadura osasuntsu eta kalitadeduna izateko eskubidea bermatzen duen bidea. Hartara, behar ditugu lege batzuk pixkanaka hesiak jarriko dizkietenak monolaborantzari, esklabo-lanari, hirietarako exodoari, distantzia luzeko elikagai-garraioari, zabor-janari (supermerkatuak eta jatetxeak)... Eta lege horiek, aldi berean, tokiko merkatuak sortzen, pertsona berriak kokatzen, zerbitzuak, lan duina... sortzen lagundu beharko dute.
3. Behar dugu giza eskubideei buruz zein herri indigenen eskubideei buruz orain badauden legeak bete daitezen, komunitateak beren lurraldeetatik kanporatzeko luzamenduak bete daitezen, eta kultura eta lurralde bakoitzak gizateriarentzat duen interes orokorrari garrantzia ematen has dadin.
4. Nekazarien eskubideen gutuna onartzea ere behar dugu, eta indarrean sartu eta betetzea, herri indigenei dagokion gutunaren idiosinkrasia berarekin. Berriz ere, bereziki lurralde loturiko gaiak oinarritzakoak dira.
5. Osoko Herri Nekazaritza Erreformaren aldeko apustu argi bat behar dugu, familiei eta kolektiboek lurra eta beste ondasun batzuk eskuratzeko aukera bermatzeko moduan, lur hori landu nahi dutenean eta haien komunitateak elikatuko dituzten proiektu agroekologikoak eraiki nahi dituztenean.

<sup>167</sup> EHNE Bizkaiaren agiria, MUNDU BAT, BIZILUR eta GERNIKATIK MUNDURA erakundeekin batera. Lurra, laborantzaren erreforma, erabilera eta jabetza. <http://emaucursos.com/pdf/GUIA+SA+eusk.pdf>

## **Berlokaliazioa**

6. Herrietako, auzoetako, komunitateetako bizitzak rol zentral bat hartu behar du etorkizunaren diseinuetan; beharrezkoa da, bizitzak era duinean mantenduko baditugu. Hiriak parasitarioak dira, landa-eremutik elikagai, energia, arropa... gisa iristen den lehengaia kontsumitzen dute, eta beren hondakinak itzultzen dituzte atzera ere landa-inguruetara. Ez dute ezer ekoizten oinarritzko beharrak asetzeko balio dezakeenik. Hartara, landa-eremura itzultzeko estrategiak abian jarri behar dira, eta geldiarazi oraindik ere hirietara gertatzen ari den exodoa.
7. Garraio-beharrak ez lirateke bete behar errepideak eta trenbideak gehituz, behar horiek gutxituz baizik, merkaturatze-zirkuitu laburrago batzuekin eta sare sozialak eta zerbitzuak erabiltzeko aukera deszentralizatuago egonda. Distantziak eta garraioa areagotu beharrean, hurbiltasuna eta irisgarritasuna areagotu ditzakegu.
8. Garraio-beharrak murrizten duten eta ingurumena gutxien kaltetzen dituzten garraiobideak bultzatzen dituzten politika publiko batzuk behar ditugu. Kasualitatez, garraiobide horiek ez dira izatez modernoak: tren klasikoa, itsasontzia, bizikleta eta ibiltzea.
9. Eskualde baten barruko biztanleak elkarrengana hurbiltzen dituzten garraio-sare batzuk behar ditugu, tokiko sare sozial eta kulturalak indartzeko. Ez dugu behar hiriburutik hiriburura dagoena ikusezin bihurtzen duen garraio bat, finantza-arloko interesak eta kultura hegemonikoaren interesak sendotzeko balio duen garraio bat.

## **Jana eta elikadura**

10. Birdefinitu egin behar dugu zeri deritzogun elikadura; hazten den guztia ez da elikagaia, ezta jaten dugun guztia ere ez da elikagaia. Elikaduraren funtzioa da behar adinako energia eta mantenuak ematea bizi gaitzen, eta bada, era berean, osasun-iturri bat eta hezkuntza-prozesu bat. Hartara, pozoiturik dagoen jana edo osasun-kanonak betetzen ez duen jana ez litzateke elikagaitzat jo behar. Kasu horretan, soja transgenikoa ez litzateke elikagaitzat joko.
11. Zaindu behar dugu, halaber, janaren gehiegizko kontsumoa, haragiarena bereziki, bai eta elikagaiak munduan era orekatuan banatzeko behar diren kantitateak ere, pertsona guztien ahora iristeko, baina planeta suntsitu gabe.

12. Badaude hainbat azterlan eginda, populazioa elikatzeke behar dugun lurra-  
ren tamaina kalkulatu dutenak; elikadura-burujabetzan aurrera egitea, hain  
zuzen, behar den hektarea-kopurua helburu horretarako esleitzea da. EAEn,  
kalkulatu da gutxi gorabehera 63 hektarea behar direla 100 biztanleko; kon-  
tuan hartzen badugu 2.100.000 pertsona baino gehiago garela, kalkulua egi-  
ten has gaitezke.

### **Lurraldea**

13. Proiektu agroekologikoak bultzatzeak egiteko eta pentsatzeko eren anizta-  
suna dakar berekin, kulturen eta jakintza tradizionalen aniztasuna errespet-  
tatu du, eta jarduerarako eta eraikuntza sozial eta kolektiborako tokizat  
hartzen du lurraldea.
14. Lurraldea habitatu dugun tokia da, eta toki horren osagaiak badira bai  
elementu fisiko batzuk, hala nola lurrak, ura, eraikinak, bai elementu kultural  
batzuk, hala nola historia, tradizioa, bai elementu sozial batzuk, hala nola  
pertsonak edo lurralde horretan eratzen ditugun harremanak; baita elemen-  
tu sinboliko edo espiritual batzuk ere, hala nola eragiten dizkigun sentsa-  
zioak edo sentimenduak.
15. Politika publikoek askotariko lurralde horiek errespetatzera orientaturik egon  
behar dute, lurraldea bera interes orokorreko balioz ezarri eta gaur egun  
esku artean erabiltzen diren “lurzoruaren kalifikazio-aldaketak” baztertuz.
16. Ondasun komunek babesa kultural eta legala behar dute, haiek ongi disei-  
natzeko eta erabiltzeko. Euskal Herrian premiazkoa da landa-lur gisa edo  
nekazaritza-lur gisa kalifikatuta dauden lur guztiak babestea, lur gehia-  
go porlanizatzeko moduko egoerara igaro daitezen eragozteak. Argentinan,  
beharrezkoa da lurroek haiek lantzen eta babesten dituztenen eskuetan ja-  
rraitzea, beren familiak, eta ez beren poltsikoak, elikatzen dituzten horien  
eskuetan.

### **Nekazari-bizitza**

17. Nekazari-bizitza ere babestu behar da; nekazaririk gabe ez dago elikadura  
osasuntsu, tokiko eta kalitadedunik. EAEn, autokontsumoaren indizea %5  
da, baserriarrak %1 direla. Hondamendia da burujabetzaren eta autonomia-  
ren edo erabakiak hartzeko ahalmenaren aldetik. Kezkagarriena da zenba-  
kiak okerrera egiten ari direla.



18. Argentina ere bere ekoizte-ahalmena aldatzen ari da. Duela urte batzuk, munduko aletogia zen, eta bertako biztanleak oinarriko elikagaiez –aleez edo haragiz kasu– hornitzea lortzen zuen. Atzera itzuli behar da, eta duela 20 urte pasatxoko barietateak eta hazteko erak berreskuratu, hobeturik eta tokiko komunitateetan gehienbat oinarriturik, eta ez hainbeste esportazioan.

## 4. BIBLIOGRAFIA

### Liburuak

- MOCASE-Vía Campesina. Memoria de los Orígenes de la Central Campesina de Quimilí. Argentina 2017
- HANDS OFF THE LAND eta MUNDUBAT, Informe Acaparamiento de tierras en Europa. Euskal Herria 2015
- HANDS OFF THE LAND eta MUNDUBAT, Estudio estructura de la propiedad de tierras en España. Concentración y acaparamiento, 2015
- CAMBA SANS, GONZALO HERNAN. Análisis y repercusiones de la Ley de Ordenamiento Territorial de Bosques Nativos de Santiago del Estero. Argentina, 2015
- PETXARROMAN, IÑAKI. Lurra zorua bailitza, 2011
- URRETABIZKAIA GIL, Leticia. DE GONZALO ARANOA, Isabel. Las mujeres baserritarras: análisis y perspectivas de futuro desde la Soberanía Alimentaria
- TAV. LAS RAZONES DEL NO. Iñaki Barcena eta Josu Larrinaga edit. Zenbait egile. Txalaparta, 2009

### Lege-agiriak

- GIZARTE GARAPENEN MINISTERIOA, Nazioko Presidentetza. 26.160 Legea, lurren edukitzaren eta jabetzaren arloan larrialdia ezartzekoa. Argentina
- NAZIO BATUAK. Nazio Batuen Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adierazpena, 2008
- BOE. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legea, 1954ko abenduaren 16koa. Azken aldaketa: 2015eko urriaren 31
- OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. La Constitución española en lectura fácil. Madril, 2015.
- NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.
- NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA. Nekazarien eta landa-eremuetan lan egiten duten beste pertsona batzuen eskubideei buruzko adierazpena, 2013
- LA VÍA CAMPESINA. Nekazarien Eskubideen Adierazpena. El campesinado del mundo necesita una Convención Internacional sobre los Derechos de las Campesinas y Campesinos, 2009

## Artikuluak

GRUPO ETC. 2016, El año que no fue normal. 2017

ANTIGUEDAD, IÑAKI (UPV/EHU), EAeko Lurralde Antolamendurako Gidalerroen Berrikuspena Oinarritzko Dokumentua

ESKUBIDE SOZIALEN KARTA, Elikadura Osasuntsurako Eskubidea Ziurtatu Nekazaritza eta Arrantza Iraunkorraren Bidez. Euskal Herria, 2017

ZENBAIT EGILE, AHTaren aurkako alegazioak haren trenbide-zatietan.

ZENBAIT EGILE, Escrito alegaciones a las DOT, 2013

DESHAZKUNDEA, Lurralde antolaketa elkarrekin eraikiz, 2011

GRAIN, El acaparamiento global de tierras en el 2016 sigue creciendo y sigue siendo malo. 2016ko azaroa.

SOBERANÍA ALIMENTARIA ALDIZKARIA. Hainbat artikulu

EUSKADI. FORESTAL. TAV y expropiaciones forestales. 2008ko uztaila

TNI. Land grabbing and land concentration in Europe, 2016

ETXALDEKO EMAKUMEAK. Etxaldeko Emakumeak aurkezteko agiria. 2017ko ekaina

EHNE, PTM MUNDU BAT, BIZILUR ETA GERNIKATIK MUNDURA. Lurra, laborantzaren erforma, erabilera eta jabetza. <http://emauscursos.com/pdf/GUIA+SA+eusk.pdf>

ETXALDE ALDIZKARIA, hainbat zenbaki

DEIA. Euskadi aumenta su superficie artificial en dos hectáreas cada día. 2016ko abendua

EL PAÍS. La ocupación de suelo para pisos, industria y transporte se ha duplicado desde 1987. 2017ko urtarrila

Informe sobre los impactos del TAV en Euskal Herria. AHT Gelditu! Elkarlana. 2017ko martxoa

## Eranskinak

AHTaren aurkako alegazioak.

LA VÍA CAMPESINA. Nekazarien Eskubideen Adierazpena. El campesinado del mundo necesita una Convención Internacional sobre los Derechos de las Campesinas y Campesinos, 2009



## FISKALAREN AKUSAZIO TXOSTENA

Bizi-maila duin baterako eskubidea

FISKALTA: Ana María Palacios



Ana María Palacios Fiskalaren akusazio-txostena aurkezten bizi-maila duin baterako eskubidearen ardatzean

Ardatz honek agerian uzten ditu giza eskubideen urraketa larriak, eredu sozioekonomiko patriarkal eta heteroarautu baten ondoriozkoak. Eredu horrek, hain zuzen, emakumeen lana prekarizatzea eta babes sozialeko sistema suntsitzea sustatzen du. Bititza Jasangarrien Eskubidearen Aldeko Herri-Auzitegi honetan (aurrerantzean, “Herri-Auzitegia”) aurkeztutako kasuek desparekotasun ekonomikoek emakumeen bizitzetan dituzten ondorio lazgarriak erakusten dituzte.

Fiskaltzaren arabera, bi kasuen egitateak aztertu ostean, eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan agertzen diren estandarren arabera, ondoriozta daiteke nahikoa elementu daudela xedatzeko honako hauek erantzuleak direla:

1. El Salvadorreko Estatuak, lan-eskubideak eta babes judiziala urratzeagatik bizi-maila duina izateko Rosaren eskubidearen harira.
  - 1.1 Handworks SA enpresa, Rosarekiko zituen laneko betebeharrak ez betetzeagatik.

- 1.2. El Salvadorreko ehungintza, jantzigintza eta aduana-zergarik gabeko eremuen kamera (CAMTEX), giza eskubideen aurkako politika ekonomikoak sustatzeagatik.
2. Euskal Autonomia Erkidegoa, babes sozialerako eskubidea urratzeagatik, bizi-maila duina izateko Nerearen eskubidearen harira.
  - 2.1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari atxikituta dagoena, prestazio ekonomikoak arbitrarioki eteteagatik.
  - 2.2. Eusko Jaurlaritza, ez duelako zegokiona egin 2016ko Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestak (PGEI-2016) detektatu zuen txiro-tasuna ezabatzeke.

Akusazio-idazkia lau ataletan egituratuta dago. Lehen atalean, bi kasuetako egitate nagusiak laburbiltzen dira, eta halakoak gertatzen diren testuingurua orokorrean azaltzen da. Bigarren atalean, kasu bakoitzari aplikatzekoa zaion zuzenbide-esparrua deskribatzen da. Hirugarren atalean, kasuen azterketa juridiko bat egiten da, feminismoaren eta giza eskubideen ikuspegitik. Azkenik, laugarren atalean Herri Auzitegiari eskatzen zaio lehen identifikatutako egileen erantzukizuna ezar dezala, eta dagozkion kalte-ordain indibidual zein kolektiboak zehatz ditzala.

## 1. EPAITUTAKO EGITATEAK

Atal honetan aurkeztuko ditugun egitateak kasu bakoitzaren fitxan zein Tica Moreno adituaren txostenean bildutako informazioaren laburpena dira.

### **Rosaren kasua** **Kasuaren laburpena**

Rosaren kasuak muturreko lan-esplotazioa azaltzen du, etxetiko brodatzaile gisa pairatu zituen baldintza kaltegarriengatik eta justizia ukatzea erraztu zuen estatuko eragileen jardun ezagatik. Egitate hauek larriki urratzen dituzte hainbat eskubide —osasuna, lana, babes judiziala eta berdintasuna izateko eta baztertua ez izateko eta haurtzaroa babesteko eskubideak—, bizi-maila duinerako eskubideari lotutakoak.

Kasu honek El Salvadorren etxetiko brodatzaile gisa lanean dauden 500 emakume ingururen —haietako batzuk adingabeak— lan-eskubideak sistematikoki urratzen direla erakutsi digu. Halaber, urraketa horien inpunitate testuingurua erakusten digu, estatuak ez dituelako dagozkion zuzemenak egiten egitateok ikertzeko eta zigortzeko. Era berean, kapitalismoaren eta heteropatriarkatuaren

arteko harreman estua ikusarazten du kasuak, adierazpide jakin baten bidez: emakumeen bortxazko lana ehungintza sektorean.

### **Horniketa-kate globalak: ehungintza sektorea, esplotazioa eta emakumeen esklabotasuna**

Rosaren kasuak argi erakusten digu ehungintza enpresek duten jarrera lan-erantzukizunei dagokienez. Argudiatzen dute emakumeek —ekoizpen katearen oinarrian daudenak— lan-harreman baten bidez funtzionatu beharrean zerbitzu-prestazioko harreman baten bidez funtzionatzen dutela, hau da, ekoizpena azpikontratatzuz bezala. Ehungintza sektorea enpresa transnazionalak zuzentzen dute; haiek erabakitzen dute zer ekoizti, non eta nork<sup>168</sup>. Ekoizpen prozesuari buruzkoak konplexuak dira. Zentzu horretan, azpikontratazioa ohiko mekanismoa da gastuak eta ekoizpen-denbora murrizteko, giza eskubideen kontura<sup>169</sup>.

Ehungintza-industriaren gehiegikeriek lotura zuzena dute globalizazio neoliberalak emakumeen bizitzetan duen ondorioekin. Kalkuluen arabera, 60 eta 75 milioi pertsona inguruk lan egiten dute ehungintza sektorean, eta horietatik %75 emakumeak dira<sup>170</sup>. El Salvadorren muturreko lan-esplotazioko baldintzak dokumentatu izan dira sektore jakin batzuetan, tartean *maquilaren* eta etxetiko brodatze lanen sektoretan; bi biak emakumeek osatzen dituzte ia erabat<sup>171</sup>.

### **Kasuaren egitateak**

Rosa El Salvadorreko landa-eremuan bizi da 5 seme-alabekin eta egoera ekonomiko prekarioan. 35 urterekin etxetiko brodatzaile lana onartu zuen Handworks enpresan, diru-sarrerak edukitzeko eta aldi berean etxean egon ahal izateko se-

168 LO, Wages and Working Hours in the Textiles, Clothing, Leather and Footwear Industries. GDFTCLI/2014, Geneva, 2014, 7-8 par., kontsulta-data: 2017ko azaroaren 15a, eskuragarri: [http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@ed\\_dialogue/@sector/documents/publication/wcms\\_300463.pdf](http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@ed_dialogue/@sector/documents/publication/wcms_300463.pdf)

169 J. Hernández Zubizarreta; P. Ramiro, “La inacción sindical en Inditex, Mango o El Corte Inglés como ejemplo de sumisión a las transnacionales. El control de las cadenas mundiales de suministros y la acción sindical”, Viento Sur, 2016, kontsulta-data: 2017ko abenduaren 6a, eskuragarri: <http://vientosur.info/spip.php?article11410>.

170 L. Stotz; G. Kane, Facts on the global garment industry, Clean Clothes Campaign, 2015, kontsulta-data: 2017ko abenduaren 10a, eskuragarri: <https://cleanclothes.org/resources/publications/factsheets/general-factsheet-garment-industry-february-2015.pdf>.

171 U. Bhoola, Informe de la Relatora Especial sobre las formas contemporáneas de la esclavitud, incluidas sus causas y consecuencias, sobre su misión a El Salvador. Doc. ONU A/HRC/33/46/Add.1, 2016, 37. par., kontsulta-data: 2017ko azaroak 30, eskuragarri: [http://ap.ohchr.org/documents/dpage\\_e.aspx?si=A/HRC/33/46/Add.1](http://ap.ohchr.org/documents/dpage_e.aspx?si=A/HRC/33/46/Add.1).

me-alabak zaintzen. Horrela, seme nagusiak ere<sup>172</sup> brodalanerako kablea egiten lagundu ahal zion. **Brodatzaile lanetan jardun zen bi urteetan, honako baldintzak pairatu zituen: (i) 12 eta 14 ordu arteko lana egunero; (ii) gutxieneko soldataren azpitik zegoen lansaria; (iii) oporrak, gabonsariak, atsedeen orduak, aparteko orduak, gaixotasun edo istripugatiko kalte-ordainak ez jasotzea, besteak beste; eta (iv) lan-jazarpena ikuskatzailearen aldetik, ezarritako ekoizpen-kuotak betetzeko. Ondorioz, Rosaren osasunak okerrera egin zuen; zehatzago, besoko mina, ikusmena murriztea eta neke kronikoa pairatzen hasi zen.**

**Hainbat urteren buruan, Rosak borondatezko uko-agiria<sup>173</sup> aurkeztu zuen aurre-abisu oharraren bidez Lan eta Gizarte Aurreikuspen Ministerioan (aurrerantzean, “Ministerioa”), eta enplegatzaileari eman zitzaion. Hala ere enplegatzaileak sinatzeari uko egin zion, ez zuen onartu eta ez zuen ordaindu zegoen kalte-ordaina. Ondoren, Rosak berriro jo zuen Ministeriora enpresa deitu zezaten, baina ez zen erantzunik egon. Enpresaren erantzun eza bidegabeko kaleratze gisa hartzen da. Hori dela eta, salaketa bat abiarazi zen Handworks-ek egindako ustezko bidegabeko kaleratzeagatik. **Lehenengo zein bigarren instantzian, Rosaren salaketa ezetsi zuten. Azkenean, ezin izan zuten kasua aurkeztu Justizia Gorte Goreneko arlo zibileko salan, legezko baldintzak ez betetzeagatik.****

Mujeres Transformando elkarteak Rosaren kasuan egindakoaz gain, Ministerioari eskatu zion ikuskapenak gauzatzeko bai lantokian bai etxetiko langileei lana emateko eta egindako jasotzeko enpresak ezarritako tokian.

## **Nerearen kasua**

### **Kasuaren laburpena**

Nerearen kasua diru-sarrerak bermatzeko errenta (aurrerantzean, “DSBE”) eteteari dagokio. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eten zuen ebazpen baten bidez, eta ondorioz arbitrarioki murriztu zuen babes sozialerako Nerearen eskubidea, beste hainbat eskubideei lotuta —norberaren osotasuna, bizitza pribatua, berdintasuna eta bazterkeria eza, errugabetasun-presuntzioa eta bizitza duina izateko eskubideak—.

Errenta bermatuen eta baldintzapekoen bidezko eredu batek sortutako babesgabetasun soziala pairatzen dute baliabide ekonomiko gutxi dituzten pertsonak. Ba-

172 Egitateen unean 15 urte zituen. Zehaztasun gehiagorako ikus kasuaren fitxa.

173 “Pertsona orok duen eskubidea da, askatasunez lanari uko egiteko eta lan egindako denboragatik kalte-ordaina jasotzeko; eskubide hori erabiltzen ari dira etxetiko langileak defentsa mekanismo gisa, etengabeko lan-jazarpenari erantzuteko”. Iturria: kasuaren fitxa, 4. or.

tetik, diru-sarrerak bermatzeko euskal sisteman (aurrerantzean, “DSBES”) prestazio ekonomikoak eskuratzeko exijitzen diren neurrigabeko baldintzengatik da hori, eta ondorioz zailtasun sozialeko egoeran dauden zenbait herritar kanpoan geratzen dira<sup>174</sup>. Bestetik, DSBESak helburu duelako txirotasun larrienari aurre egitea, baina ez txirotasuna bera desagerraraztea. Ondorioz, ez zaie ondo heltzen hainbat arazori; hala nola, garaiotako luzaroko langabeziari lotutako txirotasun eta gizarte bazterkeria fenomenoiei, guraso bakarreko (batez ere ama bakarrekoak) familiei eta lan prekarioari<sup>175</sup>.

### **Eskubide-murrizketak eta babes sozialeko sistemaren gabeziak Euskal Autonomia Erkidegoan**

Nerearen egoera ez da kasu isolatua; aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, “EAE”) txirotasunaren aurkako politikak dituzten gabeziak islatzen ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak (aurrerantzean, “Lanbide”) dituen irregulartasunak ikusarazten ditu diru-sarrerak bermatzeko errentari lotutako prestazio ekonomikoak kudeatzerakoan<sup>176</sup>. EAEko txirotasunaren aurkako politikarentzat ez dira arrotzak estatuak eta Europak krisi ekonomikoari erantzuteko erabiltzen dituzten logikak; gizarte-zerbitzuen aurrekontuen murrizketak, alegia. Europan gobernuak austeritate neurriak aplikatu eta politika fiskal zein monetarioak diseinatu izan dituzte batez ere, giza eskubideen kontura eta desparrekotasun sozioekonomikoak sakonduta<sup>177</sup>. Prestazio sozialen kalitateari dago-kionez, oraintsu, Finantza Publikoei buruzko Europako Batzordeak ebatzi zuen

174 DSBESren bidez, bazterkeria arriskuan dagoen pertsonen %69,3 ingururi eskaintzen zaie laguntza (134.563 pertsona); ondorioz, kanpoan geratzen da ehuneko altu bat. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, Euskal Autonomia Erkidegoa. Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta. PGEI-2018, 2017, 7. or., kontsultadata: 2017ko azaroaren 20a, eskuragarri: [http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe\\_epds\\_2016\\_2/es\\_epds2012/adjuntos/Informe%20EPDS%202016\\_es.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_epds_2016_2/es_epds2012/adjuntos/Informe%20EPDS%202016_es.pdf).

175 Kasuaren fitxa, 27. or.

176 Ararteko. Herriaren Defendatzailea, Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017, kontsultadata: 2017ko azaroaren 3a, eskuragarri: [http://ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4199\\_1.pdf](http://ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf)

177 Horri buruz, ikus: Comisario para los Derechos Humanos del Consejo de Europa, La protección de los derechos humanos en tiempos de crisis económica. CommDH/IssuePaper(2013)2, Consejo de Europa, 2013, kontsultadata: 2017ko azaroaren 20a, eskuragarri: <https://rm.coe.int/16806da858>; Informe de visita a España. CommDH(2013)18, Europako Kontseilua, Estrasburgo, 2013, kontsultadata: 2017ko azaroaren 20a, eskuragarri: [https://www.coe.int/fr/web/commissioner/view?p\\_p\\_id=101&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=maximized&\\_101\\_struts\\_action=%2Fasset\\_publisher%2Fview\\_content&\\_101\\_assetEntryId=5340982&\\_101\\_type=content&\\_101\\_urlTitle=las-medidas-de-austeridad-debilitala-proteccion-de-los-derechos-humanos-en-espana&inheritRedirect=true](https://www.coe.int/fr/web/commissioner/view?p_p_id=101&p_p_lifecycle=0&p_p_state=maximized&_101_struts_action=%2Fasset_publisher%2Fview_content&_101_assetEntryId=5340982&_101_type=content&_101_urlTitle=las-medidas-de-austeridad-debilitala-proteccion-de-los-derechos-humanos-en-espana&inheritRedirect=true); Oxfam Intermón, Gobernar para las élites. Secuestro democrático y desigualdad económica, 2014, kontsultadata: 2017ko azaroaren 20a, eskuragarri: <https://www.oxfamintermon.org/es/documentos/17/01/14/gobernar-para-elites-secuestro-democratico-desigualdad-economica>



Espanian prestazio sozialek ez dutela eraginik errenta baxuenak dituzten herritarren artean<sup>178</sup>.

Kalkuluaren arabera, Euskadin txirotasun arriskua %7,1ekoa da, txirotasun larriaren tasa %4,9koa (104.177 pertsona) eta txirotasun arriskuan dauden herritarrak %14,5 dira (440.823 pertsona). Txirotasun errearen tasa altuagoa da emakumeen kasuan. Horrela, adibidez, emakumeak buru diren etxeen ia erdian (49,7%) pilatzen dira txirotasun errealeko kasuak<sup>179</sup>. Zalantzarik gabe, txirotasunaren feminizazioak argi islatzen du EAEn bizi diren emakumeen bizi-baldintzak okertu direla<sup>180</sup>. Bestalde, kalkuluaren arabera, EAEn 2016an 60.000 pertsona txiro zeuden (txirotasun arriskuan dauden pertsonen %31) ez zutenek eskuratu DSBESren laguntzarik, eta 63.000 pertsona txiro (diru-laguntzak jasotzen dituztenen %47) zeinek diru-laguntzak lortu arren txiro izaten jarraitu zuten.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako Bizkaiko kolektiboek, Argilan-ESK Bizkaiak esaterako, uste dute 1989an abiatutako DSBESaren ezaugarria dela txirotasuna erabat ezabatzeke ezintasuna. Horrek esan nahi du oker kudeatutako eredia izateaz gain, huts egin duen eredia ere badela eta errotik eraldatu behar dela baldintzarik gabeko oinarriko errenta ezartzearen bidez; horrela EAEko herritar guztiek bermatuta izango lituzkete diru-sarrera unibertsalak, indibidualak eta errenta-kontrolak ez bizikidetzak baldintzarik gabekoak<sup>181</sup>.

## Kasuaren egitateak

**Nerea EAEn bizi da kide brasildarrarekin eta semearekin; 3 pertsonako bizikidetzako unitatea osatzen dute, Lanbideren irizpideen arabera. Haien bizimoduak elkartasuna, antikontsumismoa eta austeritatea ditu oinarri. Nereak elikagaien bankuko laguntza jasotzen du, Gurutze Gorrikoa zein Maternity proiektukoa. 2013tik Nereak DSBEa jasotzen zuen, baina 2017ko ekainean eten ziotela esan zioten. 2017ko maiatzaren hasieran Nereak Lanbideren Auzidientzia Tramitea jaso zuen, zeinak honakoa eskatzen zion: (i) 2015eko apirila eta**

178 Economic and Financial Affairs, Report on Public Finances in EMU 2017, European Commission, Bruselas, 2018, 86. or., kontsulta-data: 2018ko urtarrilaren 10a, eskuragarri: [https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/economy-finance/ip069\\_en.pdf](https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/economy-finance/ip069_en.pdf).

179 Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Euskal Autonomia Erkidegoa. Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta. PGEI-2018, cit., 4, 18 eta 50. or.

180 Adibidez, ikus: S. Ibarrola Inchusta, La feminización de la pobreza en Vitoria-Gasteiz. El impacto de la crisis 2007-2015 en las mujeres, Vitoria-Gasteizko Udala. Berdintasunerako Zerbitzua. Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2014-2015), 2015.

181 Horri buruz, ikus kasuaren dokumentazio-fitxaren azken eranskina.

2016ko uztaila arteko kontu-korrontearen mugimenduak, (ii) hileroko gastu eta diru-sarreraren deklarazioaren ezaugarri zehatzak, eta (iii) bere kidearen zinpeko deklarazioa, Brasilen zeukan ondarearen ziurtagiri berri bat tramitatzen ari zela-ko. Dokumentazioa araututako epe barruan aurkeztu zen.

**2017ko ekainean Nereari DSBEa kendu ziotela jakinarazi zioten. Erabakiaren oinarria zen gehieneko diru-sarrerak gainditzen zituela prestazioak jasotzeko, 3 arazoirengatik:**

1. Iruzurra egitea: titularrak Lanbideri ezkutatu dio senideengandik eta bes-telako iturrien bidez jasotako dirua, zeinari esker 10.048,47€ aurreztu dituen 08/04/2015 eta 05/07/2016 daten artean, kontu-korronteen arabera. Deklaratu gabeko etekinak daude, diru-sarreraren eta gastuen artean ez dagoelako korrelaziorik. Diru-sarrerei buruzko datuak ezkutatzea DSBEa mantendu ahal izateko iruzurra egitea da, kobratzeko baldintzak betetzen ez direla jakinda [...] (Guk nabarmendutako zatia).
2. Baldintzak ez betetzea: Ezin da zehaztu Nerearen kideak Brasilen daukan ondarea [...]. Aurkeztutako ziurtagiriak ez dauka baliorik. Hagako apostilla eduki behar du.
3. Eginbeharrak ez betetzea: titularrak ez dio Lanbideri jakinarazi senideengandik dirua jaso duela 2015eko apirilean, maiatzean, abuztuan eta abendu-an, eta 2016ko martxoan. Titularrak, jaso dituen ezohiko diru-sarrerak zenbatzeko, dirua eman dioten senideen zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko du, baita diru-sarrera horien zenbatekoa ere. Titularrari jakinarazi zaio eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean edo dokumentazio horren arabera aurreztea justifikatuko lukeen gastu eta diru-sarreraren korrelaziorik egongo ez balitz [...] ez dagozkion kobrantzak eskatuko zaizkio [...].

Ebazpen horri erantzuteko, Nereak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen, non alegazioei erantzuten dien eta honakoa ere aurkezten duen: (i) bere kideak Brasilen duen ondarearen ziurtagiriaren eskaera-gordekina, (ii) senideen zinpeko deklarazioak, jaso dituen noizbehinkako diru-kopuru txikien harira, (iii) jasotako diru-laguntza publikoen bankuko kontu-laburpenak, eta ez egotzeko diru-sarreraren kalkuluak.

2017ko abuztuan Lanbideko zuzendari nagusiak Nerearen errekurtsioa ezetsi zuen. Ebazpen horretan, zuzendariak honakoa adierazi zuen: (i) Brasilgo ondarearen ziurtagiriak apostilla izan behar du balioa izan dezan; (ii) senideen zinpeko deklarazioak aurkezteak diru-sarrerak justifikatu baino ez luke egingo, baina ez luke diru-laguntza etetea galaraziko; eta (iii) “[...] familiaren gastuak, nahiz eta sakrifizio-gaitasun handia izan, harrigarriki baxuak dira”. Porrot honen aurrean,

Nereak ez zuen indarrik ez baliabiderik izan Lanbideren kontrako administrazioarekiko auzien prozedura abiatzeko.

**Aipatutakoaren arabera, ondoriozta daiteke:**

1. Lanbidek uste du Nereak iruzurra egin zuela, bere kontu-korrontean aurrezteak lagundu zioten bestelako diru-iturriak ezkutatu zituelako.
2. Bizimoduaren gaineko kontrola inposatu diete Nereari eta bere familiari; izan ere, familiaren gastu txikien inguruko susmoak daude, eta ez dira kontuan hartzen bizitzeko bestelako alternatiba ez-kontsumistak.
3. Ondorioz, Nerea egoera zaurgarrian geratzen da, arbitrarioki eten diotelako bizirauteko oinarritzko gastuei aurre egiteko prestazio ekonomikoa. Halaber, babesgabe geratu da; izan ere zama handia izan da berarentzat alegazioak aurkeztea eta zama handia izango litzateke ere administrazioarekiko auzien epaitegi batean salaketa egitea.

## 2. URRATUTAKO MARKO JURIDIKOA

Espainiak eta El Salvadorrek berretsitako giza eskubideen tratatuek hainbat betebeharrak ekartzen dizkiete estatu horietako buruei —**autonomietako eta lekuko erakundeak barne**—, giza eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzeko. Espainiako Estatuan indarrean dagoen Konstituzioaren 96.1 artikulua arabera, giza eskubideen tratatu bat berretsiz gero, hori barne ordenamendu juridikoaren parte bihurtzen da<sup>182</sup>. Ondorioz, betebeharrak horiek Euskal Autonomia Erkidegoari exijitu ahal zaizkio. Zentzu horretan, El Salvadorren indarrean dagoen Konstituzioaren 144 artikulua zehazten du berretsitako nazioarteko akordioek barne zuzenbidearen parte izan behar dutela.

Jarraian, aztertutako bi kasuetan urratu diren tresna legalak zerrendatu ditugu. Ondorengo atalean zehaztu dira tresna horien garapen jurisprudentzialak eta doktrinalak, zeinak akusazioaren oinarria baitira:

**Nazio Batuen Erakundearen markoan (EAERI eta El Salvadorri aplikatu daiokeen)**

- Eskubide zibil eta politikoaren Nazioarteko Ituna (1966).
- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Nazioarteko Ituna (1966).
- Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzearen Konbentzioa (CEDAW, 1979).
- Esklabotasunari Buruzko Konbentzioa (1926) eta bere Konbentzio Osagarria (1956).

<sup>182</sup> Espainiar Konstituzioaren 96.1 artikulua. Halaber, Konstituzioaren 10.2 artikulua beste tresna batzuk interpretatzeko iturri gisa erabiltzen da, tresna horiek lotesleak ez badira eta barne-mailako zuzenbideko xedapenei edukia emateko balio badute. Ikus ere, et. al., honako ebazpenak: STC 53/1985, STC 242/1994 eta STC 107/1984.

- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948).
- Bortxazko lanari buruzko hitzarmena, 29 zk. (1930).
- Bortxazko lanaren abolizioari buruzko hitzarmena, 105 zk. (1957).
- Haurren lan-mota okerrenei buruzkoa, 182 zk. (1977).

#### **Giza Eskubideen Amerika arteko sistemaren markoan (El Salvadorri aplikatutako keena)**

- Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa (1969).
- Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioaren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko Protokolo Gehigarria, (San Salvadorreko Protokoloa, 1988).
- Emakumeen aurkako indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Desegiteko Amerika arteko Hitzarmena (Belem do Para, 1994).

#### **El Salvadorreko legeria**

- 1983ko Konstituzioa.
- Berdintasuneko, ekitaterako eta emakumeen aurkako bazterkeria desegiteko legea (2011).
- Laneko kodea (1972<sup>183</sup>).
- Haurtzaroaren eta nerabezaroaren babes integraleko legea (2011)

#### **Europar Batasunaren markoan (EAERI aplikatutako keena)**

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena (1950).
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000).
- Europako Gutun Soziala (1961).

#### **Espainiako Estatuko legeria**

- 1978ko Konstituzioa.
- 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzkoa.
- 8/2015 legegintzako errege-dekretua, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen den gizarte segurantzaren lege orokorraren testu berria.

#### **Euskal Autonomia Erkidegoko araudia**

- 4/2011 legea, azaroaren 24koa, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusiorako legea aldatzeko buruzkoa.
- 18/2008 legea, abenduaren 23koa, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusiorako.
- 15/2006 foru-legea, abenduaren 14koa, gizarte-zerbitzuei buruzkoa.

---

183 Azken erreforma 2013an.

- 30/2015 dekretua, martxoaren 17koa, seme-alaben ardura duten familiak babesteko laguntza ekonomikoei buruzkoa.
- 147/2010 dekretua, maiatzaren 25koa, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzkoa.

### 3. AKUSAZIOAREN ARRAZOI OROKORRAK

Akusazioa oinarritzeko, giza eskubideen estandarrak erabiltzen dira, hauek, edukia eta irismena ematen diote bizi-maila duin baterako eskubideari, baita ere Herri Auzitegi honetan aurkezturiko genero eta justizia sozialarekin zerikusia duten kasu eta eskubideekin lotuta.

#### Babes sozialerako eskubidea

Europako Gutun Sozialaren 30. artikulua aitortzen du txirotasunaren eta bazterkeria sozialaren aurkako babesa izateko eskubidea. Eskubide hori bermatzeko estatu kideei eskatzen zaie ikuspegi global eta koordinatua izan dezaten, politikak modu koherentean integratzen dituen, ikuspegi hertsiki asistentzialaz eta sektorialaz harago. **Horretarako hartutako neurriek oinarritzeko eskubide sozialak eskuratzea erraztu behar dute eta horretarako oztopoak ezabatu**, bereziki honako eskubideei dagokienez: enplegua, etxebizitza, prestakuntza, hezkuntza, kultura, laguntza soziala eta osasuna izateko eskubideak, besteak beste.

**Neurri horiek, halaber, indartu behar dute eskubide sozialak eskuratzea, berrikustea eta aplikatzea, onurak eta zerbitzuak administratzeko prozedurak hobetzea, eskubide sozialei buruzko informazioa hobetzea.** Oinarritzeko eskubide sozialen eskuragarritasuna ebaluatzen da kontuan hartuta ezarritako politiken, neurrien eta ekintzen eraginkortasuna. Baliabide egokiak dira elementu nagusietako batzuk eta, hortaz, esleitu egin behar dira helburu estrategikoak erdiesteko. **Gainera, baliabide egokiak funtsezko elementua dira pertsonen buruaskitasunerako. Azkenik, neurriek kalitate eta kantitate egokia eduki behar dute, herrialde bakoitzaren txirotasun eta bazterkeria sozialaren jatorriari eta hedapenari dagokionez<sup>184</sup>.**

#### Lanerako eskubidea eta bortxazko lanaren debekua

Lan duina izateko eskubidea oinarritzeko eskubidea da eta nazioarteko hainbat tresnak aitortzen dute:

<sup>184</sup> Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea, 30. artikulua interpretazioak, ikus zehatzago Frantziari buruzko 2003ko ondorioen txostena, 214 or.-tik aurrera.

*Lanerako eskubidea indibiduala da, pertsona bakoitzari dagokiona, eta aldi berean eskubide kolektiboa da. Mota guztietako lanak barne hartzen ditu, izan autonomoak edo soldatapekoak*<sup>185</sup>.

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko 6. artikulua (aurrerantzean, “ICESCR”, ingelesezko jatorrizko siglengatik) ezartzen du lanerako eskubidearen urraketa dela bortxazko lana, bidezko eta aldeko baldintzak ez izatearen ondorioa<sup>186</sup>. Hain zuzen, eskubide hori erabiltzeak “[...] bere forma eta maila guztietan, esan nahi du honako elementuak daudela, interdependenteak eta funtsezkoak”<sup>187</sup>:

1. **Prestasuna:** zerbitzu berezituak egotea, helburu dutenak pertsonak laguntzea eta babestea enplegu mota identifikatu dezaten.
2. **Eskuragarritasuna:** bazterkeria sortzen duten ustezko faktoreak ezabatzeko neurriei eta informazioa erraz eskuratzea sustatzeari dagokio.
3. **Onargarritasuna eta kalitatea:** lanerako baldintza bidezkoak eta aldekoak, bereziki lan-baldintza seguruak izateko, sindikatuak eratzeko eskubidea, eta enplegua askatasunez aukeratzeko eta onartzeko eskubidea.

## Bizi-maila duinerako eskubidea

ICESCR Ituneko 11. artikulua arabera, pertsona guztiei errespetatu, babestu eta bermatu behar zaie bizi-maila egokia, eta horren barruan sartzen dira elikadura, ura eta etxebizitza izateko eskubidea, eta bizi-kalitatea etengabe hobetzeko eskubidea. Eskubide horrek halabeharrez barnebiltzen du eskubide ekonomikoak, sozialak, ingurunearenak eta kulturalak modu eraginkorrean betetzea, eta lotura zuzena du bizitzarako eskubidearen interpretazio ez murriztaile batekin.<sup>188</sup>

*Bizitzeko eskubidea oinarrizko giza eskubidea da, eta aurrebaldintza da gainerako giza eskubide guztiez gozatu ahal izateko. Errespetatu ezean, eskubide guztiek galtzen dute zentzua. Bizitzeko eskubidea hain oinarrizkoa izanik, ezin da onartu eskubide honi buruzko ikuspegi murriztailerik. Funtsean, bizitzarako oinarrizko eskubideak barnebiltzen du, gizaki orok bizitza arbitrarioki ukatua ez izateko eskubideaz gain, bizitza duina bermatzen dioten baldintzak ukatuak ez izateko eskubidea ere. Estatuak eginkizuna da oinarrizko eskubide hori urra ez dadin*

<sup>185</sup> EESKen Batzordea, 18. iruzkin orokorra, UN Doc E/C.12/GC/18, 2006, 6. par.

<sup>186</sup> EESKen Batzordea, 18. iruzkin orokorra, UN Doc E/C.12/GC/18, 2006.

<sup>187</sup> Ídem.

<sup>188</sup> EESKen Batzordea, 12. iruzkin orokorra, UN Doc E/C.12/1999/5, 1999; EESKen Batzordea, 15. iruzkin orokorra, UN Doc E/C.12/2000/4, 2000.

*beharrezkoak diren baldintzak sortzen direla bermatzea eta, bereziki, beren agenteek urratzen ez dituztela bermatzea.* (Guk nabarmendutako zatia)<sup>189</sup>.

Testuinguru horretan, errespetatzeko betebeharrak esan nahi du estatuek uko egin behar diotela eskubide honen edukia eta erabilpen eraginkorra arbitrarioki eragozteari. Hala ere, estatuek eskubideak mugatu ditzakete betiere baldin eta ez badiote muinari eragiten. **Hortaz, muga horiek honako irizpideekin bat etorri behar dira: legalki ezarrita egotea, eta neurria proportzionala, egokia eta beharrezkoa izatea helburu legitimoa lortzeko.**

Estatuaren betebeharra ez da soilik giza eskubideak errespetatzekoa, baizik eta eskubideok askatasunez erabiltzea bermatzea ere. Bermatzeko betebeharrak hori positiboa da, egiteko betebeharra da, eta esan nahi du estatuek beharrezko neurri guztiak hartu behar dituztela, eta egoeraren arabera zentzuzkoak direnak giza eskubideak gauzatu daitezen bermatzeko<sup>190</sup>. Bermatzeko betebeharrak horrek dakar estatu-aparatu osoa antolatu behar izatea, eta orokorrean, “egitura guztiak, zeinen bidez adierazten den botere publikoa, giza eskubideak osotasunean eta askatasunez erabiltzea juridikoki ziurtatzeko gai izan daitezen”<sup>191</sup>.

Aurrerabide-betebeharrak esan nahi du estatuek neurri zehatzak hartu behar dituztela eskubideak eraginkorrak izan daitezen. Horrela, ondo justifikatu ezean aipatutako eskubideen egoera okertuko duten neurriak hartu behar dituzte. Horretarako, eskubide horiek eskuratzeko bidea erraztu behar dute eskura dituzten baliabide eta bide egoki guztiak erabilita. Horrela, EESKen Batzordeak ezarri du ezberdindu behar dela estatu kide batek betebeharrak betetzeko duen ezintasunaren eta borondate faltaren artean<sup>192</sup>.

### **Berdintasunerako eta diskriminazioa ez pairatzeko eskubidea**

Berdintasunerako eta diskriminatua ez izateko eskubidea ordenamendu publikoaren oinarria da, maila guztietan<sup>193</sup>. Eskubide hori botere publikoen baitan

189 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Caso Villagrán Morales y otros vs. Guatemala. Fondo. Sentencia de 19 de noviembre de 1999. Serie C. No. 63, 144. par.

190 Laurens Lavrysen, Positive obligations in the jurisprudence of the Inter-American Court of Human Rights, 7 INTER-AMERICAN AND EUROPEAN HUMAN RIGHTS JOURNAL (REVISTA INTERAMERICANA Y EUROPEA DE DERECHOS HUMANO), 94-115 (2014).

191 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Caso I.V. vs. Bolivia. Excepciones Preliminares, Fondo, Reparaciones y Costas. Sentencia de 30 de noviembre de 2016. Serie C No. 329, 207. par.

192 EESKen Batzordea, 14. iruzkin orokorra, UN Doc. t E/C.12/2000/4, 2000, 47. par.

193 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Condición Jurídica y Derechos de los Migrantes Indocumentados, Opi-

txertatzen da beren adierazpide guztietan eta giza eskubideen babesari lotutako oinarriko printzipio orokorra da (*ius cogens araua*)<sup>194</sup>. Horrela, CEDAW Konbentzioaren 5.a artikulua estatua behartzen ditu neurri egokiak har ditzaten, besteak beste, honetarako: “gizon eta emakumeen jokabide-eredu soziokulturalak aldatzeko, aurreiritziak eta ohiko jarrerak eta bestelakoak desagertu daitezten, zeinek oinarri duten edozein sexuren nagusitasun edo gutxiagotasun ideia edo gizon zein emakumeen funtzio estereotipatuak”.

Bestalde, genero-indarkeria diskriminazio motatzat aitortzen da. Lotura honen aitortza jasota geratzen da Belem do Parako Hitzarmenean<sup>195</sup> eta garatu egin dute, besteak beste, CEDAW Batzordeak 9. iruzkin orokorrean<sup>196</sup>, Emakumeen kontrako indarkeria, bere kausa eta ondorioei buruzko Nazio Batuen errelatore bereziak<sup>197</sup> eta Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordeko emakumeen eskubidei buruzko errelatoretzak<sup>198</sup>. Halaber, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak diskriminazioa debekutzen du de jure (legeak aginduta) eta baita de facto ere (izatez).

Betebehar horrek berekin dakar berdintasun eta ez-diskriminazio printzipioa errespetatzea eta bermatzea onartzen den lege guztietan<sup>199</sup>. Horrela, estatuek “[...] ezin dute arau diskriminatzailerik egin, efektu diskriminatzaileak dituztenak” eta gainera “praktika diskriminatzaileak maila guztietan ezabatu behar dituzte, bereziki organo publikoetan, eta azkenerako beharrezko neurriak hartu behar dituzte pertsona oro legearen aurrean berdina izango dela bermatzeko”<sup>200</sup>. **Horre-**

---

nión Consultiva OC-18/03 de 17 de septiembre de 2003, Serie A No. 18, 101. par.

194 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Opinión Consultiva OC-18/03, ibíd., 83. eta 100. par.

195 6. 7.a eta 7.e artikulua.

196 Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW Batzordea), 19. gomendio orokorra: La violencia contra la mujer, 1. eta 6. par.

197 Ver, por ejemplo, Consejo De Derechos Humanos, Informe de la Relatora Especial sobre la violencia contra la mujer, sus causas y consecuencias, Yakin Ertürk: Intersecciones entre la cultura y la violencia contra la mujer, Doc. de la ONU A/HRC/4/34 (2007).

198 Ver, por ejemplo, Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Informe Annual de la Comisión Interamericana de Derechos Humanos 1997, OEA/Ser.L/V/III.98 doc. 6 (1998), cap. VI; Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Acceso a la Justicia para Mujeres Víctimas de Violencia en las Américas, OEA/Ser.L/V/III. doc. 68 (2007).

199 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Caso Yatama vs. Nicaragua, Excepciones Preliminares, Fondo, Reparaciones y Costas, Sentencia de 23 de junio de 2005, Serie C No. 127, 186. par.

200 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Caso de las Niñas Yean y Bosico vs. República Dominicana, Sentencia de 8 de septiembre de 2005, Serie C No. 130, 141 par.



**la, arauaren edo praktikaren atzean dagoen asmoa gorabehera, estatu-ekitaldi bat diskriminatzailea izan daiteke gehiegizko inpaktua baldin badu talde edo kategoria —generoa, egoera sozioekonomikoa— babestuen<sup>201</sup>.**

## **Errekurtso eraginkorrak izateko eskubidea**

Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren 25.1 artikulua honakoa dio:

*Pertsona orok dauka eskubidea epaile edo auzitegien aurrean errekurtso xume eta azkar bat edo bestelako errekurtso eraginkor bat izateko, Konstituzioak, legeriak edo Konbentzio honek aitortzen dituen oinarritzko eskubideen urraketen aurka babestua izan dadin, nahiz eta urraketa hori funtzio ofiziala betetzen ari diren pertsonen gauzatua izan.*

Estatuek errekurtso judicial eta administratibo xumeak eta azkarrak eskaintzeko betebeharrak daukate, edo hutsegiteak berrikusteko eta zuzentzeko edozein errekurtso eraginkor, Amerikako Konbentzioaren 1.1 eta 25 artikuluek babesten dituzten eskubide eta askatasunak etengabe urratu daitezela ekiditeko<sup>202</sup>, “eta hori da oinarrietako bat, ez soilik Amerikako Konbentzioarena, baina baita gizarte demokratiko bateko zuzenbide estatuarena ere, konbentzioaren arabera”<sup>203</sup>.

Betebehar horiek, gainera, indartu egiten dira eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko betebeharraren bidez (Amerikako Konbentzioaren 1.1 artikulua) eta barne-zuzenbideko xedapenak berresteko betebeharraren bidez, eskubideok eraginkorrak izan daitezela (Amerikako Konbentzioaren 2. artikulua). Eskubide horiek “eskubide baten erabilpena babesteko, bermatzeko edo gauzatzeko balio dute” eta “baldintza horiek bete behar dira judicialki zalantzan jartzen diren eskubide edo betebeharrak dituzten pertsonak ondo defendatzen direla bermatzeko”<sup>204</sup>. Dagozkien prozesuari lotutako eskubide-sorta hori ebaluatzeko, Batzordeak prozedurak osotasunean kontuan hartu behar ditu ebazteko bidezkoa izan zen prozeduren integritasuna eta

201 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Caso Artavia Murillo y otros (Fecundación In Vitro) vs. Costa Rica, Excepciones Preliminares, Fondo, Reparaciones y Costas, Sentencia de 28 de noviembre de 2012, Serie C No. 257, párrs. 287, 302; ver, mutatis mutandis, Corte IDH, Caso Atala Riffo y Niñas vs. Chile, Fondo, Reparaciones y Costas, Sentencia de 24 de febrero de 2012, Serie C No. 239, 124. par.

202 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Caso Villagrán Morales y otros (“Niños de la Calle”) vs. Guatemala, Fondo, Sentencia de 19 de noviembre de 1999, Serie C No. 63, 234. par.

203 Idem.

204 Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, El derecho a la información sobre la asistencia consular en el marco de las garantías del debido proceso legal, Opinión Consultiva OC-16/99 de 1 de octubre de 1999, Serie A No. 16, 118. par.

frogak ekoizteko modua<sup>205</sup>.

### **Enpresa transnazionalen eta, orokorrean, ehungintza sektorearen erregulazioa**

*Energia eta energia-burujabetza izateko eskubideari buruzko akusazio-idazkian* garatutako lurraldez kanpoko betebeharez gain, zeinak ardatz honi ere aplikatu dakioken, atal honetan elementu gakoak azpimarratuko ditugu estatuak eta enpresak dagokien bezala jardun daitezen lan-eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzerako orduan, horniketa-kate globalen testuinguruan<sup>206</sup>:

1. Gutxieneko baldintza duinak bermatu: soldata, onurak, lan-giro osasungarria, besteak beste.
2. Horniketa-kate globalari lotutako langile guztiek eskubideak babestu, barne hartuta sektore informalean jarduten direnak, azpikontratatu edo etxeko langile gisa.
3. Erakunde sindikal bat edo langileen arteko edozein antolakuntza mota sustatzea.
4. Horniketa-kate global osoaren jardueren erantzukizuna hartu behar dute enpresek.
5. Ekintzak gauzatu behar dira giza eskubideen urraketa posibleak gardentasunez identifikatu, saihestu, arindu eta haiei erantzuteko.

## **4. AKUSAZIOAREN ARRAZOI PARTIKULARRAK**

**Bi kasuetako gertakarietako ikuspuntu feminista batetik begiraturaz gero eta eskubideak kontuan hartuz gero, ondoriozta dezakegu ez Eusko Jaurlaritzak, ez El Salvadorreko Estatuak, ez dituztela nazioarteko betebeharrak bete, bizi-maila duina izateko eskubidea errespetatu, babestu eta bermatu behar zutenean.**

### **Rosaren kasuan**

Aurreko atalean adierazitakoaren harira, ondoriozta daiteke El Salvadorreko Estatuak erantzulea dela osasunerako, lanerako, babes judizialerako, berdintasunerako

<sup>205</sup> Amerika Arteko Giza Eskubideen Gortea, Caso Villagrán Morales y otros (“Niños de la Calle”) vs. Guatemala, Fondo, Sentencia de 19 de noviembre de 1999, Serie C No. 63, párr. 222; Corte IDH, Caso Bámaca Velásquez vs. Guatemala, Fondo, Sentencia de 25 de noviembre de 2000, Serie C No. 70, párr. 189, citando, inter alia, Eur. Court H.R., Edwards v. United Kingdom, Judgment of 16 December 1992, Series A No. 247-B, párr. 34 y Eur. Court H.R., Vidal v. Belgium, Judgment of 22 April 1992, Series A No. 235-B, 33. par.

<sup>206</sup> Clean Clothes Campaign, Position paper on human rights due diligence, 2016, fecha de consulta 4 diciembre 2017, en <https://cleanclothes.org/resources/publications/position-paper-on-human-rights-due-diligence/w>

eta diskriminatua ez izateko eta haurren babeserako eskubideen urraketari dagokienez, bizitza duina izateko eskubideari lotuta:

1. Lan-baldintza duinen falta; ondorioz, Rosak behartuta ikusi zuen bere burua urte luzez Handworks enpresan lan egitera.
2. Osasun-ondorio larriak: besoetako mina mugimendu errepikakorrak eta postura behartuak etengabe hartzeagatik, ikusmena galtzea, lanari lotutako ziurgabetasuna eta agonia.
3. Urte luzez pairatutako lan-jazarpena, Handworks enpresarentzako brodatzaile gisa.
4. 15 urteko semeak egindako haurren lana, ekoizpen-helburu ezinezkoak betetzeko beharraren ondorioz.
5. Eskumena duen Ministerioak lan-ikuskapenak ez egitea, nahiz eta Rosaren abokatuak ahala eskatu zuen. Ondorioz, ezin izan ziren lan-baldintza akigarririk eta bere ondorioak egiaztatu.
6. Justizia ukatzea; izan ere, laneko salaketaren lehenengo instantziak ezta kasazio-instantzia ez zuten balio izan bere eskubideak babesteko.

## **Nerearen kasuan**

**Adierazitakoarekin bat etorrira, Euskal Autonomia Erkidegoa babes soziala izateko eskubidea ez bermatzeagatik erantzule dela ezartzen da:**

1. DSBEa eteteak osasunean izandako ondorioak, eta Lanbideren aurreko defentsa legalak sortutako larritasuna.
2. Dokumentazio gehiago eskatzea ez zen justifikatu arrazoizko zalantzen bidez bermedun prozedura administratibo baten testuinguruan; aitzitik, DSBEa eskuratzeko prozedura erregulatzen duten arauetan ez zetozen baieztapenen bidez justifikatzen zen.
3. Dokumentuen egiazkotasunari eta Nerearen deklarazioari buruzko zalantzek errugabetasun-presuntzioaren printzipioa urratu zuten. Lanbidek dokumentazioa osotasunean baloratu beharko luke, DSBEa eskuratzeko eskubidea formaltasun batengatik (Hagako apostilla) baldintzatu beharrean, oso garestia baita atzerritarrentzat eta, finean, desperekotasuna eta bazterkeria sortzen dituen traba delako.
4. DSBEa eten zuen ebazpenaren motibazio eskas eta irregularraren oinarrian proportzionaltasun-printzipioaren kontrako elementuak eta DSBEa sortu zen helburuaren kontrakoak zeuden. Izan ere, Lanbidek etekin konputagarri gisa hartu zituen Nerearen senideek egindako gutxieneko ekarpenak noizean behin 5€ edo 15€-ko gastuak ordaintzeko, eta beraz ekarpen horiek ez ziren aberastasun-iturri bihurtu ezta egoera ekonomiko prekarioa

funtsean hobetzeko iturri ere. Lanbideren betebeharra zen Nerearen espedientea arrazoizko irizpideen arabera baloratzea eta mantenu legal egoiaren bidez ezartzea: ekarpen horien jatorria eta helburua, eta izan zuten eragina kontuan hartuta familia-unitatearen behar eta gastu guztiak.

## **5. AUZITEGIARI ESKATUTAKO ERABAKIAK**

**Akusazio-idazki honetan garatutako argumentuak kontuan hartuta, Herri Auzitegiari eskatu diogu:**

### **Rosaren kasuan**

1. El Salvadorreko Estatuaren erantzukizuna ebaztea, lan-eskubideak eta babes judizialerako eskubidea urratzeagatik bizi-maila duinerako Rosaren eskubidearen harira.
2. Handoworks enpresaren erantzukizuna ebaztea, lan-eskubideak urratzeagatik.
3. El Salvadorreko ehungintza, jantzigintza eta aduana-zergarik gabeko eremuen kameraren (CAMTEX) erantzukizuna ebaztea, giza eskubideen aurkako politika ekonomikoak sustatzeagatik.
4. Rosa eta bere senideei kalte-ordain osoa eskaintzea, neurri indibidual zein kolektiboen bidez:
  - 4.1. Kaltetutako ondasun juridikoek pairatutako kalte material eta immaterialengatik: osasuna eta bizi-baldintza duinak.
  - 4.2 Asetasun-neurriak: Rosaren eta senideen oinarrizko beharrei arreta jartzea.
  - 4.3. Egoera sortu zuten gertakariak errepikatuko ez direla bermatzeko neurriak jartzea.

### **Nerearen kasuan**

1. Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna ebaztea, Nerearen babes sozialerako eskubidea ez errespetatu eta bermatzeagatik, bizi-baldintza duinak izateko eskubideari lotuta.
2. Lanbideren erantzukizuna ebaztea, prestazio ekonomikoaren kudeaketan agertutako jarrera arbitrarioagatik; ondorioz, DSBEa eskuratzeko Nerearen eskubide subjektiboa urratu zuen.
3. Banakoei eta kolektiboari kalte-ordain osoa emateko neurriak jartzea, familia-unitateko pertsona bakoitzaren beharrianak kontuan hartuta, eta bereziki Nerearenak:
  - 3.1. Kalte material eta immaterialengatik: DSBEa berrezartzea etendako momentutik aurrerako denbora kontuan hartuta, eta DSBEa arbitrarioki ete-

tearen ondoriozko kalteak ordaintzea.

- 3.2. Asetasun-neurriak: familia-unitatearen oinarritzko beharrei arreta jartzea.
- 3.3. Egoera sortu zuten gertakariak errepikatuko ez direla bermatzeko neurriak jartzea.
- 3.4. Babes sozialerako eskubidea eska eta justifika daitekeen eskubide beregaina dela aitortzea.

## **KASUAREN LABURPEN FITXA**<sup>207</sup>

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:** ARGILAN-ESK

**TOKIA:** Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

**Testigantza ematen duen pertsona:** Argilan Nerearen izenean



Isa Ormaetxea “Nerea”-ren kasuan testigantza ematen

### **Gutxieneko errenten sistemaren porrota**

Jarraian aurkezten den kasua, Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) 1989az geroztik, ongizate estatuaren gabeziei aurre egiteko martxan jarri ziren pobrezia-erretzen aurkako politiken baitan kokatzen da.

Gaur egun EAEn indarrean dagoen gutxieneko errenten sistema 18/2008 legeak arautzen du. Hau 2011n aldatu zuten, laguntza jasotzen zutenei baldintza gehiago eskatuz eta aukerak murriztuz. Hiru laguntza mota daude: 1) Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE), oinarrizko gastuak ordaintzera bideratua, 2) Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO), etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko, 3) Gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL), gizarte-bazterkeria prebenitu, arindu edota ekidin dezaketen gastu zehatzak ordaintzen laguntzeko.

<sup>207</sup> Fitxa osorik eta kasuaren dokumentazio guztia hemen: <https://www.decrecimientoybienvivir.info/eu/bizimodu-jasangarrien-aldeko-herri-azuzitegia/>

Hiru prestazio mota horiek jaso ahal izateko baldintza asko bete behar dira. Ia 30 urte geroago, esan daiteke EAEko prestazio sistema eraginkorra izan dela muturreko txirotasuna prebenitzerako orduan, baina ez duela txirotasuna osotasunean ezabatzea lortu; izan ere, EAEko pertsona txiroen %31 ez dira sistemara iristen, eta sistemara iristen direnen %47k txiro izaten jarraitzen dute.

Gainera, nahiz eta eredu honen defendatzaileek kontrakoa adierazi, enplegarritasunaren porrota erabatekoa izan da. Bestalde, 2012. urtetik Lanbideren kudeaketa erabilgaitza da, eta ondorioz, laguntzak jasotzen dituztenak gero eta gehiago sufritzen ari dira.

## **Nerearen kasua**

Nereak DBEa jasotzen zuen 2013. urtetik, 3 pertsonako bizikidetzako unitate baten titularra zelako (bera, kidea eta semea).

2017ko ekainaren 8an Lanbidek DBEa eten zion hiru arrazoiengatik, nahiz eta Nereak arrazoi horiek aurrez justifikatu zituen. Arrazoi horiek honako kontuekin lotu zituzten: bere kideak Brasilen zituen ondasunen ziurtagiri bat, senideengandik jasotako diru-sarreraren berri Lanbideri ez ematea eta Nereak egindako ustezko iruzurra, zeinaren arabera aitortu ez zituen bestelako diru-iturriak zeuzkan.

2017ko uztailaren 7an Nereak aukerak berraztertze errekurtsua aurkeztu zuen, eta horrekin batera, baita honako dokumentuak ere: Brasileko ondasunen ziurtagiriaren eskaera-gordekina (Lanbidek exijitzen duen Hayako aitortzarik gabe), diru-sarreraren bat egin zuten senideen zinpeko deklarazioa, eta izandako beste diru-sarreraren jatorria iruzurra zela ukatzen zuten arrazoiaren justifikazioa, nahiz eta azken motibo horiek Lanbidek ez zituen aintzat hartu. Hala ere, Lanbidek 13.000€ baino gehiago itzultzeko eskatu zion Nereari.

Eusko Jaurlaritzak (EJ) Lanbideren kudeaketa arazoak DBE/EPO laguntzak jasotzeko eskubide subjektiboa erasotzeko baliatzen ditu. Honek, bizikidetzako unitate askok praktikan baldintzak bete arren, laguntzak jasotzea eragozten du, eta beste hainbat sistematik kanporatzen ditu ere, prozedura ilegalen eta administrazio-praktika okerren bidez.

Honek agerian uzten du egungo errenta minimoen sistemak ez duela inoiz txirotasuna ezabatzea lortuko. Hortaz, geroz eta beharrezkoagoa da diru-sarreraren bermea herritarren eskubide unibertsal eta baldintzarik gabekoa gisa ulertzen dituen eredu baten alde egitea.

## **KASUAREN LABURPEN FITXA**<sup>208</sup>

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:** Mujeres Transformando

**TOKIA:** San Salvador (El Salvador)

**Testigantza ematen duen pertsona:** Rosa María Marroquín



Rosa María Marroquin Herri-Auzitegian bere testigantza ematen

### **Etxeko brodatzaileak, esplotazioa eta ikusezintasuna**

El Salvadorren emakumeek beren etxeetatik egiten duten ehungintza lana ikusezin bihurtzen da jendartean, besteak beste, maquila enpresei brodatzaileen esplotazio-baldintzak eta lan-eskubideen urraketak ezkatzea interesatzen zaielako.

*Maquila* enpresek gehiegizko esplotazio baldintzetako lan prekarioak eskaini ohi dizkiete herrialdeko landa-eremu txiroetako emakumeei. Horrela, etekin-tarte handia daukate, hilabeteko 56.00\$ dolar inguruko soldaten kontura. Etxetik lan eginez seme-alabak zaintzea errazagoa delako ideia saltzen dute enpresek, baina ondorioz lanaldi bikoitz eta hirukoitzak inposatzen dituzte.

<sup>208</sup> Fitxa osorik eta kasuaren dokumentazio guztia hemen: <https://www.decrecimientoybuenvivir.info/eu/bizimodu-jasangarrien-aldeko-herri-azitegia/>



Etzetiko lanak, gainera, loturarik eza sortzen du langileen artean, eta horrek, beren eskubideak defenda ditzaten eta lan-baldintzak hobetzeko negoziazio-proposamenak egin ditzaten antolatzeko sarea sortzea eragozten du. Horrela, enpresek langileak esplotatu eta haien aurka indarkeria erabiltzen dute lan-eskubideak urratuz, langileek pairatzen duten errepresio nabarmena, mehatxuak eta etengabeko lan-jazarpena ahaztu gabe. Gainera, ekoizpen-helburuak altuak bete ezean zigorrak inposatzen dizkiete langileei. Honek batzuetan 12 eta 14 ordu artean lana egin behar izana dakar, senide eta seme-alabak tartean sartu behar dituztelarik.

Etzetiko langileak babestu beharko lituzkeen marko legala existitzen bada ere, praktikan, lan-eskubideak bermatu ordez, marko horrek lan-baldintzak malgua-goak eta prekarioagoak bihurtu ditu. El Salvadorreko Estatuak, Lan Ministerioaren bidez, ez ditu eraginkortasunez babesten lan-sektore honi dagokion eskubideak.

Halaber, etzetiko langileen ekoizpen-kateek agerian uzten dituzte beren ikusezintasun, prekaritate eta esplotazio egoeraren erantzukizun-kateak; estatuak berak, El Salvadorko maquilek eta enpresa azpikontratatzaileek osatutako katea, alegia.

### **Erakundeek ezikusiarena egin, enpresek erantzukizunak saihestu**

Rosak 35 urte zituen eskuz brodatzeko lanak jasotzen hasi zenean. Landa-eremuan bizi da, Paisnal udalerrian, San Salvadorren. Bost seme-alaba ditu, eta egoera ekonomiko prekarioa. Hasieratik, alabekin egon ahal izateko, etzetik lan egiteko aukera eskaini zioten. Seme nagusiak 15 urte zituen orduan, eta Rosa laguntzen zuen brodatze lanean.

Lanak eragindako osasun-arazoan, nekearen, bete ezin diren helburuen eta lana ez aitoritzearen ondorioz, urte batzuen buruan lanari borondatez uko egiteko dokumentua aurkeztu zuen Rosak; enplegatzaileak, ordea, ez zuen dokumentua sinatu nahi izan, inolako azalpenik eman gabe.

Lana borondatez uzteko eskubidea eta lan egindako denborarengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea etzetiko langileek aldarrikatzen dituzten eta dagoneko aitortuak dauden eskubideak dira; izan ere, enpresak 15 egun ditu kalteak ordaintzeko, eta ordaindu ezean, arrazoirik gabeko kaleratzea dela ebazten da eta epaitegian salatu daiteke.

Etzetiko langileen eskubideak bermatu behar dituzten erakundeek ez dutela “lan-modalitate hau ezagutzen” adierazten dute, eta ezagutu arren, ez dituzte haien eskubideak bermatzen. Horrez gain enpresek lan-erantzukizunak saihesten dituzte, behin-behineko langileak edo zerbitzu-prestazioak direla argudiatuta.

## BIZI-MAILA DUIN BATERAKO ESKUBIDEAREN ARDATZA Tica Moreno Adituaren Txostena



Tica Moreno Adituaren Txostena. Tali Piresek aurkeztu zuen Herri-Auzitegian.

### 1. SARRERA

Feminismoak desafio egiten dio kapitalismoak, munduko hainbat lekutatik, bizitzan errotzean sortzen duen indarkeriari. Horretarako, emakumeen bizitzetan dituen ondorioak salatzeaz gain, kapitalismoaren metaketa-logika, funtzionamendua eta zilegitasuna ere zalantzan jartzen ditu. Posizio horretatik, emakumeek zalantzan jartzen dute esperientzia ekonomiko oro formula eta zenbakietara mugatzeko joera eta salatu egiten dituzte interdependentzia eta ekodependentzia ezkutatzeko etengabeko ahaleginak. Izan ere, dependentzia horien arabera egituratzen dira harreman sozialak eta bizitzaren produkzioa. Halaber, emakumeek desafio egiten diete ustezko hazkundearen izenean bizi-baldintzei etengabe eraso egiten dieten politika ekonomiko desarrollistei eta austerizidei.

Emakumeak mobilizatu egiten gara gure gorputzak bortxatzen dituzten leku guztietan, gure lana esplotatzen eta gure lurraldeak desjabetzen dituzten tokietan. Borroka horietatik abiatuta, erresistentziak artikulatzeaz gain esperimentatu ere

egiten dugu, eta bestelako eredu bat eztabaidatzeko eta eraikitze bideak irekitzen ditugu. Hortik abiatuta, erdigunean kokatzen da bizitzaren jasangarritasuna, eta hortik gauzatzen dira ekonomia eraldatzeko praktikak: ekonomia solidarioa, autogestioa, elikadura-burujabetza eraikitze agroekologia, etxeko lanen eta zaintzaren kolektibizazioa, ekonomiaren berlokalizazioa.

Erreferente hauek erabiltzen dira txosten honetan, kritika feministatik abiatutako analisia egiteko. Halaber, bizimodu jasangarrietaranzko auzitegi sinbolikoan — zehazki, ekonomiaren berlokalizazioaren ardatz honetan— aurkeztutako bi kasuek eragindako galderek ere txosten hau gidatu dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko kasuak Nerearen esperientzia kontatzen du; txirotasunaren aurkako politiken parte den diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzeko eskubidea eten zioten Nereari. Diru-laguntza eteteko argudioen oinarrian pertsonen bizitza kontrolatzeko neurriak daude, baita txirotasuna handitzeko eta bazterkeria sustatzeko mekanismoak zabaltzea ere.

El Salvadorreko kasuan, justizia eta lan-eskubideak ukatzean datza kontua, etxetik egiten den lana enplegutzat hartzen ez delako. Rosaren kasuaz ari gara: Rosa brodatzailea da, eta lana uzteko borondatezko eskaera aurkeztu zuenean bere eskubideak ukatu zizkieten. Laneko jazarpena eta lanaldi oso luzeak jasan zituen, eta lan-esplotazioaren eta bere denboraren esplotazioaren ondorioak osasunean pairatu zituen.

Bi kasu horiek —aurrerago zehatzago aztertuko ditugu— aipatutako herrialdeetan milaka pertsonak pairatzen duten egoera irudikatzen dute, baita mundu osoko ehunka milaka pertsonaren egoera ere.

Txosten honen bidez estatuak eta korporazioek pertsonen bizitzak kontrolatzeko darabiltzaten dinamikak argitzea da asmoa —bereziki, egun bizi dugun neoliberalismo globalizatuaren fasean— eta herritarren justizia eskuratzeko dituzten oztopoak argi eta garbi adieraztea.

## **1. Testuingurua: Merkatuaren nagusitasuna, bizitzaren gainetik**

Auzitegian aztertutakoak ez dira kasu isolatuak, kausa komunak baitituzte. Ez dira arazo indibidualak, pertsona horiek hartu dituzten erabakien ondorio soilak. Kontrara, eredu ekonomiko hegemonikoaren eta kapitalismo patriarkal eta kolonialistaren funtzionamenduaren parte dira arazook; bereziki, fase neoliberallean. Neoliberalismoaren aurrerakada-prozesua oso biolentoa da bizitzaren, naturaren eta harremanen alderdi guztiekin, eta helburu du dena merkantzia bihurtzea eta metaketa kapitalista bizkortzea. Maila globalean, martxan dago aberastasuna

metatzeko prozesu bizkorra, desparekotasuna eta txirotasuna areagotzen dituena. Prozesu horren eragile nagusiak korporazio transnazioaletako elite gidariak dira, baita estatuaren politikan eta erakunde publikoetan duten eragina ere. Prozesu horrek nazioarteko zein tokiko eremuetan hedatzen ari den atzemate korporati-boaren ereduari jarraitzen dio.

Kasu jakinak aztertzea —non esplotazioa eta urraketak modu larriagoan adierazten diren— irakaspen feminista da, ohiko erreferenteak baztertzen dituelako —androzentrikoak eta abstraktuak— eta ikusarazten digulako nora eramaten gaituzten neoliberalismoak bultzatutako aldaketek. Zehatzago, lan prekarizatuak nabarmendu nahi ditugu (herrialde gehienetan ematen direnak), eta txirotasuna eta pertsona txiroen bizitzen gaineko kontrola areagotzen ari dela azpimarratu. **Lanaren prekarizazioa** eta **bizitzaren prekarizazio orokorraren** prozesuak ez daude bata bestearengandik isolatuta, eta bizitzaren gaineko kontrola ere ezin dugu ulertu bere konplexutasun osoarekin lurren metaketa eta indarkeria militarizatu kontuan hartu gabe, nahiz eta azken horiek ez diren sakon lantzen txosten honetan, espazio faltagatik. Pertsonen bizitzan neoliberalismoak horrenbesteko adierazpideak izatea lotuta doa harreman sozialen egitura sexuatuarekin, eta bereziki, lanaren sexu-banaketarekin.

### **Korporazioek ekoizpenaren zati bat lekualdatzen dute gehiago esplotatu daitekeen tokietara**

Neoliberalismo globalizatuaren testuinguruan, korporazio transnazionalak estrategiak aldatu zituzten. Prozesu produktiboak balio-kate globaletan antolatzen dira eta munduko hainbat lekutara banatzen dira, markentzako etekin handiena dakarten tokietara; hau da, lanak kostu txikien daukan lekuetara.

Kate globalak zonalde frankoetatik (zergarik gabekoak) sartzen dira. Gaur egun halako 3500 zonalde daude munduan, non 63 milioi pertsona dauden lanean (horietako %70 eta %90 artean emakumeak dira).

Balio-kateetan dagokien lekua izan dezaten, herrialdeek baldintzarik onenak eskaintzen dizkiete korporazioei, langileak esplota ditzaten. Hori dela eta, kate-maila horietan zehar nagusi da emakumeen, migratzaileen, afroinordekoen eta gazteen lan prekarioa, eskubiderik gabekoa. Etekina pilatzen da, eta arriskuak banatu. Kateen muturretan enpresa azpikontratatuak daude; lan-baldintza negargarriak eskaintzen dituzte eta marka kontratatzaileengandik bereizten dituzte. Aldi berean, ez zaie markei egozten lan-baldintzen eta esplotazioaren erantzukizuna.

Eskubideak defendatzeko aukerak **oztopatzen dituzte nazioarteko legeek, erre-**

**presioak eta mugimenduen kriminalizazioak.** El Salvadorreko kasuan nabarmena denez, langileei ez diete enpresekiko lotura aitortzen. Nazioarteko Sindikatu Konfederazioaren (aurrerantzean, NSK) arabera, 116 milioi langile ezkutu daude 50 nazioarteko enpresa-kateetan<sup>209</sup>. Langile horietako gehienek eskubiak etengabe urratzen dituzte, eta areago, haien lana esklabotasun baldintzekin alderatu izan da.

Jantzigintza sektorea (El Salvadorreko kasuari lotua) **korporazioen estrategia globalen** adibide ona da. Sektore horrek 160 herrialde inplikatzeko ekoizpen-erako, baina soilik herrialde horien %20k osatzen dute kontsumitzaileen merkata. Munduko merkataritza korporazio horien eskuetan metatzen da oraindik ere.

Produktuen modeloak eta bildumak Iparraldeko herrialdeetan eratzeko dira, eta ekoizpena Latinoamerikako eta Asiako herrialdeetara bideratzen da. Ekoizpen-kate hori berregituratzean, tertziarizazio prozesu biziak guztiz aldentu zituen markak ekoizpenetik. Ondorioz, markak arduragabetu egin dira lan-baldintzez, bereiziki etxetik egindako produktuen kasuan edo azpikontratututako tailerren kasuan.

**Etengabeko metaketa prozesu** batean, merkatu kapitalistak harreman sozialak egituratzen dituzten desparekotasunak indartzen ditu —kolonialismoa, patriarkatua eta arrazakeria— eta elkar elikatzen dute. Hori dela eta, neoliberalismo globalizatuaren ezaugarrietako bat da **lanaren sexu-banaketa heteroarautuak gogor egituratzen duela lanaren nazioarteko banaketa**, eta hori areagotu egiten da balio-kate globalak osatzean.

### Ondorioak eta eraginak

Horren erakusgarri da 2013ko Rana Plazako krimena: eraikin bat erortzean 1.134 emakume langile hil ziren, jostun lanean aritzen direnak, besteak beste, Benneton, Gap, Walmart eta El Corte Inglésen gisako korporazio handientzako. Tamalez, ez da lehenengo ez azkenengo kasua izan, eta ondorioz zenbait korporaziok ez zuten Bangladeshekin hitzarmenik sinatu nahi izan LANEk ezarritako arauen arabera kalteak ordaindu behar izateko. Horren ordean, ekimen ez-lotesle bat abiatu zuten: enpresa berdinean horiek zuzendutako funts bat.

El Salvadorreko kasura hurbiltzeko, feminismoak lanaren sexu-banaketari buruz egindako ekarpen teorikoak berreskuratuko ditugu. Horri esker, emakume eta gizonek lan-merkatuan duten posizioa deskribatze hutsetik harago joan ahal izango

209 Nazioarteko Sindikatu Konfederazioa (2016) Escándalo en las cadenas mundiales de suministro de 50 grandes empresas. Nuevos Frentes txostena.

gara.

Feminismoaren ekarpenetako bat da **lan kontzeptua enplegutik harago zabaltzea**, hau da, lan gisa hartzea etxeetako zein komunitateetako eginbehar ez-ordainduak, zaintza-lana... Finean, bizitza jasangarria izan dadin egin beharreko lan guztia lantzat hartzea.

Lan-merkatuan emakume eta gizonek egiten duten lana etiketatzeaz harago joatea ekarri zuen horrek, eta analisei produkzio eta erreproduzio alderdiak txertatu zizkieten, bien arteko banaketarik egin gabe<sup>210</sup>. Horrek ez du esan nahi besterik gabe lan ez-ordaindua analisietan txertatzea; aitzitik, frogatu behar da emakumeek etxeko lanekiko dituzten erantzukizunek eta sozializazioak beren lan ordaindua baldintzatzen dutela. Gainera, analisek erakusten dute emakumeek sozializazio- eta ikaspen-prozesu horretan jabetutako gaitasunak naturalizatzen direla, eta ez direla lan-merkaturako kalifikaziotzat hartzen.

Horrela, ikuspegi feminista lagungarria da lanaren banaketa konplexua aztertze-ko: esplotazio-mekanismoak, jabetze eta zapalkuntza kapitalista eta patriarkalak. Kapitalismoan, lanaren sexu-banaketa eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketaren bidez egituratu zen. Horrela, espazio pribatuari (familiak, etxeak) ego-tzi zitzaion bizitzaren eguneroko sostengua bermatzeko ardura feminizatua.

Daniele Kergoat-en (1996) arabera, **lanaren sexu-banaketa** bi printzipiok definitzen dute: banaketaren printzipioak —gizonen eta emakumeen lanen arteko banaketa ezarrita— eta hierarkizazioak —gizonek egindako lanari balio gehiago ematea—. Gainera, lanaren sexu-banaketak emakume eta gizonen arteko praktika sozialen asimetria produzitzen eta erreproduzitzen du; emakumeentzako loturak eta diziplina eraiki eta berreraikitzen ditu; genero-zapalkuntza produzitzen eta erreproduzitzen du.<sup>211</sup>

Horregatik, feminismitik lanaren sexu-banaketari aurre egiteko zalantzan jarri daitezke lan-merkatuaren egitura desorekatuak, baita gizon eta emakumeen arteko desparekotasun- eta botere-dinamikak ere. Zentzu berean, ekonomia feminis-tak zalantzan jartzen ditu ekonomiaren oinarri hegemoniko eta androzentrikoak. Horrela, agerian uzten du nahita ezkututzen direla produkzio eta erreproduzki-oren arteko harremanak, soilik merkatuan dagoena ekonomikotzat hartzeko joera, eta emakumeen lan ez-ordaindua areagotzea —etxeko lanak, zaintza, lan komu-nitarioa— estrategia bat dela eredu horren metaketa mantentzeko.

210 Hirata e Kergoat (2009). Os paradigmas sociológicos à luz da categoria de gênero: qual a renovação da epistemologia do trabalho?

211 Souza-Lobo (1991/2011). Eskuragarri: A classe operária tem dois sexos.

Lanaren sexu-banaketaren eta ekonomiaren gaineko ikuspegi zabalago horrek **El Salvador**reko egoera argitzen du, eta erreferentziazkoa izango da aldaketarako proposamenak giterako orduan.

Rosaren kasua aztertu dugu. Rosa brodatzailea da, etxetik lan egiten du oiha-lak brodatzen, El Salvadorreko beste 500 emakume inguruk bezala. Oihal horiek bertako zazpi enpresek esportatzen dituzte AEB, Kanada eta Europako merkatuetara. Kasu hori aurkezten du Mujeres Transformando erakundeak. Erakundearen arabera, egoera horietan emakumeek ez dute beren bikotekideen babesik –bikotekiderik izatekotan–, etxeko lanak eta zaintza-lanak gauzatzeko. Areago, diru-sarrerak bermatzeko etxetiko lana onartzera behartuta daude emakumeak, gizonen eta estatuaren babes faltagatik. El Salvadorren, 2015ean, lan-merkatuan emakumeen parte hartzea %46,7koa zen; gizonena, aldiz, %80,2koa<sup>212</sup>.

Hortik abiatuta, Rosaren kasuaren zenbait **ondorio biopsikosozial** nabarmendu nahi ditugu; zehazki, **denboraren antolaerari, osasunari eta indarkeria sexista pairatzeari** lotutako ondorioak, eremu publikoan zein etxean.

Emakumeek diru-sarrerak behar dituzte norbera zein familia mantentzeko, eta ez dago bestelako lan-aukerarik; ondorioz, emakumeak behartuta daude lanaldi luzeak, jazarpena eta soldata baxuak onartzera. Zaintzari eta etxeari lotutako erantzukizunen gainkarga dela eta, brodatzaileek gaua ilundu arte egiten dute lan. Kasu honen arabera, pieza bakoitzak 12 eta 14 ordu arteko lana eskatzen du, marrazkiaren zailtasun-maila zein den. Emakumeek lan intentso eta estentsoetan ematen dute denbora, izan zaintzan, etxeko lanetan edo brodatze lanetan. Emakumeek maiz pairatzen dute indarkeria, dela etxean bertan dela lana entregatzeko ibilbidean, eta ikuskatzaileen aldetik ere hitzezko indarkeria eta jazarpen morala pairatzen dituzte.

Gizarte kapitalista patriarkaletan **emakumeen gorputza** lan-makina baten moduan diziplinatzen eta moldatzen da, eta baldintza prekarioetako esplotazioak eta lanaldi luzeak eragina dute gorputzean eta osasunean. El Salvadorren egindako ikerketa baten arabera<sup>213</sup>, etxetiko langile askok osasun-arazo larriak izan zituzten lan-motagatik eta intentsitateagatik, lan egiteko ezgai izan ziren arte. Kontuan hartu behar da lan egiteko ezgaitasunak ez diola soilik soldatapeko lanari eragiten, horretarako gizarte segurantzako politikak beharrezkoak baitira; aitzitik, eragina

212 Panorama Laboral (2016) OIT.

213 ASOCIACIÓN MUJERES TRANSFORMANDO (2015) Hecho a mano: bordadoras a domicilio, un análisis desde la Economía Feminista. El Salvador.

du ere etxeko lanak eta zaintza-lanak gauzatzerako orduan.

Auzitegian aurkeztutako kasuan, Rosak —lanean jarraitzen du— “besoa minduta” dauka eta “ikusmenak huts egin” ohi dio. Batetik osasun-arazoengatik eta bestetik lan-jazarpen historikoagatik, lan egindako denboragatik kalte-ordainak eskatu zituen langileak.

Kasu honen beste ezaugarri garrantzitsu bat da emakumeek gauzatzen duten **etxetiko lanaren ikusezintasuna**. Horren erantzule da estatua ere —zehatzago, Lan Ministerioa—, lan-baldintzak fiskalizatzeko ardura duen neurrian. Emakumeen lana ikusezin bihurtzeko prozesuak berrasmatzen direla ikus dezakegu, eta aldi berean subjektu langileak —emakumeak— ezkututzen dituzte; batetik, lan-mota honen espazioagatik —etxea—, eta bestetik, merkatuari —enpresei— mesede egiten diolako langile horiek ez aitortzea.



Aurkeztutako kasuak jantzigintza sektoreko balio-kate globalen adibide ona eskaintzen digu.

*“Halaber, etxetiko langileen ekoizpen-kateek agerian uzten dituzte beren ikusezintasun, prekaritate eta esplotazio egoeraren erantzukizun-kateak; estatuak berak, El Salvadorko maquilek eta enpresa azpikontratatzaileek osatutako erantzukizun-katea, alegia. Horiek guztiak dira etxetiko brodatzaileen lan-eskubideen etengabeko urraketen erantzuleak. Emakumeek hileroko 56 dolar irabazten dituzte batez beste, eta 16 ordura arte luzatu daitezkeen lanaldiak dituzte (...) Gainera, langileek ez dute harremanik haien artean, eta horri probetxua ateratzen diote enpresek, langileek kolektibo gisa izan dezaketen exijentzia-gaitasuna deuseztatuta.”*

Brodatutako oihal batek 80 eta 100 dolar artean balio ditzake; brodatzaileei 1,80 eta 2,50 dolar artean ordaintzen diete, eta lana atzeratzen bada 0,25 dolar kentzen dizkiete.

Datu horiek berretsi egiten dute aipatutako NSKren ikerketak erakutsitako logika, zeinak oinarri duen Bangladesheko ekoizpena, beheko taulan jasotzen dena:





\*Txikizkari mallako gastu guztiak barnebiltzen ditu, langileak, alokairua, etekinak, BEZA, etab. barne

Iturria: Escándalo en las cadenas mundiales de suministro de 50 grandes empresas. NSK, 2016.

Hortaz, El Salvadorreko brodatzaileen lan-esplotazioa ez da kasu isolatua, baizik eta ehungintza sektorearen balio-kate globalen errealitate orokorra. Horrez gain, lan-merkatuan gero eta gehiago errepikatzen dira lanpostuen malgutasuna eta prekaritatea, aldizkako lana (langileek lan egiteko prest egon behar dute, nahiz eta enpresek ez duten beti lehengairik edo lanik eskaintzen), enpresen erantzukizun falta eta lan-harremanak ez aitortzea. Hori guztia gertatzen ari da, batez ere, krisiaren ostean lan-eskubideak suntsitu zituzten erreformak sustatzeko aprobetxatu zuten herrialdeetan. Hegoalde globaleko emakume txiro, indigena eta beltzek aspalditik bizi izan duten esplotazioa eta lan prekarioa areagotu, orokortu eta arautzen dute Brasilen edo Espainian ezarritako lan-erreformek.

Labur esanda, **etekin ekoizpenak xurgatzen du langileen denbora**; esku-biderik gabeko lana eta lanaldi luzeegiak dira balio-kate globalen muturretako ezaugarriak. Halaber, kate horiek korporazio transnazionalak zuzentzen dituzte, zeinek ekoizpena lekualdatzen duten lana gehien esplotatu dezaketen lekuetara, zergak ordaintzeko betebeharrak ez eta ustelkeria erruz dagoen tokietara, alegia. Merkataritza eta inbertsio itunekin, korporazioek beren etekinak babestu nahi dituzte, bitzta, eskubideak eta pertsonen lana ez babestearen kontura. **Neoliberalismoan sakontzeko bidea ez da bateragarria ekonomia berlokalizatzeko proposamenekin.**

## ALERTA FEMINISTA

Neoliberalismoaren une honetan funtsezkoa da esplotazio-egitura horiek ikusaraztea, korporazioek horien bidez areagotzen dituztelako boterea eta eteki-

nak. Gero eta enpresa gehiagok bereganatzen dituzte borroketan erabilitako hitzak, zatika, edukiz hustuta, zenbaitetan modu sotilean eta bestetan modu esplizituan. H&M ehungintza industriako transnazional handienetakoak mundu osoan saltzen ditu “*feminista*” hitza dakarten kamisetak, edo “*feminismoa, emakumeak pertsonak garela dioen ideia erradikala da*” lema dutenak<sup>214</sup>. Hau da, morez makillatzen dute haien metaketa-prozesua, mundu osoko emakumeen gehiegizko esplotazioan oinarritzen dena. Finean, feminismoaren ideia bat txertatzen dute, metaketa-prozesuarekin kontraesanik sortzen ez duena, mugimendua eratzeko praktikatik eta eraldaketa sozialetik erabat aldentua dagoelako. Horrela, bizitzaren jasangarritasuna bermatzen duten interdependentziak ukatzen eta ezkututzen dituzte, eta gizarte-mugimendu bat despolitizatzen dute eta zentzua kentzen diote jarrera indibidual batera murriztuz, sistemaren desorekak elikatzen dituzten oinarri materialak ukitu gabe.

### Ondorioak jendearen kontrolean eta bizi-baldintzetan

Korporazioek boterea eta aberastasuna areagotzeko dituzten estrategiak aztertuta, zalantzan jartzen ditugu herriek lortutako eskubideak babesteko jarri beharko lirakeen mugak. Nabarmendu bezala, lan-eremuan eskubide horiek oztopatzen dituzte hainbat herrialdetan, erresistentzia dagoen arren. Kontrola eta boterea areagotzeko estrategiak lan-esplotazioaz harago doaz, eta merkantilizazioa zabalitzen dute bizitzaren eremu askotara. Herrialde askotan (Europar bereziki, non ongizate-eredua ustez bermatuta dagoen) azken hamarkadetan politika asko murriztu dituzte. Latinoamerika eta Karibeko herrialdeetan oraindik egikaritu gabe dago eskubideak areagotu eta unibertsalizatzea eta zerbitzu publikoak bermatzea, Kuban salbu. Era berean, Brasilen eta Argentinan erdietsitako lorpenak atzeraka ari dira. Erdialdeko Amerikan eta Mexikon, baita Txilen ere, hamar urte dira merkataritza askerako itunak indarrean egon direla, eta ondorioz oso presente dago merkatuak bizitzaren gain duen nagusitasuna, eta are biolentoagoa da.

Hortaz, austeritate-neurrien rolari buruz hausnartzea dagokigu, baita korporazioek estatuez eta erakunde publikoek egin duten jabekuntzaz ere, neoliberalismoan sakontzen ari garen une honetan. Aipatutako kasuen ondorio politiko eta ekonomikoa izateaz gain, kasu horiek eragin dituzten arrazoien parte ere bada.

Ez dira berriak gaur egun ekonomia feministatik hartzen ditugun ekarpen teoriko-politikoak, zeintzuek azpimarratzen duten austeritate-politikek emakumeak dituztela oinarri, krisi eta neurri guztietan.

<sup>214</sup> Alice Greschcow, (2016ko apirila) H&M Kills Feminism artikulua. Blog Alice in Wonderland. Ikus: <https://alice-greschcow.com/2016/04/25/hm-kills-feminism/>

Magdalena Leonek<sup>215</sup>, Latinoamerikatik, honela laburbiltzen du:

*“Tragan mendeko 80ko urteetatik egindako analisiak emakumeen egiturazko egokitzapenaren ondorioetatik sortu ziren. Analisisok, hasieran, oinarri zuten ‘genero in-paktuen’ ikuspegi nagusia –egitate ekonomikoen ondorio sozial gisa ulertuta–, baina gerora berreskuratu eta areagotu egin zen analisi ekonomiko feminista, zeinak ekonomia ikuspegi integral eta zabalgoa eskatzen duen. Ekonomia inoiz ez da izan (eta ez da izango) merkatu kapitalistaren sinonimo, beti dakarrelako produkzio eta erreprodukzioaren arteko kombinazioa; bi prozesu horietan emakumeok desabantaila egoeran gauden eragileak gara, eta funtsezko ekarpena egiten diegu, egiten dugun lan ez-ordainduaren bidez metaketa kapitalista diruz laguntzen baitugu.”*

Lina Gálvezek eta Paula Rodríguez-Modroñok adierazi bezala<sup>216</sup>, 2008ko krisiaz geroztik Europan eta bereziki Espainian politikak gidatu dituen (eta gidatzen dituen) austeritate kontzeptuaren bidez formula zaharrak errepikatzen ari dira —soldata eta gastu publikoen murrizketak adibidez— eta aldi berean jendearen kokatzen da krisiaren erantzukizuna. Beste behin ere, eredu neoliberalak ber-artikulatzen ikusi dugu bere burua soluzio gisa aurkeztuz; soluzio faltsu gisa, neoliberalismoa baita, benetan, herriek pairatzen dituzten arazoaren kausa.

Austeritate-politikek mesede egiten diote etekinen jabeakuntza pribatuari eta aberastasunaren kontzentrazioari; aldi berean, herritar gehienek modu indibidualean eta pribatizatuan konpondu behar dituzte bizitzaren eguneroko sostenguari lotutako kontuak. Pribatizatutzat hartzen da eremu pribatuaren erantzukizunak berregain hartzea —familiek, eta bereziki emakumeek—, eta merkatuak eskainitako zerbitzuak erostea, besteak beste osasuna, hezkuntza, eta are ura eta energia ere, nahiz eta guztiontzat bermatuta egon beharko lirartekeen eskubideak izan.

Gorago aipatutako autoreek laburtu egiten dituzte genero desparekotasuna indartzen duten krisiaren aurkako soluzio faltsuen alderdiak: emakumeen lana areagotzea, lan prekarioa areagotzearekin batera, eskutik doa zaintza-lana areagotzearekin, zeinak bizi-baldintzak bermatzen dituen politika publikoen murrizketen aurrean. Horrela, oraindik ere emakumeen denbora erabiltzen da egokitze-aldagai gisa.

**Gastu sozialen murrizketek eta zerbitzu publikoen pribatizazioak** bizitzaren prekaritatea areagotzen dute. Pribatizazioaren (batez ere osasunarena), pentsioak

215 REMTE (2015) Las mujeres contra el libre comercio, una historia de resistencia y lucha. Kapitulua; ALCA: resistencias feministas y claves de integración alternativa.

216 (2016) Una crítica desde la economía feminista a la salida austericida de la crisis. ATLÁNTICAS- Revista Internacional de Estudios Feministas

erasotzearen eta adinekoak txirotzearen ondorioz, gero eta gehiago behar dira zaintzak, familietako emakumeek asetzen dituzten horiek, eta ondorioz bizirik irauteko beharrezko erronkak biderkatzen dira. Kontuan hartu behar dugu une historiko honen muturreko indarkeria: Latinoamerikako drogen aurkako gerra txiroen aurkako gerra dela, gainezka doazen ontzi arriskutsuetan hildako migrazioaile eta errefuxiatuak, pertsonen trafikoa eta sexu-esplotazioa, LGTB pertsonen aurkako indarkeria eta feminizidioak. Rita Segatok esan bezala<sup>217</sup>, lurraldeetako **indarkeriak eta kontrol militarizatuak** jendea bakartzen dute, loturak hausten dituzte eta emakumei, indibidualki, zama gehiago ezartzen diete beren senideek biziraun dezaten.

Kapitalak bizi-baldintzei egiten dien erasoan pertsona txiroak bereziki zaurgarriak dira, eta ondorioz, gero eta jende gehiago txirotzen da edo txirotze arriskuan bizi da, nahiz eta enplegua izan, prekaritatea, malgutasuna, aldizkakotasuna eta abar direla eta. **Leku askotako zifrek —eta zenbakiez harago, pertsonen esperientziak— agerian uzten dute txirotasunari aurre egiteko txirotasuna bera existitzeko, areagotzeko eta sakontzeko arrazoiei ere aurre egin behar zaiela.** Gainera, Latinoamerikako esperientziak bereziki ongi erakusten digute ezin zaiola txirotasunari aurre egin desparekotasun orokorrari (eta zehatzago, genero desparekotasunari) aurre egin gabe; halaber, ezingo dugu txirotasuna suntsitu etekin monetarioari soilik eskaintzen badiogu arreta.

Oxfamek sistematizatutako datuek<sup>218</sup> munduan zehar txirotasunaren eta desparekotasunaren artean dagoen harremana frogatzen dute, honako datuen bidez:

- 2015ean, pertsona aberatsenen %1en aberastasunak gainditu egiten zuen beste %99ren aberastasuna.
- Gaur egun, zortzi gizonek daukate 3.600 miloi pertsonak (munduko herri-tarren erdia, txiroenak) daukaten aberastasun kopuru bera.
- Pertsona txiro gehienak emakumeak dira; NBEren arabera, %70 izatera ere iristen dira.

El Salvadorren, jabekuntza bidegabearen bidez 160 pertsonak daukate herrialdeko BPGaren arabera aberastasunaren %87<sup>219</sup>. Aldiz, EAEn, txirotasun erreala

217 (2016) La guerra contra las mujeres. Madrid: Traficantes de sueños.

218 Adibidez, La economía del 1% (2016) edo Cinco datos escandalosos sobre la desigualdad extrema global lanetan, hemen eskuragarri: <https://www.oxfam.org/es/iguales/cinco-datos-escandalosos-sobre-la-desigualdad-extrema-global>

219 OXFAM (2015) 160 millonarios en El Salvador acumulan riqueza equivalente al 87% de la producción nacional: <https://www.oxfam.org/es/sala-de-prensa/notas-de-prensa/2015-05-19/160-millonarios-en-el-salvador-acumulan-riqueza>

—baita txirotasun arriskua ere— areagotu egin zen, eta herritarren %5,9ri eragitera iritsi zen; emakumeak funtsezko pertsonak diren etxeetan, aldiz, handiagoa zen (10,3%)<sup>220</sup>.

Gero eta gizarte gehiagotan **txirotasuna zabaldu eta egiturazkoa bilakatzen da aberastasuna esku gutxitan oso bizkor pilatzen** delako, austeritate-politiken ondorioz zerbitzu publikoak murrizten direlako eta zerbitzu horiek pribatizatzen direlako. Horrek ere ondorio larriagoak ditu emakumeen bizitzetan.

**EAEko kasua** Argilan-ESKren bidez aurkeztu da herri auzitegian, eta aipatutako testuinguruan kokatzen da txirotasuna ezabatzeko politiken atzerakada salatuta. Zehatzago, kasu horrek erakutsi egiten digu nola murriztu eta oztopatzen den diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzeko eskubidea. Kasuak dokumentazio zabala eta zehatza dauka. 2013tik DSBEa jasotzen zuen Nereak, eta eskubide hori zalantzan jarri eta kendu egin zioten. Horrela, Nerearen egoera zehatzetik abiatuta, politika horren mugak azaleratzen dira; bereziki 2011tik aurrerakoak, orduan zorroztu baitzituzten eskubide hori erabiltzeko baldintzak. Txirotasuna ezabatzeko politikaren oinarrian dauden baldintzek eta kontraprestazioek ere definitzen dituzte eskubide horren mugak. Zentzu horretan nabarmentzekoa da politika horrek enplegua aktibatzeke egiten duen apustua, ez baitu kontuan hartzen lan-merkatuaren errealitatea. Nerearen kasuaren bidez pertsona txiroen bizitzak kontrolatzeko moduak nabarmentzen dira batez ere, baita pairatu behar dituzten zenbait egoera umiliagarri ere. Gainera, kontrol-egitura hori mantentzeko, baliabide publiko asko behar dira. Lanbide da prestazio-mota hori kudeatzeko ardura duen agentzia, eta hain zuzen, askotan jarri izan da zalantzan eta salatu izan da funtzionatzeko duen modua; Euskadiko Herriaren Defendatzailearen (Ararteko) arabera, defendatzailea aktibatzen duen salaketa ohikoenetakoa da<sup>221</sup>.

EAEko eta Latinoamerikako txirotasunaren errealitatea oso ezberdina izan arren, badaude konbergentzia puntu batzuk, **eta politika jakin batzuek lagundu dezakete kasu honen konplexutasun sistemikoa ulertzen**.

Konbergentzia puntu horietako bat da txirotasuna egiturazkoa dela, baita EAEn ere. Eta txirotasunaren mapan gehienak emakumeak dira, bereziki ama bakarreko

220 Desazkunde eta Bizitze Ona Sarea (2016), Euskal Herritik kolektibotasunean eraikiz:<https://www.decrecimientoy-buenavivir.info/wp-content/uploads/sites/4/2016/06/4-ekonomia-eus.pdf>

221 ARARTEKO, Eusko Legebiltzarrarentzako Urteko Txostena (2014): [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_3640\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3640_1.pdf)

familien ardura dutenen kasuan haurrak zaindu behar dituztelako, eta ez dute zaintza-politika publikoen laguntzarik.

**Latinoamerikako herrialdeetan**, esperientzia positibo zein zalantzaszkoenek ere muturreko txirotasuna ezabatzean daukate (edo zeukaten) fokua. Txirotasuna ezabatu beharrean “arindu” nahi duten politikari buruzko eztabaida feministak tarte batez gogora ekarrita, nabarmentzekoa da emakumeak txirotasuna kudeatzeko “instrumentalizatu” zirela 80ko urteetatik aurrera. Horretarako “ahalduntze” bezalako terminoak erabili ziren; halako terminoen atzean emakume txirotasun diziplinatzeko eta beren jokabidea kontrolatzeko ideiak ezkututzen ziren. 2000ko urteetan politika sozialak sakon aldatu ziren, diru-sarreraren bidezko programak batez ere. Hala ere, zenbait elementuk —familiarismoa, laguntzak jasotzeko baldintzak eta emakumeen ama zaintzailearen rola indartzea— tinko iraun dute. Esaterako, Brasilen, Bolsa Familia programaren aldaketa nagusia programaren irismena zabaltzea eta diru-sarrera erregularrak lortzea bermatzea izan ziren<sup>222</sup>. Bertako esperientziatik ikasi dezakegu halako programa batek ez duela txirotasunaren egiturazko arazoa konpontzen, baina eztabaida indartu dezake halako politikak eskubideak areagotzeko baliatu beharraren inguruan.

Latinoamerikako diru-sarreraren bidezko baldintzapeko programei egindako kritika feministen artean, nabarmentzekoa da honako hau<sup>223</sup>: baldintzek arduradun sentiarazten dituzte eta zama ezartzen diete diru-sarrerak jasotzen dituzten emakumei, eta aldi berean ama-rola indartzen da; programak diseinatzean oinarri gisa hartzen da ekonomiaren ikuspegi nagusia, zeinaren arabera diru-sarrera txiki bat eskuratuta jokabide indibidual bat zuzendu daitekeen txirotasuna gaintzeko. Hori guztia, zalantzan jarri gabe egiturazko kausak eta jarrera indibidualen bidez erabakitzen ez diren harreman ekonomikoak.

Nerearen kasuaren ezaugarri zehatzei erreparatuta, proposatutako eztabaidarako elementu garrantzitsu bat topatuko dugu, neoliberalismoaren egungo fasean estatuak eta erakunde publikoek duten rolari buruzkoa: Kasuaren deskripzioak gobernuaren joera politikoa azaleratzen du, zeinak helburu duen “DSBE eta EPO laguntzak jasotzeko eskubide subjektiboak ahultzea”, eta kudeaketa-logika –kudeaketa txarrarena, alegia– erabiltzen da horretarako. Clarisse Paradis-ek neoliberalismoaren testuinguruan politikak egunerokoan gidatzeko moduen aldaketei buruz hausnartzen du, eta honakoa adierazten du: “gero eta gehiago hautematen

222 Ikus: Leão Rego, Alessandro. Pinzani, Michel. (2013) *Voices do Bolsa Família: autonomia, dinheiro e cidadania*. São Paulo: Editora da Unesp

223 Hona eztabaida horretarako erreferentzia egoki bat: Rodríguez, Corina (2011) *Programas de transferencias condicionadas de ingreso e igualdad de género ¿Por dónde anda América Latina?*.

da politika eremu itxi, isolatu eta gurutziltzatu baten gisan; ikuspegi horrek praktika jakin batzuk sustatzen ditu, puruak, arrazionalak eta inpartzialak direlakoan, nagusiki ikuspegi neoliberalak sustatuak eta enpresa-logikaren bidez adierazten direnak. Ondorioz, gobernuaren praktika baliabide mugatuaren kudeaketa (nahita) eraginkorrera mugatzen da”.<sup>224</sup>

Ustez mugatuak diren baliabideen atzetik, maiz ezkututzen dena nabarmendu behar da; neoliberalismoak etengabeko lehia inposatzen du baliabideak —natura, denborak, zein baliabide monetarioak— lortzeko. Baliabide monetarioei dago-kienez, finantza-sektoreak interes-tasak lortzeko lehiatzen dira, eta jendearen eta herrialdeen zorrek etekina ateratzen dute; agronegozioaren sektorea eta erauzketa-industria lurraldeengatik lehiatzen dira, lurrez jabetuz eta bertako jendea kanporatuz; farmazia, aisialdi eta teknologia industriak ezagutzarengatik lehiatzen dira, eta patenteak zein jabetza-logikak inposatzen dituzte logika kolektiboaren aurrean; gerraren eta “segurtasunaren” industriak estatuaren baliabideengatik lehiatzen dira, errepresioa, kriminalizazioa eta lurralde zein mugen kontrola inposatuta. Sektore korporatiboek eta botere politikoan dituzten ordezkariak lehia hori antolatzen dute herrien eskubideen eta burujabetzaren aurka. Halaber, lehia hori elementu komuna da EAEko zein El Salvadorreko kasuetan. Gainera, hortik abiatuta, nabarmenagoa da bizi-maila duin bat izateko eskubidearen ardatzeko bi kasuek auzitegi honetan aztertutako gainerako ardatzekin (lurralde eta elikadura-burujabetza eta energia-burujabetza) duten lotura.

EAEko kasuan azpimarratzea dagokigun beste elementu bat da, hain zuzen ere, Nerearen DSBEa etetea justifikatzeko Lanbidek legez kanpoko interpretazioak baliatzen dituela, eta bereziki, argudiatzen duela Nereak iruzur egin zuela ezkutatu egin zituelako kontu-korrontean zituen aurrezkien bestelako iturriak. Nereak bere buruaren defentsan idatzitako testua —argudio juridiko batez eta bestelako frogez lagundutakoa— eredugarria da, eta bikain bideratzen du kasu honetan joan dagoen lehia orokorragoari buruzko hausnarketa: “(...) *Ia-ia ez genuen elikagai gasturik izan lehenago esandakoagatik, eta baita ere batzuetan nire gurasoenen jaten genuelako edo janaria taperretan eramaten genuelako. Jasota utzi nahiko nuke, berriz ere, arropa gastu oso gutxi izan genituela. Helduok doan edo truke bidez lortutako arropekin janzten ginen eta oraindik ere hala egiten dugu, horretarako propio diren taldeen edo sare sozialen bidez, eta gainera aski dugu gauza gutxiarekin. Eta haurraren kasuan, zortea daukat lagunek nirea baino seme zabarragoak dituztelako, eta behar dudana eta gehiago ematen didatelako. Eta semearentzako jantziak horrela lortzeaz gain, arropak eta oinetakoak ere sare sozialen bidez, San Felicísimo parrokian*

224 La resistencia feminista contra el libre comercio y la lucha por la autonomía sobre el cuerpo, trabajo y territorio (2017).

*eta aipatutako Maternity proiektuaren bidez ere lortzen nituen. Trukea aipatu dudala aprobezkatuta, adierazi nahiko nuke hori dela gure bizi-estiloa aspalditik, beharrezko edozer gauza lortzeko, orokorrean, izan etxerako edo guretzako. Horregatik, antikontsumistak garelako eta lehen aukera gisa gauzak gure kabuz egiten saiatzen garelako (zerbait konpondu, ilea moztu, etab.), beste pertsonen baino gastu txikiagoarekin irauten dugu. Halaber, oso kontziente ginen ere DSBEa jasotzen dutenek asko aurrezten dutela botikak erostean eta Bilbobus erabiltzean, eta bi abantailez gozatu genuen nabiz eta gure garraio bide nagusia doakoa den: bizikleta. Helburu argi batekin aurrezten dugu guk, bereziki guraso garenetik: diru-kopuru jakin bat izatea ezustekoren bat gertatuko balitz, eta gure bizimoduari esker DSBEaren zati bat aurreztea lortzen genuen”.*

Horrela, argi geratzen da politika publikoak gaizki kudeatzearen bidez inposatutako kontrola eta diziiplina saiakera gailentzen direla pertsonen autonomiaren gainetik. Ondorioz, kontsumoan eta gastu monetarioetan oinarritutako bizimodua inposatzen da, eta ez interdependentzia, elkartasuna eta elkarrekikotasuna oinarri dituen bizimodua, pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia garatzeko ezinbesteko elementuak. Hain zuzen ere, horregatik botatzen dio hain erronka zuzena merkaturak ardatz duen ekonomiari. DSBEa ukatzen duen diskurtsoak oinarri bakarra du: ekonomiaren ikuspegi normatiboa. Ikuspegi horrek ekonomia murrizten du monetizatuta eta merkatuaren baitan dagoen horretara; hain zuzen, ekonomia feministak teorian eta praktikan aspalditik kritikatzeko hori. Kasu honetan jokoan dago, batetik, Nerearen eskubidea, eta bestetik, antolamendu ekonomiko eta sozialaren zentzua; horrek guztiak, halaber, ondorio ekonomiko, antropologiko eta kulturalak dauzka.

Ondorio politikoetako bat nabarmendu nahiko genuke, herritarrek dagozkien eskubideak aldarrikatzeko moduari buruzkoa. Izan ere, herritarrek indibidualki jarri behar dute salaketa; Rosaren kasuan enpresa baten aurka, eta Nerearen kasuan erakunde publiko baten aurka. Nerearen kasuan, orain arte ez dugu jakin judizializatu egin den, baina hala gerta liteke. Beste behin ere, zalantzan jarri behar dugu, batetik, estatuak daukan izaera publikoa eta eskubideak bermatzekoa, eta bestetik, pertsonen euren eskubideak bermatu ahal izateko indibidualki ezartzen zaien gaitasuna eta exigentzia-logika indartzea.

## 2. ESKUBIDE-URRAKETA

Aztertutako bi kasuak herritarren eskubide-urraketa nabarmenak jasotzen dituzte, eta neoliberalismoaren egungo faseko urraketei buruz ikuspegi zabala eskaintzen digute. Jarraian kasu bakoitzarekin lotutako eskubide-urraketak azalduko



ditugu, eta horrez gain justizia eraginkorra eskuratzeko oztupoak nabarmendu nahiko genituzke.

## **Eskubide-uraketak El Salvadorreko etxetiko langileen kasuan**

Aurreko atalean aipatu bezala, El Salvadorreko eskubide-uraketetako bat da etxetik lan egiten duten brodatzaileen lana ez aitortzea. Lana ematen dieten enpresei lotutako langileak dira, baina inork ez die harreman hori aitortzen, nahiz eta enpresentzako brodatzen duten, enpresek ordaintzen dieten eta enpresek jazartzen dituzten. Urraketa horien erantzuleak enpresak dira —nazionalak eta haiekin elkarlanean dabiltzan transnazionalak—, baina baita estatua ere, ez baitu ezer egiten eta ez baitu lan mota hau fiskalizatzen, lantokiak ikuskatzeari uko eginda.

Kasuaren aurkezpenean honakoa azaltzen da:

*“langileak eta enpresak lotzen dituzten lan-ikuskapenak egiten ez direnez, enpresek lan-erantzukizuna saihesten dute eta langileei eskubideak ukatzen dizkiete, edo al-dizkako langileak direla adierazten dute; ondorioz, justizia eskuratzeko ezinezkoa da”.*

Horrela, El Salvadorreko Estatuak agertzen duen jarrera nabarmendu nahi dugu, enpresek gauzatzen dituzten eskubide-uraketen aurrean ezikusiarrena egiten baitu. Hortaz, geure buruari galdetu behar diogu zein marko legal eta tresna dituen estatuak kasu hauei erantzuteko.

Kontuan hartuta ehungintza sektoreko transnazionalak etxetiko lanaz asko baliatzen direla, LANEren etxetiko lanari buruzko hitzarmenera jo dugu, aztertzeke zer den eta nola bermatu ahalko lirartekeen langile hauen lan-eskubideak.

LANEren 177 Hitzarmena, etxetiko lanari buruzkoa, 1996an hartu zen eta 2000an sartu zen indarrean.

Hitzarmen horrek honela definitzen du etxetiko lana: “pertsona batek egiten duen lana: I. bere etxean edo enplegatailearen lantokia ez den hautazko beste toki batean; II. ordainsari baten truke; III. enplegatailearen azalpeni jarraituta produktu bat egiteko edo zerbitzu bat eskaintzeko, horretarako ekipoa, materiala edo bestelako elementuak nork eskaintzen dituen gorabehera”.

Halaber, definizioaren arabera “enplegatailea pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke, zeinak modu zuzenean edo bitartekari baten bidez, eta lege nazionaletan figura hori existitu edo ez, etxean egiteko lana eskaintzen duena beren enpresaren bidez”.

Halaber, hitzarmena berresten duten estatu-kideen betebeharrak definitzen ditu, eta batez ere, etxetiko lanari buruzko politika nazional bat ezartzeko betebeharra. Puntu horretan, nabarmendu nahi dugu El Salvadorrek ez duela hitzarmena berretsi, ezta estatu-kide gehienek ere, bereziki lan mota hau nabarmen esplotatzen duten estatuek. Esaterako, Latinoamerikan soilik Argentinak berretsi du hitzarmena; mundu osoan soilik 10 estatuk berretsi dute<sup>225</sup>.

Hitzarmenak etxetiko langileentzat bermatzen dituen eskubideen artetik, Rosak honako eskubide-urraketak pairatu zituen, Mujeres Transformando erakundeak etxetiko langileekin egindako ikerketak adierazi bezala:

- a) *antolakunde bat eratzeko edo antolakunde baten kide izateko eskubidea, lanean segurtasuna eta osasuna bermatuta izatekoa, ordainsaria jasotzekoa, gizarte segurantzia izatekoa, lan egiteko gutxieneko adina izatea, eta bazterkeria eta amatasun goeretan babesa izatekoa.*
- b) *Neurriak hartzea, lan-estatistiketan etxetiko lana kontuan har dadin. Horrela, sektore honetako pertsonen arazo nagusienetakoa, ikusezintasuna, gaudituko litzateke.*
- c) *Etxetiko lanari aplikatu dakioken legeak betetzen direla bermatzea ikuska-pen-sistema baten bidez, eta lege horiek urratzen diren kasuetan zigorrak ezartzea eta aplikatzea.*<sup>226</sup>

Maila nazionalean, hutsune bat dago Konstituzioan idatzita dagoen horren arautzean; adibidez, lan-eskubide guztiak izan beharko lituzketela, barne hartuta askatasun sindikalak, laneko osasuna eta segurtasuna, prestazio sozialak, ofizialki ezarritako gutxieneko soldata; Lan Ministerioak abiarazten eta laneko kodeak agintzen duena, alegia.

Horrela, etxetiko brodatzaileak kontratatzen dituzten enpresak, El Salvadorreko Estatuarekin batera, bertako legeek ezarritako eskubide hauek urratzearen erantzuleak dira:

- a) ez dute etxetiko langileekiko lan-harremanik aitortzen: lan-modalitate hori ez dago Lan Ministerioan erregistratuta, eta horrek etxetiko lana arautzen duen legea urratzen du. Halaber, lege horrek ezartzen du etxetiko langileak Ministerioak berak baimendutako liburu batean erregistratu behar direla. Ondorioz, etxetiko brodatzaileak ez dira enpresaren langile iraunkortzat hartzen;

225 Hitzarmenaren eta berretsi dutenen testua eskuragarri hemen: [http://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=1000:11300:0::NO:11300:P11300\\_INSTRUMENT\\_ID:312322](http://www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=1000:11300:0::NO:11300:P11300_INSTRUMENT_ID:312322)

226 MUJERES TRANSFORMANDO (2013) Haciendo visible lo invisible: la realidad de las bordadoras a domicilio.

- b) beren soldata El Salvadorreko legeak arautzen duena baino askoz ere baxuagoa da. Gutxieneko soldatari dagokionez, nabarmendu nahi dugu El Salvadorren hiruko batzorde batean negoziatzen dela, erreferentziatzen hartuta familia batek bizitzeko beharko lukeen gutxieneko kostua. Horrela, *maquilaren* sektorean adibidez, gutxieneko soldata 221,44 dolarrekoa da; nekazaritza-sektorean, aldiz, 124,11 dolarrekoa. Etxetiko lanagatik, brodatzaileek 56,00 dolar inguru irabazten dituzte hilero<sup>227</sup>.

Gogoan izan behar dugu senideak zaintzen dituzten emakumeak direla brodatzaile gehienak, pieza bat brodatzeko 12 eta 14 ordu artean behar dituztela eta gainera, entrega atzeratzekotan, soldata murrizten dietela.

Zehatzago, auzitegiak epaitu behar duen kasuan, lanari borondatez uko egiteko eskubidea urratu dela azpimarratu nahi dugu. El Salvadorren eskubide horren araberako lana borondatez utzi daiteke eta lan egindako denborarengatik nolabaiteko kalte-ordaina jaso daiteke. Hain zuzen, etxetiko langileak saiatzeko ari dira eskubide hori eraginkorra izan dadin El Salvadorren. Aipatutako eskubidea gauzatzeko tramitea Lan Ministerioaren bulego batean abiatu behar da. Rosa bulegora joan zen lana uzteko asmoz, eta bere erabakia enplegatzaileari adierazi zioten; azken honek onartu eta kalteak ordaindu behar zizkion Rosari. Aitzitik, enplegatzaileak notifikazioa sinatzeari eta erantzuteari uko egin zion.

Prozedura administratiboa —Lan eta Gizarte-aurreikuspen Ministerioaren ardurara— ez zen konpondu enplegatzaileak bere erantzukizuna onartu ez zuelako eta lan-prestazioak ordaindu ez zituelako. Hori dela eta, langileak prozedura judizial bat abiatu behar izan zuen enplegatzailearen salatze eta etxetiko langile gisa 9 urtez enpresa berdinentzat lan egiteagatik kalte-ordainak eskatzeko. Halaber, eskatu zuen lan-prestazioak ere ordaintzeko, hala nola oporrak, gabonsari osoa eta gabonsari proportzionala.

## **Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko eskubide subjektiboa urratzea**

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubide subjektiboa da EAEn. Prestazio publikoa da, eta administrazio publikoak bermatu behar du legeak ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen diren unetik. Auzitegian aztertutako kasuan Lanbidek ilegalki eten zuen eskubide hori, Nereak baldintzak betetzen zituela frogatzeko beharrezko gutzia aurkeztu ondoren.

227 Ikus (2017) <http://www.elsalvadormpais.com/salario-minimo-en-el-salvador>

Kasuaren dokumentazioaren arabera, 2016an Lanbidek 135.409 kasu ikuskatu zituen; horietako 23.544 eten zituen eta 3.957 iraungituta zeuden, %20 inguru. Datu horiek ikusita, esan dezakegu eskubide hori murrizteko prozesu nabarmena dagoela martxan, eta horrek are gehiago urratzen eta prekarizatzen dituela eskubide hori eskuratu ezin duen jendearen bizi-baldintzak, txirotasunera bultzatuta. Hortaz, Lanbideren egungo kudeaketa murrizteko asmo politikoa dago; 2016ko ikuskapenetan eten ziren kasuetatik %0,3 daude iruzurrarekin lotuta.

Kasu horri lotutako eskubide-urraketak asko dira. Kolektibo sozialek<sup>228</sup> egindako “Lanbideren jardute okerren kodea” delakoan hainbat arazori heltzen diete: Lanbideri egindako eskaeren gehiegizko denbora, edota pertsonen bizitza pribatua sartzeari, oinarritzat hartuta bizitzaren, familien eta harremanen antolara heteroarautua eta patriarkala.

Nerearen kasuan Lanbidek iruzur-presuntzioa praktikatzen duela ikus dezakegu, eta gutxieneko susmoaren aurrean DSBEa etetea erabakitzen duela. Gauza bera gertatzen da baldintzak betetzen dituela frogatzen duten dokumentuak aurkezten dituenean.

Goazen DSBEa eteteke prozesuaren urratsak aztertzea. Nereak eskaera bat jaso zuen DSBEa jasotzeko baldintzei buruzko dokumentazioa aurkezteko. Ondorioz, eta epearen barruan, kontu-korrontearen mugimenduen froga aurkeztu zuen, hileroko gastu eta diru-sarrerak zekartzanak, eta horrekin batera aurkeztu zuen bere kide brasildarrak jatorrizko herrialdean ondasunik ez zuela frogatzen zuen zinpeko deklarazioa ere. Handik eta oso denbora gutxira Lanbidek eskubidea ukatzea erabaki zuela jakinarazi zioten, lehenbiziko komunikazioan adierazitako argudio berdinak oinarri hartuta. Hau da, Lanbidek argudiatu zuen Nereak ez zituela baldintzak betetzen kide brasildarrak aurkeztutako ziurtagiria ontzat hartu ez zutelako; ez zituelako ezohiko diru-sarrerak deklaritzen, besteak beste senideengandik jasotakoak; eta iruzurrezko jarrera erlatiboan zuelako senideengandik eta bestelako iturrietatik jasotako dirua ezkutatzegatik.

Dokumentuak eta frogagiriak arretaz aztertuta, argi geratzen da Lanbidek eskubidea eteteke asmoa duela interpretazio subjektibo eta ilegalean oinarrituta. Izan ere, Nereak baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu, eta horrez gain senideengandik jasotako diru-kopuru txikiak ere justifikatu ditu, Gabonetakoak adibidez. Gainera, egungo informatizazio garaian Lanbidek informazioa jaso beharko luke jasotako bestelako prestazioei buruz; Nerearen kasuan, GLL (gi-

228 Argilan-ESK, Argitan (Emakumeentzako Aholku Etxea), Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarte, Baietz Basauri!, Berrri-Otxoak (Barakaldo), Brujas y Diversas, Danok Lan (Galdakao), Elkartzen, Mujeres del Mundo, La Posada de los Abrazos/Besarkatuz, SOS Arrazakeria, PAH Bizkaia-Kaleratzerik EZ!

zarte larrialdietarako laguntza), semea jaio zenean jaso zuena. Une honetan oraindik ez dakigu Nereak jarritako errekurtoari erantzun dion Lanbidek. Antza, epe barruan erantzungo ez balu gatazka hau beste instantzia batera pasako litzateke, administratibotik judizialera.

Nerearen kontu-korronteetan eta bizitzan muturra sartzeaz gain, oso larria da iruzur egiteaz akusatu izana. Eskubide honen urraketari buruzko kasu zehatz hau zuzenean lotzen dugu orokorragoa den prestazioak jasotzeko eskubidearen murriketarekin. Horren bidez, iruzurren erantzule egiten dituzte batez ere migratzaileak, eta horrela mugatu egiten dituzte berमतuta egon beharko liratekeen eskubideak. Horrez gain, txirotasuna kriminalizatzen da.

### **Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna<sup>229</sup>**

Aztertutako bi kasuetan urratu egiten dira Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunean jasotako eskubideak, El Salvadorrek eta Espainiak sinatutako ituna izan arren. Itun hau (aurrerantzean ICESCR ituna, jatorrizko ingelesezko siglengatik) 1996an onartu zuen Nazio Batuen Batzar Orokorrak, indarrean sartu zen 1976an eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunaren parte da, Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunarekin eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin batera.

Azertutako kasuetan ICESCR ituneko zenbait artikulua urratu dira. Batzuk aipatzearren:

6. artikulua, 1. paragrafoa:

“Itun honen parte diren estatuek lan egiteko eskubidea aitortzen dute, hori ulertuta pertsona orok duen eskubide gisa bizibidea irabazteko askatasunez hautatu edo onartu duen lan baten bidez, eta neurriak hartuko dira eskubide hori bermatzeko”.

Askatasunez hautatua dela zalantzan jartzen dugu; izan ere, El Salvadorreko kasuan esan bezala, ez dago beste lan-aukerarik. Emakumeak lan hori onartzera behartuta daude, familiaren sostengua beraien mende baitago.

7. artikuluko “d” atala:

“Atsedena, aisialdi denboraz gozatzea, lanorduak zentzuz murriztea, eta aldizkako oporrak ordaintzea, baita jai-egunak ordaintzea ere”.

---

229 Nazio Batuak. Ikusi hemen: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CESCR.aspx>

14 ordura arte luzatu daitezkeen lanaldi luzeei gehitzen badiogu etxeko lanaren eta zaintza-lanaren erantzukizuna, baldintzatuta dago aisialdia eta atsedenez gozatzea, eta are lo egiteko denbora ere. Gainera, ez dizkiete aitortzen aparteko orduak, eta atsedena ez diete ordaintzen. Ekoizteko lan egiten dute.

9. artikulua:

“Itun honen parte diren estatuek aitortzen dute pertsona orok duela gizarte segurantzaren izateko eskubidea, baita gizarte-asegurua izateko eskubidea ere”.

Eskubide hori ez da betetzen etxetiko langileen kasuan, ez baitituzte berमतuta prestazio sozialak, hala nola pentsio-funtsak (Administradoras de Fondos de Pensiones, AFP) edo gizarte-aseguruak (Instituto Salvadoreño del Seguro Social, ISSS).

ICESCR itunaren 11. artikulua urratu egiten da EAEko kasuan, honakoa adierazten baitu:

“Itun hau berretsi duten estatuek aitortzen dute pertsona orok eskubidea duela norberarentzako eta bere familiarentzako bizi-maila egokia izateko, barne hartuta elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak, eta bizi-baldintzen hobekuntza jarraitua”.

Nerearen kasuan urratu egiten da hori. Izan ere, DSBEa jasotzeko eskubidea ukatzeaz gain, feminismoak aspaldi sustatu eta aldarrikatu duen eskubidea ere urratzen da, hau da, emakumeek nola bizi nahi duten erabakitzeko autonomia izateko eskubidea, eta erabaki horiek praktikara eramateko baldintzak izateko eskubidea.

Zentzu horretan, indartsuagoa da autonomia ekonomikoaren definizioa ahalduntze ekonomikoarena baino, nahiz eta azken hori erabili izan den maila nazionalen eta nazioartean. Izan ere, ahalduntzeko ekonomikoak, maiz, aldarrikapen hori alderdi monetariora murrizten du, eta ekonomia-eredu nagusiaren ikuspegi okerra erreproduzitzen du. Gainera, alderdi indibidual gisa erakusten du.

Autonomia ekonomikoa<sup>230</sup>, aldiz, independentzia finantzarioa baino gehiago da: emakumeei beraientzako eta beraien mende daudenezako mantenua lortzeko gaitasuna ematen die, eta horrek barne hartzen du gizarte segurantzaren eduki eta zerbitzu publikoak erabili ahal izatea. Egunerokoa biziaren sostengatzeko erantzukizun eta behar guztiak barne hartzen ditu, eta ondorioz barne hartzen du ere emakumeek beren denbora antolatzeke bermea, beraientzako, politikan parte hartzeko

---

230 Sempreviva Organização Feminista. Ikus: [http://www.sof.org.br/publica/MMM\\_Internacional\\_autonomia\\_economica.pdf](http://www.sof.org.br/publica/MMM_Internacional_autonomia_economica.pdf)

eta aisialdirako denbora izan dezaten. Borroka feministetatik, emakumeentzako autonomia pertsonal eta ekonomikoaren alderdiak artikulatzen dira.

Autonomia ekonomikoaren definizio horren arabera, Rosak eta Nereak eskubide horren urraketa pairatu zuten.

Rosaren kasuak eskubide politikoen urraketa azaleratzen du, etxetiko langileen antolakuntza kolektiboaren oztopoari lotuta. Beste behin ere, ekoizpen-kate globalen muturretan orokortzen da errealitate hori, batez ere. NSKren ikerketa baten arabera, herrialdeen %58k laneko legeriatik kanpo uzten ditu langile kategoria jakin batzuk; herrialdeen %70etan greba-eskubiderik gabeko langileak daude; herrialdeen %60k negoziazio kolektiboa mugatu edo ukatzen die langileei; herrialdeen %52k zuzenbide-estatua eskuratzeko eskubidea ukatzen die langileei<sup>231</sup>. Bi kasuak antolakuntza eta mobilizazio politikoen inguruan hausnartzera gonbidatzen gaituzte, egungo ereduaren logika indibidualizatzaileari aurre eginez baina, langile borroken betiko ereduak gaituzte. Izan ere, betiko ereduak emakume langileak nabarmen baztertzen dituzte borroken subjektu gisa, eta lortutako eskubideen onuraduntzat hartzen dituzte. Hortaz, aldarrikapenen helburua zabaldu behar dugu, indarrean dagoen ereduaren azpijokoetan ez erortzeko eta aurrera begiratzeko, bestelako oinarri, printzipio eta harremanak oinarri dituzten gizarteak eraikitzeko..

## **Bizitza judizializatzea / Justizia norentzat?**

Oraindik ez dakigu Nerearen kasua judizializatu den ala ez, Lanbideko zuzendariaren erantzunaren zain gaude.

El Salvadorreko Rosaren kasuan, lanari borondatez uko egiteko eskubidea eragin-kor bihurtzeko prozesua botere exekutiboan abiatu zen —Lan Ministerioan—, justizia arloraino heldu zen eta epaitegiaren ebazpena aurkakoa izan zen. Gainera, hala gertatu zen ministerioak berak ez zuelako dagokion rol fiskalizatzailea bete. El Salvadorren etxetiko langile askoren kasuak judizializatu dira, baina epaiketen ebazpenak ez dira haien aldekoak izan.

Bi kasuak alderatuta, paradoxa bati erreparatu diogu. Rosaren kasuan, enpresak ez zion erantzun ere egin Lan Ministerioak bidalitako jakinarazpenari Rosak lanari uko egiteko eskubidea erabili nahi izan zuenean. Aldiz, Nerearen kasuan, Nereak berak berehala erantzun behar izan zien administrazio publikoaren eskaerei, diru-laguntza jasotzeko eskubidea eteteko arriskua zegoelako, eta halaxe gertatu

231 Datuak eskuragarri: Nazioarteko Sindikatu Konfederazioan (2016) Escándalo en las cadenas mundiales de suministro de 50 grandes empresas. Nuevos Frentes txostena.

zen gero, hain zuzen ere. Oso kasu ezberdinak izan arren, biek agerian uzten dute botere judizialaren egungo joera, jendearen eskubideek enpresen jabetzak baino gutxiago balio duten garaiotan.

Rosak eta Nereak baldintzak betetzen dituzte epeei eta betebeharreri dagokienez, eta indibidualki borrokatu behar dute estatuaren aurka legetan idatzita dauden eskubideak erabili ahal izateko. Badakite ere epeak eta burokrazia prozesuak bete ezean asko dutela galtzeko. Bestalde, enpresek ez dituzte eskaera horiek betetzen, ez dute azalpenik ematen eta ez dute ezer galtzen.

Batetik, jendea kriminalizatzen dute eta iruzur egiteaz akusatzen dute, Nerearekin gertatu bezala. Bestetik, korporazioek eta elite boteretsuek inpunitatea daukate beren praktikak gauzatzeko, maiz frogatutako iruzurrak barne, ustelkeria eta zergak saihestea adibidez.

Galdera honakoa da: noren eskubideak bermatzen dituzte gure justizia sistemek? Auzitegian aztertutako kasuak ikusita, ez dira jendearen eskubideak bermatzen. Soberan dagoen gauza bakarra betebeharrak, epeak, baldintzak, lana eta jazarpena dira.

Arazo hori maila nazionalen zein nazioartean ikus daiteke.

Eskubideak sustatzeko nazioarteko tresnei erreparatuta —aipatutako ICESCR ituna barne— herrialde gehienek sinatzen dituzten arren, tresna boluntarioak dira. Hau da, aholkuak eta betebeharrak jasotzen dituzte, baina estatuak ez dute konturik argitu behar eskubideak modu eraginkorrean bete eta sustatu ezean. ICESCR itunaren kasuan ere, estatu sinatzaileek juridikoki aitortzen dute tresna hori baina gero ez dituzte betetzen hartutako konpromisoak. Bestelakoa da, esaterako, herrialde sinatzaileentzat merkataritza eta inbertsio itunek daukaten indar inposatzailea.

Hori dela eta, Latinoamerikako herrialdeetan eta feminismitik, arazo bihurtzen da nazioarteko zenbait plataforma eta itunen eraginkortasuna. Izan ere, plataforma eta itun horiek emakumeen zenbait eskubide aipatzen dituzte, baina gero ez dira beren herrialdeetan gauzatzen, ekonomia eta politika merkatuaren inguruan antolatzen direlako pertsonen eskubideen eta duintasunaren inguruan antolatu ordez.

Zaila da, halaber, eskubide-urraketak zein neurritan gertatzen diren ezartzea, eta frogatu daitekeenean ere, zaila da zigortzea. Adibidez, 2016an El Salvadorren esklabotasun forma berrientzako Nazio Batuen Errelatore Bereziak adierazpenak egin zituen etxetiko lanari buruz: esklabotasun mota modernoa zela esan zuen, lanaldi luzeak, soldata baxuak, tratu txarrak eta lan-jazarpena zirela-eta. Hala ere, egoera hori ez da zigortu ezta aldatu ere egin.



LANEren 177 Hitzarmenak ere mugak ditu, herrialde gutxik berretsi zutelako. Maila nazionalen zein nazioartean agenda politikoak eraikitzeari begira, ordea, LANEren hitzarmenak indartsuak izan dira, baina ez dira nahikoa izan korporazio handien botereari aurre egiteko, adibidez, ikusi dugun bezala, ekoizpena lan-kostu txikiena dagoen tokira aldatzen denean.

Kontuan hartu behar dugu gaur egun nazioartean izaera loteslea duten hitzarmenak, berez, merkataritza eta inbertsio itunak direla, lege nazionalak oztopatzera ere iristen baitira. Dagoeneko sinatu diren itunez gain (adibidez, El Salvador inplikatzeko duen CAFTA-DR) negoziazio itunen olatu berria dator. Haien bidez, korporazio transnazionalak are botere handiagoa izan nahi dute lanaren, lurraldeen, eta pertsonen bizitzaren gainean.

Egoera hori dela, funtsezkoa da enpresen aurrerakada geldiaraztea eta beren inpunitatearekin akabatzea. Funtsezkoa da ere enpresek betebeharrak izatea, eta tresna eraginkorrak egotea betetzen dituztela bermatzeko. Ondorioz, giza eskubideen aldeko borroka indartzeko, garrantzitsua da ahaleginak batzea eta giza eskubideei eta enpresa transnazionaleri buruzko itun bat onartzea, juridikoki loteslea izango dena eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluan onartuko dena. Proposamen horrek eraginkorra izan nahi du mundu osoko enpresek gauzatutako giza-eskubideen urraketen eta krimenen inpunitateari aurre egiteko.

### 3. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Herri auzitegiaren ondorio eta gomendioen atalera heldu garen honetan, eta Ekonomiaren Berlokalizazioaren ardatzeko bi kasuak kontuan hartuta, gogora ekarriko dugu 1979an Audre Lorde-k adierazitakoa:

*Gu, gizarteak emakume onargarritzat duen horretatik at irmo mantentzen garen horiek; gu, ezberdintasunen arragoan sortu garen horiek, edo bestela esanda, txi-roak, lesbianak, beltzak, zaharrak garenak; guk badakigu bizirik irautea ez dela irakaskai hutsala. Bizirik irauteak esan nahi du irmo mantentzea bakardadean; irmo gaitzespenaren aurrean eta, agian, baita irainean aurrean ere; eta bizirik irauteak esan nahi du sistematik at dauden beste emakumeekin kausa komun bat eratzen ikastea, eta guztiok elkarrekin definitzea eta borrokatzea gu guztiok loratuko garen munduaren alde. Bizirik irautea gure ezberdintasunak onartzen ikastea da, eta hori ahalmenez bilakatzea. Izan ere, nagusiaren tresnak erabiliz ezingo da inoiz nagusiaren etxea eraitsi. Beharbada utziko digute garaipen txikiren bat lortzen, betiere haien jokoaren arauak jarraituta, baina horrek ez digu inoiz balioko egiazko aldatetarako gauzatzeko.*

Jarrera irmoa da hori, baita inspiratzailea ere. Eraiki nahi dugun utopiaren zerumugan puntu bat ezartzen du, eta hortik abiatuta gonbidapena luzatzen digu borroka-estrategia eraldatzailei buruz hausnartzeko.

Bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzen duten bizi-maila duin baterako eskubidearen eta zaintzaren eskubidearen ardatzak, eta baita energia- eta elikadura-burujabetzaren ardatzak ere, egiturazko aldaketak lortzeko zerumugak eta ildoak dira, eraikitzeke eta urratzeke dauden bideak.

Hortik abiatuta, honako gomendioak helarazi nahi dizkiogu auzitegiari:

Kasu zehatzei dagokienez:

1. Salatu ditzala DSBE prestazioa jasotzeko eskubide subjektiboaren aurkako jardunbide politiko eta administratiboak. Izan ere, zentzu globalean, jardun horiek bizitza prekarizatzen, txirotasuna areagotzen eta pertsona txiroak eta migratzaileak kriminalizatzen laguntzen dute.  
Funtsezkoa da salaketa horren bidez ikusaraztea laguntza ukatzen ari zaiela baldintzak betetzen dituzten pertsoneri, eta ukapen horren oinarrian legez kanpoko prozedurak daudela.
2. Legez kanpokotzat har dezala Nereari DSBEa eten izana, eskubide hori berreskuratu dezan, eta ondorioz, etenaldian jasotzea zegokion dirua ere berreskuratu dezan.
3. Honako gomendioak onartzea: i) Eusko Jaurlaritzari, Lanbideren kudaketa-eredua erabat aldatu dezan; ii) Eusko Legebiltzarrari, martxan jarri dezan DSBEaren oraingo legea (18/2008) aldatzeko prozedura legala, prestazio horren helburua izan dadin EAEko txirotasuna erabat ezabatzea; iii) Eusko Legebiltzarrari, EAEn baldintzarik gabeko oinarritzko errenta ezartzeko azterketa abiatu dezan, eta parte hartze zabaleko prozesua izateko konpromisoa hartuta, proposamen hori erreferendum herrikoi baten bidez ebatzi dezan.
4. Argi ikusi dadila txirotasuna ezabatzeko egungo politiken kudeaketaren atzean pertsona txiroak kontrolatzeko eta diziplinatzeko praktika iraunkorrrak daudela, etengabe kontuak eta frogak eskatuz eta haien pribatutasuna bortxatuz.  
Horrez gain, kontrol horren bidez indartu egiten dira bizitzaren jasangarritasuna lortzeko merkatutik at funtzionatzen duten praktika ekonomikoen aurkako erasoak. Hau da, pertsonen arteko mendekotasuna indartzen duten praktikei eraso egiten zaie, elkartasuna, elkarrekikotasuna eta kontsumoa murriztea oinarri duten praktikei, alegia.
5. Kontuan har dezala txiroen kontrolaren eta korporazioen askatasunaren arteko kontraesana, horrela ikusarazteko elkarren artean lotuta daudela, batetik,

txirotasuna areagotzea, eta bestetik, enpresek lan prekarioa gero eta gehiago erabiltzea: horren erakusgai da El Salvadorreko kasua, non argi ikusten den klase, arraza, genero eta herritartasun posizio onuradunak dituzten pertsonen jasan ezin izango lituzketen lan-baldintzak onartzen dituztela emakumeek bereziki.

6. Posizio argia azaldu dezala etxetiko langileen eskubide-urraketa sistematikoei buruz, eta erantzule egin ditzala estatuak eta enpresak maila nazionalean zein nazioartekoan. Zentzu horretan, auzitegiak El Salvadorreko Estatuari gomendioak eman behar dizkio, Lan Ministerioaren bidez modu eraginkorrean bermatu ditzan Konstituzioak eta laneko kodeak araututako eskubideak. Bereziki, Rosaren kasuan urratutako eskubideak nabarmendu nahi ditugu: urteroko oporrak, gabonsariak eta enpresarentzat 9 urtez lan egiteagatik zor zaion kalte-ordaina.
7. Etxetiko langileentzako justizia eskaerari ekarpena egin diezaiola, horretarako haien aldeko ebazpena emanda.
8. Enpresak moralki behartu ditzala langileen eskubideak onartu eta errespetatzera. Horrez gain, nazioarte mailako itun loteslearen aldeko ebazpena eman dezala, enpresak benetako erantzuleak izan daitezen (eta zigortuak izan daitezen) lan-eskubideak sistematikoki urratzeagatik.
9. Beharrezkoa da ikusaraztea langileen eskubideei buruzko informazio falta nabarmena dagoela, eta enplegatzaileek etengabe manipulatzeko dituztela langileak; horrek mendekotasunaren logika iraultzen du: nor dago noren mende?
10. Gomendioak El Salvadorreko Estatuak tresnak sortu ditzan emakume brodatzaileak eta haien lana ikusarazten direla bermatzeko, bereziki lan-erregistroetan eta estatistiketan.
11. El Salvadorreko Estatuak LANEren 177 Hitzarmena sinatu beharko luke, eta El Salvadorreko Errepublikaren Konstituzioan ezarritakoa bermatzea ahalbidetzen duten legeak homologatu beharko lituzke.

## Errotiko aldaketak lortzera bidean

Ekonomia berlokalizatzeko aldaketen zentzuan, eztabaida eta esperientzia feministetatik abiatuta zenbait kontu aipatu nahi ditugu, aldi berean printzipioak eta helburuak direnak.

Ekonomia ezin da bizitzaren zerbitzura egon metaketa-prozesu kapitalisten tes-tuinguruan. Kapitalismoa nazioarteko sistema gisa egituratu zen, oinarri zuena lurraldeak desjabetzea, lan-indarra diziplinatzea eta esplotatzea, gorputzak eta ugalketa kontrolatzea, horretarako erabilia herrien aurkako indarkeria; bereziki Latinoamerikan, non herri indigenak esklabo egin dituzten eta Afrikako herrieta-ko esklaboekin trafikatu izan den. Lanaren nazioarteko banaketa egituratuta dago,

aldi berean, lanaren sexu-banaketaren bidez, zeina korporazio transnazionalen boterea eta metaketa sostengatzen dituen neokolonialismoaren egungo marka den.

Hortaz, emakume askoren lanaren bidez bizitzaren produkzioa eta erreprodukzioa elikatzen dituen metaketa-logika aldatu behar dugu, zeinaren arabera jende askok sistema mantentzeko ezinbesteko lana gauzatzen duen, diru truke zein doan. Baina lan horiek gutxietsi egiten dira, eta klase, genero, arraza eta migrazio-estatusaren arabera esleitzen dira.

Zentzu horretan, eztabaidak eta erronkak birplanteatu eta eguneratu behar dira, ekonomia berlokalizatzeko estrategiek zapalkuntza-egiturei aurre egin diezaieten eta parekidetasuna lortu dezaten.

Premiazkoa da lana guztion artean berriro banatzea eta antolatzea, bizitza jasangarriaren paradigma eraikitzea bidean. Zalantzan jarri behar ditugu amesten dugun munduan nahi ez ditugun sektoreetako enpleguak. Esaterako, armagintza edo agrotoxikoen ekoizpena. Eztabaida ideologikoa zentzu horretan eman behar da, batez ere lan-eskubideen alde borrokan dauden gizarte-mugimendu guztiarekin batera. Halaber, premiaza da bidezkoak eta emantzipatzaileak diren zubiak eta trantsizioak eraikitzea.

Merkatuari eskainitako lanaldia murriztu behar da, eta bestelako lan-denborekin (etxeko eta zaintza lanekin bereziki) gizonen duten erantzukizuna areagotu.

Aldarrikapenen erreferentea ere aldatu behar da. Adibidez, txirotasuna murrizteko proposamenak edo diskurtsoak ez dira nahikoak; txirotasuna sortzeari utzi behar zaio. Hau da, desperekotasuna eta aberastasunaren-metaketa sortzen duten arrazoien aurkako borroka sustatu behar da. Horretarako eztabaidaren erreferentea aldatu behar da, batzuetan ekonomiaren ikuspegi monetizatua indartzen duelako, eta ez dituelako strategiaren erdigunean jartzen —ezta kontuan hartzen ere— bizitzaren txirotasunaren eta prekaritatearen bestelako zehaztapenak. Hau da, ezin zaio txirotasunari aurre egin oinarrizko zerbitzuak —osasuna, hezkuntza, pentsioak, etxebizitza— eskuratzeko eskubidea bermatu gabe; ezin da txirotasuna ezabatu eskubide horiek ez badira gauzatzen lanaren antolaketaren eta kudeaketaren eredu demokratikoetatik abiatuta. Hori guztia, aipatu gabe emakumeek pairatzen dutela gure gizarte patriarkaletako txirotasuna lanaren sexu-banaketaren ondorioz, eta ez dela nahikoa diru-sarrerak izatea ez baldin badute bizitza askatasunean bizitzeko denborarik ezta baldintzarik ere.

Justizia-sistema berrantolatu behar da, parekidetasunaren eta bestelako lehentasunen arabera; ez jabetza pribatu indibidualaren arabera. Harreman- eta justizi-

zia-mota ezberdinak sustatu, harreman aske eta parekideak eraiki, oinarri hartuta gauza komunak eraikitzea eta defendatzea hurbiltasun irizpideari jarraituta.

Korporazioei bizitzaren kontrola kendu. Hortik abiatuta, oinarrizko gomendioa da auzitegian parte hartzen duten sektore guztietatik indarrak batzea eta mobilizatzea, horrela negoziazio prozesuan dauden merkataritza askerako itunei uko egiteko.

Ekonomia bizitzaren zerbitzura egotea da helburua, eta horretara bideratu behar da praktika. Horretarako neurri jakinak hartu eta ideia errealak sustatu behar dira. Eta horietako bakoitzean, emakumeak egongo dira erronka feministak eraikitzen eta proposatzen.

Elkarlanetik abiatuko den eta zirkuitu komertzialen arteko distantziak laburtzeko hainbat estrategiaz mamituko den ekonomia solidarioa: hori da oinarrizko gaia, auzitegiko ardatz guztiak artikulatzen dituena. Halaber, oinarrizkoak dira pertsonen eta naturaren artean bestelako harremanak eraikitzen dituzten agroekologia esperientziak, elikadura-burujabetzari ekarpena egiten diotelako eta aldi berean bioaniztasuna, natura, haziak eta hainbat animalia espezie defendatzen dituztelako. Praktika horiek bideak irekitzen dituzte herriek aukerak eraiki ditzaten egungo metaketa-ereduarekin apurtzeko; gauza komunak mugak zabaltzeko; erabakiak eta harremanak demokratizatzeke; parekidetasunean, autodeterminazioan eta askatasunean oinarritzen diren ekodependentzia zein interdependentzia onartzeko eta balioesteko.

#### 4. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK

Nazioarteko Sindikatu Konfederazioa (2016) Escándalo en las cadenas mundiales de suministro de 50 grandes empresas. Nuevos Frentes txostena.

HIRATA, Helena; KERGOAT, Daniele (2009) Os paradigmas sociológicos à luz da categoria de gênero: qual a renovação da epistemologia do trabalho? Eskuragarri: BAÇAL, S. (koor.) Trabalho, educação, empregabilidade e gênero. Manaus: EDUA.

KERGOAT, Danièle. (1996) Relações sociais de sexo e divisão sexual do trabalho. Eskuragarri: LOPES, Marta Julia; MEYER, Dagmar eta WALDOW, Vera (koor.). Gênero e Saúde. Porto Alegre: Artes Médicas.

LEÓN, Magdalena. (2015eko azaroa) Alca: resistencias feministas y claves de integración alternativa. Eskuragarri: FARIA, Nalu; MORENO; Renata (koor.). Las mujeres contra el libre comercio: una historia de resistencia y lucha. Red Latinoamericana Mujeres Transformando la Economía. São Paulo.

MUJERES TRANSFORMANDO (2013) Haciendo visible lo invisible: la realidad de las borda-

doras a domicilio. El Salvador.

OXFAM. (2016) A economia para 1% - Relatório Completo. São Paulo.

LANE. (2016) Panorama Laboral.

PARADIS, Clarisse; BARRETO, Viviana; CARRAU, Natalia. (2017) La resistencia feminista contra el libre comercio y la lucha por la autonomía sobre el cuerpo, trabajo y territorio.

Eskuragarri: Desafios feministas para enfrentar o conflito capital-vida. SOF: São Paulo.

REGO, Walquiria.; PINZANI, A. (2013) Vozes do Bolsa Família: autonomia, dinheiro e cidadania.

RODRIGUEZ, Corina.( 2011ko azaroa ) Programas de transferencias condicionadas de ingreso e igualdad de género ¿Por dónde anda América Latina?. Serie Mujer y Desarrollo. Santiago de Chile: CEPAL.

SEGATO, Rita. (2016) La guerra contra las mujeres. Madril: Traficantes de Sueños.

SOUZA-LOBO, Elizabeth. (2011) A classe operária tem dois sexos. Trabalho, dominação e resistência. 2. edizioa. São Paulo: Fundação Perseu Abramo.

## BIZITZA JASANGARRIEN ESKUBIDEAREN ALDEKO HERRI-AUZITEGIKO EPAIMAHAIAREN EBAZPENA



Bizitza Jasangarrien Eskubidearen Aldeko Herri-Auzitegiko Epaimahaiaren aurkezpena

### Giza eskubideen urraketak ikusarazten eta salatzen

Bilbon, 2018ko otsailaren 23an osatu zen Bizitza Jasangarrien Eskubidearen Aldeko Herri-Auzitegiko epaimahaiak (Patricia Bárcena García, Aura Lolita Chávez, Yayo Herrero López, Yolanda Jubeto Ruiz, Júlia Martí, Maria Eugenia Rodríguez Palop, Janaina Strozake eta Begoña Zabala González epaimahaikideekin), testigantza ematera etorri diren pertsonen, adituen, fiskalen, ohorezko testiguen eta erakunde antolatzaileen aurrean; jendaurreko entzunaldian aurkeztutako lau kasuetan testigantza ematera etorri diren pertsonak eta haiek ordezkatu eta lagundu dituzten erakundeak entzunda; adituen eta fiskalen txostenak aztertuta, bai eta testigantza, salaketa eta eskaera guztiak ere; eta Bizilur, Mugarik Gabe-ko Ingeniaritza Euskal Herria, Desazkunea, ESK sindikatua, Mugarik Gabe-ko Ekonomia-erakundeak, eta Mugarik Gabe erakundeekin koordinatuta<sup>232</sup>,

232 Setem Hego Haizea, Argilan, PAH Nafarroa, MNCI (Argentina), Mujeres Transformando (El Salvador), WEST SAHARA RESOURCES WATCH (WSRW), Brujas y Diversas, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, CDH Fray Matías de Cordova AC (Mexiko), Saretuz, Zentzuz Kontsumitua, Alianza Política Sector de Mujeres, Centro de Mujeres Xochilt Acatl erakundeekin elkarlanean.

### Kontuan hartuta:

- Herri-Auzitegi hau giza eskubideen urraketen ikusezintasunari aurre egiteko helburua duen gizarte zibileko erakundeen estrategia bat dela, kasu honetan, mundu osoan urratzen den bizimodu jasangarrirako eskubidearen urraketekin lotutakoa.
- Auzitegi honetan aurkeztutako zortzi kasuak, gizarte iraunkor, justu eta ekitatiboak eraikitzeko, erabat desberdina den eta bizitzaren zein planetaren zainketa erdigunean jartzen duen beste eredu bateranzko trantsizioa egin behar dugula kontuan hartu gabe, botere korporatiboaren irabaziak maximizatzeko ondasun komunak bidegabe ustiatzen dituen sistema kapitalista, heteropatriarkal, kolonial eta ekozida batean kokatzen direla.
- Nazioarteko zuzenbidearen eremuan, Estatuak pertsona guztien eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak errespetatu, babestu eta bermatu behar dituztela, eta bizi-baldintza duinak bermatu behar dizkietela.
- Auzitegi honek lurralderako eta elikadura-subiranotasunerako eskubidearen, gizarte-babeserako eskubidearen, etxebizitza egokia eta lan duina izateko eskubidearen, tratu bera eta bereizketarik ez jasotzeko eskubidearen, osasunerako eta energia-subiranotasunerako eskubidearen, zainketarako eskubidearen, zaintzaileen (gehienbat emakumeak) eskubideen eta, azken buruan, bizitza duina izateko eskubidearen urraketak egiaztatu ditu.

### Aitortzen du:

Testigantza ematera etorri diren zortzi pertsonen isiltasuna hausteko eta bizimodu alternatibo eta emantzipatzaileak proposatzeko erakutsi duten ausardia eta adorea:

- **Floriberta Gladis Roblero Cifuentes**, Guatemalan, komunitateko, udaleko eta nazioko agintariei eta, Mexikon, Hezkuntza Idazkaritzari, Lan Idazkaritzari, Udal Gobernuari, Estatuko Gobernuari eta Gobernu Federalari, Osasun Idazkaritzari, Gizarte Garapeneko Idazkaritzari eta haren enplegatzaileei aurre egin die, etxeko emakume langileak esplotazio-egoeran jartzeagatik.
- **Pilar Gil Pascual**, Espainiako eta Euskal Herriko gobernuei aurre egin die, kalteberatasuna eragiten duten lan-baldintzak ahalbidetzeagatik; izan ere, lurraldeotako legeri propioek etxeko emakume langileen esplotazioa eta haien aurkako gehiegikeriak babesteko eta legitimatzeko balio dute.
- **Hafed Bachir**, rlandako San Leon Energy enpresari aurre egin dio, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta ondasun komunak arpilatu izanagatik.
- **Rosa Felgar y Santiago Rubio**, Nafarroako Gobernuari eta Iberdrolari aurre



egin diete, energiarako eskubidea eta bizi-baldintza duinak izateko eskubidea kentzeagatik.

- **Fabián Ernesto Orellana de la Comunidad Iacu Cachi**, agronegozioko enpresari den Orlando Canidori, banda armatuko buru den Ladislao Letonairi, Dario Alarcon epaileari (Canidoren aldeko neurri arbitrarioak ezartzeagatik) eta Lucrecia Martínez Llano epaileari (Canidoren aldeko neurri arbitrarioak ezartzeagatik) zuzenean aurre egin die; eta, zeharka, probintziako Polizia buru den Marcelo Patori (utzikeriagatik), probintziako Justizia Auzitegi Nagusiari, Instituto Nacional de Asuntos Indígenas erakundeari, Argentinako Giza Eskubideen Idazkaritzari, Argentinako Gobernuari, Omara enpresari eta haren kideei aurre egin die.
- **Valentín Jáuregui y Aitor Solozábal**, Trenbide Azpiegitura Administrazioari (ADIF), Euskal Trenbide Sareari (ETS), Espainiako estatuari eta Eusko Jaurlaritzari aurre egin die, lurralderako eta elikadura-subiranotasunerako haren eskubidea urratzeagatik.
- **Nerea** Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzari aurre egin die, legez dagokion gizarte-babesa ukatzeagatik eta haiengandik erasoak eta tratu txarrak jaso izanagatik.
- **Rosa María Marroquín**, El Salvadorreko estatuari, Handworks S.A. enpresari eta El Salvadorreko Cámara de Industria Textil Confección y Zonas Francas (CamTEX) ganberari aurre egin die, osasun-ondorio larriak eragin dizkioten lan-esplotazioagatik eta langile gisa dituen eskubideak urratzeagatik.

Auzitegi honek egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko pertsona horien eskaerekin bat egiten du, eta antzeko bidegabekeriak jasan dituzten pertsona guztiei erreparazio sinbolikoa eman gura du. Orobat, arreta jartzen du zapalketa- eta esplotazio-sistemen arten dauden elkarreraginetan: kapitalismoa, heteropatriarkatua, kolonialismoa eta arrazakeria.

## Salatzen eta zigortzen du

Iritzi publikoaren eta nazioarteko komunitatearen aurrean, Nazioarteko Zuzenbidea eta barne-zuzenbide propioa urratu direla, honako arlo hauetan:

### Zainketarako eskubidea:

1. Etxeko emakume langile migratzaileak esplotatzeko kultura: aipatutako estatuetan indarrean baina osatugabe dagoen esparru arautzaileari ez ikusia egitea erabakitzen duten estatuko eta erakundeetako eragileek onartzen eta sustatzen dutena.
2. Emakumeak migratzera bultzatu dituzten testuinguruen aitortza falta eta

haien gaineko ezjakintasuna: Espainiako Gerra Zibilaren eta gerraostearen nahiz Guatemalako genozidioaren ondoren, emakumeak zaurgarritasun egoeran daude.

3. Mexikoko, Guatemalako eta Espainiako estatuen jardunbide matxista, heteropatriarkal eta kolonialak: estatuok zaintzeko erantzukizuna emakumeei bakarrik esleitzen dietenez, emakumeak lanaldi bikoitz eta hirukoitzak egi-tera behartzen dituzte.
4. Espainiako estatuko legeria zaharkitua: 2011. urtean hainbat aldaketa egin ziren arren, oraindik ez ditu etxeko emakume langileen lan-eskubideak bermatzen.
5. Gizonek, enpresek, gobernuek, oligarkiek, etxeko emakume langileen eta esplotazioari eta zainketen kateari etekina atera dieten erakundeek izan eta defendatu dituzten pribilegioak.
6. Tapachula, Mexiko eta Euskal Herriko enplegatzaileak, etxeko emakume langileak esplotatu dituztelako, tratu umiliagarria eman dietelako eta sexu-eraso eta bortxaketak sistematikoki jasanarazten dizkietelako.

#### **Lurralderako eta elikadura-subiranotasunerako eskubidea:**

7. Omara agronegozioko enpresak eta haren kideak: erregai fosilen kontsumo handian oinarritzen den eredu esplotatzaile bat ezartzeagatik, lurren kontzentrazioa eta nekazaritza artifizial bihurtzea sustatzeagatik, pertsonak so-roetatik egotzeagatik, bizimodu hori suntsitzeagatik, hainbat flora eta fauna barietate desagerrarazteagatik eta ondasun komunak pribatizatzeagatik.
8. Lurzorua artifizial bihurtzeko prozesuetan gizarteari kalte egiten dioten enpresak pribilegiatzen dituzten alderdi politikoak.
9. Espainiako estatuko Sustapen Ministerioa eta Eusko Jaurlaritza: AHT proiektua gauzatzean, herrialde baten elikadura-subiranotasuna bermatzeko funtsezkoak diren lurralderako eskubidea eta ondasun komunak eskura izateko eskubidea urratu dutelako.
10. Omara enpresa eta haren kideak, hazi transgenikoak eta plantazio transgenikoetan erabiltzen diren agrotokikoak fabrikatzen dituzten enpresak, elikadurarako eskubidea urratzeagatik.
11. Argentinako Gobernuak, lurraldea mehatxu bidez menderatzen duten, etxaldeak eta plantazioak suntsitzen dituzten, animaliak akabatzen dituzten, pertsonen aske ibiltzeko eskubidea ukatzen dieten eta, ondorioz, adingabeei hezkuntzarako eskubidea ukatzen dieten banda armatuei nahi dutena egiten uzten dielako.
12. Orlando Canido, osasunerako eskubidea urratzeagatik eta ingurumena narriatzeagatik, agintzen dituen fumigazioek komunitateko ur-iturriei eragiten dietenez, komunitateko biztanleak pozoitzen baititu.

13. Sistema judizialaren eta agronegozioko enpresarien arteko konplizitatea, bai eta botere politiko nazionalak giza eskubideen urraketa horiei ematen dien estaldura ere.

**Energiarako sarbide justu eta jasangarrirako zein energia-subiranotasunerako eskubidea:**

14. Nafarroako Gobernu eta Espainiako estatuko Gobernu, Rosa, Santiago eta haien alabaren energiarako eskubidea urratzeagatik, eskubide hori bizitza duina, osasunerako eskubidea, berdintasun-eskubidea eta bereizketa eza bermatzeko nahitaezkoa baita. Era berean, informazioa jasotzeko eta parte hartzeko, justiziara jotzeko eta babes berezia jasotzeko haurren eskubideak urratu dira. Era berean, informazioa jasotzeko eta parte hartzeko, justiziara jotzeko eta haurrak bereziki babesteko eskubideak urratu dira.
15. Espainiako estatua, eragin biopsikosozial larriak eragiten dituen pobrezia energetikoaren aurrean ezer ez egiteagatik, horrek ondorio kaltegarriak izan baititu eragindako biztanlerian eta ingurumenean.
16. Nafarroako Gobernu, energiarako eskubidea bermatzeko betebeharra ez betetzeagatik, kontsumitzaile kalteberak babesteko mekanismo nahikoak ez ezartzeagatik eta enpresa energetikoei egindako gehiegikerien aurrean ezer ez egiteagatik.
17. Nafarroako Gobernu, pobrezia energetikoari aurre egiteko bideratutako gizarte-laguntzen fondoak behar bezalako arduraz ez hornitzeagatik eta gehiegizko burokraziak, izapideak egiteko arazoek eta informazio gabeziak eragindako kalteengatik.
18. Iberdrola, giza eskubideak urratzen dituen jardunbideengatik. Energia kontuetan giza eskubideen nazioarteko estandarrekin bat datorren kalitatezko hornidura eskuragarria ez eskaintzeagatik, eta zorrak kobratzeko kontsumitzaileei eraso egiteagatik.
19. Marokoko estatua eta Espainiako estatua, saharar herritarrei haien baliabideak erabiltzeko eta lurraldeko jarduera ekonomikoen gainean erabakitzeko eskubidea kentzeagatik, eskubide hori bizitza duina, osasuna eta segurtasun pertsonala izateko eskubidea, autodeterminazio-eskubidea eta identitate kulturala izateko eskubidea bermatzeko nahitaezkoa denean.
20. Marokoko estatua, enpresa transnationalei espoliazio- eta esplotazio-lizentziak emateagatik, Mendebaldeko Saharan energia berriztagarriko fabriken instalazioaren erantzule delako. Orobat, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa urratzeagatik.
21. Espainiako Gobernu eta Eusko Jaurlaritza, Saharako lurraldean aritzen diren eta egoitza Espainian eta Euskal Herrian duten enpresa energetikoen erantzukizun zibila eta penala ez eskatzeagatik. Eta, bestetik, deskoloniza-

- zio-prozesua laguntzeko nazioarteko hitzarmenak ez betetzeagatik.
22. Marokoko estatua eta lurralde okupatuan aritzen diren enpresak, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak kontsulta edota baimenik gabe erabiltzeagatik; izan ere, horrek herrien autodeterminazio-eskubidea urratzen du, biztanleei bizibideak, antolamendu propioa eta estatus politiko-juridikoa ezartzeko eskubidea kentzen baitie.
  23. Marokoko estatua, autodeterminazio-eskubidearen alde borrokatzen duen eta bere lurraldea defendatzen duen saharar herria kriminalizatu eta zapaltzeagatik.
  24. Europar Batasuna, hegoaldeko herrien baliabideen espoliazioan oinarritzen den eredu baldintzatu eta ekozida bat are gehiago finkatzen duten politika energetikoak sustatzeagatik; Sahararen deskolonizazio-prozesua laguntzeko nazioarteko hitzarmenak ez betetzeagatik; eta, azkenik, neurriz gaineko tarifak ezartzeagatik eta bai lurraldeentzat bai bertan bizi diren biztanleentzat kaltegarriak diren megaproiektuak inposatzeagatik.

#### **Bizi-maila duina izateko eskubidea**

25. Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu eta El Salvadorreko estatua, bizi-baldintza duinak izateko eskubidea errespetatzeko, babesteko eta bermatzeko nazioarteko betebeharrak ez betetzeagatik.
26. El Salvadorreko estatua, osasunerako eskubidea, lanerako eskubidea, babes judizialerako eskubidea, berdintasun-eskubidea eta bereizketa eza, eta haurrak babesteko betebeharra urratzeagatik.
27. Handworks enpresa, etxeko emakume langileak eta brodatzaileak esplotatu eta lanean jazartzeagatik.
28. El Salvadorreko Lan Ministerioa, lan-ikuskaritzak ez egiteagatik eta, hortaz, lan-baldintza akigarriak eta haien ondorioak ez egiaztatzeagatik.
29. Euskal Autonomia Erkidegoa eta LANBIDE, gizarte-babeserako eskubidea kentzeagatik, DSBE emateari uzteak osasunean eragin dituen ondorioengatik, eta DSBE jasotzen duten pertsonen, haien eskubideak baliatzean, erakundeengandik jasotzen duten tratu txarragatik.

#### **Beraz, ESTATUEI HAUXE ESKATZEN DIE:**

1. Kapitalaren botere korporatiboaren interes ekonomikoen aurrean, herrien subiranotasuna eta duintasuna bermatzea, bizitzarako funtsezkoak diren ondasun komunak merkantilizazioa eragotzita.
2. Enpresa transnationalek Giza Eskubideen Nazioarteko Eskubidea betetzen dutela bermatzeko haien jarduerak kontrolatzeko mekanismoak arautzea eta ezartzea.

3. Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak bermatzea, eskubide zibil eta politikoen balio bera izango balute bezala, printzipioz, giza eskubideak zatiezinak, unibertsalak eta elkarmenpekoak baitira.
4. Giza eskubideen nazioarteko esparruan kaltegarriak diren merkataritza eta inbertsio askeko itunak salatzea.
5. Emakumeek herrien subiranotasunaren eta, bereziki, elikadura-subiranotasunaren, energia-subiranotasunaren eta subiranotasun ekonomikoaren alde egiten duten nahitaezko ekarpena txertatzeko mekanismo eraginkorrak sortzea.
6. Zainketarako eskubide unibertsala aitortzea, hau da: 1) bizi-zikloko egoera eta une ezberdinetan behar diren zainketak jasotzeko eskubidea, behar hori norbanakoaren diru-sarreraren, familia-loturen edo harreman afektiboen menpe egotea saihestuta; 2) zaintzea edo ez zaintzea erabakitzeko eskubidea, baldintza duinetan zaintzeko eskubidea zainketa desbideratzeko eskubidearekin konbinatuta.
7. LNEren Etxeko Langileen Lan Duinari buruzko 189 Hitzarmena berrestea, etxeko langileentzat indarrean dagoen legeria haien giza eskubideen babeserako nazioarteko parametroetara egokituta.
8. Energia garbirako eta energia-subiranotasunerako eskubideak eskubide autonomoak, galdagarriak eta justiziagarriak direla aitortzea.
9. Erabilera energetikoak irabazi-asmoak baldintzatu gabeko eskubideen ikuspegitik ezartzea. Baliabide energetikoak mugatuak direla eta mugak dagoeneko gainditu ditugula kontuan hartuta, energiaren erabilera zentzuduna sustatzea gehiegi kontsumitzen duten gizarte-sektoreetan, energia denon eskura dagoela bermatzeko eta gehiegizko kontsumoak eragin dituen zor ekologiko bidegabeak arintzeko.
10. Iparraldeko eta Hegoaldeko pertsona, gizon eta emakume, eta herri guztien baliabide energetikoen eskuragarritasuna eta haien gainean erabakitzeko eskubidea bermatzea, hirugarrenak edota sistema naturalak kaltetu gabe.
11. Trantsizio energetiko feminista bat egiteko ekintzak sustatzea, pertsonen ongizatearen eta bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura.
12. Etxeko langileen lan-eskubideak aitortzea, brodatzaileen berariazko problematika barne hartuta. Zehazki esanda, El Salvadorreko estatuari hauxe eskatzen zaio: giza eskubideen nazioarteko estandarrei jarraituz, brodatzaileen eskubideak aitortzeko beharrezko neurri legalak, administratiboak eta judizialak hartzea; lurralde osoan ikuskaritzak egiteko protokolo integral bat ezartzea; 2016an esklabotza forma garaikideen gainean NBEko adituak egindako gomendioei (A/HRC/33/46/Add.1 txostena) jarraitzea; eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) Etxeko Lanari buruzko 177. Hitzarmena berrestea.
13. Gizarte-babesa jasotzeko pertsona guztiek duten eskubide autonomo, gal-

dagarri eta justiziagarria aitortzea, gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonen bizi-baldintzen hobekuntza bereziki azpimarratuta. Azken batean, Eusko Jaurlearitza gizarte-estaldurak ez kentzea eta hobetzea eskatzen zaio: a) gizarte-babeseko prestazio ekonomikoak jasotzeko irizpide murriztaileak kentzea; b) Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren “barne-irizpide” deritzonak indargabetzea; c) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 18/2008 Legearen xedea aldatzea, autonomia-erkidego osoan pobrezia errotik ateratzea izan dezan xede; d) Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta unibertsal eta indibiduala jasotzeko eskubidea aitortzea; e) baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonen beharrak asetzeko aurrekontu-partidak bermatzea.

Hori guztia, tolerantzia sustatzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemara jotzen duten pertsonen gaineko aurreiritzi eta estereotipo negatiboak gainditzeko beharrezko neurriak hartuta, eta egoera bereziak artatuta.

Horretarako, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan jasotzen diren aldarrikapenak erantsi beharko lirateke.

14. Bizitza duina eta bizitzaren jasangarritasuna bermatzeko helburua duten eredu sozioekonomiko alternatiboak errespetatzea eta bultzatzea.
15. Ereduek energetikoaren inpaktuek eragiten dituzten eta, sarri asko, emakumeek beren gain hartzen dituzten etxeko lan- eta zainketa-kargak gora egin dutela aitortzea.
16. Tratu txar, intimitate-injerentzia, estigma edota umiliaziorik gabeko bizitza jasangarriak bermatzeko gizarte-babeserako politika publikoak garatzea.

## **Arestian adierazitakoarekin bat etorritik, Epaimahai honek eskatzen du:**

### **Zainketarako eskubideari dagokiolarik:**

- Etxeko langileei tratu krudel, gizagabe eta umiliagarriak ematen dizkieten pertsonak ikertzea, epaitzea eta, kasu bada, zigortzea; eta bermeok arauz kontrako egoera administratiboan dauden pertsonen ere ematea, salaketa egiteak ez dituzan pertsona horiek berriro ere biktimizatu.
- Etxeko langileen eskubideen eta, etxeko ardurei eta zainketari dagokienez, genero-estigmatizazioa desagerrarazteko beharrezko gaitasunak emateko sentsibilizazio-kanpaina abian jartzea, bereziki emakume migratzaileak artatuta.
- Etxeko langileen lan-eskubideen gainean trebakuntza eskaintzea, bai enplegatzaileek bai langileek haien eskubide eta betebeharrak argi izan dituzaten.
- Erreparazio-neurri egokiak eskatzea, nazioarteko estandarrekin bat etorritik, urraketa horien biktimek jasandako kaltea arintzeko.
- Berdintasun-eskubideak eta sexuaren arabera bereizketak eza bermatzeko politika publikoak eta aldaketak ekoizketarako diseinatzea eta ezartzea eta,

batez ere, neska guztiak kalitatezko eta doako hezkuntza publikoa jasotzen dutela bermatzea.

#### **Lurralderako eta elikadura-subiranotasunerako eskubideari dagokiolarik:**

- Oinarrizko eskubideak urratu dituzten eta ingurumenean nahiz pertsonen osasunean kalteak eragin dituzten pertsona/enpresa guztiak ikertzea, epaitzea eta zigortzea, eta egindakoak berriro ez errepikatzeko bermeak eskatzea.
- Erreparazio-neurri egoki eta justuak sustatzea, nazioarteko araudiarekin bat etorriaz.
- Landa-garapen jasangarria sustatzeko politika publiko aproposak diseinatzea eta ezartzea, hirietan lan-egonkortasuna desagerrarazteko eta pertsonen, bereziki, gazteen bizi-maila hobetzeko helburuarekin.
- Kultur ondarea eta landa-identitatea berreskuratzeko politika publikoak diseinatzea eta ezartzea.
- Arestian aipatutako komunitateko kideen giza eskubideen urraketa larrien erantzule den enpresa ekoizlea (Omara), haren jabea eta langileak ikertzea, epaitzea eta zigortzea, eta egindakoak berriro ez errepikatzeko bermeak eskatzea. Erreparazio-neurri egokiak eskatzea, nazioarteko estandarrekin bat etorriaz, urraketa horien biktimek jasandako kaltea arintzeko. Nekazaritza-elikagaiak ekoizten dituen enpresa honen inpunitatea eraikitzen lagundu duten botere judizialeko eta Estatuko beste botereetako funtzionarioak eta administrazioak ikertzea, epaitzea eta zigortzea.
- Estatuak, dagokion bezala, komunitate indigenen eskubideak, batez ere, lurralde eta ondasun naturalekin erlazionatutako eskubideak, errespetatzeko, babesteko eta bermatzeko konpromisoa hartzea.
- Landa-biztanleriaren gizarte-zerbitzuak bermatzea, nekazaritza-eremuak babestuta eta lurzoruak artifizial bihurtzea saihestuta.
- Gobernuak elikagaiak eta elikagai-ekoizpena berriz naturalizatzen laguntzea.
- Gobernuak agroekologia-eskolak eta ekoizpen ekologikorako ikerketa sustatzea.

#### **Energiarako sarbide justu eta jasangarrirako zein energia-subiranotasunerako eskubideari dagokiolarik:**

- Espainiako eta Nafarroako Gobernuari, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak araututakoaren arabera, etxebizitza egokia, baliabide natural eta komunak, sukalderako edateko ura eta energia, berokuntza eta argia etengabe eskura izateko eskubidea bermatzea. Orobat, energiarako eskubidea modu eraginkorrean babesteko legezko mekanismoak ezartzea.

- Iruñeko Udalarari eta Nafarroako Foru Erkidegoari, gertatutakoa eta haien erantzukizuna publikoki aitortzea, eta erreparazio-neurri integral indibidua-lak zein kolektiboak xedatzea, kasu bakoitzean kaltetutako familia unitateko pertsona bakoitzaren beharrak kontuan hartuta:
  - Kalte materialak eta immaterialak eragin izanagatik leheneratze-neurriak xedatzea: pobrezia energetikoa jasaten hasi zeneko egoera, ahal den heinean, berrezartzea.
  - Laguntza-neurriak: familia unitatearen oinarritzko beharrak asetzea, zehazki, osasun-laguntza eta baliabide ekonomikoak modu eraginkorrean jaso ditzaten.
  - Arazoa eragin zuten gertaerak errepikatuko ez direla bermatzeko neurriak.
  - Bertan bizi direnek nahi izatekotan, kaltetutako etxeko azpiegitura-bal-dintzak hobetzeko beharrezko ekintzak egitea, prozesu osoan genero-ikuspegia kontuan hartuta.
- Marokoko Gobernuari, legez kontrako okupazioarekin eta baliabide naturalen espolioazioarekin lotutako giza eskubideen urraketak amaitzea: bilera-, adierazpen-, manifestazio- eta zirkulazio-askatasunaren murrizketak; bazterketa ekonomikoa eta lan-bazterketa; identitate kulturala ukatzea; behartutako desagertzeak; atxiloketa arbitrarioak; sexu-indarkeria; behartutako desplazamenduak; eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen kriminalizazioa.
- Espainiako estatuari, 1963an Nazio Batuen Batzar Nagusian eta 1975eko Madrilgo Akordioetan Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio-prozesua laguntzeko onartutako neurriak betetzea.
- Enpresa transnasionalei eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturi, lurralde okupatueta operazioerik ez egitea. Lurralde horietan operatzen ari diren enpresa eta erakundeek jarduerak behin betiko eten behar dituzte.
- Saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea modu eraginkorrean errespetatzea, NBEren Seguratasuna Kontseiluarekin eta Afrikako Batasunarekin elkarlanean. Baliabide naturalen eskuragarritasunari, erabilerari eta kontrolari dagokionez, saharar herriaren ordezkari legitimoa den Fronte Polisarioaren erabaki autonomoak aitortzea eta errespetatzea.
- Saharar herriari egia, justizia eta erreparazio jasotzeko eskubidea aitortzea. Ondorioz, hauxe gomendatzen da: (i) ikerketa sakon eta fidagarriak egin daitezten Mendebaldeko Saharan Erreferenduma Antolatzeke Nazio Batuen Misioarekin (MINURSO) lotutako mekanismo ofizial bat sortzea; (ii) Mendebaldeko Sahara okupatuan indarkeria amaitzea; (iii) eragile erantzuleak epaitzeko justizia eraginkorra; (iv) eta erreparazioak genero-desberdintasuna eta jasandako kaltearen ondorioak kontuan hartuta finkatu daitezela.
- Gatazka modu baketsuan konpontzeko eta gizarte-justizia eraikitzeko proze-



suetan emakumeek duten zeresan handia ezagutzera ematea eta aitortzea, bai eta memoria historikoa emakumeen ikuspegitik berreraikitzea ere.

- Europar Batasunari, Marokoko estatuarekin Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan operatzea xede duten akordio guztiak haustea, eta nazioarteko harreman ekonomikoak eta nazioarteko lankidetzako harremanak berriz definitzea, giza eskubideen nazioarteko estandarrei jarraituz.

### **Bizi-maila duina izateko eskubideari dagokiolarik**

- El Salvadorreko estatuari, brodatzaileen eskubideen urraketak ikertzen dituen mekanismo independente bat sortzea eta erreparaziorako eskubidea aitortzea, kasu guztietan epai kondenatzaileak emateko beharrik gabe, eta Handworks enpresa brodatzaileei inposatutako lan-baldintza gizagabeengatik zigortzea.
- Lan eta Gizarte Aurreikuspeneko Ministerioari brodatzaileen eskubideen gaineko trebakuntza eskaintzea.
- Rosari laguntza legala, ekonomikoa eta osasun integraleko laguntza ematea, harentzat beste lanpostu bat bilatzea, eta Rosaren seme-alabei hezkuntzabekak ematea.
- Lan eta Gizarte Aurreikuspeneko Ministerioako agintariak ikuskaritzak egiteko betebeharra ez betetzeagatik ikertzea, eta gertatutakoa nahiz tartean dauden eragileen erantzukizuna publikoki aitortzea.
- Eusko Jaurlaritzari, arestian adierazitako urraketan biktimek, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako salaketen aurrean defendatzeko asmoz, legezko akzioei ekitean izan dituzten gastuek eragindako kalte materiala erreparatzea.
- DSBE jasotzeari utzi dion Nerearen kasuan, Lanbideren, Euskal Enplegu Zerbitzuaren, arauz kontrako jarduerak behar bezalako arduraz ikertzea, nahi izatekotan, Nereari bere egoera ekonomikoa hobetzeko gizarte-babeseko neurriak eskainita.

Horrela jasota gera dadin, epai hau Bilbon sinatzen dugu 2018ko otsailaren 24an.


Bizitza Jasangarren Eskubidearen Aldeko Herri-Auzitegia

Epaimahaiaren sinadurak

Patricia Bárcena García



Yayo Herrero López




Júlia Martí



Janaina Strozake



Aura Lolita Chávez



Yolanda Jubeto Ruiz

María Eugenia Rodríguez Palop



Begoña Zabala



Epaimahaiko kideek Azken Ebazpena ematen diete testigantza eman duten pertsonei



Epaimahaiko kideek Herri-Auzitegiaren Azken Ebazpena sinatzen dute

## HAUZITEGIAREN KONPOSIZIOA

Zenbait eragilek zeregin ezberdinak elkarlanean gauzatu zuten antolatuz da Herri-hauzitegi hau. Bereziki eskertu nahi diegu Herri-hauzitegiaren lekukotza moduan gorputza eta ahotsa jarri duten pertsonari.

Honaino lagundu diguzuen guztioi, hemen zaudetenei, bi urte hauetan zaindu gaituzuenoi, parte hartzera eta bidai kolektibo honetara animatu zaretenoi eta hemen egon izan ez duzuen arren energia ona bidaltzen duzuenoi.... mila esker!



Bizitza Jasangarrien Eskubidearen Aldeko Herri-Auzitegiaren aurkezpeneko prentsaurrekoa.

## HERRI-HAUZITEGIA OSATZEN DUTE:

### TALDE ANTOLATZAILEA:

Bizilur, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Feminismo Desazkundera, ESK Sindikatua eta Mugarik Gabe.



Herri-Auzitegiaren talde laguntzailearen aurkezpena.

### **BIDELAGUNAK:**

Setem Hego Haizea, Mugarik Gabeko Ekonomilariak, Euskadiko Garapenerako Gkeen Koordinakundea, Saretuz (red De Consumo Responsable, Consciente Y Transformador De Donostia), Zentzuz Kontsumitu (Vitoria-Gasteizko kontsumo kontziente eta arduratsuko sarea), Alianza Política Sector De Mujeres (guatemala), Xochilt Acatl emkume zentroa (Nikaragua), Ekologistak Martxan, Bidez Bide, Axayacalt (Nikaragua) eta Brujas y Diversas.

### **KASUEN BIDELAGUNAK:**

Setem Hego Haizea, Argilan, PAH Navarra, MNCI (Argentina), Mujeres Transformando (El Salvador), West Sahara Resources Watch (El Sahara Occidental), Brujas y Diversas, CDH Fray Matías de Cordova AC (México), Bizilur e Ingeniería Sin Fronteras País Vasco- Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza.

### **OHOREZKO TESTIGUAK:**

Ekologistak Martxan, Alianza Política Sector de Mujeres (Guatemala), Centro de Mujeres Xochilt Acatl (Nikaragua), Tradener, Errekaleor, Goiener, EHNE Biz-

kaia, Tosu, Itxasondo, Plataforma RGI, Bidez Bide, Mujeres del Mundo Babel, La posada de los abrazos, West Sahara Resources Watch (El Sahara Occidental), MNCI (Argentina), Mujeres Transformando (El Salvador), CDH Fray Matías de Cordova AC (México), Basauriko emakumeen elkarte.

### TESTIGANTZAK:

- **Zainketarako eskubidea. Zainketa-sistema justu, ekitatibo eta erantzunkideak:** Pilar Gil Pascual eta Floriberta Roblero..
- **Energiarako sarbide justu eta jasangarrirako eta energia-subiranotasunerako eskubidea:** Santiago Rubio y Rosa Felgar eta Hafed Bachir.
- **Bizi-maila duina izateko eskubidea:** Argilan eta Rosa María Marroquin de Valencia.
- **Lurralderako eta elikadura-subiranotasunerako eskubidea:** Comunidad Iacu Cachi eta integrantes del movimiento campesino de Euskal Herria.

### ADITUAK

#### **Zaintzarako eskubidea. Zaintza-sistema justu, parekide eta erantzunkideak:** **Amaia Pérez Orozco. (Madrid)**

Ekonomian doktorea. “Colectiva XXX. Feminismos, pensamiento y acción” taldeko ikerlari independentea eta partaidea. Estatu espainarreko eta latinoamerikako unibertsitateekin kolaboratzen du eta estatuko eta nazioarteko erakundeetan lan egin izan du. Estatu espainarreko ekonomia feministaren sarean, CLACSO-ko Burujabetzarako Ekonomia Feminista lantaldean eta Feminism and Degrowth Alliance-n parte hartzen du.



#### **Lurralderako eta elikadura-burujabetzarako eskubidea:** **Esti Redondo, (Euskal Herria)**

Gaztetatik nekazal mugimenduarekin harremanetan eta lanean. EHNE Bizkaian Agroekologia irakaslea izan naiz urte askotan, eta horrekin batera nekazal feminismoa, lurralde antolaketa, transgenikoak eta bestelakoak lantzeko aukera izan dut.



Bidailari internazionalista izanik, LVCko hainbat taldeekin bizitza partekatu dut, haien egoerak ikusiz, elkartrukatuz eta ahal dela aportazioa eginez. Momentu honetan Etxaldeko Emakumeak taldeko kidea naiz, Baserritik Mundurako kordinazio politiko pedagogikoko partaidea eta baserriko ortua eta frutarbolak zaintzeko eta martxan jartzeko denbora bila nabil.

**Energiarako sarbide justu eta jasangarriarako, eta energia-burujabetzarako eskubidea: Mònica Guiteras Blaya (Catalunya)**

Soziologoa, Aliança contra la *Pobresa Energètica* eta *Xarxa per la sobirania energètica* eragileetako kidea, eta bertako genero eta energia lantaldeko partaidea. Eredu energetiko eta azpiegitura handien eraginaren inguruko ikerlaria eta Enginyeria Sense Fronteres erakundearen “Pobreza energética y modelos de gestión del agua y la energía: hacia la garantía del derecho universal a los suministros básicos” ikerketaren egilea.



**Bizi-maila duin baterako eskubidea: Tica Moreno + Táli Pires de Almeida, (Brazil)**

Táli Pires de Almeida kasua aurkezten du, Emakumeen Mundu Martxako militantea eta Sempre Viva Organización Femenista (SOF) (São Paulo, Brasil) erakundeko zuzendaritza batzordeko kidea. Gizarte-zientzien gradua (2007) eta São Paulo unibertsitateko Integración de América Latina graduondoa (2013). Bere ikerketa esparruak emakumeen nazioarteko migrazioa, lan merkatua, jantzigintza industria eta etxeko-lanak izan dira. Confederación de Trabajadores y Trabajadoras de las Américas (CSA) eta Central Única de los Trabajadores (CUT-Brasil) erakundeetan proiektuen kudeadatzailea eta politika aholkularia izan da.



## FISKALAK

### Ana María Palacios

Giza eskubideetan aditua den abokatu feminista, esperientzia handia du nazioarteko auzietarako eta intzidentzia politikorako estrategiak diseinatu eta abiarazten. Gaur egun Oxfam Intermón edo Comissió Catalana d'Ajuda al Refugiat erakundeetan aholkulari lanetan dabil eta Consejo Asesor de CIVICUS Monitor-eko kidea da. Oraintsu arte Women's Human Rights Institute-ko ikerlaria eta Centro de Derechos Reproductivos-ko abokatua izan da.



### María Victoria Fernández Molina

Zuzenbidean lizentziaduna, Naziorteko Harremanak eta Nazioarteko Zuzenbidean eta Bioetika eta Biozuzenbidea Ikasketa Aurreratuetan espezializazioduna. Gaur egun *“La alimentación de los pueblos indígenas en México. Una aproximación multidisciplinaria desde la perspectiva decolonial”* tesirako doktoretzako kurtsoa gauzatzen ari da. Mexiko-ko unibertsitate ezberdinetan lan egin du eta FAO-k babestutako Iniciativa América Latina y Caribe sin Hambre barnean Elikadura Eskubidearen Behatokiko Idazkaritza Teknikoko kidea izan da, Mexiko-ko Frente Parlamentario contra el Hambre-ko lankidea da.



## HERRI EPAIMAHAI

### Begoña Zabala González

Zuzenbidean lizentziaduna, langileen eta ordena publikoaren abokatua diktadura garaian eta honen ostean, Nafarroako gobernuko legeria eta azkenik LAB sindikatuko zuzenbide aholkularia izan da. Bizkaiko Emakumeen Asanblada sortu zenetik militante feminista, eta orain Nafarroako Koordinakunde Feministan eta Emakume Internazionalistak kolektiboan partaide da.





### **María Eugenia Rodríguez Palop**

María Eugenia R. Palop, zuzenbidearen filosofia, filosofia politikoa eta giza eskubideen irakaslea Madrilgo Carlos III Unibertsitatean, eta bertako “Bartolomé de las Casas” Giza Eskubideen Institutuko zuzendariordea.



### **Patricia Bárcena García**

Giza Eskubideen eta babes eskubidearen defentsan abokatu lanetan. CEAR-Euskadi erakundeko zuzendaria, abokatutza lanarekin bateragarri egiten duena, eta babes eskubidea eta atzerritartasuna ikasgaietan irakaslea. 2011ko abendua geroztik Bizkaiko Abokatu Elkargo Ohoretsuko Gobernu Batzordeko kidea, eta hemen bertan 2016ko abendutik dekanoorde moduan.



### **Janaína Strozake**

Nekazaria, MST-ko Hezkuntza Kolektiboko kidea, Baserritik Mundurako kordinazio politiko pedagogikoko partaidea eta irakaslea. Ikerlari eta irakasle lanetan honako gaietan: Elikadura burujabetza, agroekologia, gizarte mugimenduak, militantzia ikerketa, hezkuntza eta formakuntza metodologiak eta lankidetzak. Historialaria, Garaiko Historian eta Garapena eta Nazioarteko Lankidetzan graduondoa, eta Garapenari buruzko ikasketetan doktoregaia. 2017an *“El Año en que Morí por Primera Vez”* eleberria argitaratu du.



### **Yolanda Jubeto**

Ekonomian doktorea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea-n, eta bertan ekonomia graduan eta nazioarteko ekonomia eta ekonomia feminista buruzko zenbait graduondokotan ikasgai ezberdinen irakaslea da.



### **Júlia Martí Comas**

Garapenari buruzko Ikasketetan doktorea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea-n. Gaur egun Latinoamerikako Multinazionalen Behatokian (OMAL, gaztelarazko siglak) lan egiten du, giza eskubideetan eta demokrazian enpresa transnazionalak dituzten eraginen ikerketa kritikoetan buru-belarri. Euskal Herriko mugimendu feministako eta Botere Korporatiboa Eraisteko Nazioarteko Ekinaldiako partaidea ere bada.



### **Yayo Herrero López**

Gizarte eta Kultura Antropologian, Gizarte Hezkuntzan eta Nekazaritza Ingenieritza Teknikoan lizentziaduna. Madrilgo Complutense unibertsitateko, Ingurugiroaren ikerketa eta informazioa Complutense zentroko, sareko ezagutza eta jendarteratzea saileko arduraduna. Giza ekologiaren eta feminismoaren gaietan lan egiten du. FUHEM-go zuzendaria.



### **Aura Lolita Chávez**

Herri indigenen eskubideen defendatzailea da Guatemalan eta K'iche' Herrien Batzordeko (CPKko kidea) ordezkaria izan da, bai eta feminismo komunitarioetako Antzinako Sendatzaileen Sareko kide eta formatzailea ere.



Guatemalako Estatuaren aurka Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH) aurrean aurkeztu diren hainbat salaketetan eskatzaile zuzena izan da, bai eta enpresa transnazionalen aurka aurkeztutako nazioarteko beste salaketa batzuetan ere. Horrez gain, auzitegietan /audientzietan parte hartzen du meatze-enpresek kaltetutako emakumeen laguntzaile lanetan. Guzti honegatik, Lolita Chávezek mehatxuak, larderia, erasoak, hilketa-ahaleginak, kriminalizazioa eta judizializazioa jasan ditu. Guatemalako gobernuak, bere kabuz, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) defentsariari ezarri dizkion kautelazko neurriak kentzen saiatu da

**OHOREZKO TESTIGUAK**





**OHOREZKO TESTIGUAK**





